



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ERRUSIERAZKO PERPAUS ERLATIBOEN EUSKARATZEA

HIZKUNTZA-SISTEMATIK ITZULTZAILEAREN ESTILORA

Egilea: Iker Sancho Insausti

(iker.sancho@ehu.eus)

Zuzendariak:

Iván Igartua Ugarte doktorea

Nerea Madariaga Pisano doktorea

2015

© Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco (UPV/EHU)
- *Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Argitalpen Zerbitzua*
- University of the Basque Country - UPV/EHU Press
- ISBN: 978-84-9082-310-1

AURKIBIDEA

TRANSLITERAZIO ZIENTIFIKOA.....	ii
DIBULGAZIOZKO TRANSLITERAZIOA.....	iii
CORPUSA SORTZEKO ERABILITAKO EUSKARAZKO ITZULPENAK ETA TESIAN ERABILITAKO LABURDURAK.....	iv
EDUKIA.....	v-x
LABURPENA.....	xi-xiii
RESUMEN (LABURPENA GAZTELANIAZ).....	xiv-xvii
SUMMARY (LABURPENA INGELESEZ).....	xviii-xxi

TRANSLITERAZIO ZIENTIFIKOA

Corpusean zirilikoz emaniko adibideak transliteratzeko “Slavic and East European Journal”ek proposatutako tauletako eredua erabili da (Comrie-ren transliterazioa):

ZIRILIKOA	TRANSLITERAZIOA
Аа	a
Бб	b
Вв	v
Гг	g
Дд	d
Ее	e (je hitz-hasieran)
Ёё	ë
Жж	ž
Зз	z
Ии	i
Йй	j
Кк	k
Лл	l
Мм	m
Нн	n
Оо	o
Пп	p
Рр	r
Сс	s
Тт	t
Уу	u
Фф	f
Хх	x
Цц	c
Чч	č
Шш	š
Щщ	šč
Ъъ	''
Ыы	y
Ьь	'
Ээ	è
Юю	ju
Яя	ja

DIBULGAZIOZKO TRANSLITERAZIOA

Errusiar idazleen izenak eta idazlanak izendatzeko, berriz, Euskaltzaindiak bere 156. arauan proposatutako euskarazko transliterazioa hartu dugu eredutzat:

ZIRILIKOA	TRANSLITERAZIOA
Аа	a
Бб	b
Вв	v
Гг	g
Дд	d
Ее	e (ie bokal artean / je hitz-hasieran)
Ёё	o/io (jo: hitz-hasieran)
Жж	zh
Зз	z
Ии	i
Йй	i/ø
Кк	k
Лл	l
Мм	m
Нн	n
Оо	o
Пп	p
Рр	r
Сс	s
Тт	t
Уу	u
Фф	f
Хх	kh
Цц	ts
Чч	tx
Шш	x
Щщ	stx
Ъъ	∅
Ыы	y
Ьь	∅
Ээ	e
Юю	iu (ju hitz-hasieran)
Яя	ia (ja hitz-hasieran)

CORPUSA OSATZEKO ERABILI DITUGUN EUSKARAZKO IDAZLANAK

Andreiev, L., 2006, *Zazpi urkatuak*, Alberdania-Elkar (ZPU).

Babel, I., 2006, *Zalditeria gorria*. Alberdania (ZTG).

Bulgakov, M. A., 2001, *Txakur-bihotza*. Ibaizabal (TXB).

Dovlatov, S.D., 2008 *Konpromisoa*. Hiria (KONP).

Gogol, N. V., 1996, *Arima hilak*. Ibaizabal (ARH).

Gorki, M., 1995, *Ama*. Ibaizabal (AMA).

Kurkov, A., 2009, *Piknika izotzetan*. Alberdania (PIZ).

Lermontov, M.J., 1996, *Gure garaiko heroia*. Ibaizabal (GGH).

Platonov, A., 2009, *Lubakia*. Alberdania (LUB).

Puxkin, A.S., 1997, *Kapitainaren alaba*. Ibaizabal (KAP).

Turgeniev, I.S., 1999, *Aita-semeak*. Ibaizabal (AIS).

Xolokhov, M. A., 2007, *Don ibaiko ipuinak*. Alberdania (DII).

LABURDURAK

EP: ERLATIBOZKO PERPAUSA

IA: IZEN ARDATZA

ISE: IZEN SINTAGMA ERLATIBATUA

ST: SORBURU-TESTUA

SH: SORBURU-HIZKUNTZA

SK: SORBURU-KULTURA

XT: XEDE-TESTUA

XH: XEDE-HIZKUNTZA

XK: XEDE-KULTURA

EDUKIA

1. ERLATIBOZKO PERPAUSAK HIZKUNTZALARITZAREN IKUSPEGITIK.....	9
1.1. Erlatibakuntza-estrategiak munduko hizkuntzetan.....	9
1.2. Erlatibagarritasuna, erlatibagaiztasuna eta erlatibaezintasuna.....	15
1.2.1. Erlatibatze-eskala edo hierarkia: <i>Accessibility Hierarchy (AH)</i>	15
1.2.2. Subjektu-objektu asimetriak eta ergatibotasuna: hipotesi absolutiboa.....	17
1.2.3. Subjektu-objektu asimetriak eta hizkuntzaren prozesamendua.....	21
1.3. Errusieraren eta euskararen erlatibakuntza-sistemak: ondorioak.....	23
2. ERLATIBOZKO PERPAUSAK ITZULPENGINTZAREN IKUSPEGITIK.....	27
2.1. Itzulpengintza eta hizkuntzalaritza uztartzen.....	27
2.2. Itzulpengintza eta faktore estralinguistikoak ikuspuntu deskriptibo batetik.....	29
2.2.1. Polisistemen teoria.....	32
2.2.2. Toury-ren itzulpen-arauak.....	33
2.2.3. Itzultzailea eta idazlea: bi estilo, baita erlatibatzerakoan ere.....	36
II. KAPITULUA: METODOLOGIA.....	41
1. CORPUSAK ETA CORPUSGINTZA.....	41
2. CORPUS BIDEZKO ITZULPENGINTZA-IKERKETAK.....	41
3. EUSKARAZKO CORPUSGINTZA.....	44
3.1. Corpusgintza euskarazko erlatibakuntzari aplikatzen: aurrekariak.....	45
3.1.1. Koldo Biguriren <i>Erdarazko erlatiboan itzulpenaz</i>	46
3.1.2. Bittor hidalgoren bi corpus.....	47
3.1.2.1. <i>1994ko</i> corpusa.....	47
3.1.2.2. <i>Medikantza edo erriko jendeentzat osasun legeak eta Medikantzako argibideak</i>	48
3.1.2.3. Erlatibo arrunt aposatuak Hidalgoren bi corpusetan.....	48
3.1.2.4. <i>ZEIN</i> erlatiboak Hidalgoren bi corpusetan.....	50
3.1.2.5. <i>BAIT-</i> erlatiboak Hidalgoren bi corpusetan.....	51
III. KAPITULUA: ERRUSIERA-EUSKARA LITERATURA-CORPUSA.....	53
1. ERRUSIERA-EUSKARA LITERATURA-CORPUS PARALELOA: KATALOGOTIK CORPUSERA.....	53

1.1. Corpus ₀	53
1.1.1. 1982-1999.....	56
1.1.2. 2001-2009.....	58
1.2. Corpus ₁	59
1.3. Corpus ₂	62
2. ERRUSIERAZKO ERLATIBOAK GURE CORPUSEAN.....	63
2.1. Errusierazko erlatibatzaileak.....	63
2.1.1. Galdetzaileak vs. Erlatibatzaileak.....	65
2.1.1.1. Erlatibatzaileen arteko neutralizazioak.....	65
2.1.1.2. Komuntzadura eta deklinabide mailako aldaketak.....	68
2.1.2. Errusiar erlatibatzaileen sailkapena aurrekariaren izaeraren arabera.....	69
2.1.3. <i>Kotoryj</i>	71
2.1.4. <i>Koj</i>	76
2.1.5. <i>Kakoj</i>	78
2.1.6. <i>Kto</i>	80
2.1.7. <i>Čej</i>	83
2.1.8. <i>Čto</i>	84
2.1.8.1. <i>Čto</i> ₁	85
2.1.8.2. <i>Čto</i> ₂	86
2.1.9. Aditzondo erlatiboak.....	88
2.1.10. Aurrekaria perpaus oso bat denean.....	92
2.1.11. Errusierazko perpausen balio semantikoa erlatibatzaileen arabera.....	93
3. GURE CORPUSEKO ERRUSIERAZKO PERPAUSEN EUSKAL ORDAINAK.....	97
3.1. Izen ardatzaren ezkerretara hedatzen diren -(e)n erlatibo arruntak.....	98
3.1.1. Erlatibo arrunten erlatibatze-eskala.....	99
3.1.1.1. Kasu marka erlatibagarriak.....	101
3.1.1.2. Kasu marka erlatibagaitzak edo aditzaren argumentuei dagozkienak...102	
3.1.1.3. Erlatibo arruntekin erlatibaezinak diren kasu markak.....	105
3.1.2. Testuinguru erlatibagaitzetan erlatibo arrunten erabilera ahalbidetzeko bidea.106	
3.1.2.1. Azpikategorizazioa eta ezohiko erlatibakuntza-kasuak.....	107
3.1.2.2. Kasu paralelismoa.....	108
3.1.2.3. Izenordain erresuntiboen erabilpena.....	109
3.1.2.4. ISEri aditz komuntzadura izanaraztea.....	110
3.1.2.5. Leku-denborazko izen ardatza duten erlatibozko perpausei -ko atzizkia eranstea.....	112

3.1.3. Erlatibo arrunten balio semantikoa.....	114
3.1.4. Izen ardatzaren izaera erlatibo arruntetan.....	118
3.1.4.1. Izen arruntak.....	118
3.1.4.2. Izen bereziak.....	119
3.1.4.3. Izenordain mugagabeak.....	120
3.1.4.4. Izenordain pertsonalak.....	121
3.1.5. Izen ardatza isildurik daukaten erlatibo arruntak.....	121
3.2. Erlatibo jokatugabeak euskaraz.....	123
3.2.1. Erlatibo jokatugabeen hainbat ezaugarri orokor.....	123
3.2.2. Erlatibo jokatugabe arruntak.....	123
3.2.2.1. <i>-TA/-IK + -KO</i>	124
3.2.2.2. Erlatibo generiko jokatugabeak.....	126
3.2.2.3. Partizipio burutu hutsarekin osatutako erlatibo jokatugabe arruntak.....	127
3.2.3. Korrelaziozko erlatibo jokatugabeak.....	128
3.2.3.1. Korrelaziozko erlatiboen egitura.....	128
3.2.3.2. Korrelaziozko erlatiboen zenbait ezaugarri.....	129
3.2.4. Erlatibo jokatugabeen erlatibatze-eskala.....	129
3.2.5. Izen ardatzaren izaera erlatibo jokatugabeetan.....	132
3.2.6. Erlatibo jokatugabe arrunten kokapena izen ardatzarekiko.....	132
3.3. Erlatibo arrunt aposatuak.....	133
3.3.1. Erlatibo arrunt aposatuen erlatibatze-eskala.....	134
3.4. ZEIN/NON erlatiboak.....	135
3.4.1. Menderagailua <i>ZEIN</i> erlatiboetan.....	137
3.4.2. <i>ZEIN</i> izenordain erlatiboaren deklinabidea oro har eta gure corpusean.....	140
3.4.2.1. XVI. eta XVII. mendeetako idazle klasikoen erredua.....	140
3.4.2.2. XVII. mendeko bigarren erditik XIX. mendea arte.....	140
3.4.2.3. XIX. eta XX. mendeetako erredua.....	141
3.4.2.4. Gure corpuseko <i>ZEIN</i> erlatiboaren deklinabide-erredua.....	141
3.4.3. <i>ZEIN</i> erlatiboaren erlatibatze-eskala.....	144
3.4.4. <i>NON</i> galdetzailearekin ordezkatzeta.....	146
3.4.5. Aurrekariaren kokapena <i>ZEIN</i> erlatiboetan.....	147
3.4.6. <i>ZEIN</i> erlatiboaren balio semantikoa.....	148
3.5. BAIT-erlatiboak.....	149
3.5.1. Erlatibatze-eskala <i>BAIT-</i> erlatiboetan.....	149
3.5.2. <i>BAIT-</i> erlatiboak eta kausazko perpausak.....	151

3.6. Bestelako erlatibozko perpausak.....	153
3.6.1. Korrelaziozko erlatibozko perpausak.....	153
3.6.2. Aurrekaririk gabeko izenordaina dutenak.....	153
3.6.3. Aurrekaria perpaus oso bat denean.....	154
IV. KAPITULUA: CORPUSEKO EMAITZEN ANALISIA.....	155
1. CORPUSEKO PERPAUSEN SAILKAPEN OROKORRA.....	156
1.1. Ordain erlatiboak.....	156
1.2. Ordain ez-erlatiboak.....	158
1.2.1. <i>Parataxia</i>	161
1.2.2. <i>Hipotaxia</i>	162
1.2.3. <i>Simplifikatzea</i>	163
2. CORPUSEKO DATUEN SAILKAPENERAKO IRIZPIDE MOTA DESBERDINAK: HIZKUNTZA-SISTEMA VS. ITZULTZAILEAREN ESTILOA.....	165
3. HIZKUNTZA-SISTEMAK ITZULPEN-PROZESUAN DUEN ERAGINA NEURTZEN...167	
3.1. Perpausen sailkapena ISEren posizio sintaktikoaren arabera.....	167
3.1.1. Ordain erlatiboak eta ISEren posizio sintaktikoa.....	171
3.1.1.1. ISEren posizio sintaktikoa eta ardatzaren ezkerretarako erlatiboak.....	173
3.1.1.2. ISEren posizio sintaktikoa eta erlatibo aposatuak.....	174
3.1.2. Ordain ez-erlatiboak eta ISEren posizio sintaktikoa.....	180
3.1.3. ISEren posizio sintaktikoaren araberako irizpidea: ondorioak.....	182
3.2. Perpausen sailkapena errusierazko erlatibatzaileen arabera.....	184
3.2.1. Ordain erlatiboak eta erlatibatzaileak.....	187
3.2.1.1. Erlatibatzaileak eta ardatzaren ezkerretarako erlatiboak.....	187
3.2.1.2. Erlatibatzaileak eta erlatibo aposatuak.....	189
3.2.2. Ordain ez-erlatiboak eta erlatibatzaileak.....	193
3.2.3. Errusierazko erlatibatzaileen euskaratzea: ondorioak.....	195
3.3. Irizpide linguistikoak aplikatetik lortutako emaitzen garrantzia.....	195
4. ITZULTZAILEAREN ERLATIBAKUNTZA-ESTILOAK ITZULPEN-PROZESUAN DUEN ERAGINA NEURTZEN.....	196
4.1. Errusiar idazleen erlatibakuntza-estiloa: analisi kuantitatibo baterako saiakera.....	199
4.1.1. Errusiar idazleak eta ISEren posizioa.....	206
4.1.2. Errusiar idazleak eta erlatibatzaileak.....	209
4.1.3. Errusiar idazleen erlatibakuntza-estiloa: ondorioak.....	211

4.2. Gure corpuseko euskal itzultzaileak	211
4.3. Euskal itzultzaileak eta ordain erlatiboak	216
4.3.1. A itzultzailea eta ordain erlatiboak.....	218
4.3.1.1. A itzultzailea eta ardatzaren ezkerretarako erlatiboak.....	218
4.3.1.2. A itzultzailea eta erlatibo aposatuak.....	220
4.3.1.3. A itzultzailea eta errusiar idazleen erlatibakuntza-estiloa ordain erlatiboetan.....	222
4.3.2. B itzultzailea eta ordain erlatiboak.....	224
4.3.2.1. B itzultzailea eta ardatzaren ezkerretarako erlatiboak.....	225
4.3.2.2. B itzultzailea eta erlatibo aposatuak.....	226
4.3.2.3. B itzultzailea eta errusiar idazleen erlatibakuntza-estiloa.....	227
4.3.3. D-E itzultzaileak eta ordain erlatiboak.....	228
4.3.3.1. D-E itzultzaileak eta ardatzaren ezkerretarako erlatiboak.....	230
4.3.3.2. D-E itzultzaileak eta erlatibo aposatuak.....	231
4.3.3.3. D-E itzultzaileak eta errusiar idazleen erlatibakuntza-estiloa ordain erlatiboetan.....	232
4.3.4. Euskal itzultzaileak eta ordain erlatiboak: ondorioak.....	233
4.4. Euskal itzultzaileak eta ordain ez-erlatiboak	234
4.4.1. A itzultzailea eta ordain ez-erlatiboak.....	236
4.4.2. A itzultzailea eta errusiar idazleen erlatibakuntza-estiloa ordain ez-erlatiboetan.....	237
4.4.3. B itzultzailea eta ordain ez-erlatiboak.....	239
4.4.4. B itzultzailea eta errusiar idazleen erlatibakuntza-estiloa.....	240
4.4.5. D-E itzultzaileak eta ordain ez-erlatiboak.....	241
4.4.6. D-E itzultzaileak eta errusiar idazleen erlatibakuntza-estiloa ordain ez-erlatiboetan.....	242
4.4.7. Euskal itzultzaileak eta ordain ez-erlatiboak: ondorioak.....	243
4.5. Euskal itzultzaileak eta ISEren posizio sintaktikoa	244
4.5.1. Euskal itzultzaileak eta ISEren posizio sintaktikoa: ordain erlatiboak.....	246
4.5.1.1. Ardatzaren ezkerretarako erlatiboak: A itzultzailea.....	247
4.5.1.2. Ardatzaren ezkerretarako erlatiboak: B itzultzailea.....	248
4.5.1.3. Ardatzaren ezkerretarako erlatiboak: D-E itzultzaileak.....	249
4.5.1.4. Erlatibo aposatuak.....	250
4.5.1.4.1. Erlatibo arrunt aposatuak.....	252
4.5.1.4.2. <i>ZEIN/NON</i> erlatiboak.....	254

4.5.1.4.3. <i>BAIT</i> - erlatiboak.....	256
4.5.2. Euskal itzultzaileak eta ISEren posizio sintaktikoa: ordain ez-erlatiboak.....	258
4.5.3. Euskal itzultzaileak eta ISEren posizio sintaktikoa: ondorioak.....	263
4.6. Euskal itzultzaileak eta errusierazko erlatibatzaileak.....	264
4.6.1. Euskal itzultzaileak eta errusierazko erlatibatzaileak: euskal ordain erlatiboak.....	265
4.6.1.1. Euskal itzultzaileak eta errusierazko erlatibatzaileak: ardatzaren ezkerretarako erlatiboak.....	265
4.6.1.1.1. <i>Kotoryj</i> eta aditzondoak.....	265
4.6.1.1.2. <i>Kto, čto₁, čto₂, kakoj</i>	266
4.6.1.2. Euskal itzultzaileak eta errusierazko erlatibatzaileak: erlatibo aposatuak.....	268
4.6.1.2.1. Erlatibo arrunt aposatuak.....	268
4.6.1.2.2. <i>ZEIN/NON</i> erlatiboak.....	270
4.6.1.2.3. <i>BAIT</i> - erlatiboak.....	271
4.6.2. Euskal itzultzaileak eta errusierazko erlatibatzaileak: euskal ordain ez-erlatiboak.....	273
4.6.2.1. <i>Kotoryj</i> eta aditzondo erlatiboak.....	274
4.6.2.2. <i>Čto₁, čto₂, kto, kakoj</i>	276
4.6.3. Euskal itzultzaileak eta errusierazko erlatibatzaileak: ondorioak.....	281
4.7. Euskal itzultzaileei eginiko inkesta.....	282
4.7.1. Euskal itzultzaileei eginiko inkestatik atera daitezkeen ondorioak.....	287
TESIAREN ONDORIOAK.....	293
BIBLIOGRAFIA.....	307
I. ERANSKINA.....	315

LABURPENA

Errusierazko perpaus erlatiboak itzultzean euskal itzultzaileek horiei ematen dizkieten ordainak ez dira beti berberak izaten. Tesi honen helburua atzeman dugun aldakortasun horretan eta itzultzailearen hautuetan eragin dezaketen faktore esanguratsuenak identifikatzea eta azaltzea da.

Itzulpen-prozesuan eragiten duten faktoreak linguistikoak edo estralinguistikoak izan daitezke. Lehendabizikoak sorburu-hizkuntzaren eta xede-hizkuntzaren sistema gramatikalen elkarrekintzak inposaturikoak dira. Bigarrenek itzultzailearen estiloaren – iritzien, joeren, ideologiaren– analisia dute ardatz.

Gure burua itzulpengintza-ikerketen gaineko ikuspuntu deskriptiboan kokatzen dugunez, helburua ez da izan aztertutako itzulpenen onargarritasuna edota jatorrizkoarekiko leialtasun-maila epaitzea, baizik eta itzultzaile desberdinek errusierazko erlatibakuntza nola euskaratu duten ikusi eta modu horretan lortutako datuak faktore linguistikoek edo/eta estralinguistikoek baldintzatu ote duten argitzea.

Tradizioak itzultzaileari sorburu-testuaren “eroale” huts izateko funtzioa soilik aitortzen zion. Ikuspuntu horren arabera, itzultzaileak bere egiletza salatuko lukeen estilo pertsonalaren arrastorik txikiena ekidin behar zuen. *Polisistemen teoriak* xede-hizkuntza eta xede-kultura –alegia, itzulpenari harrera egiten dion komunitatea– itzulpen-ikerketen ardatz bihurtu zituenetik (Even-Zohar 1978, 1990), eta azken hamarkadetako itzulpengintza-ikerketak deskriptiboek esker (Toury 1980; Hermans, 1996, 2013), itzultzailearen ikusezintasun derrigortua gainditzea lortu da.

Horretarako biziki lagungarria izan da corpusgintzaren garapena ere, itzulpengintza-ikerketen ezinbesteko elementu bihurtzeraino hedatu baitira (Baker 1992, 1993, 1995, 1996, 2000; Laviosa 1997; Olohan 2004; Johansson 2007). Corpus mota desberdinen agerpenak –bereziki itzultzailearen estiloarekin lotutako fenomeno jakinak jasotzen dituztenenak– itzultzaileen jarduna bere osotasunean aztertzea ahalbidetu dute.

I. kapituluaren perpaus erlatiboak hizkuntzalaritzaren eta itzulpengintza-ikerketen ikuspuntutik aztertu ditugu, faktore linguistikoen eta estralinguistikoen eragin-eremuak zehaztu ahal izateko.

Hizkuntzalaritzaren ikuspuntutik, erlatibagarritasuna, erlatibatze-eskala, hizkuntza-prozesamendua eta ergatibotasuna bezalako ezaugarriek errusierazko eta euskarazko erlatibakuntza-sistemen arteko elkarrekintzan duten eragina aztertu dugu. Bi hizkuntza hauen oinarriko erlatibakuntza-estrategiak desberdinak dira. Errusiera izenordain erlatiboaren estrategiaz baliatzen da, eta mendeko EP aposatuta agertzen da. Euskararen erlatibakuntza-sistemak, aldiz, bi aurpegi ditu: oinarriko estrategia hutsunearen (*gap*)

estrategia da, non mendeko EPn ez dagoen ardatzaren ageriko erreferentziarik, erlatiboa ardatzaren ezkerretara hedatzen delarik. Aldi berean, ordea, euskarak erlatiboak aposatzeko gaitasuna ere badu (*ZEIN/NON* erlatiboak), nahiz eta estrategia hori, bestearen aldean, markatuagoa izan.

Itzulpengintza-ikerketei dagokienez, hizkuntzalaritzarekin duten harremanari buruz hausnartu eta ikuspuntu deskriptiboa aurkeztu dugu (*Polisistemen teorian*, Toury-ren arauetan eta itzultzailearen estiloan islatzen dena).

II. kapituluaren corpus bidezko metodologia aurkeztu dugu. Bertan, corpusgintzak itzulpengintza-ikerketetan izandako ibilbidea, eta azkenaldian hartu duen garrantzia aipatu eta euskarazko erlatibozko perpausak itzulpengintzarekin eta corpusgintzarekin uztartu dituzten bi aurrekari aurkeztu ditugu: Biguri eta Hildagoren lanak (Biguri 1994; Hidalgo 2002a, 2002b, 2003, 2004).

III. kapituluaren errusiera-euskara literatura-corpus paraleloa aurkeztu eta deskribatu dugu, berau osatzeko erabilitako irizpideak eta prozedura azalduz. Atal hau baliatu dugu, halaber, errusierazko eta euskarazko erlatibakuntza-sistemak luze eta zabal aztertzeke, adibide guztiak –bai hizkuntza batekoak eta bai bestekoak– corpusetik bertatik atera ditugularik.

IV. kapituluaren corpuseko emaitzen analisi xehe bat burutu dugu, honek eskaintzen dituen datuak faktore linguistikoekin (sintaxia, morfologia) eta estralinguistikoekin (errusiar idazleen eta euskal itzultzaileen erlatibakuntza-estiloa) arabera sailkatuz.

Gero, itzultzaile bakoitzaren emaitzei ere irizpide linguistikoak aplikatuta, hizkuntzaren eraginaren eta itzultzaileen estiloaren arteko banaketa finagoa egitea lortu dugu.

IV. kapituluaren amaierako eranskin batean, corpusean sartu diren literatura-lanak itzuli dituzten euskal itzultzaileei luzatutako inkestaren emaitzak aurkeztu eta tesian zehar ondorioztatutakoarekin alderatzeko erabili ditugu.

Azkenik, tesiaren ondorioen atalean, bertan landutakoa laburbildu eta lortutako ondorioak ikus daitezke.

Garbi geratu da euskal itzultzaile batek errusierazko perpaus erlatibo bat itzultzen duenean bi gauza egin ditzakeela: erlatibakuntza mantendu edo erlatibakuntza ezabatu.

Erlatibakuntza mantentzen den kasuetan, euskaraz erlatibo arrunta, jokatu gabea, arrunt aposatua, *ZEIN/NON* erlatiboa edo BAIT- erlatiboa izan daiteke.

Erlatibakuntza ezabatzen denean hiru gauza gerta daitezke: *parataxiaz* baliatzea (errusierazko perpaus erlatiboa bi zati edo gehiagotan banatzen da, haien artean nolabaiteko etena sartzen delarik); *hipotaxiaren* alde egitea (erlatibozko mendeko perpausa

beste mendeko perpaus mota batez ordezkutzen da) eta guk *sinplifikatzea* deitu duguna (predikazioa perpaus mailatik sintagma mailara igaroaraziz, perpaus elkartua zena perpaus bakun bihurtzen delarik).

Corpuseko euskal ordain mota guzti horiei sailkapen-irizpide linguistikoa eta estralinguistikoak aplikatuta, ondorioztatu dugu bai faktore linguistikoek eta bai estralinguistikoek eragiten dutela errusierazko erlatibakuntzaren euskaratze-prozesuan, baina bakoitzak modu jakin batean:

(i) Errusierazko erlatibakuntza mantentzen den kasuetan –alegia, itzultzaileek errusierazko erlatiboan euskal ordaintzat erlatibo bat osatzen dutenean– itzultzaile bakoitzari erlatibakuntza-estilo propio bat atzeman diogu; hots, itzultzaile bakoitzaren erlatibakuntza-estiloa zehazteko testuingururik egokiena euskarazko erlatibakuntza erabiltzeko duten moduak eskaintzen digu, burutu ditugun sailkapen guztietan joera jakin batzuk errepikatzen direlako: itzultzaileetako batek ardatzaren ezkerretarako erlatibo arruntak erabiltzeko joera argia duen bitartean, beste bik (biek batera nahiz bietako batek bakarka itzultzean) erlatibo aposatuen ezohiko proportzio altua erakusten dute. Hirugarren itzultzaileari, berriz, bi mutur horien artean kokaturiko jarrera orekatuago eta kontrolatuago bat atzeman diogu.

(ii) Bestelakoa da egoera itzultzaileek euskarazko testuan errusierazko erlatibakuntza ezabatzeko hautua egiten dutenean; alegia, errusierazko perpaus erlatibo bati euskaraz erlatibozkoa ez den baliabide bat dagokionean. Kasu horretan, burututako sailkapenetan ez dugu itzultzaileen artean desberdintasun nabarmenik topatu. Horrek iradokitzen digu erlatibakuntzaren ezabaketa gertatzea ez dagoela hainbeste itzultzailearen estilo propio baten menpe, eta esanguratsuagoak direla kasu honetan faktore linguistikoak, itzultzailearen kontrolpean ez dauden heinean, guztiei berdin eragiten dietenak direlako.

RESUMEN

En el proceso de traducción de las construcciones de relativo del ruso al euskera, los medios utilizados por los traductores vascos no siempre son los mismos. El objetivo de esta tesis consiste en identificar y explicar los factores más relevantes que influyen tanto en dicha variabilidad como en las decisiones de los traductores.

Los factores que condicionan el proceso de traducción pueden ser lingüísticos y extralingüísticos. Los primeros son aquellos que son impuestos por la propia interacción entre los sistemas gramaticales de la lengua de origen y la de destino. Los segundos hacen referencia principalmente al estilo –opiniones, tendencias, ideología– del traductor.

Puesto que esta tesis se enmarca en una línea descriptiva de los estudios de traducción, nuestra finalidad no consiste en juzgar la aceptabilidad o el grado de fidelidad de la obras traducidas a las versiones originales; nuestra intención es, más bien, observar cómo ha solventado cada traductor vasco la tarea de verter los relativos rusos al euskera, para poder dirimir si dichas decisiones están condicionadas por factores lingüísticos o extralingüísticos.

Tradicionalmente el traductor ha sido visto como un mero hilo conductor del texto original. Según esa visión, el traductor debía evitar por todos los medios cualquier rastro de un estilo de escritura propio que pudiera llevar a desvelar su “autoría”. La *Teoría de los Polisistemas* (Even-Zohar 1978, 1990), las normas de traducción de Toury y, en general, la proliferación de los estudios descriptivos de traducción (Toury 1980; Hermans, 1996, 2013) han contribuido a superar esa “invisibilidad” a la que se había visto condenado el traductor hasta entonces.

Asimismo, ha servido de gran ayuda el ingente desarrollo de todo tipo de corpus aplicados a los estudios de traducción (Baker 1992, 1993, 1995, 1996, 2000; Laviosa 1997; Olohan 2004; Johansson 2007). La aparición de una amplia variedad de corpus han dotado a los estudiosos de la traducción de herramientas imprescindibles para analizar el trabajo de los traductores y, en especial, algunos aspectos muy específicos del estilo individual de cada uno de ellos.

En el primer capítulo hemos analizado las oraciones de relativo desde el punto de vista tanto de la lingüística como de los estudios de traducción, para poder delimitar lo mejor posible el ámbito de actuación de los factores lingüísticos y extralingüísticos.

Desde el punto de vista lingüístico, hemos examinado la influencia que ejercen elementos como la capacidad de relativizar determinadas posiciones sintácticas, el procesamiento lingüístico y la ergatividad en la interacción de los sistemas de relativización

ruso y vasco. Las estrategias principales de relativización son diferentes en una lengua y otra.

El procedimiento ruso habitual consiste, al igual que todas las lenguas de nuestro alrededor, en formar los relativos mediante un pronombre relativo que aparece en la oración subordinada, normalmente al principio de ésta. Además, la oración subordinada es posnominal.

En cambio, el procedimiento principal del euskera consiste en una oración subordinada sin pronombre ni referencia explícita alguna al antecedente, siendo la oración subordinada prenominal. No obstante, el euskera posee una peculiaridad que es vital para nuestra investigación: debido (probablemente) a un contacto prolongado con lenguas de su entorno, ha desarrollado un tipo de oración relativa posnominal con pronombre y, de carácter marcado y muy discutido históricamente, aunque se puede decir que actualmente está aceptado y gozan de cierta indulgencia en registros escritos y, en general, en estilos elevados.

En cuanto a los estudios de traducción, en este trabajo reflexionamos sobre la relación entre éstos y la lingüística a la vez que presentamos brevemente las características de los estudios descriptivos de traducción.

En el segundo capítulo presentamos la metodología basada en corpus, analizando la trayectoria que ha tenido y la importancia que ha cobrado en los últimos años en el marco de los estudios de traducción. Asimismo, llamaremos la atención sobre dos trabajos que han precedido al nuestro en combinar el estudio de los relativos vascos con una metodología basada en corpus (Biguri 1994; Hidalgo 2002a, 2002b, 2003, 2004).

En el tercer capítulo presentamos y describimos el corpus paralelo de traducción ruso-euskera de textos literarios, a la vez que explicamos los criterios de clasificación y los procedimientos utilizados para su elaboración. Hemos aprovechado también este apartado para contraponer los sistemas de relativización de ruso y euskera, pero esta vez ilustrados con ejemplos extraídos de nuestro propio corpus.

En el cuarto capítulo hemos realizado un análisis exhaustivo de los datos ofrecidos por el corpus, clasificando los resultados según criterios lingüísticos (sintaxis, morfología) y extralingüísticos (estilo individual de escritores rusos y traductores vascos).

Luego, el cruce de los resultados relativos a los traductores con criterios lingüísticos ha posibilitado establecer una línea más nítida entre factores lingüísticos y extralingüísticos.

En un anexo al final del capítulo IV hemos adjuntado los resultados de un pequeño cuestionario al que han tenido la bondad de responder los traductores vascos de las obras

incluidas en el corpus. De esta forma hemos podido saber su opinión sobre la propia manera de traducir los relativos rusos al euskera, tras lo cual hemos analizado los resultados de la encuesta, comparándolos brevemente con los resultados que habíamos obtenido previamente a partir de los datos arrojados por el corpus.

Finalmente, en el apartado de conclusiones, se resume y analiza todo lo tratado durante la tesis.

De esta tesis se desprende que cuando un traductor vasco vierte una oración de relativo el ruso al euskera, pueden ocurrir dos cosas: que se mantenga el carácter de relativo en el texto traducido o, por el contrario, que se sustituya por una estructura equivalente no-relativa.

En los casos en los que se mantiene la relativización en euskera, los relativos pueden ser de cinco tipos, con una diferenciación que se apoya en dos criterios básicos: la estrategia principal, siendo ésta sin pronombre relativo además de prenominal y la estrategia en la que figura un pronombre relativo, y es, además, posnominal (coincidente con la estrategia del ruso y de la práctica totalidad de las lenguas de nuestro entorno).

En aquellos casos en los que se elimina la relativización, pueden ocurrir tres fenómenos: la *parataxis* (la oración compuesta rusa se reparte en dos o más oraciones en euskera, interrumpidas con un signo ortográfico u otros procedimientos); la *hipotaxis* (consistente en sustituir la oración subordinada de relativo por otro tipo de subordinación; una oración concesiva, causal, temporal...) y lo que hemos llamado *simplificación* (donde la predicación pasa del nivel oracional al sintagmático, convirtiendo en oración simple lo que era una oración compuesta subordinada).

Tras aplicar los criterios lingüísticos y extralingüísticos de clasificación a todas las correspondencias vascas del corpus, hemos concluido que tanto unos como otros son relevantes en el proceso de traducción de los relativos rusos al euskera, aunque difieren en la forma en la que intervienen en dicho proceso:

(i) En los casos de mantenimiento de la relativización –cuando a un relativo ruso le corresponde un relativo vasco– hemos podido identificar nítidamente tres estilos individuales de relativización, dos extremos y uno intermedio:

Uno de los traductores (el traductor B) muestra una clara tendencia a utilizar la estrategia de relativización principal del euskera y raramente utiliza los relativos posnominales con pronombre relativo.

Otros dos traductores (los que hemos llamado D y E), traducen dos libros conjuntamente, pero después la traductora E realiza una traducción por su cuenta.

Esto dos traductores, tanto cuando traducen conjuntamente como cuando traduce E por su cuenta, muestran una tendencia inusual a formar este tipo de oraciones mediante una construcción posnominal con pronombre relativo.

Finalmente, el cuarto traductor (el traductor A) ofrece datos que lo sitúan consistentemente a medio camino entre ambos extremos reflejados en los datos del resto de traductores, dando la impresión de una actividad más equilibrada así como de un mayor control sobre el proceso de traducción.

(ii) En los casos en los cuales el traductor opta por eliminar la relativización y sustituirla por otros tipos de estructuras, el diagnóstico es diferente: en las clasificaciones realizadas no hemos obtenido datos que nos permitan constatar discrepancias entre los diferentes traductores, lo cual nos sugiere que la eliminación de la relativización y su sustitución por otras estructuras durante el proceso de traducción no se rige por diferencias en el estilo individual de los traductores, sino por factores lingüísticos comunes, que afectan por igual a todos ellos.

SUMMARY

It is a well-established fact that Basque translators do not always translate relative constructions into Basque as relative clauses. This is also true for those who translate Russian literature into Basque; they sometimes preserve the original relative construction, but often replace it with some alternative construction. Thus, the main goal of this dissertation is to identify the relevant factors that are responsible for this variety of correspondences, and to account for the translators' decision-making process.

In other words, in this thesis, we answer the following question: which are the relevant factors that determine the way in which Russian relative constructions are translated into Basque?

The factors, which determine translation processes, can be linguistic or extra-linguistic. The former are due to the interaction between the grammatical systems of the source language and the target language; the latter ones are determined by the translator's stylistic and ideological background (linguistic assumptions, fashions, etc).

For the purposes of the present work, we adopt the framework of descriptive translation studies. Thus, our aim is not to assess the quality of a given translation or verify its fidelity with respect to the original, but to analyse how Basque translators actually translate Russian relative constructions, in order to elucidate which factors condition most those translations: the linguistic ones or the extra-linguistic ones.

Traditionally, the translator was assumed to be a mere link between the source language and the target language. The fidelity of the translation with respect to the original text was almost the only conceivable goal of a translation, and therefore, the translator was expected to become "invisible". (S)he had to leave no trace of his/her own individual style.

Later on, Even-Zohar's "Polysystem theory" turned the spotlight on the target language and the target culture in translation studies (Even-Zohar 1978, 1990). The development of descriptive translation studies in the last decades (Toury 1980; Hermans, 1996, 2013) excluded "invisibility" as a requirement to be a good translator.

Corpus-based research became an essential element in translation studies (Baker 1992, 1993, 1995, 1996, 2000; Laviosa 1997; Olohan 2004; Johansson 2007). The introduction of corpora in translation studies, especially those corpora devoted to specific linguistic and stylistic aspects, made possible a more refined analysis of the style of individual translators.

In Chapter 1, we analyse relative clauses from the point of view of linguistics as well as from the perspective of translation studies, in order to determine the impact of linguistic and extra-linguistic factors in the translation process.

In the first place, we examine the role that different linguistic properties, such as the ability to relativize certain syntactic positions –the so-called “Accessibility Hierarchy”–, language processing, and ergativity play in the interaction between the Basque and the Russian system of relative constructions.

Of course, these two languages differ regarding the formation of relative clauses. In Russian, relative clauses resort to the relative pronoun strategy, according to which “the position relativized is indicated inside the relative clause by means of a clause-initial pronominal element, and this pronominal element is case-marked (by case or by an adposition) to indicate the role of the head noun within the relative clause” (Comrie/Kuteva 2005: 4).

On the other hand, Basque displays a different relativizing strategy; the so-called “gap strategy”, which “involves cases where there is no overt case-marked reference to the head noun within the relative” (Comrie/Kuteva 2005: 8). However, Basque can also build relative constructions by means of a clause-initial relative pronoun. This relativizing strategy is stylistically marked and has always been a matter of controversy among the Basque-speaking population; nonetheless, this construction has achieved a significant level of acceptability for many speakers of Basque, mostly in written texts.

The last part of Chapter 1 is devoted to the relationship between translation studies and linguistics, and offers a descriptive review of some crucial concepts in translation studies, namely, the “Polisystem Theory”, Toury’s norms, and several notions about the translator’s individual style.

In Chapter 2, we introduce the methodology of corpus-based research. Here we describe the development of this methodology and its relevance in modern translation studies. The last part of the chapter reviews two previous studies on the translation of Basque relative constructions, based on parallel corpora (Biguri 1994; Hidalgo 2002a, 2002b, 2003, 2004).

In Chapter 3, we introduce our own Russian literature parallel corpus, describing the methodology and designing criteria chosen for this particular corpus. In this chapter, relative clauses in Russian and Basque are described with the help of specific examples extracted from our parallel corpus.

Chapter 4 is an exhaustive analysis of the parallel corpus. Here we present the results of this analysis distinguishing, on the one hand, linguistic (syntactic, morphological) factors and, on the other hand, non-linguistic factors (stylistic peculiarities of Russian writers and Basque translators).

After that, we cross-check the results obtained from linguistic factors and those obtained from non-linguistic factors, and determine the role of the linguistic system and the translator's individual style in the translation process.

In Chapter 4, we provide a survey, in which Basque translators of Russian literature, all of them included in our corpus, answer to questions about the way in which they translate Russian relative clauses into Basque. The answers to this survey are compared with the results obtained from the analysis of the data in the corpus.

In the last chapter, we present the conclusions and summarize the results obtained in this dissertation.

The first and most evident conclusion is that a translator translating a Russian relative construction into Basque has two options: to preserve the original relative structure or to discard it and choose an alternative construction.

When the Russian relative structure is preserved in Basque, five different types of relative clauses are available to the translator; we classify them into two major types: the gap strategy and the relative pronoun strategy.

On the other hand, when the original relative clause is rejected, three different alternative structures are available to the translator: (i) *parataxis*, whereby a Russian relative construction splits into two or more independent clauses; (ii) *hypotaxis*, the replacement of relativization by some other type of subordination; and (iii) what we call *simplification*, a predication shift from sentence level to NP level, yielding the effect that a biclausal construction becomes a monoclausal one.

After applying all these linguistic and non-linguistic criteria to the observed correspondences between Russian relative constructions and their Basque counterparts, we conclude that both types of factors are relevant for the translation process under analysis. However, these factors differ in how they affect this process:

(i) When the original relative clause is maintained, i.e. when Basque translators choose a relative construction as a correspondence for a Russian relative clause, we find that the determining factor is the individual style characteristic of each translator. Under these conditions, the translators' peculiar style is steadily consistent, no matter the specific criterion applied each time. This suggests that, when a translator makes a choice among the different relativizing strategies existing in Basque, the most relevant factor determining that choice is the translator's style.

Thus, one of the four Basque translators (Translator B) has a strong tendency to use the gap relativizing strategy, and hardly resorts to the relative pronoun strategy.

Translators D and E show an unusually high rate of clauses including a relative pronoun. Translators D and E worked together on two of the translations, and later on, Translator E translated individually another book.

The fourth translator, Translator A, represents a third way, halfway between the preferences displayed by the other translators; he shows a more balanced and controlled use of Basque relative constructions. Although he uses mainly the gap relativizing strategy, he also displays the relative pronoun strategy, remarkably more often than Translator B but significantly less often than Translators D and E.

(ii) As for those cases in which Basque translators replace the Russian relative clause with an alternative construction, the situation is the reverse; in this type of Basque correspondences we cannot identify any relevant or differential discrepancy between the individual choices made by each translator. This fact suggests that the replacement of relative clauses in the translation process is not governed by the individual style of the translators. Quite the opposite, linguistic factors, which are out of the translators' control, determine their choices in this case.

SARRERA

Tesi honen helburu nagusia errusierazko perpaus erlatiboak euskarara itzultzeko prozesuan eragiten duten faktoreen artean erabakigarrienak zeintzuk diren finkatzea da.

Tesia hizkuntzalaritzak eta itzulpengintzak partekatzen duten eremu batean kokatzen da: lehendabizikoaren aztergai nagusia hizkuntza den bitartean, bigarrenak itzulpen-prozesu guztia hartzen du bere baitan, nola hizkuntza hala hizkuntzaz kanpoko elementuak.

Hizkuntza itzulpen-prozesuaren ezinbesteko tresna dela bistakoa den hein berean da eztabaidaezina bestelako faktore batzuek ere gobernatzen dutela itzulpen-prozesua; hala nola, sorburu-testuaren (ST) idazlearen estiloa eta garaia, baina baita, besteak beste, xede-testuaren (XT) egilearen –alegia, itzultzailearen– estiloa edota itzulitako testuari harrera egiten dion komunitatearen literatura-sistema, *Polisistemen teoriak* (Even-Zohar 1978, 1990), nahiz azken hamarkadetako beste itzulpengintza-ikerketak deskriptiboek (Touy 1980; Hermans, 1996, 2013) garbi utzi duten moduan.

Hizkuntzalaritzaren eta itzulpengintzaren arteko harremanak aspaldidanik bereganatu izan du ikerlarien arreta. Hasieran itzulpengintzaren inguruko ikerketak fenomeno linguistikoak ikertzeko baliabide soil bat izan baziren, 50eko hamarkadatik aurrera zenbait ikerlarik itzulpen-prozesua bera hartu zuten ikergaitzat (Firth 1956; Catford 1965; Nida 1964, 1975; Wilss 1977, 1982). Aldaketa horrek paper-trukaketa bat ekarri zuela esan daiteke, itzulpengintza-ikerketen testuinguruan beti ere: hizkuntza, ikerketak guztien helburu izatetik, itzulpen-prozesua aztertzeko baliabideetako bat bihurtzera eraman zuten. Baliabiderik garrantzitsuena, hori bai.

Itzulpengintza-ikerketen izaerak diziplina arteko jakintza-alorra izatea dakar ezinbestean, kontuan izan beharreko faktoreen aniztasuna oso handia baita. Horregatik, gure ikerketaren eraginkortasunaren mesedetan, ikerketa-eremua ahalik eta zehatzen mugatzen saiatu gara.

Tesi honetarako perpaus erlatiboak aukeratzeko arrazoiak ere asko eta anitzak izan dira.

Beren konplexutasuna dela bide, hizkuntzalaritzaren baitan oso ikertuak izan dira perpaus erlatiboak. Beraz, itzulpen-prozesuan zehar itzultzaileak STko erlatiboak nola prozesatzen dituen, eta XTra nola isurtzen dituen aztertzeko ezinbestekoa izango da hizkuntzalaritzak horri buruz eskaintzen digun marko teorikoa kontuan izatea.

Bestalde, itzulpen-prozesuaren edozein ikerketak, definizioz, gutxienez bi hizkuntza aztertu behar dituzenez, hizkuntza horien erlatibakuntza-sistemekin bi gauza gerta daitezke:

sorburu–hizkuntzaren eta xede-hizkuntzaren erlatibakuntza-sistemak antzekoak (edo berdinak) izatea edota batetik bestera alde handia egotea.

Bigarren kasua da, hain zuzen, errusieraren eta euskararen erlatibakuntza-sistemak kontrajartzen ditugunean topatzen duguna, desberdintasun esanguratsuak baitaude bien artean; hala nola, hitz-ordena, erabilitako erlatibakuntza-estrategiak edota baliabide morfosintaktikoak.

Errusierak, hein batean zein bestean, eslaviar taldeko kide guztiek partekatzen duten oinarrizko erlatibakuntza-estrategia erabiltzen du: erlatiboazko perpausak izenordain erlatibo baten bidez osatzen dira, horrela osatutako mendeko perpaus erlatiboak izen ardatzaren eskuinetara hedatzen direlarik. Azken finean –ezaugarri espezifiko batzuk gorabehera–, gure inguruko hizkuntza guztietatik ezagutzen dugun erlatibakuntza-estrategia da hau: *el hombre [que/el cual ha venido]; the man [who has come], der Man, [der gekommen ist]; l’homme [qui est venu]...*

Gutziz bestelakoa da euskararen kasua. Alde batetik, euskararen oinarrizko erlatibakuntza-estrategiak ez dauka bere inguru geografikoan parekorik, nahiz eta munduan ez den hain urria: mendeko perpaus erlatiboan ez dago izenordainik, perpausaren amaieran doan aditzari itsatsiriko *-(e)n* atzizkia baizik. Horrez gain, mendeko perpaus erlatiboa izen ardatzaren ezkerretara ageri da eta ez eskuinetara (inguruko hizkuntzetan ohikoa den bezala), eta izen sintagma erlatibatua (ISE) isildua dago: *[etorri d-en] gizona*. Hauek dira euskaraz *erlatibo arrunt* bezala ezagutzen direnak.

Tesia bi estrategia hauetara mugatu genezakeen, biak oinarrizkoak diren heinean, erlatibakuntza-sistemen ordezkari fidelenak izan zitezkeelako. Haatik, euskarak badu gure helburuetarako oso garrantzitsua den berezitasun bat: oinarrizko erlatibakuntza-estrategia horrez gain, errusierak eta oro har Europako indoeuropar hizkuntzek oinarrizkotzat duten izenordainaren bidezko erlatibo aposatuak ere garatu ditu, ziurrenik latinarekin, gaztelaniarekin, frantsesarekin eta gaskoiarekin izandako harreman historikoaren ondorioz.

Batez ere *ZEIN/NON* erlatiboaz ari gara, gure artean “erlatibo erromaniko” ezizenez ere ezagutu izan direnak. Izenordain bidezko erlatibo aposatu hauen onarpenak eztabaida biziak eragin izan ditu betidanik euskal komunitatean: batzuentzat ez dira onargarriak, euskararen “sen onari” arrotzak zaizkiolakoan, eta beste zenbaitetik ez du arazorik ikusten horietaz baliatzeko, azken hauen artean erabilpenaren hedapena edo maiztasuna ere eztabaidagai izan daitekeen arren.

Itzultzailearen estiloa hobekien definitzen duena, beraz, ez da oinarrizko erlatibakuntza-estrategiaren erabilera, baizik eta oinarrizko estrategia agertzen ez denean

–zailtasun objektiboak edota norbanakoaren joerak medio– euskararen zein beste estrategiatara jotzen duten zehaztea, eta posible bada, zergatiak aurkitzea.

Euskararen egoera anbiguo horrek –berezko estrategia eta inguruko hizkuntzetatik hartutakoaren bizikidetzak– guretzat interesgarria den egoera bat planteatzen baitu: euskaraz publiko jakin batentzat (normalean euskara batuan edo behintzat maila jasoan) idazten edo hitz egiten duen pertsona orok –idazleak, itzultzaileak, kazetariak, irakasleak– erlatiboen erabilpenaren inguruko erabaki batzuk hartu behar ditu. Erabaki horiek hausnarketa kontziente baten edota, maizago, norberaren kontrolpekoak ez diren ezaugarri inkontziente batzuen ondorio izan daitezke, egile baten *estiloa* –tesi honen kasuan errusiar literaturaren euskal itzultzaileena– beti baita neurri batean inkontzientea, egileek beraiek sortutako testuetan uzten dituzten “hatz-marka” guztiak kontrolatzea ezinezkoa zaielako (Baker 2000), baina gaur egun, oro har, inor gutxik jartzen du zalantzan hatz-marka horiek egon badaudela eta itzultzailea ez dela ikusezina, Venutik ongi azpimarratu zuen bezala (Venuti 1995).

Demagun errusiar literatura euskaratu duen euskal itzultzaile batek *[etorri d-en] gizona* moduko erlatibo arruntak osatzen dituela, horiek eratzeko zailtasunik ez daukan bitartean. Zailtasunak agertzen direnean –adibidez, euskaraz erlatibagaitzagoa den kasu marka sozietiboa erlatibatu behar duenean– erlatibo aposatuetara jo dezake (*Bada herri horretan gizon bat, [ZEINAREKIN lan egin bainuen duela urte asko]*), edo erlatibakuntza ezabatu eta bestelako baliabideez baliatuta daiteke (*Bada herri horretan gizon bat. Gizon horrekin lan egin nuen duela urte asko*).

Erabaki horiek zehaztuko dute, hain zuzen, itzultzailearen *estiloa* erlatibakuntzari dagokionean: erlatibo aposatuak erabiltzeko joera erakutsiko ote du? Nahiago izango al du erlatibakuntza ezabatu eta bestelako baliabideekin ordezkatzeko erlatibo aposatuak erabiltzea baino? Egindako hautuak hausnartutako (aurre)iritzi baten ondorio al dira? Zenbaterainoko kontrola dauka itzultzaile batek erabaki horiekiko?

Euskal itzultzaileen praktika linguistikoak, oro har, ez du orain arte behar bezain beste arreta erakarri, baina gure iritziz, azkeneko hamarkadetan pilatutako atzerriko literaturaren itzulpenek praktika linguistiko horri buruzko ikerketak aurrera eramatea ahalbidetzen digute, hizkuntza-konbinaketa jakin batzuetan bederen.

Bestalde, errusiera-euskara ez da noski hizkuntza-konbinaketa zabalduena gure artean, oraindik itzulpen nahiz itzultzaileetan urria baita, baina eskala txikietan bada ere, ibilbide bat egina du jada. Hain zuzen, ibilbide horren gaineko hausnarketa-lan teoriko bat burutu nahiak eraman gaitu gure tesirako gai hau aukeratzera.

Ondorioz, euskal itzultzaileen praktika linguistikoaren eta errusieratik euskararako itzulpenaren gaineko hausnarketak uztartuz, bi eremu horietan dauden hutsuneak ahal den neurrian betetzea da tesi honek egin nahi duen ekarpena.

Lan hau aurrera eramanez ahal izateko, hizkuntzalaritzan nahiz itzulpengintza-ikerketetan oso ohikoa den metodologia bat aukeratu dugu: corpusgintza.

Itzultzaile konkretuen praktika linguistikoaren corpus bidezko azterketak eta horren atzean egon daitekeen *estilo* edo idazkera indibiduala zehazteko saiakerak asko hedatu dira azken bi hamarkadetan munduan zehar, batez ere M. Bakerrek eta beste hainbatek 90eko hamarkadan argitaratutako lanetatik abiatuta (Baker 1992, 1993, 1995, 1996, 2000; Laviosa 1997; Olohan 2004; Johansson 2007).

Corpus bidezko metodologiaren onuretako bat da –hain zuzen, ikerketa honen helburuei zuzenean eragiten diena– itzultzaile bakoitzaren estiloaren alderdi konkretuak xeheatasunez aztertzeak aukera (Baker 1999, 2000).

Ikuspegi tradizionalak itzultzailearen ikusezintasuna defendatzen zuen duela gutxi arte; itzultzailearen helburu bakarra STrekiko leialtasuna mantentzea omen zen, eta beraz, ez zen zilegi itzultzaileak –berak sortutako testuan– estilo propio baten arrastoa uztea.

Corpus bidezko itzulpengintza-ikerketen –eta oro har itzulpengintza-ikerketa deskriptiboen– ekarpenik handiena, gure ustez, ikuspegi tradizional hori gainditzen laguntzea izan da.

Corpusgintzaren aplikazioetako bat –guk gure egingo duguna– izan daiteke hitz edo egitura jakin batzuen maiztasuna neurtu eta hortik abiatuta itzultzailearen estiloaren ezaugarriak ondorioztatzea.

ST eta XT konparatu eta bigarrenak lehenengoarekiko gordetzen duen leialtasun-maila epaitzetik itzulpen-prozesua bere osotasunean hartu eta itzultzailearen esku-hartzea nolakoa izan den aztertzeraz igaro dira itzulpengintza-ikerketak, eta ingurune horretan kokatu behar dira corpusa eta tesia bera.

Errusiar egileei dagokienez, XIX eta XX mendeetako idazleak ageri dira, estilo anitzetakoak, korrante desberdinetatik datozenak eta kronologikoki ongi banatuak: XIX mendeko errealismoaren hastapenetatik hasi (Puxkin, Lermontov, Gogol), Turgenieven errealismo klasikoan zehar, XX mende hasierako hainbat korrante daude ordezkatuak: errealismo sozialista (Gorki, Xolokhov), modernismo-dekadentismoa-satira (Babel, Andreiev, Bulgakov), eta baita Platonoven gisako egile sailkaezinak ere. Azkenik, XX mendeko bigarren erdiko bi egile dauzkagu: Dovlatov eta Kurkov. 12 idazle horien liburu bana sartu da corpusean; beraz, hamabi idazleren hamabi liburu erabili ditugu.

Euskal itzultzaileen egoera ez da hain orekatua, itzulitako lanen kopuruan –eta beraz bakoitzak corpusari egindako ekarpenean– beraien arteko asimetria bat baitago. Hala eta guztiz ere, itzultzaile guztiek gutxienez bi libururen euskaratzean parte hartu dutela kontuan izanda, esan dezakegu guztien laginak direla adierazgarriak.

Literatura-lan horien jatorrizko bertsioak perpaus erlatiboen bila arakatuko ditugu. Ondoren, euskarazko itzulpenak hartu eta errusierazko testuetatik ateratako perpaus erlatibo guztien euskarazko ordainak aurkituko ditugu, modu horretan perpaus erlatiboen errusiera-euskara corpus paralelo bat osatuz.

Ezaugarri horiek dituen corpus batek euskal itzultzaile desberdinek errusierazko perpaus erlatiboak euskaratzean hartutako erabakiei buruzko informazio mamitsua emango digu, baina emaitzak bere horretan gordinegiak suertatuko direnez, datuen sailkapenerako irizpide egokiak topatu beharko ditugu.

Tesi honen helburu nagusia, hain juxtu, izango da argitzea irizpide horietatik zeintzuk diren esanguratsuak errusierazko perpaus erlatiboen euskaratzerako eta zeintzuk ez duten itzulpen-prozesu horretan eragin esanguratsurik. Horretarako bi motatako irizpideak aplikatuko dizkiogu corpusari.

Faktore linguistikoak: itzulpen-prozesuaren parte diren hizkuntzen –kasu honetan errusieraren eta euskararen– hizkuntza-sistemeekin edo gramatikarekin loturiko faktoreak.

Faktore estralinguistikoak: hizkuntzarekin zuzenki loturik egon gabe, itzulpen-prozesuan eragiten dutenak.

Faktore linguistikoen barruan, sintaxia eta erlatibakuntzarako baliabide morfosintaktikoak aztertuko ditugu.

Sintaxiaren baitan Comrie/Keenanen erlatibatze-hierarkia errusieratik euskaratutako erlatiboen maiztasunei aplika ote dakikeen (Comrie/Keenan 1977) edota tipologikoki desberdinak diren hizkuntzetan hierarkia horrek balio berbera ote duen aztertuko dugu.

Errusierazko baliabide morfosintaktikoei dagokienez, aldiz, errusierazko erlatibakuntzaren euskaratzean errusiar erlatibatzaileen arteko desberdintasunak esanguratsuak diren ala ez ikusiko dugu.

Faktore estralinguistikoak zehazteko STren eta XTren egileen –alegia, errusiar idazlearen eta euskal itzultzailearen– erlatibakuntza-estiloak alderdi desberdinetatik analizatu eta dagozkion ondorioak aterako ditugu.

Ondorengo eskeman ikus ditzakegu corpusari aplikatuko dizkiogun irizpideak:

1. Faktore linguistikoak

1.1. Funtzio sintaktikoa

1.1.1. Comrie/Keenanen erlatibatze-hierarkia errusieratik euskaratutako erlatiboen maiztasunei aplikatzea posible den aztertu.

1.1.2. Tipologikoki desberdinak diren hizkuntzetan Comrie/Keenan hierarkia baliagarria den aztertu.

1.2. Baliabide morfosintaktikoak

2. Faktore estralinguistikoak

2.1. Errusiar idazleen erlatibakuntza-estiloa

2.2. Euskal itzultzaileen erlatibakuntza-estiloa

Tesia lau kapitulutan banatu dugu.

I. kapituluan perpaus erlatiboak hizkuntzalaritzaren eta itzulpengintza-ikerketen ikuspuntutik aztertuko ditugu, bi jakintza-alor horietatik abiatuta, gure ikerketarako behar ditugun printzipio teorikoak finkatu ahal izateko.

Hizkuntzalaritzari dagokionez, lehendabizi munduko hizkuntzek erabiltzen dituzten erlatibakuntza-estrategiak aztertuko ditugu (I.1.1.). Ondoren erlatibagarritasunaren kontzeptuaren inguruan jardungo gara (I.1.2.), erlatibatze-eskala edo hierarkiari buruz dauden iritzi eta eztabaida desberdinak aurkeztuz, batez ere euskararen ikuspuntutik; hala nola, subjektu-objektu asimetriak, ergatibotasuna edota hizkuntza-prozesamenduarekin loturikoak.

Itzulpengintza-ikerketek egin diezaguketek ekarpen teorikoari, berriz, bi ikuspuntutatik helduko diogu (I.2.): batetik, itzulpengintza eta hizkuntzalaritza uztartzearen inguruko hausnarketa bat egin eta aurrekari batzuk aurkeztuko ditugu (I.2.1.), eta bestetik, faktore estralinguistikoak eta itzulpengintza uztartzen saiatuko gara (I.2.2.), horretarako azkeneko hamarkadetan itzulpengintza-ikerketetan nagusi den ikuspuntu deskriptiboak jorratu dituen hiru alderdi aurkeztuko ditugu laburki: *Polisistemen teoria*, Toury-ren arauak eta idazlearen eta bere itzultzailearen estiloen arteko elkarrekintza.

II. kapituluan gure helburuak lortzeko erabiliko dugun corpus bidezko metodologia aurkeztuko dugu. Bertan, corpusgintzak itzulpengintza-ikerketetan izan duen ibilbidea, eta azkenaldian hartu duen garrantzia aipatu ondoren, euskarazko erlatiboazko perpausak itzulpengintzarekin eta corpusgintzarekin uztartu dituzten bi lan-ildo aipatuko ditugu (Biguri 1994 eta Hidalgo 2002a, 2002b, 2003, 2004).

III. kapituluan geuk atondutako errusiera-euskara literatura-corpus paraleloa aurkeztu eta deskribatuko dugu, nola osatu dugun, eta erabilitako irizpideak zeintzuk izan diren

azalduz (III.1.). Horrez gain, errusierazko eta euskarazko erlatibakuntza-sistemak luze eta zabal azalduko ditugu (III.2. eta III.3., hurrenez hurren), azalpena hasiera-hasieratik gure corpusetik bertatik jasotako adibideekin hornituko dugularik.

IV. kapituluaren gure corpuseko emaitzen analisi xehe bat burutuko dugu, corpusak berak eskaintzen dizkigun datuak lehen aipatutako faktore edo irizpideen arabera sailkatuz: faktore linguistikoak, sintaxi (IV. 3.1.) nahiz morfologia (IV. 3.2.) mailakoak, eta estralinguistikoak, hots, idazleen (IV. 4.1.) eta itzultzaileen (IV. 4.3-4.4.) erlatibakuntza-estiloari dagozkionak.

Ondoren, itzultzaile bakoitzaren emaitzei irizpide linguistikoak aplikatuko dizkiegu (IV. 4.5.-4.6.), hizkuntzaren eraginaren eta itzultzaileen beraien estiloaren arteko marra ahalik eta garbien zehaztu ahal izateko.

IV. kapituluaren amaierako eranskin batean, corpuseko literatura-lanak itzuli dituzten euskal itzultzaileek guk luzatutako inkesta labur bati nola erantzun dieten aztertu eta emaitzak aurretik gure kasa ondorioztatutakoarekin alderatuko ditugu.

Tesiaren amaieran bertan landutakoa laburbildu eta ondorio orokorrak aurkeztuko ditugu.

I. KAPITULUA:

ERLATIBOZKO PERPAUSAK HIZKUNTZALARITZAREN ETA ITZULPENGINTZAREN IKUSPUNTUTIK

1. ERLATIBOZKO PERPAUSAK HIZKUNTZALARITZAREN IKUSPEGITIK

Euskaltzaindiaren gramatika batzordeak *Euskal gramatika: lehen urratsak (EGLU) V* liburukian, honako hau dio erlatibozko perpausei buruz:

Erlatibozko perpausak (EP) funtzio adjektibala duten perpaus menderatuak dira, izenlagunen moduan agertzen ohi direnak. Haien ezaugarria da barnean badutela izen sintagma (IS) bat, erlatiboa osagai gisa hartzen duen ISren erreferentzia duena, eta euskaraz komunzki agerian ezin ager daitekeena (EGLU-V 1999:173).

(1a)n soziatibo kasu marka daraman ISren barnean *gizon* ardatzarekiko izenlagunaren funtzioa hartzen duen perpaus menderatua daukagu: *liburu hau idatzi du*.

(1)

a) [Liburu hau *idatzi duen*] *gizonarekin* bizi da Miren

b) [[~~Gizonak~~, (∅) liburu hau idatzi duen] *gizonarekin*,] bizi da Miren

Aldi berean, euskaraz ikusten ez bada ere –isildua baitago–, nabari da badela mendeko perpausaren baitan IS bat, kasu soziatiboan agertzen den ISrekiko erreferentziakide dena, eta *gizon* ardatz duena. Horregatik esan daiteke bi perpaus dauzkagula: *gizonak liburu hau idatzi du* eta *gizon horrekin bizi da Miren*.

Horrez gain, *liburu hau idatzi duen* mendeko perpausa *gizona* ardatzaren ezkerretara ageri da.

1.1. Erlatibakuntza-estrategiak munduko hizkuntzetan

EGLUK emandako definizioaren amaierako zatia aztertzen badugu ('...barnean badutela IS bat, erlatiboa osagai gisa hartzen duen ISren erreferentzia duena, eta euskaraz komunzki agerian ezin ager daitekeena'), bi ondorio atera ditzakegu:

a) Euskaraz izen sintagma erlatibatua (ISE) agerian agertzeko ezintasuna azpimarratzeak iradokitzen digu beste hizkuntza batzuetan ez dela hori gertatzen; beharbada ager daiteke agerian edo akaso beharrezkoa ere izango da agerian egotea.

b) Bestalde, euskaraz *komunzki* agerian ezin ager daitekeela esaten du, baina ez du esaten agertzea ezinezkoa denik. Hortik ondorioztatu beharko dugu euskarak *komunzki* ISE isiltzen badu ere, ISE agerian agerraraztea ahalbidetzen duten beste erlatibakuntza-estrategia mota batzuk ere badauzkala.

Ondoren laburki aztertuko dugu zeintzuk diren munduko hizkuntzek EPak osatzeko dauzkaten baliabideak, eta horietatik zeintzuk dituen berezko errusierak eta zeintzuk euskarak, ondoren bi hizkuntzen erlatibakuntza-estrategiak harremanetan jarri ahal izateko.

EP bat oro har bi eratara ager daiteke: perpaus nagusiaren mendeko elementu bezala edota haren alboan, hari alborakuntzaz lotua. EP bat menderatua izango da, baldin eta bere ardatzarekin batera IS bat osatzen badu; bestela, alboratua izango da (Lehmann 1984:49-50).

Munduko hizkuntza gehien-gehienek menderakuntzaz osatzen dituzte erlatibozko egiturak, (1)en bezala, *liburu hau idatzi duen gizona esatea horko gizona* edo *gizon idazlea esatearen baliokidea* den heinean, non *horko* eta *idazlea gizon* ardatzaren osagaiak diren. Errusierazko nahiz euskarazko erlatibozko egiturak osatzeko modu bakarra menderakuntza denez, ikerketa honetan menderakuntzaz osaturiko EPak soilik aztertuko ditugu.

Ikus dezagun gure inguruko hizkuntza nagusiek (1)eko perpaus hori bera nola osatzen duten (2a-e).

(2)

- a) Marija živět s *mužčinoj*, [*KOTORYJ* napisal ètu knigu].
- b) Mary lives with the *man*, [*WHO* wrote this book].
- c) Marie vit avec l'homme, [*QUI* a écrit ce livre].
- d) María vive con el *hombre* [*QUE* ha escrito este libro].
- e) Maria wohnt mit dem *Man*, [*DER* dieses Buch geschrieben hat].

(2)n oso garbi ikusten da errusiera (2a) ingelesa (2b), frantsesa (2c), gaztelania (2d) eta alemana (2e) bezalako indoeuropar hizkuntzen erlatibakuntza-estrategiak elkarren antzekoak direla, eta aldi berean, euskararen estrategiarengandik desberdintzen direla.

(1)en ikusten genuen euskarazko erlatibozko perpausok bi ezaugarri nagusi dituztela: batetik, mendeko EP *gizon* ardatzaren ezkerretara agertzen da, eta bestetik, izen sintagma erlatibatua (ISE) isildua dago mendeko EPn.

(2)ko perpaus guztietan, ordea, alderantzizkoa gertatzen da: mendeko EP *gizona* ardatzaren eskuinetara hedatzen da –horregatik esan ohi da hizkuntza horietan ardatza mendeko EPren aurrekaria dela– eta gainera, ISE ez dago isildua, hitz bat baitago –jatorriz izenordaina (2a-c), juntagailua (2d) edo erakuslea (2e) izan daiteke–, EPren hasieran agertzen dena, eta erreferentziakide duen ISE mendeko perpausuan ordezkatzeko duena.

World Atlas of Language Structures (WALS) da azkeneko urteetan hizkuntzaren tipologiaren alorrean egin den lan estatistiko garrantzitsuenetakoa bat. Bertan, hizkuntza desberdinen material deskriptiboetatik jasotako egitura fonologiko, gramatikal eta lexikoak aztertzen dira, munduko hizkuntzek egitura horiek osatzeko dauzkaten estrategia desberdinak identifikatuz, geografikoki kokatuz eta sailkatuz.

Erlatibakuntza-estrategien sailkapena erabilitako irizpidearen arabera izango da. Sailkapen-irizpideak, besteak beste, lehen aipaturiko biak izan daitezke: EPk izen ardatzarekiko daukan kokapena (ezkerretara, eskuinetara edo alde bietara hedatzen den), eta mendeko EPren barruan ISEren funtzio sintaktiko-semantikoa markatzeko erabiltzen diren baliabideak (isildua edo markatua dagoen, adibidez).

Hizkuntza batek erlatibakuntza-estrategia bat baino gehiago izan dezake eskuragai, eta testuinguru desberdinetan estrategia bereziak erabili. Adibidez, (3)ko bi perpausetan ingelesak ISEren funtzio desberdinetarako estrategia desberdinak erabiltzen dituela ikus dezakegu: (3a)n ISE mendeko EPko subjektua denez, *who* izenordaina ezin dugu isildu; (3b)n, aldiz, isiltzea posible da (\emptyset), ISE objektu zuzena delako (Comrie/Kuteva 2005: 1-2). Subjektua balitz ezingo litzateke isildu.

(3)

- a) I teach *the girl* [*who* just greeted us]
- b) The girl [\emptyset we saw yesterday]

Aurrerago ikusiko dugun bezala, euskaraz ere erlatibakuntza-estrategia desberdinak erabiltzen dira, testuinguruaren arabera.

Comrie/Kutevak munduko hizkuntzetan identifikatuta dauden erlatibakuntza-estrategiak hartu eta estatistiko aztertzen dituzte, bi irizpideren arabera: zenbatetan erabiltzen den estrategia bakoitza ISE subjektua denean eta zenbatetan ISE zehar-kasua denean (Comrie/Kuteva 2005: 1-2).

Subjektuak aukeratzen dituzte –kasu eztabaidagarri gutxi batzuk salbu– hizkuntza guztiek erlatiba ditzaketelako, eta zehar-kasuak, alderantziz, erlatibakuntza asko zaildu ohi dutelako (zehar-kasu prototipikotzat instrumentala harturik).

Munduko hizkuntzen lagin zabal batean subjektuen eta zehar-kasuen erlatibakuntza aztertu ondoren, bi kasuetarako lau erlatibakuntza-estrategia bereizten dituzte: izenordain erlatiboa erabiltzea, ISE isiltzea (*GAP*-aren estrategia), ISE ez murriztea, izenordainari eustea (Comrie/Kuteva 2005: 4-10).

Horrez gain, ISE zehar-kasu batean dagoen kasuetarako erlatibatzeke ezintasuna ere aurreikusten dute. Subjektuekin ez luke erlatibaezintasunik agertu behar, erlatiboak osa ditzakeen hizkuntza batek gutxienez subjektuak erlatibatzeke gai izan behar duelako.

a) **Izenordain erlatiboa erabiltzea**: mendeko EPn izenordain bat dago, eta honek ordezkutzen du ISE mendeko EPn, kasu marka edota aposizio baten bidez. Hauxe da (2)n ikusi dugun Europako indoeuropar hizkuntzen erlatibakuntza-estrategia nagusia. (4)n ikusten dugu *stremlenie* ‘goranahi, gorantz egiteko nahi’ ISE mendeko EPren hasieran doan *kotoroe* ‘zeina’ izenordainak ordezkutzen duela, ardatza eta biak bat datozelarik generoan nahiz numeroan (biak dira neutro singularrak).

(4)

I to *STREMLENIE* vverx, proč ot zemli, [*KOTOROE* bolšeu čast’ju iščezaet
ETA HORI GORANAHI KANPORA PREP. LURRA, [*ERL. NOM.* GEHIENETAN AIENATU
posle dvadcatyx godov].
PREP. HOGEI URTEAK]

‘Eta lurra behean utzirik *gorantz egiteko nahi* hori, [*zeina*, gehienetan, hogeitun urteak betetakoan *aienatu ohi baita*].’

(AIS: 33)

(4)n ikusten dugu, halaber, errusierazko EP horren euskal ordaina ere estrategia berdina jarraituz osatua dela, baina funtsezko desberdintasun batekin: errusieraz eta gure inguruko gainontzeko indoeuropar hizkuntzetan erlatibakuntza-estrategia hori oinarrizkoa den bitartean, euskaraz *ZEIN* galdetzaile-izenordaina –eta modu horretako beste batzuk– estilistikoki oso markatuak dira, eta euskararen oinarrizko erlatibakuntza-estrategiak dauzkan prozesamendu zailtasun jakin batzuk ekiditeko agertu ohi dira.

b) **ISE isiltzea (GAP-aren estrategia):** ISErekiko inongo kasu markadun erreferentzia zuzenik ez dagoenean mendeko EPren barnean, alegia ISE isildua dagoenean. Hauxe da euskararen oinarritzko erlatibakuntza-estrategia, (1)en ikusi dugun moduan.

Beste bi erlatibakuntza-estrategia ere bereizi ohi dira munduko hizkuntzetan (ISE ez murriztea eta izenordainari eustea), baina gure inguruan oso ezohikoak izateaz gain, ikerketa honekin funtsezko zerikusirik ez dutenez, laburki azaldu eta orain arte aipaturiko biak aztertuko ditugu bereziki.

c) **ISE ez murriztea:** erlatibakuntza-estrategia hau ISE mendeko EPn esplizituki ordezkaturia egotean datza, IS oso baten bidez (5).

(5) (Kuteva/Comrie 2005: 122-123)

Pirahã

Boitóhoi bog-ái-hiab-i-s-aoaxái boitó báosa xig-i-sai (hix)

TXALUPA ETORRI-ATELIKOA-EZEZT.-EPENT.-INTER. TXALUPA GABARRA EKARRI-EPENT.-NMLZ (INTER)

‘Baliteke txalupa, (zeinak) gabarrak eramaten dituen, ez etortzea?’

d) **Izenordainari eustea:** izenordain pertsonal erresuntibo batek ordezkatzeko du ISE esplizituki mendeko EPn (6).

(6)

Babungo

Mò yè wǒ ntǎǎ fájŋŋwǒ sǎ sàŋ ghǎǎ

NIK IKUSI.PFV GIZON ERL. NOR BERAK LEHEN. JO.PFV ZU

‘Zu jo zaituen gizona ikusi dut’.

Esan bezala, mendeko EPren barruan ISEren funtzio sintaktiko-semantikoa markatzeko erabiltzen diren baliabideen ikuspuntutik, gure ikerketaren helburuetarako bi dira erlatibakuntza-estrategia garrantzitsuenak: izenordain erlatiboa erabiltzearena eta ISE isiltzearena, hurrenez hurren errusieraren eta euskararen oinarritzko erlatibakuntza-estrategiak.

Ondorioz, euskarari dagokionez, esan dezakegu –inguruko hizkuntzetan ez bezala– bere oinarritzko erlatibakuntza estrategia ISE isildu, aditz laguntzaileari –(e)n atzizkia erantsi eta mendeko EP izen ardatzaren ezkerretara hedatzean datzala.

Haatik, (4)n ikusi dugu errusierazko EP bat euskaratzerakoan, euskarak badaukala inguruko hizkuntzek erabiltzen duten erlatibakuntza-estrategiaren antzeko bat, non badagoen EP bat, ardatzaren eskuinetara hedatzen dena, eta hasieran *ZEINA* izenordain erlatiboa daukana. Desberdintasuna da errusieraz –eta inguruko beste hizkuntzetan– izenordainaren erabilera oinarritzko erlatibakuntza-estrategia dela, euskaraz baliabide bigarrenkaria den bitartean.

(4)ko perpaus hori bera euskarazko oinarritzko estrategiarekin itzultzeko saiakera egiten badugu, konturatuko gara prozesamendua –eta kasu honetan baita ulermena ere– zaildu egiten dela, izen ardatzaren agerpena asko atzeratzen delako. (7a)n ikusten da itzultzaileak nola itzuli duen, eta (7b)n perpaus horrek zer itxura izango lukeen, euskarazko oinarritzko estrategiarekin itzuliz gero.

(7)

a)

I to *STREMLENIE* vverx, proč ot zemli, [*KOTOROE* bolšeu čast’ju iščezaet
ETA HORI *GORANAHI* KANPORA PREP. LURRA, [*ERL. NOM.* GEHIENETAN AIENATU
posle dvadcatyx godov].

PREP. HOGEI URTEAK]

‘Eta lurra behean utzirik *gorantz egiteko nahi* hori, [*zeina*, gehienetan, hogeitau urteak betetakoa *aienatu ohi baita*].’

(AIS: 33)

Gure corpuseko datuak aztertu eta sailkatu ondoren, besteak beste, erlatibakuntza-estrategiei buruzko ondorengo galderei erantzun beharko diegu:

1) Errusierazko oinarritzko erlatibakuntza-estrategia euskaratzeko noiz erabiltzen da (erabil daiteke, erabili behar da) euskarazko oinarritzko estrategia eta noiz ez?

2) Zergatik egiten du (egin dezake, egin behar du) itzultzaileak estrategia baten edo bestearen aldeko hautua?

3) Erlatibozko perpausak oinarritzko erlatibakuntza-estrategiarekin euskaratzen ez ditugunean, zeintzuk dira euskarak eskaintzen dizkigun aukerak?

4) Aukera guztiak al dira zilegi?

1.2. Erlatibagarritasuna, erlatibagaiztasuna eta erlatibaezintasuna

Euskaraz erlatibakuntza-estrategia batzuk oinarritzkoak edo markatu gabeak eta besteak markatuak edo ezohikokoak izateak esan nahi du estrategia bakoitzak badituela

ezaugarri batzuk. Horrez gain, estrategien arteko funtzio-banaketa bat iradokitzen digu horrek: estrategia bat oinarrizkoa dela esaten badugu, pentsatzekoa da hiztunak –idazleak, itzultzaileak– estrategia hori hobetsiko duela testuinguruak hori ahalbidetzen dionean, baina halere noizbehinka oinarrizkoak ez diren beste estrategia batzuk erabiltzen baditu, horretarako arrazoiren bat ere egon behar du.

Gure helburua izango da jakitea hori zein neurritan den testuinguruaren inposaketa bat edota itzultzaile bakoitzaren ohituren, estiloaren, ideologiaren menpe dagoen jokabide bat.

Aipatu dugu euskarazko oinarrizko strategiak (–(e)n atzizkidun, ardatzaren ezkerretarako eta ISE isildua duenak) prozesamendurako zailtasunak sor ditzakeela (7), eta zailtasun horiek gainditzeko modu bat erlatibakuntza-estrategia aldatzea izan daitekeela (adibidez, ardatzaren eskuinetara hedatzen den eta kasu markak har ditzakeen *ZEIN* erlatibo bat erabiltzea).

Nola jakin dezakegu erlatibakuntza-estrategia batek IS jakin bat erlatiba dezakeen ala ez?

Ondoren Comrie/Keenanek proposaturiko hierarkia ezaguna azalduko dugu laburki, erusierazko eta euskarazko EPen erlatibagarritasuna harremanetan jartzen lagunduko digulakoan.

1.2.1. Erlatibatze-eskala edo hierarkia: *Accessibility Hierarchy (AH)*

Erlatibozko perpausei buruzko ikerketen artean ezagunenetakoa izango da ziurrenik B. Comrie eta E. Keenan hizkuntzalariek proposatutako *Accessibility Hierarchy* (aurrerantzean *AH*) (Comrie/Keenan 1977: 63-99). Bertan, egileek inplikazio-hierarkia bat aurkezten dute, non erlatibagarritasun handienetik txikienera sailkatuta baitaude ISE batek mendeko EPn har ditzakeen funtzio sintaktikoak: honen arabera, ISEk EPn subjektuaren funtzioa izateak erraztuko luke gehien erlatibakuntza, eta konparaziozkoa izateak, berriz, gutxien. Bi mutur hauen artean leudeke –erlatibagarritasun handienetik txikienera– objektu zuzenak, zeharkako objektuak, zehar-kasuak eta genitiboak (8).

(8)

Accessibility Hierarchy (AH)

Subjektuak > O. zuzenak > Zeharkako O. > Zehar-kasuak > Genitiboak > Konparaziozko osagarriak¹

AH proposatzerakoan, ISEk mendeko EPn hartzen duen funtzio sintaktiko-semanticoz gain, beste bi irizpide ere hartzen dituzte kontuan: ISEk EPn kasu markarik baduen ala ez (-case/+case) eta EPk izen ardatzarekiko daukan kokapena; hau da, ardatzaren ezkerretara (*prenom.*), eskuinetara (*postnom.*) edota bi aldeetara agertzen den (*internal* edo *circumnominal*).

Hierarkia hau erlatibakuntza ulertzeko bidean ekarpen handia dela zalantzan jartzen ez den arren, proposamen horren alderdi batzuek eztabaidak piztu izan dituzte. Sorturiko zalantzak gehienbat subjektuen eta objektuen arteko asimetriei dagozkie, hierarkiaren goiko zatia alegia, hortik beheragoko kasu markek hierarkian duten maila ez baita oro har ezbaian jartzen.

Subjektu-Objektu asimetria hauen inguruko eztabaidek bi helduleku nagusi topatu izan dituzte: ergatibotasuna eta hizkuntzaren prozesamendua.

Alde batetik, hizkuntza akusatiboen egituretan soilik oinarritutako hierarkia bat izatea leporatu izan zaio *AH*-ri, bere egileek subjektuak eta objektuak garbi bereizten dituztelako, hizkuntza ergatiboek egin ohi duten absolutibo-ergatibo bereizketa kontuan izan gabe.

Bestalde, subjektuen eta objektuen arteko banaketa hori unibertsala dela onartuko balitz ere, ikerketa batzuek zalantzan jartzen dute subjektuek objektuekiko prozesamendu-abantailarik dutenik. Subjektuak erlatibagarriagoak direla dioten ikerketak gehiago badira ere, hizkuntzalari batzuek aurkako iritzia plazaratu izan dute, zenbait hizkuntzatako datuetan oinarriturik, tartean euskarazkoetan.

Tesi hau hizkuntzalaritzaren eremuko ez denez, eztabaida hauek gure ikerketan baliaagarriak izan daitezkeen neurrian soilik ukituko ditugu hemen.

1.2.2. Subjektu-objektu asimetriak eta ergatibotasuna: hipotesi absolutiboa

¹ Konparaziozko osagarriak ez dira oso ohikoak. Comrie/Keenanen 1977n *The man who Mary is taller than* adibidea aipatzen da, egileek onartzen dutelarik ingeleseko hiztun asko ezeroso jartzen dituztela horrelako perpausak. Euskara nahiz gaztelania ama hizkuntzatzat duten hiztunei antzeko zerbait gertatzen zaie **Maria bera/hura baino altuagoa den gizona* edo **El hombre que María es más alto que él* perpausak ikustean.

Hizkuntza akusatiboetan –aditza iragankorra izan ala ez– subjektu eta objektu zuzen guztiek kasu marka berbera dute: nominatiboa eta akusatiboa, hurrenez hurren.

Sistema ergatibo batean, aldiz, subjektuak aditzaren izaera iragankorraren edo iragangaitzaren arabera bereizten dira elkarrengandik: aditz iragankorren subjektuek kasu marka bat izan ohi dute (ergatiboa) eta aditz iragangaitzen subjektuek eta iragankorren objektuek beste bat (absolutiboa). Bestela esanda, hizkuntza akusatiboetan subjektu-objektuen funtzio gramatikalak eta morfologikoak bat datoz eta ergatiboetan ez (9a-b).

(9)

a)

Ja poexal v Moskvu

NI.NOM JOAN NAIZ PREP. MOSKURA

'N/ Moskura joan naiz'

b)

Ja pročital knigu

NI.NOM IRAKURRI LIBURUA

'NIK liburua irakurri dut'

Hizkuntzen arteko oinarritzko akusatibo-ergatibo bereizketa abiapuntutzat harturik, B. Foxek (Fox: 1987) *Absolutive Hypothesis* (aurrerantzean *ABSH*) delakoa aurkezten du Comrie/Keenanen *AH*aren goiko zatirako; bertan subjektuak-objektuak bereizketa gramatikal orokorraren ordeztatu, irizpidetzat hizkuntza ergatiboen kasu marken banaketa hartzea proposatzen da.

Ingeleseko ahozko corpus bateko datuetan oinarrituta, kasu marka absolutiboak –perpaus iragangaitzetako subjektuak (S) eta perpaus iragankorretako objektuak (P)– perpaus iragankorretako subjektu ergatiboak (A) baino erlatibagarriagoak direla ondorioztatzen du. (10)n ikus dezakegu Comrie/Keenanen eta Foxen hierarkien arteko desberdintasuna.

(10)

ABSOLUTE HYPOTHESIS

Absolutiboak (S/P) > Ergatiboak (A) > Zehark. O. > Zehar-kasuak > Genitiboak > Konparaziozkoak

ACCESSIBILITY HIERARCHY

Subjektuak (S eta A) > O. zuzenak (P) > Zehark. O. > Zehar-kasuak > Genitiboak > Konparaziozkoak

Comrie/Keenan 1977n, *AH*ren baliagarritasunaren aldeko argumentu gisara, Keenanen ikerketa bat aurkezten zen, non munduko hizkuntzek subjektuak objektuak baino maizago erlatibatzen dituztela argudiatzen baitzuen, maiztasun horrek subjektuen “naturaltasun” eta erlatibagarritasun handiagoa frogatuko lukeelarik (Keenan 1975).

Foxen aburuz, berriz, ikerketa horretarako idatzizko testuak erabiltzearen ondorio izan daitezke emaitza horiek, berak ingelesezko ahozko testuinguruetan S eta P-ren maiztasun handiago bat topatzen baitu A-rena baino, subjektu eta objektu kategoriak gurutzatuko lirakeelarik (Fox 1987: 861).

Ondorioz, gure corpora literatura-testuez osatua egoteak, printzipioz behintzat, Foxen hierarkiatik urrunduko gintuzke.

Foxek ez du ukatzen agerpen-maiztasuna erlatibagarritasuna neurtzeko irizpide bat izan daitekeenik, baina berak ahozko testuetan lorturiko datuetatik abiatuta, absolutiboak (S eta P) ergatiboan (A) gaintik kokatzen ditu hierarkian, beti ere ingelesetik –hots, ergatiboa ez den hizkuntza batetik– bildutako datuetan oinarriturik.

Foxen ideia zuzena balitz, orduan hizkuntza ergatiboetan P-k A-rekiko prozesamendu-abantaila bat izan behar luke. M. Polinskyk avar hizkuntza aztertu ondoren –Kaukasoko hizkuntza bat, euskararen antzera, erlatiboak ardatzaren ezkerretara osatzen dituen eta morfologikoki ergatiboa dena–, ikusten du hizkuntza horretan P-ren eta A-ren prozesamendua oso antzekoa dela. Horrek Comrie/Keenanen hierarkiaren alde egingo luke –hots, subjektuak erlatibagarriagoak lirakeke hizkuntza ergatiboetan ere–, baina kasu marken eta funtzio gramatikalen artean daukaten disoziazioak efektu hori neutralizatuko luke (Polinsky et al. 2012: 276).

Inplikazio-hierarkia hauei buruz bi hitz esatea komeni da; funtzio desberdinak izan ditzaketenez, garbi utzi behar baita gure ikerketaren testuinguruan betetzen duten papera.

Hierarkia hauek –Comrie/Keenanena barne– maila edo pauso desberdinetan erabili ohi dira:

a) Unibertsalki aplikagarriak izateko funtzioa dutenez, lehendabiziko helburu orokorra munduko hizkuntza bakoitzak hierarkiako zein puntu erlatiba dezakeen eta zein ez zehaztea da.

b) Bigarren urrats bat litzateke hizkuntzak beraien jokabidearen arabera sailkatzea (zeintzuek erlatiba ditzateke posizio sintaktiko guztiak, zeintzuk soilik subjektuak, zeintzuk subjektuak eta objektuak...)

c) Hirugarren maila batean legoke hizkuntza baten baitan –edo hizkuntza horretako corpus jakin bat eta irizpide konkretu batzuk harturik– zeintzuk diren egitura naturalenak edo prozesatzen errazenak eta zeintzuk izango diren topatzen zailagoak.

Hirugarren maila hori da, hain zuzen, gure ikerketarako garrantzitsua dena, eta beraz, hierarkien inguruko beste alderdi guztiak horren zerbitzura jarriko ditugu.

Zentzu horretan aipagarria da *AH* eta *ABSH* hierarkien baliagarritasuna neurtzeko Gordon/Hendrickek egindako saiakera (Gordon/Hendrick: 2005).


Egileek ingelesezko *Brown*, *Switchboard* eta *CHILDES* corpusak arakutzen dituzte, bi hierarkiek defendatzen dituzten hipotesiak egiaztatu ahal izateko.

Brown corpora (izen osoa *Brown University Standard Corpus of Present-Day American English* duena) idatzizko testuez osatua dago.

Switchboard-ek telefono-elkarrizketak biltzen ditu eta *CHILDES*-ek, berriz, umeen hizkuntza du aztergai.


Hiru corpus horietatik EP guztiak erauzi eta –lan estatistiko bat denez–, maiztasuna ardatz duten hiru irizpideren arabera sailkatzen dituzte: subjektuen, objektuen eta zehar-kasuen agerpen-maiztasuna; A, S eta P-ren agerpen-maiztasuna; eta ISE mugatuen agerpen-maiztasuna.

a) Subjektu, objektu eta zehar-kasuen agerpen-maiztasuna neurtuta lortutako datuek Comrie/Keenanen *AH*aren alde egiten dutela dirudi. Nahiko esanguratsua da Keenanek idatzizko corpusetatik abiatuta lortutako emaitzak ahozkotasunetik eta jabekuntzatik gertuago dauden corpusetako datuetara zabaltzea (1. grafikoa).



Grafikoa 1 Subjektuen, objektuen eta zehar-kasuen agerpen-maiztasuna

b) Perpaus iragankorretako subjektuen (A), iragangaitzetako subjektuen (S) eta iragangaitzetako objektuen (P) agerpen-maiztasuna: subjektuak iragankortasunaren arabera bereiziz gero, emaitzak aldatu egiten dira, neurri batean behintzat. *Brown* corpusean A erlatiboak dira sarrien agertzen direnak, eta beste bietan, berriz, S eta P maizago topatzen ditugu. Badirudi datu horiek Foxek dioenaren alde egingo luketela, hain zuzen, *Brown* corpusean Switchboard eta CHILDES corpusetan baino ergatibo gehiago egotea espero izatekoa dela, hura idatzizkoa delako eta hauek ahozkoak.




Grafikoa 2 S, P, eta A-ren agerpen-maiztasuna

c) ISE mugatuen agerpen-maiztasuna: teorian informazio berri bat S edo P bezala agertzeko aukera A bezala agertzearena baino handiagoa dela ontzat ematen dute egileek, DuBois-ren *Preferred Argument Structure* (PAS)-en oinarrituz (DuBois: 1987). Beraz, bide horri jarraituta eta Foxek *ABSH*en proposaturikoa zuzena izateko, hizkuntza ergatiboetan kasu marka absolutiboarekin bete ohi diren posizioek (S eta P) agerpen-maiztasun handiagoa izan behar lukete ergatiboekin (A) betetzen direnak baino.

ISE mugatuek informazio zaharra, ezaguna kodetzeko joera handiagoa izan behar badute, gutxiagotan agertuko dira S eta P-rekin. Haatik, ISE mugatuen agerpen-

maiztasuna neurtu eta ikusten dute ez dela zehazki horrela gertatzen: idatzizko *Brown* corpusean bai, zehar-kasuak objektuak baino gehiago direlako eta hauek subjektuak baino gehiago (3. grafikoa), baina beste bietan ez. *Switchboard* eta *CHILDES*-ek elkarrengandik oso antzekoak diren datuak eskaintzen dituzte: aztertutako EPen gehiengoa objektuak dira, gero zehar-kasuak eta azkenik subjektuak.



Grafikoa 3 ISE mugatuak

Azken finean, ikusten dugu irizpide bat edo bestea aplikatuz gero edota corpus bakoitzaren izaera dela medio, datuek batzuetan hierarkia baten eta besteetan kontrakoaren alde egiten dutela.

Aurrerago ikusiko dugunez, gure corpora literatura-testuez osatua egoteak izango du zerikusirik, noski, lortutako emaitzetan, ez baita gauza bera idatzizko testuez –literarioak gainera– edota telefono-elkarrizketa nahiz haurren hizkuntzari dagozkionak.

Horrez gain, garbi utzi behar da hierarkia hauek erabiltzearen ondorioz lor ditzakegun datuek ez dituztela inondik ere kolokan jarriko hierarkia horien postulatu teorikoak. Gure helburu bakarra hierarkia horiek bere horretan aplikatzean datza. Prozesu horren emaitzak aztertu ondoren, hierarkiarekin bat ez datozela atzemanek gero, azalpen bat ematen saiatuko gara, baina ageriko azalpenik topatzen ez badiegu, horrek ez du esan nahi hierarkiaren balizko akatsen bat aurkitu dugunik.

1.2.3. Subjektu-objektu asimetriak eta hizkuntzaren prozesamendua

AH aztertu dugunean (kapitulu honetako 1.2.1. puntua), ikusi dugu hizkuntza akusatiboek berezko duten subjektu-objektu bereizketan gehiegi oinarriztea eta ergatibotasunaren alderdi batzuk alde batera lagatzea leporatzen zaiola. Bada, subjektuen

eta objektuen arteko asimetriak aztertzeko prozesamenduaren inguruan burututako ikerketak ere nagusiki hizkuntza akusatiboetan oinarritu izan dira.

Horrez gain, gehien ikertutako hizkuntzak Europako hizkuntza indoeuroparrak direnez (errusiera, ingelesa, frantsesa, alemana...), horientzat ohikoena den tipologia da nagusi ikerketa horietan: izenordain erlatiboaren bidezko erlatibakuntza-estrategia eta izen ardatzaren eskuinetara hedatzen diren EPak dauzkaten SVO hizkuntzak metodologia, lagin nahiz ikuspuntu posible guztietatik daude aztertuak.

Errusiera hizkuntza ikertuenen eta *AH*-rekin bat datozen talde horretan dagoenez, berari errusieraren erlatibakuntza-estrategiari buruz apenas esan dezakegun ezer berririk.

Azken hamarkadetan orain arte hain ikertuak ez ziren hizkuntzetako datuak agertzen hasi dira; hain zuzen, euskarazko erlatibakuntza aztertzeko guri hemen interesatzen zaizkigunak: ISE isildua daukatelarik, izen ardatzaren ezkerretara hedatzen direnak, hala nola txinera, japoniera eta koreera. Oztopo bakarra da hirurak hizkuntza akusatiboak direla, eta beraz, elementu horren arabera ezin ditugula euskararekin alderatu. 1.2.2. puntuan aipatu dugu Polinskyk (Polinsky 2012) *avar* hizkuntzaren inguruan burututako ikerketa: aurreko hizkuntzek bezala, ISE isildua daukaten eta izen ardatzaren ezkerretara doazen erlatiboak osatzen ditu. Gainera ergatiboa da, euskara bezala. h, horren ondorioek ez diotenez gure ikerketari funtsezko ekarpenik egiten, aipamen soilean utziko dugu.

Txinera, japoniera eta koreerari buruzko ikerketa ia guztietan subjektua objektua baino errazago prozesatzen dela ohartu dira ikerlariak, Comrie/Keenanen hierarkiari arrazoa emanez. Txineraren prozesamendua (Chien-Jer & Bever: 2006; Hsiao & Gibson: 2003; Lin & Bever: 2006), japonierarena (Ishizuka: 2005; Ueno & Garnsey: 2008) eta koreerarena (Kwon, Polinsky & Kluender: 2006; Kwon, Lee, Gordon, Kluender & Polinsky: 2010) ikertu dutenek ia beti subjektuen aldeko prozesamendu-abantaila bat ikusi izan dute, objektuen kalterako.

Datu horiek denak zuzenak izateak esan nahiko luke subjektuen nagusitasuna objektuekiko ez dela soilik hizkuntza indoeuroparren modukoetan ematen, baizik eta baita euskararen antzeko ezaugarriak dituztenetan ere: SOV hitz-ordena eta EPak ardatzaren ezkerretara hedatzea (baina ez ergatibotasuna).

Txineraz (Hsiao & Gibson: 2003) eta japonieraz (Ishizuka, Nakatani & Gibson: 2006) objektuak prozesatzea errazagoa dela dioten ikerketak ere badauden arren, gutxi eta eztabaidatuak direla dirudi.

Euskararen subjektu-objektu asimetriari buruz egindako ikerketa batean, (Carreiras et al.: 2010) objektuak subjektuak baino errazago prozesatzen direla ondorioztatzen da edo behintzat, subjektuak ez direla derrigorrez prozesagarriagoak.

Prozesamenduaren inguruko ikerketetan ohikoa denez, neurtu nahi dutena ahalik eta gehien isolatu ahal izateko, euskararen anbigutasun batez baliatzen dira, desanbiguatzeko moduko fenomeno batez, hain zuzen: euskaraz testuinguru jakin batzuetan, EP baten amaierara iritsi arte ez dugu jakiten perpausa subjektuzkoa edo objektuzkoa den (txineraz, japonieraz eta koreeraz gauza bera gertatzen da). Bestalde, *-ak* kasu markak ere badu berekin anbigutasun bat: (11)n azkeneko unera arte ez dakigu *ikasleak* ergatibo singularra (11a) edo absolutibo plurala den (11b).

(11)

- a) [Irakasleak aipatu dituen] ikasleak lagunak dira.
- b) [Irakasleak aipatu dituen] ikasleak lagunak ditu.

(11)ko perpausen irakurketa-denborak neurtu eta hiztunak azkarren prozesatzen duena bestearen gainetik egongo da erlatibatze-eskalan. Bada, esperimenduaren egileek ondorioztatu dute emaitzak objektuaren prozesamenduaren aldekoak direla. Datu hauek zuzenak izateak esan nahiko luke euskaraz objektuzko erlatiboak subjektuzkoak baino errazago prozesatzen direla, eta beraz, Comrie/Keenanen hierarkian subjektuari eta objektuari eskainitako tokiaren unibertsaltasuna zalantzan legokeela.

Esan bezala, eztabaidaren egoera aipatzera mugatuko gara, gure helburua ez baita gai honetan sakontzea, baizik eta, oinarri teoriko hauek abiapuntutzat hartuta, hizkuntza-sistema nahiz erlatibakuntza-estrategia desberdinak dituzten bi hizkuntzen arteko itzulpenaren testuinguruan –gure kasuan errusiera eta euskararen artekoa–, itzultzaileak sorburu-hizkuntzako (SH) EPak nola prozesatzen dituen –corpus jakin batetik ateratako datuek iradoki dezaketen neurrian–, eta gero prozesamendu hori xede-hizkuntzako (XH) ordainetan nola islatzen den.

1.3. Errusieraren eta euskararen erlatibakuntza-sistemak: ondorioak

Comrie/Keenanekek errusierazko bi adibide ematen dituzte beraien artikuluan (Comrie/Keenan 1977: 65-66), guk hona (12a-b) bezala ekarri ditugunak.

(12)

a)

Devuška [KOTORUUJU Džon ljubiť]

NEŠKA [ERL. AK. JOHNEK MAITE DU]

‘[Johnek maite duen] neska’

b)

Devuška [KOTORAJA *ljubit* Džona]


NESKA [ERL. NOM. MAITE DU JOHN]

‘[John *maite duen*] neska’

Hauek euskaratzean garbi ikusten da bi hizkuntzetako erlatibakuntza-estrategiak desberdinak direla: errusierak EPak ardatzaren eskuinetara hedatzen ditu (*postnom.*), eta ISEk mendeko EPn hartzen duen posizioa ageriko kasu markadun hitz batekin ordezkatu dago (+*case*), (12a)n akusatiboa eta (12b)n nominatiboa.

Euskaraz juxtu kontrakoa gertatzen da: EP ardatzaren ezkerretara hedatzen da (*prenom.*), eta ISEk ez dauka ageriko kasu markarik EPn (-*case*), ez perpaus batean ez bestean.

4. grafikoan ikusten da estrategia hauen banaketa WALSekoa lagina osatzen duten munduko hizkuntzetan, ISE subjektua edo zehar-kasua denean (erlatibakuntza-estrategia desberdinen deskribapenerako ik. kapitulu honetako 1.1. puntua).



Grafikoa 4 Erlatibakuntza-estrategien banaketa munduko hizkuntzetan

Datu hauen arabera, subjektuen eta zehar-kasuen erlatibakuntzaren inguruko datuak ez dira hain desberdinak. Europako testuinguruan arrarotzat dauzkagun euskarazko erlatiboen ikuspegitik, oso deigarria da munduko hizkuntzen gehiengoak ISE ezabatzearen

estrategia (GAP) erabiltzea subjektuetarako (munduko hizkuntzen %75) eta ia erdiak zehar-kasuetarako (munduko hizkuntzen %48). Horrek esan nahi du euskararen oinarriko erlatibakuntza-estrategia, European hain ezohikoa dena, mundua bere osotasunean hartuta, estrategiarik ohikoena dela.


Halaber, ISE ezabatzearen estrategia subjektuekin zehar-kasuekin baino sarriago erabiltzea koherentea da Comrie/Keenanen *AH*rekin –eta baita *ABSH*rekin ere–, espero izatekoa baita erlatibatze eskalan zenbat eta beherago egon, orduan eta zailagoa suertatzea ezabatutako –hots, marka morfologikorik gabeko– ISE batek erreferentea islatzea.

Edozein kasutan, euskaraz hain erlatibagaitzak diren zehar-kasuak erlatibatzeko hainbeste hizkuntzak ezabaketa baliatzeak pentsarazten digu hizkuntza horiek badauzkatela beste ezaugarri batzuk, zehar-kasuen erlatibakuntza ISE ezabatzearen bidez burutzea ahalbidetzen dutenak. Egia esan, euskarak ere badauzka zenbait baliabide, ISE ezabatzearen bidezko erlatibakuntza (oinarrizko estrategia) ahalbidetzeko balio dutenak (ik. III. kapituluko 3. puntua).

Datu horiek erlatibakuntzaren gaineko ikuspegi lokalagoen aldeko argumentu bat lirateke akaso, sailkapen unibertsalek nekez azaldu ditzaketelako fenomeno guzti hauek beren kabuz.

Izenordain erlatiboa erabiltzearen strategiari dagokionez, 4. grafikoak esperotakoaren juxtu alderantzizko irudia eskaintzen zigun: Europako hizkuntza ia guztiek oinarrikotzat daukaten estrategia hau gutxiengoan dago mundu guztiko hizkuntzen testuinguruan, hizkuntzen %7ak soilik baitauka hau subjektuak erlatibatzeko oinarriko estrategiatzat. Zehar-kasuetan %12ra igotzen da kopuru hori, baina halere, ISE ezabatzearen %48aren oso azpitik.

EPk izen ardatzarekiko daukan kokapenari dagokionez, ordea, 5. grafikoan ikus dezakegu kasu honetan Europako eta munduko argazkiak bat datozeela.



Grafikoa 5 EPren kokapena izen ardatzarekiko munduko hizkuntzetan

Munduko hizkuntzen %72k mendeko EP ardatzaren eskuinetara aposatuta kokatu ohi du, eta %17k ardatzaren ezkerretara. Hizkuntzen gainontzeko %11k bost estrategia desberdin erabiltzen ditu, eta beraz, azken hauek ez dira estatistikoki oso esanguratsuak. Horrez gain, errusiera eta euskara jada ordezkatuak daude ardatzaren eskuinetarako eta ezkerretarako posizioekin.

Laburpen moduan esan dezakegu errusiera eta euskara oinarriko erlatibakuntza-estrategia desberdinak erabiltzen dituzten bi hizkuntza direla.

Errusierak gure inguruko beste indoeuropar hizkuntzetatik ezagutzen dugun erlatibakuntza-eredua jarraitzen du: izenordain erlatibo bat dago –ISE ordezkatzuz eta ageriko kasu marka batekin–, eta mendeko EP izen ardatzaren eskuinetara hedatzen da.

Euskarak, ordea –munduan hain arraroa izan ez arren–, gure inguruko hizkuntzengandik bereizten den erlatibakuntza-sistema bat dauka: ISE ezabatzen du –ondorioz, kasua ere ez da markatzen– eta mendeko EP izen ardatzaren ezkerretara hedatzen da.

Tesi honen III. kapituluan bi erlatibakuntza-estrategia horiek sakonki aztertu eta elkarrekin harremanetan jarriko ditugu.

2. ERLATIBOZKO PERPAUSAK ITZULPENGINTZAREN IKUSPEGITIK

Erlatibozko perpausak hizkuntzalaritzaren ikuspuntutik aztertzean ikusi dugunez, hizkuntzalaritzak ez du beste diziplina baten beharrik hizkuntza batek erlatiboak nola osatzen dituen eta zein testuingurutan erabiltzen dituen deskribatzeko; berak eskura dituen tresna eta baliabideekin moldatzen da. Azken finean –iritzi, eskola, edo teoria desberdinak gorabehera– hizkuntzalaritzaren aztergai diren fenomenoak isolatzea eta banan-banan aztertzea, zailtasunak zailtasun, egin daitekeen zerbait da. Esan genezake hizkuntzalaritza jakintza-alor beregaina dela.

Itzulpengintza-ikerketen izaera, ordea, desberdina da. Esan dezakegu itzulpengintza (edo tradizionalki *itzulpen-teoria* deitu den hori) diziplina arteko jakintza-alor izatera kondentua dagoela, gutxienez bi eremu bateratu behar baititu, halabeharrez: ezinbesteko tresna duen hizkuntza eta hizkuntzarekin zuzenean lotuta ez dauden bestelako faktoreak; hala nola, kultura, gizartea, ideologia, testu jakin bat idatzi (edo irakurri) deneko garaia...

Hizkuntza itzulpengintzaren ezinbesteko oinarria da, hura gabe ezinezkoa baita itzulpena. Horregatik ez da harrizkoa itzulpengintzaren inguruko lehenengo ikerketak hizkuntzalariek burutu izana (Mounin 1963; Fëdorov 1958; Catford 1965). Vladimir Ivir-en hitzetan 'the position of the linguistic component in translation is central in one sense: Namely, that it governs the process whenever this does not lead to a conflict with the requirements of the other components' (Ivir, 1981: 217).

Hitz hauek iradokitzen dutenez, itzulpenaren oinarrian hizkuntza dago, baina baditu hizkuntzaz kanpoko beste elementu batzuk ere. Hain zuzen, hizkuntzak beste faktore horiekin talka egiten duenean sortzen da itzulpen-prozesuak berarekin dakarren konplexutasuna.

Elementu estralinguistiko hauek askotarikoak izan daitezke, baina batez ere testu mota, sorburu-kultura (SK), xede-kultura (XK) eta idazlearen nahiz itzultzailearen estiloak hartu ohi dira kontuan, itzulpen-prozesu baten nondik norakoak sakonki ikertu nahi izanez gero (Švejcer 2004: 236).

2.1. Itzulpengintza eta hizkuntzalaritza uztartzen

Hizkuntza itzulpen-prozesuaren oinarri den neurrian, ulertzekoa da historikoki itzulpen-prozesuari buruzko hausnarketak batez ere hizkuntzalaritzaren baitan garatu izana.

Hizkuntzalaritza eta itzulpengintza-ikerketen arteko harremana historikoki bi eratara gertatu da.

Hasiera batean, hizkuntzalariek beraien hizkuntza-ikerketetarako (edo hizkuntza-teoria jakin bat berresteko asmoarekin) baliabide moduan erabiltzen zuten itzulpena.

Gerora, berriz, 50eko hamarkadatik aurrera, zenbait ikerlari itzulpengintza-ikerketak helburutzat hartzen hasi ziren (Firth 1956; Catford 1965; Nida 1964, 1975; Wilss 1977, 1982; Baker 1992, 1993, 1995, 1996, 1999, 2000). Ondorioz, zenbait hizkuntzalarik itzulpengintza beraien ikerketen ardatz bihurtu zutenean, itzulpengintzak eta hizkuntzalaritzak tokiak elkartrukatu zituztela esan daiteke: hizkuntzalaritza helburu izatetik itzulpen-prozesuaren inguruko fenomenoak ikerketzeko baliabide izatera igaro zen.

Coseriu-ren hitzetan, arauetan eta erabilpenean oinarrituriko hizkuntzalaritza kontrastiboa itzulpengintza-ikerketen zioei hertsiki loturik dago (Coseriu 1981: 193). Bereziki garrantzitsua izan da, hain zuzen, hizkuntzalaritza kontrastiboak itzulpengintza-ikerketei egindako ekarpena, hizkuntzak konparatzearekin batera hasi baitziren jabetzen ikerlariak itzulpen-prozesuan gertatzen ziren fenomenoek aparteko azterketa bat merezi zutela.

Gure tesia ere testuinguru horretan kokatu behar da; alegia, gure helburua errusierazko EPak euskaratzeko prozesuan gertatu dena aztertzea den arren, itzulpen-prozesu hori behar bezala ulertzeko ezinbestekoa izango zaigu hizkuntzalaritzak erlatibozko egiturei buruz eskaini diezaguketen informazioa. Gero, informazio hori hizkuntzaz kanpoko faktoreak aztertzeetik lortutakoarekin kontrajarri eta itzulpen-prozesuaren irudi osoago bat eskuratzen ahaleginduko gara.

Aspaldidanik jakina da hizkuntzen arteko desberdintasunak genetikoak, tipologikoak edota historia, garapen eta sozio-kultura arlokoak izan daitezkeela (Skalička 1979; Neustupný 1978, 1984).

Kidetasun genetikoaren arabera neurtuz gero, garbi dago errusiera eta euskara oso urrun daudela. Egia esan, alde horretatik euskararen kasua berezia da, ez baitirudi inongo kidetasun genetikorik frogatu denik (Trask 1997, Lakarra 1999).

Nahiz eta gerta daitekeen genetikoki urrun dauden bi hizkuntza gramatikaren ikuspuntutik antzekoak izatea, errusieraren eta euskararen artean ez da hori gertatzen, elkarrengandik aski desberdinak baitira, bai genetikoki eta bai tipologikoki.

Tipologia eta genetikaz gain, kulturaren edota historian zehar izandako kontaktuaren ikuspuntutik ere neur dezakegu hizkuntzen arteko distantzia. Alde honetatik, aztergai ditugun bi hizkuntzen arteko kontaktu zuzena historikoki hutsaren hurrengoia izan den arren, badago biak lotzen dituen faktore bat: Europar kultura eta hizkuntza guztiek partekatzen dituzten ezaugarri orokor batzuen eraginpean egotea. Azken finean, Errusia – eta errusiera– Euskal Herrian urruneko egiten zaizkigun arren, urruntasun hori ez da soilik

geografikoa. Adibidez, nahiz eta Afrika iparraldean geografikoki Errusia baino gertuago daukagun, arabiera errusiera baino urrunekoago egiten zaigula esan daiteke, hizkuntzen arteko distantzia ez baita geografikoa soilik, Standard Average European (SAE)-en inguruko eztabaidek (Whorf 1939, Haspelmath 2001) erakusten diguten moduan.

Gertutasun erlatibo honek badauka bere eragina errusierazko erlatiboaren euskaratzea aztertzean. Azken finean, euskarak erlatibo 'erromanikoak' deiturikoak garatu izanaren ondorioz (*ZEIN/NON* erlatiboak, besteak beste), errusierazko EPak itzultzeko hitzez hitzeko aukera bat daukagu, oinarritzko erlatibakuntza-estrategiaren erabilpena zailtzen zaigunerako.

Beste kontu bat da idazle, itzultzaile, hiztun edo irakurle bakoitzak forma horiei buruz daukan iritzia edo egiten duen erabilpena (ik. III. kapituluko 3.4. puntua).

Laburtuz: genetikak eta tipologiak errusiera eta euskara elkarrengandik urruntzen dituzten arren, euskarak indoeuropar hizkuntzekin izan duen etengabeko kontaktuaren eraginez, historiak eta kulturak zertxobait gerturatu dituela esan daiteke, bien arteko kontaktu zuzenaren ondorio ez bada ere. Azken finean, erlatibozko perpausak errusieratik edo gaztelaniatik –ingelesez, frantsesetik, alemanetik– euskaratzea ez da hain desberdina.

2.2. Itzulpengintza eta faktore estralinguistikoak ikuspuntu deskriptibo batetik

Itzulpengintza-ikerketetan bi ikuspunturen: preskriptiboaren eta deskriptiboaren arteko talka bat dago. Itzulpengintza-ikerketez gain, beste jakintza eremu askotan ere badira horrelako eztabaidak, hala nola hizkuntzalaritzan bertan edota hizkuntzen irakaspenean.

Itzulpengintzaren gaineko ikuspuntu preskriptiboak 'fideltasuna' eta 'baliokidetasuna' zituen oinarri; itzulpen baten kalitatea STrekiko baliokidetasunaren arabera zen. Jatorrizkoaren estiloa zenbat eta fidelago islatu, orduan eta hobea itzulpena.

Honi buruz Ivir-ekin bat egiten dugu zera dioenean: '...such prescriptions are not necessarily wrong, especially when based on solid contrastive research and analysis. What is wrong, however, is the tacit assumption that the contrastive thus established are automatic translation equivalents, which is far from true' (Ivir 2004: 278).

Itzulpengintzan erregularitasun batzuk ezartzeko aukera ukatzen ez den arren, itzulpen-prozesuak bere baitan faktore asko hartzen ditu –linguistikoak, psikologikoak, kronologikoak, soziologikoak, kultura mailakoak...–, eta horiek denak ikuspuntu

preskriptibo batetik aztertzearen ekarpena hankamotz geratzen dela onartua dago gaur egun.

70eko hamarkadatik aurrera, aldiz, ikuspuntu deskriptiboa hedatzen hasten da. Ikuspuntu deskriptibo batek preskriptiboarekiko alderantzizko logika darabil: lehendabizi ikusi behar da itzultzaileek nola itzultzen duten, eta gero benetako material praktikoa horren arabera ondorio teorikoak atera.

Gaur egungo itzulpengintza ikerketen fokua sorburu-testutik (sorburu-kulturatik) xede-testura (xede-kulturara) hedatu den heinean, preskripzioak deskripzioari egin behar izan dio lekua.

Ikuspuntu deskriptiboan onartzen da badirela itzulpen-prozesua gobernatzen duten arau batzuk, baina ez dira arau preskriptiboak, formulatuta egon edo ez, nahiz eta ulertzekoa den arau guztiek daukatela neurri batean preskribatzeko helburua. Garbi dago komunitate batek badituela bere arauak, eta itzulpenak jasotzeko moduak. Adibidez, euskaldunon artean erlatibakuntza-estrategia desberdinen aurrean dauden jarrera desberdinak ez dira eztabaida linguistiko huts bat, faktore asko hartu behar baitira kontuan horren azterketa egiteko.

Aurreko puntuan erlatibozko perpausak hizkuntzalaritzaren ikuspuntutik aztertu ditugunean, ikusten genuen posible dela egitura horien inguruko datu objektiboak lortzea, hizkuntza-sistema baita, zalantzarik gabe, itzulpengintzaren inguruko elementurik objektibagarriena. Haatik, hizkuntzaz kanpoko faktoreak ez dira hain atzeman erraz eta objektibagarriak.

Lehenik eta behin, hizkuntzaz kanpoko faktoreak zeintzuk diren finkatu beharko dugu. Itzulpen-prozesuan oro har eragiten duten faktoreak aipatu ondoren, gure helburuetarako –hots, erlatibozko perpausen itzulpenaren azterketarako– esanguratsuak direneta murriztuko dugu zerrenda.

Švejcer-ek adibidez, lau elementu estralinguistiko bereizten ditu (Švejcer 2004: 236):

- Sorburu-kultura (SK) eta xede-kultura (XK).
- Itzulpenaren egoera erreferentziala.
- Itzulpenaren egoera komunikatiboa.
- Itzulpengintzaren arau soziala.

Kulturari dagokionez, itzulpen batek beti daramatza gutxienez bi kultura bere baitan, inplizituki bada ere: SK eta XK. Testu mota batzuetan besteetan baino adierazgarriagoa izango da kulturaren faktorea, baina literatura-testuak itzultzerakoan –testu teknikoak

itzultzean ez bezala– bereziki nabarmena da kontzeptu honen garrantzia. Wilss-ek dioenez, literatura-testuetan egile-irakurle harremana zehaztugabeagoa da; testu teknikoaren ezaugarri askok, aldiz, ez daukate egilearekin edo irakurlearekin zerikusirik (Wilss, 1988: 125). Testu tekniko batean jatorrizko egileak SKko elementu gutxiago sartuko ditu, egile-irakurle harremana eta testuaren funtzioa garbiago daudelako. Ondorioz, testu teknikoaren itzultzaileak ez die kultura arteko faktoreei hainbeste erreparatu beharko.

Gure corpora itzuliriko literatura-testuz osatuta dagoenez, bistakoa da horiek itzultzerakoan bi kulturen arteko zubi-lanak garrantzia duela. *Kultura* kontzeptua esaten dugunean, zentzu zabalenean ulertu behar da.

Kontzeptuen eta balioen sistema bat, bere baitan hartzen dituen gizatalde batek sortu eta mantendutako sinesmenak eta espektatibak; eredu, errutina, jokamolde eta ohiturak, eta gizatalde horrek erabili eta eraldatzen dituenak. Pertsonen, gauzen eta naturaren arteko harremanak arautzeko zeregina dute. (Figuerola 1993: 19-20)

Edonola ere, ez dirudi perpaus erlatiboak bezalako egitura bat errusieratik euskaratzeko kultura mailako inplikazio esanguratsurik daukanik.

Egoera erreferentzialarekin –testuaren atzean dauden errealitateen ezagutzarekin– ere antzeko zerbait gertatuko zaigu: nahiz eta literatura-testu bat errusieratik euskarara itzultzeko oso komenigarria den Errusiako errealitatea ahalik eta hobekien ezagutzea, erlatibozko egituren itzulpenaren duen garrantzia ez da horrenbestekoa izango, lehen aipaturiko arrazoi berberengatik, eta beraz, beharrezkoa bada soilik aipatuko dugu.

Itzulpenaren egoera komunikatiboa bai da esanguratsua gure helburuetarako; hain zuzen, itzultzailearen nortasunaren kontzeptua ukitzen duelako. Itzulpen batean bi egoera komunikatibo ematen dira: lehendabizikoan itzultzaileak irakurle gisara hartzen du ST, eta bigarrenetan XTren egile bihurtzen da. STren hartzaile izatetik XTren sortzaile izatera eramaten duen itzulpen-prozesu konplexu horretan bere estrategiak garatzen ditu, eta bere ideologia nahiz estiloaren arrastoa uzten.

Azkenik, hizkuntzaz kanpoko elementuen artean itzulpenaren arau soziala aipatu behar da. Honek, edozein arau sozialen antzera, norbanakoen jokabidea mugatzea edo zehaztea du helburu. XTk helmuga duen gizarteak itzulpen bati inposatzen dizkion eskakizunak adierazten ditu arau honek (ik. Toury-ren arauak kapitulu honetako 2.2.2. puntuan).

2.2.1. Polisistemen teoria

Itzulpengintzaren inguruko hausnarketa hasiera-hasieratik egon da literatura-itzulpenarekin lotuta, modu horretako testuetan azaleratzen baitira gehien itzulpen batek izan ditzakeen ñabardura eta zailtasunak, bai hizkuntzaren eta bai hizkuntzaz kanpoko elementuen ikuspuntutik (testu zientifikoetan, juridikoetan edota prentsakoetan ez bezala). Horregatik ez da harrizkeoa azken hamarkadetako itzulpengintza-teoria nagusiak jatorriz literaturaren teoriaren baitan jaiotako ikerketetatik abiatu izana.

Azken hamarkadetan itzulpengintza-ikerketetan egin den ekarpenik handienetakoa *Polisistemen teoria* da, Even-Zoharrek, Juri Tynianov, Roman Jakobson eta Boris Eichenbaum bezalako errusiar formalisten ideietatik abiatuta, literatura-itzulpeneko propio formulatutako teoria (Even-Zohar 1978).

Formalisteri zor diegu literaturaren baitako genero eta tradizio asko modu sistemiko batean aztertzea ahalbidetu zuen *sistemaren* kontzeptua, lehenbizikoz Tynianov 1929en aipatua.

Literatura-sistemen funtzionamendua eta garapena ikertzeko sortua, *Polisistemen teoriak* literaturaren sistema orokorrean barneratzen du itzultako literatura.

Polisistemen teoriaren ekarpenik handiena fokua sorburutik xedera bideratzean datza. Ikuspuntu tradizionalak sorburuan jarri ohi zuten arreta batez ere: sorburu-testuan (ST), sorburu-kulturan (SK) eta sorburu-hizkuntzan (SH).

...It is clear that, from the standpoint of the source text and source system, translations have hardly any significance at all, even if everybody in the source culture 'knows' of their actual existence... Not only have they (the translations) left the source system behind, but they are in no position to affect its linguistic and textual rule and norms, its textual history, or the source text as such. On the other hand they may well influence the recipient culture and language, if only because every translation is initially perceived as a target-language utterance (Toury 1985: 19).

Polisistemen teoriarekin xede-kultura (XK), xede-testua (XT) eta xede-hizkuntza (XH) itzulpen-prozesua gobernatzen duten arauak ulertzeko ezinbesteko elementu bihurtzen dira.

Polisistema elementu anitz eta dinamikoek osatzen duten sistema-multzo bat da. Teoria honen arabera, itzulpengintza ez da testu-bilduma soil bat, hauen ekoizpena, zabalkundea eta harrera baldintzatzen duen faktore-multzo konplexu bat baizik.

Itzulitako literatura jasotzen duen gizarteak –bere hizkuntzak, ekonomiak, politikak nahiz kulturak, finean– itzulpen-prozesua bera baldintzatzen du.

Horrez gain, itzulitako literatura eta XHn idatzitako literatura nazionala sistema beraren zati lirerateke, eta ez ordura arte bezala, inoiz elkartzen ez diren bi sistema paralelo.

Ikuspegi honen arabera, adibidez, errusieratik euskaraturiko literaturak eta euskaraz propio sortutakoak sistema bakar bat osatuko lukete, azken finean idazlan orijinalak eta itzulpenak gizarte berdinak –irakurle berdinek– jaso behar dituzten heinean.

Even-Zoharrek euskararekin zerikusi zuzena duen beste zerbait ere aipatzen du, itzulpenak literatura baten polisisteman posizio zentrala hartzeko behar dituen hiru egoerak aipatzen dituenen: literatura gazte batean; literatura bat “periferikoa” edo inguruko hizkuntzekin alderatuta “ahula” denean; krisiak eta inflexio-puntuak gertatzen direnean. Lehenengo biak euskararen berezko ezaugarriak dira, eta krisi eta inflexio-puntutzat har dezakegu euskarak 60ko hamarkadaz geroztik bizi izaniko berpizkundea.

(a) when a polysystem has not yet been crystallized, that is to say, when a literature is "young" in the process of being established; (b) when a literature is either "peripheral" (within a large group of correlated literatures) or "weak," 1 or both; and (c) when there are turning points, crises, or literary vacuums in a literature (Even-Zohar 1990: 47)

Anjel Lertxundiren hitzetan, ‘euskararen normalizazioak itzulpengintzan du elikagai nagusietako bat. Nobela sorkuntza prozesurako izugarri aberasgarriak dira atzerriko idazleen itzulpenak... Itzulpengintza lan zehatza da benetan, honetan ezinezkoa baita tranpak egitea. Idazleak gauza bat modu batera edo bestera azaldu ezin duenean saihetseko bide batetik jotzeko aukera dauka, baina itzulpenarekin ezin du hori egin, leiala izan behar du testuarekiko. Eta leialtasun horretan behar beharrezkoa du testuarenganako arazoei aurrera egitea. Diziplinari dagokionez, idazlearen lanean asko erakusten du itzultzeak’ (El Pais 2001-06-04).

2.2.2. Toury-ren itzulpen-arauak

Polisistemen teoriaren jarraipen gisara hartu izan da azkeneko hamarkadetako beste ekarpen esanguratsu bat: itzulpen-arauak. Polisistemen teoriaren jarraipena dela diogunean esan nahi dugu, hura bezala, deskriptiboa eta XKra bideratua dagoela nagusiki.

Itzulpengintza-ikerketen testuinguruan arauak aipatzen lehenak Jiří Levý (Levý 1967) eta Even-Zohar (Even-Zohar 1978) izan ziren arren, Gideon Toury-ren eta atzetik

etorritakoen lanek ezagutarazi dute batez ere kontzeptu hau 70eko hamarkadaz geroztik (Toury, 1980, 1995; Frank & Schultze, 1988; Hermans, 1991, 1996, 1999; Nord, 1991; Chesterman, 1993, 1997; Schäffner, 1997).

Toury-ren oinarritzko ideia da itzulpengintza ikasitako jarduera sozial bat dela, eta itzultzaileak jarduera hori arautzen duten printzipioen jakitun izan behar duela, komunitate edo testuinguru jakin batentzat itzuli nahi badu.

Translatorship amounts first and foremost to being able to play a social role, i.e., to fulfil a function allotted by a community - to the activity, its practitioners, and/or their products - in a way which is deemed appropriate in its own terms of reference. The acquisition of a set of norms for determining the suitability of that kind of behaviour, and for manoeuvring between all the factors which may constrain it, is therefore a prerequisite for becoming a translator within a cultural environment (Toury 1995: 53).

Toury-k hiru arau bereizten ditu oro har: **hasierako arauak** (*initial norms*), **atariko arauak** (*preliminary norms*) eta **operazio-arauak** (*operational norms*).

Hasierako araua, Toury-ren ustez, itzultzaileak itzultzen hasi aurretik egin beharreko oinarritzko aukeran datza:

A translator may subject him-/herself either to the original text, with the norms it has realized, or to the norms active in the target culture, or in that section of it which would host the end product (ibid. 1990: 56).

Itzultzaileak STri atxikitzeari **egokitzapena** (*adequacy*) deitzen dio, eta arreta XKn jartzeak, aldiz, itzultzaileak **onargarritasuna** (*acceptability*) aldeztu duela esan nahiko luke.

Noski, egokitzapen perfektu bat egitea ezinezkoa da, itzulpen-prozesuaren baitan desbideratzeak (*shifts*) saihestezinak baitira. Horrek agerian utziko lituzke STri soilik atxikitzeak dituen gabeziak.

Obviously, even the most adequacy-oriented translation involves shifts from the source text. In fact, the occurrence of shifts has long been acknowledged as a true universal of translation. However, since the need itself to deviate from source-text patterns can always be realized in more than one way, the actual *realization* of so-called **obligatory shifts**, to the extent that it

is non-random, and hence not idiosyncratic, is already truly norm-governed. So is everything that has to do with **non-obligatory shifts**, which are of course more than just possible in real-life translation... (ibid.: 57).

Atariko arauak bi eratakoak lirateke, Toury-ren esanetan: itzulpen politikari dagozkionak eta XKn beste hizkuntza batzuetatik zuzenean edo zeharka itzultzearen inguruan dagoen iritziari buruzkoa.

Itzulpen politikaren arabera –zentzu zabal batean hartuta eta ez gobernu jakin baten kudeaketara lotua– komunitate batek erabakiko du itzuli beharreko liburu motak edo liburu konkretuak zeintzuk diren.

Zuzenean edo zeharka itzultzea ongi edo gaizki ikusia dagoen ere kontuan hartzekoa izango dela deritzo Toury-k; gerta liteke, adibidez, garai batekoak zeharka itzultzea baimentzea, eta beste garai batzuetakoak ez edota testu mota batzuk bai eta besteak ez...

Azkenik, **operazio-arauek** itzulpen-prozesuaren baitan itzultzaile konkretuek harturiko erabaki konkretuen nondik norakoa zehaztuko lukete.

Polisistemen teoriaren eta itzulpen-arauen ekarpenik handiena –eta oro har itzulpengintza-ikerketa deskriptiboena– beraien aurretik ohikoak ziren *fideltasuna* eta *baliokidetasuna* bezalako kontzeptu lausoak gainditzea izan da, itzulpen-prozesuaren konplexutasuna azaleraziz.

Itzulpen-arauek itzulpen-prozesuaren komunikazio eta gizarteratze dimentsioak ulertzeko marko teoriko sendo bat eskaintzeaz gain, itzultzaileari ordura artekoa baino paper aktiboago bat ematea ahalbidetu dute, eta baita itzulpen-prozesuaren ikuspegi orokorrago eta objektiboago bat eskaintzea ere.

Translation used to be regarded primarily in terms of relations between texts, or between language systems. Today it is increasingly seen as a complex transaction taking place in a communicative, socio-cultural context. This requires that we bring the translator as a social being fully into the picture. Translation involves a network of active social agents, who may be individuals or groups, each with certain preconceptions and interests. The translative operation is a matter of transactions between parties that have an interest in these transactions taking place (Hermans 2013: 1).

Itzulpengintzaren alderdi estralinguistikoen ikuspuntu deskriptiboa gure ikerketarako testuinguru egokiena dela deritzogu, batez ere *Polisistemen teoria* eta Toury-ren arauak bezalako ekarpen teorikoek daukaten ezinbesteko ezaugarri batengatik: xede-kultura eta xede-testua itzulpengintza-ikerketen erdigunean kokatzen dituztelako. Gurea bezalako ikerketa bat –ikergai nagusia errusierazko egitura baten euskal ordainak izanik–, ikuspuntu preskriptibo batetik aztertzeak oso ikuspuntu mugatua emango ligukeelakoan gaude, perpaus erlatiboen itzulpenaren inguruan aurretik finkatutako iritzi bat izatera behartuko gintuzkeelako, besteak beste.

2.2.3. Itzultzailea eta idazlea: bi estilo, baita erlatibatzerakoan ere

Idazlearen estiloarengatik kezka literatura-ikasketetatik datorren elementu bat da, eta itzulpengintza-ikerketek bere egin dute. Halere, azkeneko hamarkadak arte, literatura-itzulpenen baitan ematen ziren estiloari buruzko eztabaidak STren estiloarekiko leialtasun maila neurtzera mugatzen ziren, itzultzaileen balizko estilo propio bati gehiegi erreparatu gabe. Are gehiago, itzultzaileari bere estiloaren zantzurik ez uztea eskatzen zitzaion, ikusezina izatea, sorburu.-testuarekiko leialtasuna gordeko bazuen. Ikuspuntu tradizional honen arabera, itzultzaileak ez luke estilo propiorik izan behar, eta bere funtzio bakarra STXHra ahalik eta leialtasun handinez isurtzea litzateke, bere lanaren inongo arrastorik utzi gabe. Itzultzailea zenbat eta gutxiago nabaritu, orduan eta hobe itzulpena.

...Translation studies ... inherited from both disciplines –literary studies and linguistics– the association of style with ‘original’ writing. So far there has been little or no interest in studying the style of a translator, or group of translators, or a corpus of translated material that belongs to a particular historical period ... because translation has traditionally been viewed as a derivative rather than a creative activity. The implication is that a translator cannot have, indeed should not have, a style of his or her own, the translator’s task being simply to reproduce as closely as possible the style of the original (Mona Baker 2000: 244).

Itzulpen-prozesuan STaren egilearen –idazlearen– estiloa kontuan hartu beharreko zerbait dela ez da zalantzan jartzen. Naturaltasunez hartzen da literatura-testu bat sortzen duen idazleak estilo propio bat izatea, eta idazle horren testuak itzultzen dituen itzultzaileak idazlearen estilo hori kontuan izatea.

Bestelakoa da egoera itzultzailearen estiloari buruz ari garenean. Itzultzaile batentzat posible al da batere estilorik ez izatea? Egin al daiteke literatura-lan baten itzulpena norberaren idazteko moduaren batere zantzurik utzi gabe? Literaturaz harago, litekeena al da edozein testu mota itzultzea norberaren “hatz-markak” utzi gabe?

Azkeneko urteetan itzultzailearen *ikusgarritasuna* asko areagotu da, eta esan daiteke inor gutxik jartzen duela zalantzan itzultzaileak bere lanean arrastoren bat uzten duela nahi eta nahi ez.

Corpus bidezko metodologia garatu aurretik, idazlearen estiloa –presentzia, ahotsa, idazkera– modu oso orokorrean aztertu ohi zen, itzultzaile desberdinen joera orokorrak aipatuz; adibidez, STaren alderdi semantikokoan arreta jarri eta formari uko egiten dioten itzultzaileen jokabidea aztertuz (May 1994) edota, alderantziz, oin-oharren eta azalpen ugarien bidezko itzultzailearen esku-hartze handiko kasuak ikertuz (Hermans 1996a).

Azkeneko urteetako corpusgintza oparoa eta tresna informatikoen zabalkundea dela medio, gaur egun itzultzailearen jardunaren berri ematen diguten datu ugari daukagu eskuragarri, honek itzultzaile baten idazkeraren alderdi anitz ikertzea izugarri errazten digularik. Literatura-testu baten egiletza frogatzeko (edo ukatzeko) erabil daitezke corpusak edo gutxienik estiloa neurtzeko eta objektibatzeke (Kretzchmar 2001:99), corpus bidezko ikerketak elementu oso konkretuen gainean egin baitaitezke, ia edozein irizpide aplikatzeraino: erabilitako perpausen luzera, hitz edo egitura jakin batzuen maiztasuna, izen propioen itzulpena, juntagailuen erabilera, hitz edo partikula jakin batzuek banaketa edo maiztasuna, izenordainen itzulpena, zenbat hitz hasten diren bokalez, zenbat hitzek dituzten bi letra, zenbatek hiru... Eta noski, erlatibozko perpausak nola eta zenbatetan osatu diren, eta baita erlatibo horiek STan erlatiboak diren ala ez.

Leech/Shortek sakonki aztertzen dute zein izan den testu literarioen analisi linguistikoek izan duten ibilbidea (Leech/Short 1981, 2007). Bertan, literatura-estilo jakin baten peskizan erabil ditzakegun kategoria desberdinen zerrenda bat proposatzen dute (jatorrizkoan *A checklist of linguistic and stylistic categories*), lau multzotan banatuta: kategoria lexikoak, kategoria gramatikalak, Diskurtsoaren baitako irudiak, eta azkenik, kohesioa eta testuingurua (Leech/Short 2007: 61-64).

a) *Kategoria lexikoetan* alde batetik gogoeta orokorrak egitea proposatzen dute (erabilitako hiztegia nolakoa da: sinplea edo konplexua? Formala edo kale-hizkeratik gertuagokoa? Nabari al da erabilera morfologikoaren azpimarragarriren bat?)... Ondoren, hitz-mota bakoitzaren erabilpena bere aldetik aztertuz: izen konkretuak ala abstraktuak dira

nagusi? Nola erabiltzen dira izen propioak? Adjektiboak sarritan agertzen dira? Nolakoak dira, fisikoak, psikologikoak...? Aditzak dinamikoak dira? Adberbioen maiztasuna altua da?

b) Gure ikerketarekin zerikusi zuzenagoa duten *kategoria gramatikalei* buruz planteatzen dituzten galderetako batzuk ondorengoak dira: zein da egileak gehien erabiltzen duen perpaus mota? Zein da osatutako perpausen konplexutasun-maila orokorra? Zenbat hitz dituzte perpaus batez beste? Gorabehera esanguratsuak nabari dira perpausen konplexutasunean? Konplexutasuna ageri denean juntadurarengatik menderakuntzarengatik edo parataxiarengatik da? Nolakoak dira izen sintagmak? Nolakoak aditz sintagmak?

c) *Diskurtoan oinarrituriko irudiak*: zein da anafora, paralelismo, antitesi eta horrelako baliabideen erabilpena? Atzematen al da berezitasun fonologikorik; errima edota asonantzia eredu berezirik? Ba al dago nahita egindako gramatikaren urradurarik, arauekin bat ez datorren neologismorik? Metaforak, metonimiak, paradoxak agertzen al dira?

d) *Kohesioa eta testuingurua*: testuak perpausen arteko lotura esplizituak bultzatzen ditu edota esanahien konexio implizituak hobesten ditu? Egilea irakurleari egilearen beraren izenean zuzentzen zaio edota fikziozko beste pertsonaiaren bat erabiltzen du? Nola daude eraikiak elkarriketak, zuzenean edo zeharkako estiloan?

Azken finean, Leech/Shortek proposatutako irizpide guzti hauetatik atera dezakegun ondorioetako bat ondorengo da: alderdi anitzetatik ikertu daitekeela egile jakin baten estiloa, baina baita unean uneko helburuak ahalik eta ongien zehaztu behar direla ere, ikerketaren eraginkortasunaren mesedetan.

Estiloaren azterketari –‘estilometriari’– buruz D. Holmesek zera dio:

‘at its heart lies an assumption that authors have an unconscious aspect to their style. An aspect which cannot consciously be manipulated but which possesses features which are quantifiable and which may be distinctive’ (Holmes 1998:111).

Alegia, egileak bere estiloa saihestu ezin duen zerbait dela, eta metodologia egokiarekin ikertzaileek estilo hori neurtu dezaketela gainera.

Ondoren, estiloaren ikerketak historikoki izan dituen aldaketak eta lortu duen konplexutasuna deskribatzen ditu:

‘The historical development of stylometry ... lexical features have predominated, yet this decade has seen the application of syntactic and semantic features to attributional problems, allied to the enormous growth in computing power and the increasing availability of machine-readable texts’. (Holmes 1998:111-112).

Aipaturiko hizkuntza-ezaugarriez gain, estiloa idazkeraren hizkuntzaz kanpoko faktoreekin ere lotu daiteke, literatura-ikasketetan estilistikaren inguruko analisiak hizkuntzara mugatzen ez diren bezalaxe, nahiz eta badakigun hizkuntzaz gaindiko ezaugarri hauek, beren izaera dela medio, bereziki iheskorak suerta daitezkeela.

A study of translator’s style must focus on the manner of expression that is typical of a translator... It must attempt to capture the translator’s characteristic use of language, his or her individual profile of linguistic habits, compared to other translators... style is a matter of patterning, it involves describing preferred or recurring patterns of linguistic behaviour, rather than individual or one-off instances of intervention (Mona Baker 2000: 245).

Estiloa, esan bezala, oso kontzeptu orokorra denez, gure zeregina ez da izango guk osatutako corpusean agertzen diren itultzaileen (eta idazleen) estiloa bere osotasunean ikertzea, baizik eta errusierazko EPak euskaratzean gertatzen diren estiloarekin lotutako fenomenoak analizatzea.

Bakerrek itultzaile baten estiloa aztertzen hasteko hiru galderetatik abiatzea proposatzen du:

a) Is a translator’s preference for specific linguistic options independent of the style of the original author?; b) Is it independent of general preferences of the source language, and possibly the norms or poetics of a given sociolect?; c) If the answer is yes in both cases, is it possible to explain those preferences in terms of the social cultural or ideological positioning of the individual translator? (Baker 2000: 248)

Gure corpuseko emaitzak aztertzean (ik. IV. 4.) ikusiko dugu idazlearen eta itultzailearen estiloak hertsiki lotuta daudela, eta beraz, itzulpen-prozesuaren baitan, ezin dela bat bestea gabe ulertu. Nahiz eta sarritan harreman hori objektibatzea zaila izan,

estiloa bere osotasunean hartu behar dela garbi dago, hitz solteen itzulpenean geratu beharrean, idazle-itzultzaile baten joerak ahalik eta modu osoenean aztertuz, eta aldi berean, gure irismenaren barruan egongo diren fenomenoei atxikiz.

II. KAPITULUA: METODOLOGIA

1. CORPUSAK ETA CORPUSGINTZA

Harluxet hiztegi entziklopedikoak bi esanahi aitortzen dizkio *corpus* hitzari: batetik *gai bati buruzko testu edo agiri-bilduma*, bereziki *gai hura aztertzeko erabilia* eta bestetik, zehazki hizkuntzalaritzari dagokiona, *analisiaren abiapuntua den eta aztergaia osatuko duen enuntziatu-multzoa*.

Berez, edozein testu-bilduma erabil daiteke corpus bat eratzeko, baina bistakoa da corpus batean sartu beharreko testuak irizpide nahiz helburu jakin batzuen arabera aukeratu behar direla. Corpus motaren eta datu-bilketan erabilitako irizpideen zordun izango dira, halaber, lortutako emaitzak.

Corpusak izan daitezke idatzizkoak edo ahozkoak; elebakarrak, elebidunak edo eleanitzak; diakronikoak edo sinkronikoak; amaitu gabekoak (irekiak) edo amaituak (itxiak); konparagarriak edo paraleloak... Azken bi hauek dira, hain zuzen, itzulpengintza-ikerketetan gehien erabiltzen direnak, eta gure arreta batez ere hauetan finkatuko dugu.

1967an *Brown Corpora* argitaratu zenetik, corpusak gehienbat hizkuntzalaritzan erabili izan diren arren, gaur egun beste jakintza-arlo askotara zabalduta da haien erabilera, besteak beste itzulpengintza-ikerketetara.

Bestalde, *corpusa* gaur egun formatu elektronikoa bilduriko datu-bilduma bezala soilik uler daiteke, datu horiek guztiak kudeatzeko baliabide informatiko ugari dagoelarik eskuragarri.

2. CORPUS BIDEZKO ITZULPENGINTZA-IKERKETAK

Itzulpengintza-ikerketetan corpusen osaketa eta ustiapen sistematikoaren hedatzea itzulpengintzaren teoriak 70eko hamarkadatik izandako garapenaren testuinguruan ulertu behar da. Aurreko puntuan aipaturiko Even Zoharren *Polisistemen teoriak* eta Toury-ren *Itzulpen-arauek* ordura arteko egoera irauli zuten: ikerlarien arreta sorburu-testutik eta sorburu-kulturatik xede-testura eta xede-kulturara igaroarazi zuten, eta aldi berean, erabakigarriak izan ziren ikuspuntu preskriptiboa alde batera uzteko, ikuspuntu deskriptiboago baten mesedetan.

Itzultzaileak itzuli behar lukeena epaitzetik (ikuspuntu preskriptiboa) itzultzaileak benetan itzuli duena aztertzeraz igaro dira itzulpengintza-ikerlariak, eta jakina, hori egin ahal izateko geroz eta beharrezkoago bihurtzen da datuak biltzea eta horiek irizpide jakin

batzuen arabera sailkatzea. Testuinguru horretan sortzen eta zabaltzen da itzulpengintza-ikerketetan corpus bidezko ikerketa.

90eko hamarkadatik aurrera, ikertzaile batzuk itzulpengintza-ikerketa deskriptiboentzat corpusgintzak zeukan garrantzia azpimarratzen hasten dira (Baker 1993, 1999, 2000; Laviosa 1997, 1998; Olohan 2004):

The implied aim of all studies on translation was never to establish what translation itself is, as a phenomenon, but rather to determine what an ideal translation, as an instance, should strive, to be in order to minimise its inevitable distortion of the message, the spirit, and the elegance of the original.

...The question is no longer how equivalence might be achieved, but, increasingly, what kind of equivalence can be achieved and in what contexts... This in itself is a noticeable improvement on the traditionally static view of equivalence, but it still assumes the primacy of the source text and it still implies that a translation is merely a text striving to meet the standards of another text (Baker 1993: 236).

Arazoaren aurkezpen honetatik abiatuta, Bakerrek corpus bidezko ikerketen garrantzia nabarmentzen du, *baliokidetasunaren* ordez *arauak* kontuan hartuz eta *esanahiaren* ordez *erabilpen erreala*.

...If the idea is not simply to reproduce the formal structures of the source text but also to give some thought, and sometimes priority, to how similar meanings and functions are typically expressed in the target language, then the need to study authentic instances of similar discourse in the two languages becomes obvious. ...Two expressions are equivalent in meaning if and only if there is a correspondence between their uses.

...The emphasis has shifted from meaning to usage, and the notion of equivalence is gradually giving way to that of norms.

...The move away from source texts and equivalence is instrumental in preparing the ground for corpus work because it enables the discipline to shed its longstanding obsession with the idea of studying individual instances in isolation (ibid: 236-237)...

Itzulpengintza-ikerketetan gehien erabiltzen diren corpusak konparagarriak eta paraleloak dira.

Corpus *konparagarria* A hizkuntza bateko testu originalak eta B hizkuntza bateko testu originalak biltzen dituena da. Testu hauek ‘konparagari’ izan daitezzen sorkuntza-datan, generoan, estiloan eta beste zenbait elementutan bat etorri behar dute.

Corpus *paraleloa*, aldiz, A hizkuntzan sorturiko testu batzuek eta beraien B hizkuntzarako itzulpenek osatzen dute, hartara bi hizkuntza-sistemak, testu bera oinarri dutelarik, aurrez-aurre jartzen direlarik.

Corpus paraleloak dira ohikoenak itzulpengintza-ikerketetan, nahiz eta –azterketa jakin batek hala eskatuz gero– bi corpus motak batera ere ager daitezkeen. Corpus paraleloen inguruan asko hausnartu izan da, izenetik beretik hasita.

Johanssonek, adibidez, ‘corpus paralelo’ izenaren ordez ‘itzulpen-corpus’ deitzea hobesten du, corpus elebidunei ere paralelo esan izan zaielako, itzulpenak ez diren arren. Halere, ‘corpus paraleloak’ terminoa oso zabaldua dago, eta guk horixe erabiliko dugu hizkuntza bateko jatorrizko testuak eta beraien itzulpenak hartzen dituen itzulpengintza-corpus bat definitzeko. Guk geuk hemen aurkeztuko duguna bezalakoak izendatzeko, alegia.

Corpus paraleloak norabide bakarrekoak edo bi norabidetakoak izan daitezke. Lehenengoetan SHtik XHra itzulitako testuak bilduko dira. Bi noranzkokoetan A hizkuntzatik B hizkuntzara, baina baita alderantziz –Btik Ara– itzulitako testuak agertuko dira. Azken hauek barnean corpus konparagari bat dutela esan daiteke, bi hizkuntzetako testu orijinalak hartzen dituztelako beraien baitan.

Aitzitik, corpus paraleloen arriskuetao bat XTren balizko naturaltasun-galera ez atzematea izan daiteke; hots, STaren eraginez, berez XHn ekoiztako testuetan agertu behar ez luketen fenomenoak agertzen direla edota alderantziz, agertu behar luketenak ez agertzea. XTren inguruan ateratako ondorioak hizkuntza naturalean aplikagarriak ote diren baieztatu behar dela diote zenbait adituk, horretarako corpus konparagari gehigarriez baliatzea gomendatu ohi dutelarik. Adibidez, Johanssonek berak:

...to what extent can we take translated texts to be representative of ordinary language use? Translated texts may differ from original texts because of source language influence... In using translation corpora in contrastive studies, it is therefore important to be able to control for translation effects. This can be done by including translations in both directions (Johansson 2007:6).

Tesi honetarako ez dugu osatu errusierazko eta euskarazko testu orijinalaz osatutako erlatibozko perpausen corpus konparagarri propiorik, baina gure corpus paraleloaren emaitzak bai alderatuko ditugu beste ikertzaile batzuek euskarazko erlatiboekin osatu dituzten corpusetako emaitzekin, testu itzuliak izateak interferentziak sortzen ote dituen edo ez jakiteko.

Arazoak arazo, itzulpenetan XHrentzat naturalak ez diren joerak aurkitzeko saiakerak ez dira berriak, eta horretarako –naturaltasuna baieztatu edo ez– bistakoa da corpusen balioa.

3. EUSKARAZKO CORPUSGINTZA

Euskarazko corpusgintza sakonki aztertzen hasi gabe –ez baita hori tesi honen zioa– gure corpusarentzat eredarri izan daitezkeen batzuk aipatuko ditugu:

Corpus elebakarrak dira euskaraz sarrien topa ditzakegunak, hizkuntza bakar baten –gure kasuan euskararen– alderdi desberdinak lantzeko pentsatuak, euskararen kasuan nagusiki hiztegi-gintza eta hizkuntzaren arautzea.

Euskal corpusgintzan historikoki gehien nabarmendu dena Euskaltzaindia izan da, nahiz eta azkeneko urteetan beste eragile batzuk agertu diren, hala nola UZEI (corpusetako datuen kudeaketarako tresna ugari sortuz) edota ELHUYAR, zientzia eta euskara uztartzeko saiakera ugari eginez. Ez gara aplikazio posible guztiak aztertzen hasiko, baina agerikoa da, besteak beste, hiztegi-gintzan, hizkuntza-politikan, itzulpen-gintza automatikoko tresnen diseinuan eta beste hainbat eremutan corpus hauek daukaten garrantzia, zer esanik ez euskararen garapen-maila daukaten hizkuntzetan, baina baita mundu mailako hizkuntza handietan ere.

Corpus elebidunak/eleanitzak bi hizkuntza edo gehiagori buruzko datuak biltzen dituztenak dira. Horien artean bereziki itzulpen-gintzarako pentsatutakoak dira nagusi, nahiz eta batzuetan corpus baino areago itzulpen memoriez hitz egin dezakegun. Halaber, *sektore* bakoitzaren beharrek baldintzatzen dituzte corpusaren osaera eta testu-aukeraketarako irizpideak, hala nola zientzia, merkataritza, itzulpen-gintza, didaktika²... Noski, corpus elebidun/eleanitzun hauek elebakar moduan ere erabil daitezke, unean uneko beharren arabera.

² Batzuk aipatzekotan: IVAPen *IDABA*, EHUren *Itzulpenen Kontsulta*, *EIZI*ren *corpusa*, Gipuzkoako eta Bizkaiko Aldundien datu-baseak, Deustuko Unibertsitateko *LEGE-Bi*, UZEIren *Itzulpen-corpusa*, EROSKIren *Consumer Aldizkariko corpusa*...

3.1. Corpusgintza euskarazko erlatibakuntzari aplikatzen: aurrekariak

Gure corpusaren xedea errusierazko erlatiboazko perpausen euskaratzea aztertzea denez, eta horretarako corpus bidezko metodologia aukeratu dugunez, bi elementu hauek –euskarazko erlatiboazko egiturak eta corpus bidezko ikerketa– uztartu dituzten bi egile aipatuko ditugu hemen: Koldo Bigurik argitaratutako *Erdarazko erlatiboan itzulpenaz* artikulua (Biguri 1994), eta Bittor Hídalgo erlatibo aposatuaren inguruan kaleratutako ikerlan-sorta (Hidalgo 2002a, 2002b, 2003, 2004).

Bigurik bere artikuluan (Biguri 1994), gaztelaniatik euskaraturiko testu batzuk oinarri hartuta, EPak itzultzeko modu desberdinak ditu hizpide. Alegia, zuzen-zuzenean erlatibakuntza eta itzulpena uztartzen dituen hausnarketa bat da, Bigurik berak bere artikulua sarreran aipatzen duen moduan:

Lan honetan joan den mendeko eta mende honetako itzultzaile batzuen lanetatik ateratako corpus bat osatu da, esaldi erlatiboak nola itzuliak izan diren aztertzeko. Izan ere, Lafitteren baieztapen bati jarraituz, euskarak ez du inguruko erdarek adina erabiltzen erlatiboaren prozedura, eta, beraz, erdarazko erlatiboaren itzulpena beste baliabide batzuen bitartez egin behar da. Corpus honetan, beraz, hainbat prozedura aurkitu dira, gure gaurko lanerako guztiz erabilgarri izan daitezkeenak, nahiz eta itzulpen ezegokiak egon ere badauden. Hortaz, azterketa konparatista bat egin da, hizkuntza bakoitzaren joerak argitzeko (Biguri 1994: 1).

Bittor Hídalgoena lan zabalagoa da (Hidalgo 2002a, 2002b, 2003, 2004), eta euskarazko erlatibo aposatuak aztertzea du helburu, horretarako tamaina handiko bi corpus osatzen dituelarik: egilearen beraren terminologiaz baliatuz, *1994koa* eta *Medikantza*.

1994ko corpusak euskaraz ekoiztutako testuak soilik biltzen dituenez, gure lanaren helburuetarako garrantzitsua izango da, euskara ‘naturalean’ (jatorrizkoan, elebakarrean) ematen den erlatibakuntza-estrategia desberdinen banaketa gure itzulpengintza-corpusean topatu dugunarekin alderatu ahal izateko.

Medikantza, aldiz, itzulpena da edo –zehatzago esanda– berridazketa, jatorrizkoaren nahiz itzulpenaren egileak berdina baitira. Halere, ST bat eta xede-testu bat daukanez, itzulpentzat har dezakegu. *Medikantza* eta gure literatura-corpusa bi hizkuntza

indoeuoparretatik euskaratutako EPez osatuak egoteak, bereziki interesgarri bihurtuko du bi corpus horietako emaitzak konparatzea.

Corpusgintza eta erlatibakuntzaren ikerketa uztartzen dituzten bi egile hauen ondorioak gure literatura-corpus paralelotik ateratako datuen azterketarako erreferentzia baliagarria izango dira.

3.1.1. Koldo Biguriren *Erdarazko erlatiboan itzulpenaz*

XIX. eta XX. mendeetan gaztelaniatik euskaraturiko bost liburutatik erlatibozko perpausak erauzi eta corpus bat osatzen du Bigurik, ondoren gaztelaniazko perpausak eta beraien euskal ordainak aztertzeko xedez. Egileak corpora osatzeko erabilitako liburuak ondorengoak dira: *Liberalen dotriña pecatu da*/El liberalismo es pecado (1887), *Liberalkeria pecatuba da*/El liberalismo es pecado (1891), *Gau iluna*/Noche Oscura (1893), *Kantu espirituala*/Canto espiritual (1893), *Paskual Duarte*/Pascual Duarte (1967).

Gero, guk gure corpusarekin erabili dugunaren antzeko eskema bati jarraituz, lortutako datuak zenbait irizpideren arabera sailkatzen ditu:

- Lehendabizi euskarazko ordaina erlatibozkoa den ala ez finkatzen du.
- Euskal ordaina erlatibozkoa bada, zein erlatibakuntza-estrategiarekin osatua dagoen zehazten saiatzen da.
- Euskal ordainak erlatibozkoak ez badira, euskararen zein baliabidek ordezkatzeko dituen zerrendatzen du.
- Azkenik, gaztelaniazko perpausak murrizgarriak edo ez-murrizgarriak diren eta horrek itzultzerakoan eraginik ote daukan aztertzen du.

Artikulu soil bat izanik, noski, corpus osatuago bat eratzeko xederik ez dio jartzen bere buruari. Horrez gain, emaitzen datu estatistikorik ez du ematen, gure corpusarekiko erkaketa zailduz.

Edonola ere, Biguriren artikulua EPak gaztelaniatik euskarara itzultzerakoan gertatzen diren fenomenoaren gaineko hausnarketa interesgarria da, eta erraz lotzen da tesi honen helburuekin, guk gure corpuseko datuetan ezarri dugun oinarritzko eskemarekin bat baitator: gaztelaniazko/errusierazko erlatibozkoen euskal ordainak bi eratakoak izan daitezkeela: erlatiboak eta ez-erlatiboak (ik. IV. kapitulua).

3.1.2. Bittor hidalgoren bi corpus

Bittor Hildagoren lana luzeagoa eta sakonagoa da, eta hainbat artikulutan banatuta eman du ezagutzera, gaika banatuta: *erlatibo hautsiak* (Hidalgo 2002a), *-en erlatibo aposatuak* (Hidalgo 2002b), *ZEIN eta BAIT- erlatiboak* (Hidalgo 2003) eta *Izen determinatu gabeen ondorengo erlatiboak* (Hidalgo 2004). Egilearen helburuen artean hitz-ordena garbizalearen –‘antierderistaren’– ajeak salatzeko asmoa nabari denez, EP aposatuek bereganatzen dute batez ere bere arreta; historikoki euskararen senaren aurkakotzat aurkeztu izan direlako, eta bera ez dagoelako horrekin ados.

Hildagoren lana bi arrazoierengatik da guretzat garrantzitsua: batetik, hain zuzen erlatibo aposatuetan finkatzen duelako arreta, eta bestetik, datuak estatistikoki landuta daudelako, Hildagoren corpusaren eta gurearen arteko erkaketa erraztuz.

Erlatibo aposatuen agerpenaren nondik norakoak aztertzea da, hain zuzen, gure ikerketaren alderdi garrantzitsuetako bat, gure helburuetako bat baita zehaztea itzultzaile batek noiz eta zergatik ordezkatzeko duen euskararen oinarritzko erlatibakuntza-estrategia oinarritzkoak ez diren beste estrategia batzuekin, eta azken hauetatik asko erlatibo aposatuak lirateke. Hildagok berak ere helburu hori aitortzen duela esan daiteke:

...ezagutu beharko genuke, batetik, ea izen ardatzaren eskuinetarako erlatibo motok anekdotikoak diren euskal erabileran ala pisu berezia duten, bakanka edo bateratuak. Bestetik, ongi ulertu beharko genituzke euskal hiztun eta idazleak halako erabilerara daramatzaten arrazoiak, guk halako erlatiboek ere bide zuzena eman ahal izateko (Hidalgo 2005: 86).

Azter ditzagun banan-banan *1994ko* corpusaren eta *Medikantzaren* ezaugarri nagusiak.

3.1.2.1. 1994ko corpusa

1994ko corpusak 4681 baiezkotako adierazpen perpaus dauzka, %23 idatzizko testu klasikoak (Axular, Mogel, Duvoisin, Etxepare eta Agirrerenak) eta gainontzeko %77 ahozko testigantzak (hauetatik %80 gaur egunekoak eta %20 XIX. mendekoak).

Lagina, bere osotasunean, adierazgarria da, nahiz eta iturri txiki askotan banatua dagoen; alegia, hiztun/egile askoren erlatiboetako perpausak sartu dira corpusean, baina bakoitzaren testu kopurua txikia da. Zehazki, 46 hiztun/egilearen artean banatzen dira 4681 perpaus horiek.

Laburtuz: iturri asko, hauetako bakoitzak perpaus gutxi eta corpuseko perpausen hiru laurdenak ahozkoak izanik, corpus honetako perpausen ezaugarri nagusiak ahozkotasuna eta euskaraz ekoitziak izatea dira.

3.1.2.2. Medikantza edo erriko jendeentzat osasun legeak eta Medikantzako argibideak


M. Aranburuk eta M. Bago Agirrek, Deba eta Itziarko mediku izandakoek, *Erriko jendeentzat osasun legeak eta Medikantzako argibideak* izeneko liburuxka argitaratu zuten 1899an, aurretik egileek beraiek gaztelaniaz idatzitako *Manual de higiene y medicina popular*-en itzulpen edo moldaketa.

Ikus dezagun Hildagok berak nola deskribatzen dituen bigarren corpusa osatzeko aukeratutako liburuxkaren hizkuntza-ezaugarriak.

103 orrialde 1994ko argitalpenean eta 133 jatorrizkoan, 1899. urtekoan. Gipuzkeraz idatzia, baina euskararen Mendebaldetik ez oso urrun. Iparraldetik, aldiz, bertan erlatiboak dauzkaten ezaugarri bereziekin kutsatua ez egoteko bezain urrun. Euskara herrikoian, baina ez derrigorrez apalean idatzia; kutsu 'antierderristik' gabe. Aurretik egile bereberak gaztelaniaz idatzitako testu baten itzulpen-egokitzapena. Era guztietako erlatiboak erabiltzen ditu, salbu gaur egun ekialdekoat jotzen diren BAIT-erlatiboak (Hidalgo 2002a).

3.1.2.3. Erlatibo arrunt aposatuak Hildagoren bi corpusetan

Hildagoren bi corpusak nahiko desberdinak diren arren, erlatibo arrunt aposatuen proportzioa oso antzekoa da bietan (6. grafikoa): erlatibo arruntak erreferentzia bezala hartuz gero, *1994koan* erlatiboaren %18 eta *Medikantzan* erlatiboaren %9 dira *-(e)n* arrunt aposatuak. Gainontzekoak *-(e)n* erlatibo arruntak lirateke (hurrenez hurren %82 eta %91).




Grafikoa 6 Erlatibo arrunt aposatuak 1994koan eta Medikantzan

Aurrera dezakegu gure corpuseko datuen antzekoak direla Hildagoren corpusetakoak (ik. IV. kapitulua).

Ondoren, erlatibo arrunt aposatuen datuak osagai kopuruaren arabera sailkatu eta zera ondorioztatzen du: osagai kopurua eta erlatibo arrunt aposatuen proportzioa zuzenki proportzionalak direla. Alegia, EPko osagai kopurua igo ahala, erlatibo arrunt aposatu bat agertzeko aukera ere nabarmen igotzen dela.

7. grafikoko datuen arabera, badirudi hala dela, joera hori nabari baita bi corpusetan, nahiz eta 1994ko arrunt aposatuen proportzioa handixeagoa izan.




Grafikoa 7 Erlatibo arrunt aposatuak osagaika

Beraz, gure corpuseko datuak interpretatzeko baliagarri izan daitekeen faktore bat eskaintzen digu Hildagok: perpausen luzera erabakigarria izan daitekeela ardatzaren ezkerretarako erlatibo arrunt baten eta ardatzaren eskuinetarako -en arrunt aposatu baten arteko aukeraketa egiteko orduan.

3.1.2.4. ZEIN erlatiboak Hidalgoen bi corpusetan


ZEIN erlatiboekin gauza bera gertatzen ote da? Hasteko, bi corpusen artean bai nabari da desberdintasun bat ZEIN erlatiboen proportzioari dagokionez: Medikantzan erlatiboen %16 diren bitartean, 1994koan %2 soilik dira (8. grafikoa).



Grafikoa 8 ZEIN erlatiboak 1994n eta Medikantzan

Hidalgok berak corpusen osaketari egozten dio desberdintasun hori: 1994koa bere 3/4etan ahozkoa izateak eta Medikantza, aldiz, idatzizkoa, maila jasokoa eta ‘antizeinismoaren’ gorakadaren aurretik agertu izanak azalduko luke ZEIN erlatiboen proportzioan bi corpusen artean dagoen aldea (Hidalgo 2003: 21).

ZEIN erlatiboek esaldien luzeraren irizpidea aplikatuta, gehienak luzeak direla ikusten da, 4 edo bost osagaidunak (9. grafikoa).



Grafikoa 9 ZEIN erlatiboak osagaika

1994ko corpora txikiagoa da, eta ondorioz, bertatik ateratako laginen adierazgarritasuna ere ez da bestean bezain handia. Proportzio hauek kopuru absolutuetara eramanez gero, 1994koan 18 ZEIN erlatibo soilik daude, Medikantzan 208 diren bitartean.

Edonola ere, *ZEIN* erlatiboak batez ere perpaus luzeetan ematen direla garbi ikusten da corpus batean zein bestean.

3.1.2.5. *BAIT*-erlatiboak Hialgoren bi corpusetan

Hidalgok ez du modu honetako erlatiborik topatzen bere corpusetan, eta hauen historiaren inguruko iruzkin batzuk egitera mugatzen da. Gure corpusean *BAIT*-aurrizkiarekin osatutako erlatiboak sarritan ageri zaizkigunez, aurrerago erlatibo mota hau luze eta zabal lantzeko aukera izango dugu (ik. III. kapituluko 3.5. puntua).

III. KAPITULUA: ERRUSIERA-EUSKARA LITERATURA-CORPUSA

1. ERRUSIERA-EUSKARA LITERATURA-CORPUS PARALELOA: KATALOGOTIK CORPUSERA

Lehenago aipatu dugun moduan, corpus bidezko itzulpengintza-ikerketak metodologia deskriptiboaren baitan ulertu behar dira. Honen arabera, lehendabizi *Katalogo* edo *Corpus₀* bat osatzen da, inbentario orokor bat. Gero corpusak helburuen arabera mailakatzen dira, aldi berean esanguratsua eta maneia garria izango den neurri batera murriztu ahal izateko. Hartara, corpusgile bakoitzaren beharren arabera, *Corpus₁*, *Corpus₂*, *Corpus₃*... eratu ahal izango dira.

Hasiera batean, gure *Katalogoan* (edo *Corpus₀-an*) euskaraz argitaraturiko Errusiako literatura-lan guzti-guztiak bildu ditugu. Hortik abiatuta, *Corpus₁* osatu dugu, *Corpus₀-tik* itzultzaileak errusiera modu esanguratsuan jakin gabe egindako itzulpenak kendu eta zuzenean errusieratik euskaraturikoak soilik utziz. Azkenik, *Corpus₁-en* geratu zaizkigun eleberrien jatorrizko bertsoetatik errusierazko EP guztiak erauzi eta euskaraturiko bertsoak arakatu ditugu, errusierazko perpaus erlatibo horien euskal ordainen bila.

Horrela iritsi gara *Corpus₂-ra* (*errusiera-euskara literatura-corpora paralelo* edo, besterik gabe, *gure corpora* bezala ezagutuko dugun horretara): errusierazko perpaus erlatiboek eta horien euskarazko ordainek –erlatibo edo ez-erlatibo– osaturiko corpusera, hain zuzen.

Xeha dezagun urratsez urrats gure literatura-corpora paraleloaren –gure corpusaren– eraikuntza.

1.1. Corpus₀

Euskaraz argitaratutako errusiar literatura-lanen bila hasi eta guztira hogeita bederatzi topatu ditugu (1. taula). Erabili ditugun iturri formalak, batez ere, *www.armiarma.com* ataria eta Manu López Gaseniren Literatur Itzulpenen Katalogoa izan dira; azken hau *Nordanor* datu-basean txertaturik dago (<http://nordanor.net/>).

Itzulpe na	Jatorrizko a	Liburua	Egilea	Itzultzailea(k)
1982	1832	<i>Sudurra</i>	N. V. Gogol	Kalekumeak kol.
1984	1848	<i>Bihotz ahula</i>	F. M. Dostoievski	Josu Lasa
1984	1923	<i>Dersu Uzala</i>	V. K. Arsenev	Iñaki Iñurrieta
1985	1859-...	<i>Alegiak</i>	Lev N. Tolstoi	Bittor Madina
1987	1890-...	<i>Bi antzerki labur</i>	Anton P. Txekhov	Begoña Lasa
1987	1830-1840	<i>Bi kontu Petersburgoko</i>	Nikolai V. Gogol	Pablo Sastre
1988	1925	<i>Mediku baten oroitzapenak</i>	M. A. Bulgakov	Begoña Lasa
1990	1890-...	<i>Ipuinak</i>	Anton P. Txekhov	Xabier Mendiguren
1991	1886	<i>Ivan Ilitxen heriotza</i>	Lev N. Tolstoi	Xabier Mendiguren
1993	1866	<i>Jokalaria</i>	F. M. Dostoievski	Antton Garikano
1993	1842	<i>Longaina</i>	Nikolai V. Gogol	Xabier Mendiguren
1993	1914-...	<i>Poemak</i>	V. V. Maiakovski	Koldo Izagirre/Viktor Butxmeniuk
1995	1906	<i>Ama</i>	Maksim Gorki	Jose Morales
1996	1832	<i>Saltan erregea</i>	A. S. Puxkin	Jose Morales
1996	1840	<i>Gure garaiko heroia</i>	M. J. Lermontov	Jose Morales
1996	1836	<i>Kapitainaren alaba</i>	A. S. Puxkin	Jose Morales
1997	1913	<i>Samovar/marrazkiak</i>	Maksim Gorki	A. Aristondo
1998	1842	<i>Arima hilak</i>	Nikolai V. Gogol	Jose Morales
1998	1886	<i>Zaldi baten historia</i>	Lev N. Tolstoi	J. L. Eguireun
1999	1865	<i>Aita-emeak</i>	Ivan S. Turgeniev	Jose Morales
2001	1925	<i>Txakur-bihotza</i>	M. A. Bulgakov	Jose Morales
2004	1910	<i>Eskale filosofoa</i>	Maksim Gorki	Xabier Galarreta
2005	1961	<i>Azken gutuna eta beste</i>	Vasili Grossman	Felipe Juaristi
2006	1908	<i>Zazpi urkatuak</i>	Leonid N. Andreiev	Jose Morales
2006	1923-1937	<i>Zalditeria gorria</i>	Isaak E. Babel	Olga M. de Marigorta/ Roberto Serrano
2007	1926	<i>Don ibaiko ipuinak</i>	Mikhail A. Xolokhov	Olga M. de Marigorta/ Roberto Serrano
2008	1973-1980	<i>Konpromisoa</i>	Sergei D. Dovlatov	Iker Sancho
2009	1930	<i>Lubakia</i>	Andrei Platonov	Iker Sancho
2009	1997	<i>Piknika izotzetan</i>	Andrei J. Kurkov	Olga M. de Marigorta

Taula 1 Corpus₀: euskaraz argitaratutako errusiar literatura

Lehendabiziko begi-kolpetik argi ikusten da liburu-zerrenda heterogeneo samar baten aurrean gaudela, eta corpora mugatzen eta mailakatzen jarraitu beharko dugula.

Edonola ere, errusiar literaturaren euskaratzearen inguruko zirrikituetan barneratzeko abiapuntu egokia da *Corpus₀*.

Lehenengo euskal itzulpena eta azkenekoa 27 urtek banantzen dituzte (1982-2009). 27 urte horietan buruturiko itzulpenetan errusiar literaturaren 165 urte daude ordezkatuak: 1832 inguruan Nikolai Gogolek eta Aleksandr Puxkinek idatziriko lanetatik hasi eta Andrei Kurkov ukrainarrak 1997an argitaratutako *Piknika izotzetan* eleberrira arte. Azken hau da gainera jatorrizkoa eta bere itzulpena denboran gertuen dauzkana (12 urte, errusierazko literatura euskaratzearen testuinguruan oso tarte txikia).

Esan bezala, *Corpus₀*-ko lehenengo errusiar eleberritik azkenekora arte 165 urte doaz, XIX. mendearen azken hiru laurdenak eta XX. mendea ia osorik hartzen dituztelarik bere baitan. Jatorrizko hogeita bederatzi eleberrietatik hamabost (%52) XIX. mendean idatzitakoak dira, eta gainontzeko hamalauak (%48) XX. mendeari dagozkio. Zenbaki hutsetan geratuz gero, beraz, bi mende horien ordezkapena nahiko orekatua dagoela esan daiteke.

	KOPURUA	%
XIX. MENDEA	15	52
XX. MENDEA	14	48
GUZTIRA	29	100

Taula 2 Errusieratik euskarako itzulpenak mendeen arabera

XIX. mendea errusiar literaturaren urrezko aroa da. Garai horretakoak dira mundu osoan famatu bihurtu diren eta literatura unibertsalaren klasikotzat dauzkagun errusiar idazleak – corpusean ordezkatuak dauden Puxkin, Lermontov, Gogol eta Turgeniev, Dostoievski, Tolstoi Txekhov beste–.

XX. mendeak ere eman ditu harribitxiak errusiar literaturan. Horietatik nahiko ezagunak diren Gorki, Bulgakov, Maiakovski eta Andreiev, adibidez, euskaratuak daude, eta baita Xolokhov nobel sariduna ere. Halaber, gerra zibila gaitzat daukan Babel, kolektibizatzeko behartuen garaia jorratzen duen Platonov edota Brezhneven garaiko egunerokotasun ustela kontatzen duen Dovlatov ere *Corpus₀*-n ikus ditzakegu.

Liburu asko ez diren arren, aukera nahiko anitza eta kalitatezkoa dela esan daiteke.

Bestalde, XIX. eta XX. mendeak *Corpus₀*-n ia berdinean ordezkatuak egoteak irakurketa bat baino gehiago izan dezake. Alde batetik, positibotzat jo dezakegu, gauza berriagoak ere itzultzen direla esanez eta ez bakarrik betiko XIX. mendeko klasikoak. Azken finean,

euskaraturiko literaturaren arazoetako bat da gauza berriak gutxi itzultzen direla, irakurle-merkatu murrizta, egile eskubideen garestitasuna eta beste hainbat faktore tarteko.

Halere, ikuspuntu baikor honi ihardets diezaiokegu, “betiko XIX. mendeko egile klasiko” asko ere ez daudela euskaratuak, eta euskaratuta daudenetatik ere bakoitzetik liburu bat edo bakar batzuk bakarrik dauzkagula eskuragai. Beraz, klasiko hauek euskaraz irakurtzeko aukera urriegia da oraindik.

Bestalde, XX. mendea ere geroz eta urrunago geratzen zaigunez, XX. mende hasierako egile baten “berritasuna” ere zalantzan jartzeko modukoa da.

Errusiar literatura euskaratzen jardundako itzultzaileak hamazazpi dira (3. taula).

ITZULTZAILE/ITZULPEN-KOPURUA		
ITZULTZAILE-KOPURUA	BAKOITZAREN ITZULPEN-KOPURUA	
12	1	12
3	2	6
1	3	3
1	8	8
17	-	29

Taula 3 Errusiar literaturaren euskaratzaileak

Hogeita bederatzita liburuetatik lau bi itzultzailek edo gehiagok batera itzuliak dira.

Gainontzeko hogeita bostak bakarkako itzulpenak dira, nahiz eta itzultzaile batzuek liburu bat baino gehiago itzuli duten. Hamazazpi itzultzailetatik hamabik liburu bakarra itzuli dute, beste hiruk bakoitzak bina liburu, batek hiru itzulpen dauzka argitaratuak, eta azkenik, gehien nabarmendu denak, zortzi itzuli ditu.

*Corpus*_σ-k eskaintzen dituen datuetan oinarrituz, bi fase bereizi ditzakegu: 1982tik 1999ra artekoa eta 1999tik 2009rako edo, bestela esanda, jatorrizko testuei buruz hitz egiterakoan XIX. eta XX. mendeen arteko bereizketa egin badugu, itzulpenei dagokienez XX. eta XXI. mendeen artekoa egin behar dela dirudi.

1.1.1. 1982-1999

Badirudi 1999 urtean eten bat dagoela, urte horretan itzultzen baita XIX. mendean idatzitako corpuseko azken eleberria, Ivan Turgenieven *Aita-semeak* liburua. Ordura arteko bi hamarkadetan euskaraturiko hogeita liburuetatik hamabost (%75) ziren XIX. mendekoak (4. taula) eta bost bakarrik (%25) XX. mendekoak (5. taula).

Zk	Itzulpena	Jatorrizkoa	Liburua	Egilea	Itzultzaileak
1	1982	1832	<i>Sudurra</i>	Nikolai V. Gogol	Kalekumeak kol.
2	1984	1848	<i>Bihotz ahula</i>	F. M. Dostoievski	Josu Lasa
3	1985	1859-...	<i>Alegiak</i>	Lev N. Tolstoi	Bittor Madina
4	1987	1890-...	<i>Bi antzerki labur</i>	Anton P. Txekhov	Begoña Lasa
5	1987	1830-1840	<i>Bi kontu Petersburgoko</i>	Nikolai V. Gogol	Pablo Sastre
6	1990	1890-...	<i>Ipuinak</i>	Anton P. Txekhov	X. Mendiguren
7	1991	1886	<i>Ivan Ilitxen heriotza</i>	Lev N. Tolstoi	X. Mendiguren
8	1993	1866	<i>Jokalaria</i>	F. M. Dostoievski	Antton Garikano
9	1993	1842	<i>Longaina</i>	Nikolai V. Gogol	X. Mendiguren
10	1996	1832	<i>Saltan erregea</i>	Aleksandr S. Puxkin	J. Morales
11	1996	1840	<i>Gure garaiko heroia</i>	M. J. Lermontov	J. Morales
12	1996	1836	<i>Kapitainaren alaba</i>	Aleksandr S. Puxkin	J. Morales
13	1998	1842	<i>Arima hilak</i>	Nikolai V. Gogol	J. Morales
14	1998	1886	<i>Zaldi baten historia</i>	Lev N. Tolstoi	J. L. Eguireun
15	1999	1865	<i>Aita-emeak</i>	Ivan S. Turgeniev	J. Morales

Taula 4 XIX. mendeko errusiar idazleen euskal itzulpenak

Zk	Itzulpena	Jatorrizkoa	Liburua	Egilea	Itzultzaile(k)
1	1984	1923	<i>Dersu Uzala</i>	V. K. Arsenev	Iñaki Iñurrieta
2	1988	1925	<i>Mediku baten oroitzapenak</i>	Mikhail A. Bulgakov	Begoña Lasa
3	1993	1914-...	<i>Poemak</i>	V. V. Maiakovski	K.Izagirre/V.Bu txmeniuk
4	1995	1906	<i>Ama</i>	Maksim Gorki	J. Morales
5	1997	1913	<i>Samovar/marrazkiak</i>	Maksim Gorki	A. Aristondo

Taula 5 XX. mendeko errusiar idazleen euskal itzulpenak

1982tik 1997ra arteko fase honetan, gainera, idazle-talde murriz eta aukeratu bat topatzen dugu: Gogol lau aldiz dago itzulia; Tolstoi eta Gorki hiruna aldiz eta Puxkin, Txekhov, Dostoievski eta Bulgakov bina bider. Beraz, garai honetan argi eta garbi nabari da errusiar idazle klasikoekiko miresmen bat itzultzaileengan, argitaratzaileengan, publikoarengan edo, ziurrenik, horien guztiengan.

Urte horietan argitaratzen diren XX. mendeko bost liburuen egileak ere (Gorki, Arsenev, Bulgakov eta Maiakovski) XIX. mendean jaiotak dira, nahiz eta beraien idazle-jarduna XX. mendean kokatzen den.

Hori dena kontuan hartuta, baieztatu dezakegu 80ko eta 90eko hamarkadetan agerikoa dela errusiar literatura klasikorako zaletasuna errusiar literatura euskaratzeko prozesuan parte hartzen zuen jendearengan.

1.1.2. 2001-2009

XXI. mendea hastearekin batera, joera guztiz aldatzen da, eta 1999an *Aita-semeak* itzultzen denetik, ez da berriro XIX. mendeko errusiar literatura-lan bakar bat ere itzuli.

Bigarren fase hau 2001ean Bulgakov *Txakur-bihotzarekin* hasi eta Kurkoven *Piknika izotzetan* liburuarekin amaitzen da 2009an. Itzultitako bederatzita liburuen jatorrizko bertsiotak ondorengo urteetan idatzitakoak dira: 1908, 1910, 1923-37, 1925, 1926, 1930, 1961, 1973-1980, 1997. Beraz, XX. mendeko lehendabiziko erdikoak gehienak eta soilik hiru bigarren erdikoak (6. taula).

Itzulpena	Jatorrizkoa	Liburua	Egilea	Itzultzaile(k)
2001	1925	<i>Txakur-bihotza</i>	Mikhail A. Bulgakov	Jose Morales
2004	1910	<i>Eskale filosofoa</i>	Maksim Gorki	Xabier Galarreta
2005	1961	<i>Azken gutuna eta beste</i>	Vasili Grossman	Felipe Juaristi
2006	1908	<i>Zazpi urkatuak</i>	Leonid N. Andreiev	Jose Morales
2006	1923-1937	<i>Zalditeria gorria</i>	Isaak E. Babel	O. M. de Marigorta/ Roberto Serrano
2007	1926	<i>Don ibaiko ipuinak</i>	Mikhail A. Xolokhov	O. M. de Marigorta/ Roberto Serrano
2008	1973-1980	<i>Konpromisoa</i>	Sergei D. Dovlatov	Iker Sancho
2009	1930	<i>Lubakia</i>	Andrei Platonov	Iker Sancho
2009	1997	<i>Piknika izotzetan</i>	Andrei J. Kurkov	O. M. de Marigorta

Taula 6 2001-2009 urteetan euskaraturiko errusiar literatura-lanak

Fase honetako beste berezitasun bat da egileak ez direla jada errepikatzen. Horrek egile berriak ezagutzera emateko eta idazleak ez errepikatzeko joera bat iradoki lezake.

Horrez gain, XXI. mendeko lehenengo hamarkada honek beste ezaugarri bat dauka: errusiera modu esanguratsuan menperatzen duten itzultzaile gehienak garai honetan agertzen dira, eta beraz, 6. taulan ikusi berri ditugun itzultzaile –eta beraz itzulpen– ia gehienak corpusaren hurrengo mailakatzean agertuko dira.

1.2. Corpus₁

Euskal Herrian errusieraren ezagutza nahiko berria eta mugatua denez, orain arte euskaraturiko errusiar literaturari buruz hitz egiten dugunean, bi itzulpen mota bereizi behar ditugu derrigor: zeharka beste hizkuntza batetik euskaratutakoak eta errusieratik zuzenean itzulitakoak.

Errusiera modu esanguratsuan menperatzen duten itzultzaileen peskizan ibili ondoren, eskakizun hau *Corpus₀*-ko hogeita bederlatzi itzulpenetatik hamabitan betetzen dela ondorioztatu dugu, eta hortaz, hamabi itzulpen hauek errusieratik zuzenean, edo behintzat, neurri handi batean errusiera kontuan hartuta euskaraturiko testutzat hartuko ditugu.

Horrek ez du esan nahi beste hizkuntza batzuen bitartez itzulitako testuak automatikoki gutxien ditugunik, eta zeharkako itzulpen batzuk alboratzeak ez du esan nahi itzulpen horien kalitatearen inguruko juzgurik egiten denik. Halere, bistakoa da bi hizkuntzetako erlatiboeko egiturak alderatu nahi baditugu, hizkuntza-sistemen alderagarritasuna bermatu behar dugula nolabait, eta horretarako batetik besterako zuzeneko itzulpenak behar genituela derrigorrez, interferentziak saiheste aldera. Baldintza hori betetzen zuten hamabi liburu geneuzkanez, filtro hori aplikatzea egoki iruditu zaigu.

Corpus₀-tik *Corpus₁*-erako urratsa ematerakoan, lauzpabost itzulpenek zalantzak sortarazten zizkiguten, itzultzaile batzuek errusiera apur bat ikasia zutelako edota itzulpenean bertan errusierako hitzunen baten laguntzaz baliatu zirela aipatzen zelako. Halere, ez zitzaigun iruditzen testu hauek eta errusieratik zuzenean itzulitakoak corpus berdinean elkarren alboan jartzea egokia zenik.

7. taulan ikusten den bezala geratuko litzateke *Corpus₁*.

Zk.	Jatorrizkoa	Itzulpena	Liburua	Egilea	Itzultzailea(k)
1	1906	1995	<i>Ama</i>	Maksim Gorki	Jose Morales
2	1840	1996	<i>Gure garaiko heroia</i>	M. J. Lermontov	Jose Morales
3	1836	1996	<i>Kapitainaren alaba</i>	A. S. Puxkin	Jose Morales
4	1842	1998	<i>Arima hilak</i>	Nikolai V. Gogol	Jose Morales
5	1865	1999	<i>Aita-semeak</i>	Ivan Turgeniev	Jose Morales
6	1925	2001	<i>Txakur-bihotza</i>	Mikhail Bulgakov	Jose Morales
7	1908	2006	<i>Zazpi urkatuak</i>	L. N. Andreiev	Jose Morales
8	1923-1937	2006	<i>Zalditeria gorria</i>	Isaak E. Babel	O. M. de Marigorta / R. Serrano
9	1926	2007	<i>Don ibaiko ipuinak</i>	M. A. Xolokhov	O. M. de Marigorta / R. Serrano
10	1973-1980	2008	<i>Konpromisoa</i>	S. D. Dovlatov	Iker Sancho
11	1930	2009	<i>Lubakia</i>	Andrei Platonov	Iker Sancho
12	1997	2009	<i>Piknika izotzetan</i>	Andrei J. Kurkov	Olga M. de Marigorta

Taula 7 Errusieratik zuzenean itzuli duten itzultzaileak

Jatorrizkoen artean zaharrena 1836an argitaratua da eta berriena, berriz, 1997an. Jatorrizko testu guztiek egile desberdina dute, hau da, zuzenean errusieratik itzultakoen artean ez dago bi aldiz euskaratua izan den errusiar idazlerik. Beste hizkuntza batzuen bitartez itzultakoak kontatzen baditugu, berriz, badira behin baino gehiagotan itzuliak izan diren idazle klasiko banaka batzuk, *Corpus₀* aztertu dugunean ikusi dugun moduan.


Bost itzulpen 90eko hamarkadan argitaratu ziren, eta gainerako zazpiak mende honetako lehenengo hamarkadan. Lehenengo zuzeneko itzulpena 1995ekoa da, eta azkenekoa, berriz, 2009koa. Hamabitik hamar (%83) 'Literatura Unibertsala' bildumaren baitan eginak dira, eta beste biak (*Konpromisoa* eta *Piknika izotzetan*) argitaletxe banatan.

Interesgarria da ikustea 1995etik 2008ra arteko itzulpen guztiak 'Literatura Unibertsala' bildumaren baitan eginak direla. Bilduma horretatik at argitaratutakoak 2008-2009 urteetan itzuliak dira; azkeneko hiru itzulpenetatik bi, beraz.

Jatorrizko hamabi liburuetatik lau (%33) XIX. mendeko klasikoak dira eta gainontzeko zortziak (%67) XX. mendekoak. Hau lehen esandakoarekin bat dator, hots, denboran aurrera joan ahala, XX. mendeko liburuak nagusitzen direla.

Corpus-eko liburuen idazleak ez dira errepikatzen: hamabi errusiar libururi hamabi errusiar idazle dagozkie. Itzultzaileak, alta, bai errepikatzen dira, lehenago aipatu dugunaren haritik, hamabi libururentzat lau itzultzaile dauzkagulako gure corpusean. Guztiek gutxienez liburu bat baino gehiagoren itzulpenean parte hartu dute gainera. Lau itzultzaileetako batek *Corpus*-eko liburuen erdiak baino gehixeago itzuli ditu, hamabitik zazpi (%58). Beste batek bi liburu (%17), eta gainontzeko biek berezi samarra den zerbait gertatzen da: biek batera egin dituzte bi itzulpen (%17), baina ondoren itzultzaile-bikote horretako batek bere kasa itzuli du liburu bat (%8).

Aurrerantzean itzultzaile hauen inguruan luze eta zabal jardun behar dugunez, eta itzultzailearen nortasuna baino, bakoitzaren itzulpengintza-eredua interesatzen zaigunez – beharbada erlatibakuntza-eredua esan behar genuke– letra-izenak emango dizkiegu: liburu gehien itzuli duenari A itzultzailea deituko diogu; berak bakarrik bi itzuli dituena B itzultzailea izango da; D-E itzultzaileak elkarlanean aritutako bikoteko kideak izango dira, eta E itzultzailea liburu bat bere kasa itzuli duen bikote horretako kidea (10. grafikoa).



Grafikoa 10 Itzultzaile bakoitzak itzultitako liburu kopurua

1.3. Corpus₂

Corpus₁-eko hamabi liburuen jatorrizko bertsioak EPen bila arakatzea asko erraztu digu jatorrizko testu guztiak eta itzulpenen zati handi bat formatu digitalean eskuratu izanak.

Dena den, lanik handiena laginaren tamainak eman digu. Corpusaren neurria gehiago mugatzea posible bazen ere, errusieratik euskaraturiko liburu guztiak hamabi eta itzultzaileak lau izanik, denak bere baitan hartuko lituzkeen corpus bat osatzen ahalegindu gara. Beraz, errusierazko erlatibozko egituren euskarazko ordainak bilatu eta batzuk besteekin lerrokatu ditugu, azkenean *Corpus₂* edo aurrerantzean, besterik gabe, *gure corpora* deituko duguna osatuz.

Gure corpora errusierazko 2402 erlatibozko perpausez eta beraien 2402 euskal ordainez osatua dago.

Agerikoa da errusierazko perpaus guztiak erlatibozkoak direla, horixe baitzen corpusean egoteko bete behar zuten baldintza.

Errusierazko perpaus horien euskal ordainen izaera, aldiz, bestelakoa da: batzuetan erlatibozkoak izango dira, eta besteetan baliabide ez-erlatibo baten bidez euskaratuak egotea egokituko zaie.

Egoera horrek gure corpora ulertzeko funtsezko ezaugarri bat azaleratzen du: asimetria. Errusierazko adibideek zerrenda homogeen eta sistematizagarri bat osatzen duten bitartean, euskarazko ordainak sailkatzea lan nekezagoa izango da. Horixe izango da, hain zuzen, gure helburua: euskal ordainen izaera aztertu eta ordain horien aukeraketan eragiten duten faktore desberdinak ikertzea.

2. ERRUSIERAZKO ERLATIBOAK GURE CORPUSEAN

Aipatu dugu, beste eslaviar nahi indoeuropar hizkuntzetan bezala, errusieraren *oinarrizko erlatibakuntza-estrategia* erlatibozko izenordainaren erabilpenean datzala.

Errusierazko EPak bi elementuren inguruan eraikitzen dira: izenordain –edo aditzondo– erlatiboa (erlatibatzailea dena) eta ISE edo aurrekaria (erlatibatua dena).

(13)n, adibidez, ‘*učastie*’ izen ardatza daukagu, eta honen eskuinetara ‘*kotoryj*’ erlatibatzaile batekin hasten den mendeko EP bat agertzen da.

(13)

Učastie, [*KOTOROE* ona *vozbuždaeŋ*], tjaželo, kak milostynja.

BEGIKOTASUN [*ERL. AK* BERAK (F.) *PIZTEN DU*] (DA) ETSIGARRIA BEZALA LIMOSNA.

‘[*Pizten duen*] *begikotasuna* etsigarria duk, limosna bezainbateko.’

(GGH: 118)

Azter ditzagun banan-banan bi elementu hauek. Lehendabizi, gure corpuseko adibideez baliaturik, errusierak EPak osatzeko eskuragai dituen erlatibatzaileak eta horien ezaugarriak aurkeztuko ditugu, eta ondoren, erlatibatzaile horiei aurrekariaren izaerak nola eragiten dien ikusiko dugu.

2.1. Errusierazko erlatibatzaileak

Errusierazko erlatibatzaileak galdetzailleetatik eratorriak dira, eta bi multzotan sailka daitezke: izenordainak –izen edo izenlagun funtzioa har dezaketenak– eta aditzondoak.


Izenordain erlatiboak sei dira, eta galde-izenordainetan dute jatorria: *kotoryj* (‘zeina’), *koj* (‘zeina’), *kakoj* (‘zeina/nolakoa’), *čej* (‘noren/zeinaren’), *kto* (‘nor’) eta *čto* (‘zer’).

Čto erlatibatzaileari dagokionez, ohartarazi behar dugu bi aldaeratan banatu dugula, aurrekariaren izaeraren arabera: hemendik aurrera, *čto₁*, deituko diogu aurrekaritzat izenordain bat badu, eta ISE izen bat baldin bada, berriz, *čto₂* izango da.

Aditzondo erlatiboak, aldiz, lau dira, eta leku-denborazko galdetzailleetan dute jatorria: *gde* (‘non’), *kuda* (‘nora’), *otkuda* (‘nondik’) eta *kogda* (‘noiz’). Lehenengo hirurek –*gde*, *kuda*, *otkuda*– lekuzko esanahia dute, eta laugarrenak –*kogda*– denborazkoa.

Izenordain eta aditzondo hauek guztiak ez dira maiztasun berarekin agertzen; batzuk sarritan eta ia edozein testuingurutan erabiltzen diren bitartean, beste batzuek oso erabilpen eskasa dute, eta arrazoi desberdinak direla medio, testuinguru jakin batzuetara mugatuta daude. Ondorioz, erlatibatzaileen laginen adierazgarritasuna ez da beti berdina izango.

Ikus dezagun gure corpusean erlatibatzaile bakoitzak duen agerpen-maiztasuna edo, bestela esanda, erlatibatzaile bakoitzaren laginaren tamaina (11. grafikoa).



Grafikoa 11 Errusierazko erlatibatzaileen laginaren tamaina gure corpusean

Grafiko honetan garbi ikusten da erlatibatzaile hauek gure corpusean duten banaketa desberdina, bakoitzari eskainitako arretan eragina izango duena halaberrez.

Gure corpuseko perpausen %65 *kotoryj* izenordainarekin osatuak daude (1567 perpaus); %15 *čto*-rekin (348 perpaus); %13 aditzondo erlatiboekin (284 perpaus); %4 *kto*-rekin (106 perpaus) eta %3 *kakoj*-rekin (84 perpaus). Gainontzeko 13 perpausak – corpusaren %1 ere ez dena– *čej* eta *koj* erlatibatzaileekin osatuak daude (6 eta 7 perpaus, hurrenez hurren).

Esan dezakegu errusierak bost erlatibatzaile nagusi dauzkala, eta beste bi –*čej* eta *koj*– oso gutxi erabiltzen direnak eta estilistikoki oso maila jasokoa. Ondorioz, lehenengo bostetan finkatuko dugu batez ere gure arreta.

Banaketa honek hasiera-hasieratik iradokitzen diguna zera da: maiztasun handiena duten baliabideak estilistikoki neutroenak edo gutxien markatutakoak izango direla ziurrenik (*kotoryj* eta *čto*₁), eta alderantziz, gutxien erabiltzen direnak semantikoki markatuenak edo espezifikoak izatea litzatekeela ohikoena (Greenberg 1966, Keenan 1976, Givon 1990).

Edonola ere, eta markatua/ez markatua dikotomia hori zalantzan jar daitekeen arren, corpusetik ateratako emaitzak interpretatzeko garaian maiztasun hauek kontuan izan beharko ditugu, ezin baititugu berdin aztertu, adibidez, corpusaren %65 hartzen duen *kotoryj* eta %3ra ozta-ozta iristen den *kakoj*.

2.1.1. Galdetzaileak vs. Erlatibatzaileak

Errusierazko erlatibatzaile guztiak galdetzaileetatik eratorriak dira, Europako indoeuropar hizkuntzetan bederen, ohikoa den moduan (Heine & Kuteva 2006: 6).

Errusieraz, galdera-izenordain izatetik erlatibozko izenordainen funtzioa hartzera igarotzen direnean, aldaketa batzuk nozitzen dituzte (Šeljakin 1986:60-62), bai bakoitzaren izaeran eta bai beraien arteko korrelazioetan. Aldaketa hauek bi motatakoak izan daitezke: beraien arteko neutralizazioak edo komunztadura nahiz deklinabide mailako aldaketak.

2.1.1.1. Erlatibatzaileen arteko neutralizazioak

Galdetzaile izatetik erlatibatzaile izatera igarotzean gertatzen diren neutralizazio-prozesu gehienek *kotoryj* dute ardatz, estilistikoki izenordain erlatibo neutroena (ez-markatuena) bera baita. Gaztelaniazko *el cual* izenordainaren baliokidea litzateke, desberdintasun batekin: ikuspuntu sinkroniko batetik behintzat, gaztelaniaz *que* juntagailua da estilistikoki elementu ez-markatua, *el cual*-en kaltetan. Diakronikoki egia da *qui, quid* (> gazt. *que*) latinez ere jada erlatiboa zela, eta *ille + qualis* (> gazt. *que*), aldiz, ez zela erlatiboa (Giacalone Ramat 2008).

Hala eta guztiz ere, gure ikerketaren ikuspuntua guztiz sinkronikoa denez, esan dezakegu *kotoryj* eta *el cual* –adjektibo izaerarengatik eta izenordain bezala partekatzen dituzten ezaugarriengatik– baliokideak direla, eta horrela ulertu behar dira.

- *Kotoryj* ('zein') eta *kto* ('nor') izenordainen oposizioa neutralizatu egiten da. Alegia, galde-perpausetan *kto* izenordainak objektu bizidun konkretu bati ('nor'), eta *kotoryj*-k, berriz, multzo batetik aukeratutako bati ('zein') egiten badiete erreferentzia, erlatibozko perpausetan oposizio hori neutralizatu egiten da, gehienbat *kotoryj*-ren funtzioen hedatzearen bidez (gogora dezagun gure corpuseko perpausen %65 osatzen direla *kotoryj*-rekin).

(14)ko adibideetan bai *kto*-k (14a) eta bai *kotoryj*-k (14b) objektu bizidun bati egiten diote erreferentzia.

(14)

a)

...naša služba bezopasnosti uže iščet *tex*, [*KOTORYE* iščut *tebja*].
 ...GURE ZERBITZUA SEGURT. JA BILA DABIL HORIEK (AKUS.) [*ERL. NOM.* BILA DABILTZA ZURE].
 '...gure segurtasun-zerbitzuak [zu *harrapatu nahi zaituztenen*] bila dabil tza dagoeneko.'

(PIK: 95)

b)

My zovëm za soboj *tex*, [*KTO* veruet v pobedu našu].
 GUK DEITU PREP. GUREGANA *HORIEK* (AKUS.) [*ERL. NOM. SINESTEN DU* PREP. GARAIPENA GUREA].
 '[Gure garaipenean *sinesten dutenak*] nahi ditugu gure alboan' (AMA: 193)

- *Kotoryj* 'zein' eta *kakoj* 'zein/nolako' erlatibatzaileen artean ere hurbiltze semantiko bat ematen da, kasu honetan ere *kotoryj*-ren hedatze baten ondorioz. *Takoj* 'horrelako/bezalako' determinatzailea tartean badago (edo *ètakij* forma dialektala eta zaharkitua, gure corpusean behin edo behin agertzen dena), errazagoa da *kotoryj* eta *kakoj*-ren arteko neutralizatze hori gertatzea, nahiz eta *kakoj*-k nolakotasun ñabardura bat ematen dion perpausari. Galde-perpausetan, ordea, ez dira elkarren artean ordezkagarriak, ez behintzat gaur egungo errusieran.

- *Čej* jabego-izenordainak –erlatibatzailea denean– izen bizidunak soilik ordezka ditzake, (15a)n bezala. Objektu bizigabean jabegotasuna adierazteko *kotoryj* erabiltzen da, normalean genitibo kasu markarekin, (15b)n bezala.

(15)

a)

I sosut krov' *tex*, [*Č'1* roži *b'jut*]...
 ETA HURRUPATZEN DUTE ODOLA *HORIEK* (GEN.) [*ERL. AKUS. MUTURRAK BEROTZEN DITUZTE*]...
 '...eta [muturra *berotzen dietenen*] odola hurrupatzen dutenak daude...' (AMA: 352)

b)

V *strane* ... [samo nazvanie *KOTOROJ* lživo]
 PREP. *HERRIALDEA* ... [*BERA IZENA ERL. GEN. GEZURRETAKOA* (DA)]
 '[Izena bera ere gezurretakoa *duen*] *herrialdean*...' (KONP:72)

Horrek ez du esan nahi *kotoryj*-k, kasu genitiboan, izen bizidunekin *čej* ordezkatu ezin duenik (16).

(16)

S čustvom prijatnogo udovletvorenija, kak *učěnyj*, [opyt *KOTOROGO*
 PREP. SENTIMENDUA ATSEGIN POZEZKO, BEZALA *JAKINTSUA*, [*ESPERIMENTU ERL. GEN.*
 eščě raz udalsja]
 BERRIZ ONDO ATERA]

‘Pozezko sentimendu atsegin batez, [esperimentu bat berriz ere ondo *atera zaion*] *jakintsuaren antzera...*’ (ZPU: 38)

- *Gde, kuda* eta *otkuda* lekuzko aditzondo erlatiboen eta *kotoryj*-ren arteko oposizioa ere neutralizatu egiten da. *Kotoryj*-k kasu guztietan ordezkari ditzake izenordain adberbialak, eta haiek ere *kotoryj* ordezkatzeko gai dira, beti ere aurrekaria izena bada. (17)ko adibide guztietan aditzondo erlatiboak *kotoryj*-ren formaren batekin ordezkari daitezke, preposizio batez lagundurik. (17a)n *gde*-ren ordezkari ***na kotorom/na kotoroe*** ‘zeinetan’ izan genezakeen; (17b)n *kuda*-ren ordezkari *v kotoruju* ‘zeinetara’; (17c)n *otkuda*-ren ordezkari *iz kotorogo* ‘zeinetatik, zeinetako’; gaztelaniaz ‘*donde*’, ‘***adonde***’, ‘*desde donde*’ aditzondo erlatiboak, hurrenez hurren, ‘*en el cual*’, ‘*al cual*’ eta ‘*de/desde el cual*’ izenordainekin ordezkari daitezkeen gisa berean.

(17)

a)

i na tom *meste*, [*GDE* stupila ego noga]...

ETA PREP. HURA TOKI, [ERL. NON IPINI BERE OINA]...

‘eta [oina *ipini zuen*] *tokian...*’

(DII: 153)

b)

Sudili ix v *toj že kreposti*, [*KUDA* zaključili posle aresta]

EPAITU BERAIEK PREP. HURA XE GOTORLEKU, [ERL. NORA GILTZAPETU PREP. ATXILOKETA]

‘[Atxilo hartutakoan giltzapetu zituzten] *gotorleku* berean epaitu zituzten,’

(ZPU: 23)

c)

Do *Kremeckogo uezda*, [*OTKUDA* Griščuk rodom], emu ostalos´ 50 verst.

PREP. KREMENETS BARRUTIA, [ERL. NONDIK GRIŠČUK JATORRIZ] ZITZAION FALTA 50 VERSTA.

‘Kremenets barrutiraino iristeko –*bertakoa baita* Gristxuk– berrogeit hamar versta bide baizik ez zitzaion falta.’

(ZTG: 62)

Kogda ‘noiz’ denborazko aditzondo erlatiboa ere ordezkari daiteke *kotoryj*-rekin, baina ez da lekuzkoekin bezain maiz ematen, denbora-erreferentzia duen aurrekaria behar baitu, eta horiek lekuzko aurrekariak baino gutxiago dira (18).

(18)

Da vspomni ego vospitanie, *vremja*, [*v KOTOROE on žil*]
 BAINA GOGOAN IZAN HAREN HEZIKETA, *GARAIA*, [PREP. ERL. AKUS. BERA BIZI IZAN DA]
 ‘Baina gogoan izan haren heziketa, gogoan izan [bizitzea egokitu zaion] *garaia*.’

(AIS: 56)

- *Kto* ‘nor’ eta *čto* ‘zer’ izenordainen arteko oposizioa ere neutralizatzen da zenbaitetan, galde-perpausetan ez bezala, erlatibozko perpausetan *čto* objektu bizidunekin ager baitaiteke, testuinguru oso jakinetan bada ere: guk *čto*₂ izendatu dugun aldaeran, eta ISE nominatibo-akusatiboan dagoenean bakarrik, (19)n ikus dezakegun bezala.

(19)

Da vot xot’ by na ètogo *gospodina*, [*ČTO*₂ otsjuda *uexa*]
 ESATERAKO PREP. HORI *JAUNA*, [ERL. NOM. HEMENDIK *JOAN DA*]
 ‘[*Joan berria den*] *jaun* hori, esaterako.’

(AIS: 223)

Horrelakoetan *čto*₂-k eta *kotoryj*-k elkar ordezkari bezakete, inongo aldaketa semantikorik eragin gabe, baina desberdintasun estilistiko batekin: *kotoryj* neutroagoa den bitartean, *čto*₂ lagunarteko hizkerari edota maila poetiko jasoari dagokio.

Badirudi, dena den, azken mendean *čto*-ren erabilpena asko hedatu dela (eta hedatzen ari dela), eta juntagailu huts bihurtzeko bidean egon litekeela (Pugh 2006), gaztelaniazko *que*-k jatorrizko *el cual* baztertu duen bezala (Suñer 1998). Halaber zokoratu dituzte ingelesaren aldaera batzuetan *what*-ek *that* eta alemanez *was*-ek *dass*.

2.1.1.2. Komunztadura eta deklinabide mailako aldaketak

Kto galdetzaile moduan erabiltzen dugunean, aditza beti singularrean egon ohi da. erlatibatzaile bihurtzen denean, ordea, pluralean jar daiteke, nahiz eta singularra den ohikoena erlatibozkoetan ere: gure corpusean *kto* izenordainarekin osatutako 107 perpausetatik (20)koa da aditza pluralean daraman adibide bakarra.

(20)

A *te*, [*KTO komandujut* nami], pol’zujutsja našim straxom.
 ETA HORIEK, [ERL. NOM. GOBERNATU GU] BALIATZEN DIRA GURE BELDURRAZ.
 ‘Agintariak gure beldurraz baliatzen dira gu areago ikaratzeko.’

(AMA: 35)

Errusieraz sinkretismo bat gertatzen da nominatibo eta akusatiboaren artean, izen neutro eta maskulino bizigabeen kasuan. Horregatik, *čto*-k *-čto*₂ aldaeran– forma-aldaketarik gabe har ditzake bi funtzio horiek.

*Čto*₂ erlatibatzailea daukagunean, beraz, aurrekaria bizigabea (21a) edo biziduna (21b) izan daiteke, eta objektu (21a) nahiz subjektu (21b) funtzioak har ditzake EPn.

(21)

a)

Ponjuxajte, kak slavno paxnet roza, [*ČTO* vy mne *dalj*].

USAINDU, ZEIN GOZOA LURRINA DARIO ARROSA, [ERL. AKUS. ZUK NIRI EMAN DIDAZU].

‘Usaindu zein lurrin gozoa darion [*eman didazun*] arrosari.’

(AIS: 207)

b)

Ja že *toj*, [*ČTO* vsex *prelestnejj*]!

NI HORRENA, (FEM.) [ERL. NOM. UZTIETAN EDERRENA]!

‘Emakume guztietan ederrenarena naiz ni...’

(TXB: 39)

2.1.2. Errusiar erlatibatzaileen sailkapena aurrekariaren izaeraren arabera

Ikus dezagun erlatibatzaile bakoitzaren ezaugarriak zeintzuk diren, eta itzulpen-prozesuan nolako eragina izan dezaket.

Irizpide desberdinak erabil daitezke errusierazko EP sailkatzeko garaian, baina ohikoena aurrekariaren izaeraren araberakoa da.

Irizpide hori oinarritzat harturik, bi EP mota orokor bereiz daitezke: aurrekaritzat izen bat dutenak, eta aurrekaritzat izena ez den zerbait dutenak (normalean izenordaina –azken finean izen bat ordezkatur–, baina gerta daiteke aurrekariaren elipsia ere).

Švedovaren *Errusiar Gramatikan* aurrekaritzat izena dutenak ‘zuzenki bideratutako harreman anaforikodunak’ bezala deskribatzen dira, eta izenik ez dutenak, alderantziz, ‘zuzenki bideratu gabeko harreman anaforikodunak’ (Švedova 2005: 704-705).

Zaliznjakek eta Padučevak ere antzeko sailkapen bat proposatzen dute, terminologia argiagoa erabiliz akaso: ‘oinarrizko erlatiboak’ (aurrekaritzat izena dutenak) eta ‘izenik gabeko erlatiboak’ (Zaliznjak/Padučeva 1975: 66).

Errusiar gramatikan EPen izaera anaforikoa azpimarratzen da:

Harreman anaforiko bideratua dagoenean, erlatibozko izenordainak pertsona, objektu edo gertakari bati egiten dio erreferentzia, zeinak aurreko perpausean aipatuak ageri diren... Harreman anaforiko ez-bideratua dagoenean, aldiz, erlatibozko izenordainak pertsona, objektu edo gertakari bati egiten dio erreferentzia, baina hauek aurreko perpausean modu zehaztugabe batean baizik ez dira aipatzen zuzenean (Švedova 2005: 513).

Hortaz, aurrekariaren izaeraren arabera, erlatibatzaileen artean bi multzo bereizten dira errusieraz: ISEtzat gehienetan izen bat dutenak (estatistikoki esanguratsuak direnen artean *kotoryj* eta leku-denborazko aditzondoak), eta ISEtzat izena ez den beste zerbait dutenak (*kto, čto*). Halaber, oro har izena aurrekaritzat eraman ezin duten azken hauekin bi gauza gerta daitezke: aurrekaria izenordain edo erakusle bat izatea edota aurrekariaren elipsia gertatzea.

(22)n gure corpusetik ateratako adibideak, aipatutako bi erlatibatzaile mota nagusiak irudikatzen dituztenak: (22a)n aurrekaria *mal'čiška* 'mutil-koskor' izena da, eta *kotoryj* erlatibatzailearekin osatutako mendeko perpaus bat dauka atzetik. (22b)n ere *traktir* 'taberna' izena da aurrekaria, baina kasu honetan erlatibatzailea *gde* 'non' aditzondoa delarik. Hurrengo bietan, aldiz, ez da izenik agertzen aurrekariaren tokian, vse 'edonor/denak' izenordaina (22c) eta aurrekariaren elipsia (22d) baizik.

(22)

a)

Tak vot, *mal'čiška*, [*KOTORYJ učastvoval v s'ëmkaš*]...

BADA, *MUTIKO*, [*ERL. NOM. PARTE HARTU ZUEN PREP. FILMAKETAN*]...

'Bada, [filmaketan *parte hartu zuen*] *mutil-koskor* bat...' (KONP:89)

b)

On zastal Bazarova v *traktire*, [*GDE oni ostanovilis*]...

BERAK AURKITU ZUEN *BAZAROV* PREP. *TABERNAN*, [*ERL. NON BERAIEK GERATU ZIREN*]...

'[Hirira iristean geratuak ziren] *tabernan* aurkitu zuen Bazarov...' (AIS: 93)

c)

i usmexas' *vsem*, [*KTO xotel pit' vodku*]

ETA IRRIBARRE EGITEN ZION *DENARI*, [*ERL. NOM. NAHI ZUEN EDAN VODKA*]

'...eta irribarre egiten zion [vodka edan nahi zuen] *edonori*.'

d)

Dumajte, [*ČTO xotite*].

PENTSA EZAZU Ø [*ERL. AKUS. NAHI DUZU*]

‘Pentsa ezazu [*nahi duzuna*]’ (AIS:136)

Galdetzaileetatik erlatibatzaileetarako bidean gertatzen denaz gain, erlatibatzaileek badituzte beste hainbat berezitasun, gero gure corpusean bakoitzaren euskal ordainak aztertzeko funtsezko suerta daitezkeenak.

2.1.3. *Kotoryj*

Kotoryj da errusierazko erlatibatzaile guztien artean sarrien erabiltzen dena, eta bere ezaugarri nagusiak *semantikoki gutxien espezializaturikoa izatea eta bere erabilpena denetan hedatuena izatea dira* (Šeljakin 1986: 62). Beraz, erabiliena –eta, horrekin batera, neutroena– izatea da bere ezaugarriarik nabarmenena, gure corpuseko errusierazko perpaus guztien %65 erlatibatzaile honekin osatuak izateak erakusten duen bezala (erlatiboazko izenordain honen azterketa sakonago baterako ik. Zaliznjak /Padučeva 1979).

Horrez gain, preposizioekin nahiz preposiziorik gabe ager daiteke, eta ISEren –errusieraz beti aurrekari dena– edozein funtzio sintaktiko ordezkari dezake. Gure corpuseko datuek aipaturiko ezaugarri guztiak berresten dituzte, aurrerago ikusiko dugunez.

Kotoryj izenordaina, bere morfologiak errusieraz garbiki erakusten duen moduan, jatorriz izenlaguna da, *KOTORYJ čas?* ‘ZER ordu da?’ bezalako egitura zaharkituetan ikus dezakegunez. Gaur egungo errusiera estandarrean, ordea, anaforiko (erlatibatzaile) moduan agertzen denean, bere jokamolde sintaktikoa izenaren ezaugarrietatik gertuago dago, berezko izenlagun izaeratik baino.

Kotoryj-k komuntzadura bikoitza dauka: generoan eta numeroan aurrekariarekin bat etorri behar du, baina hartzen duen kasu gramatikala ISEk mendeko EPn hartzen duen funtzioaren arabera izango da. Lehen esan bezala, kasu guztiekin erabil daiteke, preposizioekin nahiz preposiziorik gabe. zentzu honetan, gaztelaniazko *el cual* izenordain erlatiboaren baliokide garbia da: ‘*con el cual*’, ‘*para el cual*’, ‘*entre los cuales*’...

Kotoryj bigarren mailako elementua bada, ordea, izen edota izenlagun baten menpe badago, sintagma horren elementu nagusiaren ondoren agertzea da ohikoena gaur egungo errusieran (23a). Halere, ez da derrigorrezkoa, kasu hauetan ere hasieran egon baitaiteke, nahiz eta hitz-ordena hori estilistikoki markatua –zaharkitua– dagoen (23b-d).

(23)

a)

Potom byli pokazany tureckie *kinžaly*, [*na odnom iz KOTORYX* po ošibke GERO ZIREN ERAKUTSI TURKIAR SASTAKAIAK, [PREP. BATEAN PREP. ERL. GEN. PREP. AKATSA bylo vyrezano : M.S.S.].

ZEGOEN ZIZELATUA: M.S.S.].

‘Gero Turkiako *sastakaiak* ikusi zituzten, [zeinetako batean “Saveli Sibiriakov eskulangilea” *zizelatua zuen* –tronpaturik– norbaitek].’

(ARH: 115)

b)

Nakonec ostalis´ tol´ko *dva*, [*iz KOTORYX* odno]... [bylo AZKENEAN GERATU ZIREN BAKARRIK *bi*, [PREP ERL. GEN. BAT]... [ZEGOEN zakleeno bumagoju];

ESTALIRIK PAPEREZ];

‘Eta azkenean *bi* bakarrik geratu ziren zabalik; irakurleak dagoeneko ikusi duenez, paper batez estalirik zeukan haietako bat.’

(ARH: 178)

c)

Smert´ prokurora, [*KOTOROJ pričinoju* budto by on]...

HERIOTZA PROKURADOREAREN, [ERL. GEN. ARRAZOIA OMEN ZEN BERA (M.)]

‘Prokuradorearen *heriotza* ([zeinaren *erruduna* bera omen baitzen])...’ (ARH: 312)

d)

No est´ *strasti*, [*KOTORYX izbran´e* ne (Ø) ot čeloveka].

BAINA BADIRA *GRINAK*, [ERL. GEN. AUKERA EZ (DA) PREP. GIZABANAKOAREN].

‘Baina badira *grina batzuk* [gizabanakoak aukeratzen ez dituenak].’

(ARH: 353)

(23c-d) bezalakoak nahiko maiz ikus daitezke XIX. mendeko idazleengan, baina gaur egun zaharkituak eta literaturaren alorrera mugatuak daude. (23c)ko *kotoroj pričinoju* eta (23d)ko *kotoryx izbran´e* horiek, gaur egungo ohiko hitz-segidaren arabera, *pričinoju kotoroj* eta *izbran´e kotoryx* lirateke.

Aurrekariaren izaera *kotoryj*-rekin osatutako perpausetan

Kotoryj-ren ezaugarrietako bat aurrekariaren derrigortasuna da, ez baitu honen elipsirik onartzen, *kto* eta *čto*-k ez bezala.

Kotoryj-rekin edozein izen sintagma ager daiteke aurrekari lanetan. Aurrekarizat sintagma osoa hartzen den arren, batez ere sintagma horren ardatza hartzen da kontuan.

Kotoryj-rekin osatutako EPetan aurrekaria elementu hauetatik bat edo gehiago izan ditzakeen edozein izen sintagma izan daiteke: izena, izenlaguna, zenbatzailea, erakuslea.

Bestalde, izenordain bat izan daiteke aurrekari, izen sintagma guztia ordezkatzuz.

Zalantzarik gabe, aurrekaririk ohikoena izen soila daukan IS da. Gure corpusean errusierazko perpaus guztien %94k dauka izen soildun IS bat aurrekarizat.

Noski, izen guztiak ez dira berdinak. Horrez gain, izena bere kasa edota erreferentzia murrizten laguntzen duen mugatzaile edo izenlagun batekin ager daiteke. Edonola ere, garbi dago aurrekaririk ohikoena izena dela, eta corpusetik ateratako emaitzak aztertzerakoan, hori kontuan izan beharko dugu.

Izenordain erakusleak ere nahiko sarri agertzen dira aurrekari moduan, baina izenordain hauek baldintza bat bete behar dute, *kotoryj*-rekin osatutako perpausetan behintzat: objektu bizidun bati egin behar diote erreferentzia.

(24)n ikus dezakegun moduan, *tot* ‘hori-Mask.’ (24a), *ta* ‘hori-Fem.’ (24b) eta *te* ‘horiek’ (24c) agertzen zaizkigu corpusean, baina horien baliokide neutroa –eta beraz bizigabea– den *to* erakusle neutroa ezin da *kotoryj*-rekin erabili, ez behintzat hurbilean izen baten erreferentzia garbi bat izan gabe.

(24)

a)

I potom *tot*, [*KOTORYJ* bil poljaka], govorit mne:
ETA GERO *HARK*, [*ERL. NOM. JIPOITU DU POLONIARRA*], ESAN NIRI:
‘Geroago, baina, [poloniarra *jipoitu duenak*] esaten dit:’

(ZTG: 47)

b)

Ja (Ø) *ta*, [s *KOTOROJ* vy *govorite*], kak že ja mogu byt’ ètim?
NI (NAIZ) *HORI*, [PREP. *ERL. INSTR. ZUEK HIZKETAN*], NOLATAN NI NAITEKE IZAN *HORI*?
‘Ni [zuekin *hitz egiten ari den*] *hau* naiz, nolatan izan naiteke beste hori?’

(ZPU: 65)

c)

(životnych) *Nastojaščix*, konečno, a ne *tex*, [s *KOTORYMI* *prixoditsja*
(ANIMALIAK) BENETAKOAK, NOSKI, ETA EZ *HORIEK*, [PREP. *ERL. INSTR. BEHAR DITUT*
imet’ delo po službe]

JASAN PREP. LANA]

‘...(Animaliak) Benetakoak, noski, ez [lanean *jasan behar ditudanak*]...’ (PIK: 34)

Izenordain pertsonalek eta izen bereziek ere joka dezakete aurrekariaren papera, baina perpausaren interpretazioa beti izango da ez-murritztaile edo apositiba, izenordain pertsonalek berez dutelako erreferentzia murritzua (25a-b).

(25)

a)

Ej užasno strašno, čto ja, [KOTORYJ privyk k xorošemu obščestvu]...
BERARI (FEM.) BITXIA (ZAI)O JUNT. NI, [ERL. NOM. OHITUTA PREP. GOI GIZARTEA]...
'Ikaragarri bitxia iruditzen zaio ni, [goi-gizartera ohituta bainago]...'

(GGH:132)

b)

A kto (Ø) èta Maša, [pered KOTOROJ iz'jasnjaesjsja v nežnoj strasti
ETA NOR (DA) HORI MAŠA, [PREP. ERL. INSTR. AITORTZEN DUZU PREP. SUTSUA MAITASUNA
i v ljubovnoj napasti]?
ETA PREP. BIHOTZEKO OINAZEAK]?

'Eta nor da [zeure maitasun sutsua eta bihotzeko oinazeak aitortzen dizkiozun] Masha hori?'

(KAP: 60)

Izenlagun nahiz partizipioak ere, nominalizatuta daudenean, izan daitezke *kotoryj*-ren aurrekari, (26a)ko *měrtvye* 'hildakoak' edota (26b)ko *pervaja* 'lehena, lehenengoa' adibideek erakusten diguten moduan.

(26)

a)

Ja polagaju priobrest' měrtvyx, [KOTORYE značilis' by po revizii kak živye]
NIK NAHI DUT EROSI HILDAKOAK, [ERL. NOM. LEUDEKE PREP. ERROLDA BEZALA BIZIRIK]
'[Erroldaren arabera oraindik bizirik dauden] nekazari hilak erosi nahi ditut'

(ARH: 58)

b)

Ona, možet byt', pervaja, [KOTORAJA pošla za synom ego dorogoj], pervaja!
BERA (F.), BEHARBADA, LEHENA (F.) [ERL. NOM. JOAN PREP. SEMEA HAREN BIDETIK], LEHENA (F.)!
'-Seguraski [semearen bide beretik jo duen] lehena da; lehena!'

(AMA: 247)

Zenbatzaileak ere izan daitezke *kotoryj*-ren aurrekari, baina normalean izen bati lagunduz izan behar du (27a-b). Gure corpusean adibide bakarra dago, non zenbatzailea (*dva* ‘bi’) bakarrik agertzen den, izena isildua dagoelarik (27c). ISEren barnean zenbatzaileak agertzea –ISren ardatz izan gabe– maiz gertatzen da.

(27)

a)

...daže i v te *TRI zimy*, [*KOTORYE* Nikolaj Petrovič provël
... EZTA PREP. HAIK *HIRU NEGU*, [*ERL. AKUS. NIKOLAJ PETROVIČEK IGARO ZITUEN*
v Peterburge s synom].

PREP. PETERSBURGO PREP. SEMEAREKIN]

‘Ezta [Nikolai Petrovitxek semearekin batera Petersburgen eman zituen] *hiru negu* haietan ere’

(AIS: 55)

b)

Nazadi vmesto dvux boltalos’ *ČETYRE poly*, [*iz KOTORYX* oxlop’jami
ATZEAN BARIK BI ZEUDEN *LAU HEGAL*, [*PREP. ERL. GEN. ZERRENDETAN*
lezla xlopčataja bumaga].

ATERATZEN ZEN KOTOIZKO PAPER[A].

‘Atzealdean, bi barik, *lau hegal* zeuzkan, [eta barruko kotoia zerrenda luzeetan ateratzen zen haien artetik].’

(ARH: 174)

c)

Nakonec ostalis’ tol’ko *dva*, [*iz KOTORYX* odno]... [bylo
AZKENEAN GERATU ZIREN BAKARRIK *BI*, [*PREP. ERL. GEN. BAT*]... [ZEGOEN
zakleeno bumagoju];

ESTALIRIK PAPER[ERZ];

‘Eta azkenean *bi* bakarrik geratu ziren zabalik; irakurleak dagoeneko ikusi duenez, paper batez estalirik zeukan haietako bat.’

(ARH: 178)

Kotoryj-ren funtzio semantiko nagusia anaforikoa eta murriztailea izateak osotasuna adierazten duten elementuekin –alegia, zerrenda batetik edo elementu posibleen mundu batetik denak ala bat ere ez aukeratzen dutenekin– erabiltzea zailtzen du (denak, bat ere ez, inor...). Horrelakoetan ohikoena *kotoryj* ez beste erlatibatzailearen bat erabiltzea da.

Osotasuna adierazten duten izenordain horietatik gure corpusean *kotoryj*-ren aurrekari moduan agertzen den bakarra *vse* ‘denak’ da. Sei adibide daude, baina seitik

bostetan *te* 'horiek' (28a) eta *èti* 'hauek' (28b) mugatzaileek ahalbidetzen dute interpretazio murrizgarria. *Vse-k* 'denak' bere kasa, ordea, nekezago bete dezake lan hori; corpus guztian (28c)n bakarrik gertatzen da hori.

(28)

a)

Vse te, [*KOTORYX nel'zja bylo vymanit' iz domu*]
 GUZTIAK HORIEK, [*ERL. AKUS. EZIN ZIREN ATERARAZI PREP. ETXETIK*]
 'bat-batean jo zuten kalera [beste egoera batean etxetik sekula *aterako ez liritekeen*]
guztiak...' (ARH: 210)

b)

Da nakupi ja vsex ètix, [*KOTORYE vymerli*]
 EROSIKO DITIAT NIK GUZTIAK HORIEK, [*ERL. NOM. HIL DIRA*]
 '[*Hil diren*] *nekazari horiek guztiak erosiko ditiat...*' (ARH: 349)

c)

Vse, [*KOTORYE (Ø) gramotnye*]...
 GUZTIAK, [*ERL. NOM. (DIRA) ALFABETATUAK*]...
 '[*Irakurtzen dakiten*] *guztiak...*'
 (AMA: 352)

2.1.4. *Koj*

Koj izenordaina ahozko hizkuntzan guztiz desagertua eta idatzizkoan ere estilistikoki oso jaso eta markatua den *kotoryj*-ren baliokide zaharkitu bat besterik ez da. XIX. mendeko literaturan oraindik aurki daitezke ale batzuk, baina ezta gehiegi ere, gure corpusaren %1era ere ez baitira iristen. Guztira zazpi perpaus dira: horietatik bost XIX mendeko lehen erdiko testuetan (Puxkin eta Lermontovengan) eta bi XX mendekoetan (Bulgakov eta Dovlatov). Azken bietan hizkera-maila jasoarekiko kutsu ironiko bat atzematen zaie *koj*-rekin osatutako bi perpaus horiei. Estatistikoki oso adierazgarria ez denez, erlatibatzaile honen ezaugarriak laburki azaltzera mugatuko gara.

Komunztadura eta beste ezaugarri morfologiko nahiz sintaktiko guztiak *kotoryj*-ren berdin-berdinak dira. Badirudi XIX. mendeko literaturan kasu gramatikal guztietan erabiltzen zela, nominatibo singularrean salbu (Švedova 2005: 514). Gure corpusean zehar-kasuetan eta genitiboan soilik agertzen da, eta aurrekaritzat izen bat duela beti ere.

Hain adibide-kopuru txikian oinarrিতa ondorioak ateratzea zaila bada ere, nominatibo singularra hartu ezinak eta gure corpusean zehar-kasuak bakarrik agertzeak

erakusten du ez dagoela *kotoryj* bezain hedatua, eta hura baino markatuagoa dela, ez soilik estilistikoki, baita funtzionalki ere.

Adierazgarria da zentzu honetan (29)n gertatzen dena. KONPen idazleak ez du perpausa amaitzen, ez dago aditzik, eta esan dugunez, pertsonaiaren handinahiarekiko ironia garbia dago hemen: horrelako egitura zaharkitu bat erabiltzen saiatu eta esaldia amaitzeko bere ezintasunaren aurrean, garagardoa erosi duen galdetzea besterik ez zaio bururatzen. Halaber, deigarria da egileak erlatibatzailea genitiboan jarri izana, nahiz eta ez dakien garbi zer esan behar duen.

(29)

Čem ja objazan, Lidočka, tem poputnym *vetrom*, [KOEGO... KOEGO...]

ZERI NIK ZOR DIOT, LIDOTXKA, HORI ALDEKO HAIZE, [ZEINAK... ZEINAK...]

Dostali pivo?

EROSI DUZU GARAGARDOA?

‘Zeri zor diot, Lidotxka, *ekarri zaituen* haize... [zeinak... zeinak...] Garagardoa erosi duzu?’

(KONP: 93)

Koj-rekin osaturiko corpuseko gainontzeko adibideak (30a-f) ohiko perpausak dira, non *koj* batzuetan preposizioekin eta besteetan preposiziorik gabe ageri den.

(30)

a)

...belyj *list* bumagi, [*na KOEM* rukoju Filippa Filippoviča bylo napisano]:

...ZURI ORRI PAPER-, [PREP. ERL. PREP. ESKUAZ FILIP FILIPOVITXEN ZEGOEN IDATZIRIK]:

‘...[paper-orri zuri bat zegoen esekirik], eta [hau zeukan idatzirik, Filip Filipovitxen eskuaz:]’

(TXB:95)

b)

I stal rassprašivat’ ob užasnyx *proiššestvijax*, [*KOIM* ja byl svidetel’].

ETA HASI ZEN GALDEZKA PREP. LAZGARRIAK GERTAERAK, [ERL. DAT. NI NINTZEN LEKUKO]

‘eta [lekuko *izan nintzen*] gertaera lazgarrien galdezka hasi zitzaidan.’

(KAP: 127)

c)

Prežde neželi pristuplju k opisaniju strannyx *proisšestvij*, [*KOIM* ja
AURRETIK EGIN PREP. KONTATU HARRIGARRIAK *GERTAERAK*, [*ERL. DAT. NI*
byl svidetel’]

IZAN NINTZEN LEKUKO]

‘[Lekuko *izan nintzen*] *gertaera* harrigarriak kontatzeari ekin aurretik...’

(KAP: 81)

d)

I končaetsja utesom, [na *veršine KOEGO beleetsja* majačnaja bašnja]
ETA BUKATZEN DA *HARGAITZ*, [PREP. *GAILURRA ERL. GEN. ZURI AGERI ITSASARGI-* DORREA]
‘*hargaitz* handi batean bukatzen zen, [*zeinaren gailurrean* zuri ageri baitzen itsasargiaren
dorrea]...’

(GGH: 99)

e)

Neskol’ko *pušek*, [*meždu KOIX uznal* ja i našu], postavlenny byli
HAINBAT *KANOI*, [PREP. *ERL. GEN. EZAGUTU NIK ERE GUREA*], *EZARRIAK ZIREN*
na *poxodnye lafety*.

PREP. *ORGAK*.

‘[Orga banatan ezarriak zituzten hainbat *kanoi*], eta [gurea ezagutu nuen haien artean].’

(KAP: 115)

f)

On odin imel vygodu v donose, [*KOEGO sledstviem* moglo byt’
BERAK(M.) BAKARRIK ZEUKAN ONURA PREP. *SALAKETA*, [*ERL. GEN. ONDORIO ZITEKEEN* *IZAN*
udalenie moë iz kreposti]...

URRUNTZEA NIRE PREP. *GOTORLEKUTIK*]...

‘Berak bakarrik atera zezakeen onuraren bat egoera hartatik, [*zeren*, ni salatuz gero,
zitekeena baitzen gotorlekutik urruntzea]...’

(KAP: 75)

2.1.5. *Kakoj*

Kakoj izenordain erlatiboa, *kakoj* galde-izenordainetik eratorria da, eta *kotoryj-* rengandik bereizten duen ezaugarri semantiko nagusia nolakotasun edo konparaketa ñabardura bat da, *kotoryj-k* adierazten ez duena. Honen arrazoia jatorrizko galdetzailearen semantikan bilatu behar da, errusierazko *kakoj* galde-izenordainak, euskaratuz gero, esanahi bikoitza izan baitezake: ‘zein?’ edo ‘nolakoa?’ izan daiteke. Alegia, guk *v kakom*

gorode vy živěte? bezalako zerbait galdetzen badugu, uler daiteke ‘*ZEIN* hiritan bizi zara?’ edota ‘*NOLAKOA* da bizi zaren hiria? / *NOLAKO* hiritan bizi zara?’.

Esan daiteke *kakoj*-k *kotoryj*-k baino hobeto gorde duela bere izenlagun/kalifikatzaile izaera.

Berezko ezaugarri semantiko horrez gaindi, *kotoryj*-ren oso antzeko jokabidea dauka: beti-beti mendeko EPren hasieran agertu behar du, eta komuntadura nahiz kasu gramatikalen erabilera *kotoryj*-ren berdin-berdina da. Alegia, generoan eta numeroan aurrekariarekin bat etorri behar du, eta kasuan, berriz, mendeko EPko aditzarekin.

Hala eta guztiz ere, batzuetan *kakoj* pluralean jartzen da, aurrekaria singularrean egon arren, erlatibatua den objektua beste askoren antzekoa dela adierazteko (31a-b).

(31)

a)

Dojti do takogo *predela* boli i stradanij, [*do KAKICH* ne dochodilo
GAINDITU PREP. HALAKO *MUGA* OINAZE ETA SUFRIMENDU, [PREP. ERL. GEN. EZ JASAN
esčë ni odno živoje susčestvo];

ORAINDIK (EZTA) BATEK BIZIDUN IZAKI]

‘Minaren *muga* guztiak gaintitzea, [izaki bizidun batek *jasan ditzakeen*] sufrimendurik eta oinazerik gogorrenak pairatzea;’

(ZPU: 82)

b)

...pochožuju na *kaplju* rosy, [*KAKIE* po utram visjat
... IDURI PREP. *TANTAK* BASUR-, [ERL. NOM. PREP. GOIZETAN DILINDAN
na končikach krapivnych list’ev].

PREP. MUTUR ASUN- HOSTO]

‘...[goizetan asunen hostoen muturretan dilindan *ageri ohi diren*] basur-*tantak* iduri.’

(DII: 79)

Aurrekariaren izaera *kakoj*-rekin osatutako perpausetan

Kakoj erlatibatzaileak aurrekaritzat izen soildun IS bat izatea da ohikoena. Kasu bakan batzuetan izenordain batek ordezkia dezake, baina aurretik agertu den izen baten erreferente garbia duen kasuetan soilik. Gure corpusean *kakoj*-rekin eratutako 86 perpausetatik 81 kasutan izena da aurrekari, eta 5 perpausetan izenordain batek ordezkutzen du, baina, esan bezala, 5 kasu hauetan izena aurretik aipatuta dator.

(32a)n izena da aurrekaria. (32b-c) adibideetan, aldiz, *to* ‘hori’ eta *vse* ‘denak’ mugatzaileek/izenordainek betetzen dute aurrekariaren papera, baina aurretik izen baten erreferentea daukate (hurrenez hurren, *sostojanie* ‘ataka’ eta *boec* ‘borrokalari’ izenak).

(32)

a)

Voz’mi *železku*, [*KAKUJU* iz kuzni prinēs]!

HARTU *HAGA*, [*ERL. AKUS. PREP. SUTEGITIK EKARRI*]

‘-Har ezak [sutegitik *ekarri duan*] burdinazko *haga* hori!’

(LUB: 181)

b)

(*sostojanie*) *sxodnoe*, s *tem*, [*KAKOE* byvaet u ubivaemoj skotiny]...

(EGOERA) ANTZEKOA *PREP. HORI*, [*ERL. NOM. GELDITU PREP. HILZORIAN ABEREAK*]...

‘...abereak horrelaxe gelditzen dira hil aurretik...’

(ZPU: 41)

c)

...*samyj zamyslovatyj i smexotvornyj boec iz vsej*, [*KAKIX* znala

...*GEHIEN BIHURRI ETA BARREGARRI BORROKALARI PREP. GUZTIAK*, [*ERL. AKUS. EZAGUTU*

uklončivaja i mjatežnaja istorija rimskoj cerkvi],

IHESKORRA ETA SEDIZIOZALE HISTORIA ERROMAKO ELIZA],

‘...[Erromako Elizaren historia iheskor sediziozaleak *ezagutu duen*] *borrokalaririk* bihurriena eta barregarriena,’

(ZTG: 35)

2.1.6. *Kto*

Kto ‘nor/nork’ izenordaina objektu bizidunak –normalean pertsonak– erlatibatzeke erabiltzen da. Pertsonen generoa eta numeroa ez ditu bereizten izenordainak berak, baina bereizketa hori aurrekaritzat daukan **erakusleak** har dezake bere gain. Horrexegatik joka daiteke aditza pluralean, galde-perpausetan ez bezala, nahiz eta ez den oso ohikoa. Esate baterako, gure corpusean adibide bakar batean gertatzen da hori (33). Bertan aditzaren formak komunztadura semantikoa agertzen du.

(33)

A *te*, [*KTO komandujut* nami], pol’zujutsja našim straxom.

ETA *HORIEK*, [*ERL. NOM. GOBERNATU GU*], BALIATZEN DIRA GURE BELDURRAZ.

[*Agintariak*] gure beldurraz baliatzen dira gu areago ikaratzeko.’ (AMA: 35)

Generoari dagokionez, erakusle maskulinoekin bakarrik erabiltzen da (34a). Halere, errusierazko erakusleek pluralean genero bereizketarik egiten ez dutenez, pluralean ere ager daitezke *kto* erlatibatzailearen aurrekari lanetan, (34b)n gertatzen den bezala, oraingoa mendeko EPko aditza –berez dagokion bezala– singularrean dagoelarik, erakuslea pluralean egon arren.

(34)

a)

Ja postavljju polnye bally vo vsej naukax tomu, [*KTO* ni aza ne znaet, NIK EMANGO HANDIENA PUNTUAZIO PREP. GUZTIAK IKASGAIK HORRI, [ERL. NOM. TUTIK EZ DAKI, da vedët sebja poxval'no].

ETA JOKATU BEHAR BEZALA]

‘[Tutik jakin ez arren behar bezala *jokatzen duenari*] puntuaziorik handiena emango diot ikasgai guztietan.’ (ARH: 329)

b)

Tolpa kipela, skvoz' neë probivalis' k znameni te, [*KTO* ponjal JENDETZA BOR-BOR, PREP. JENDETZA INGURATU PREP. BANDERA HAIK, [ERL. NOM. ULERTU ZUTEN ego značenie].

HAREN (M.) ESANAHIA].

‘Jendetza bor-bor zegoen; jendartean bidea urratuz, banderara inguratzen ziren [haren esanahia *ulertua zutenak*].’

(AMA:192)

Kto-k kasu gramatikal guztiak har ditzake, kasu-komuntadura mendeko perpauseko aditzarekin egiten duelarik. Halaber, berez ISEk edozein posizio har dezake mendeko EPn, nahiz eta kasu batzuetan besteetan baino gehiago erabiltzen den. Adibidez, gure corpusean ez dago ISE genitiboan duen perpaus bakar bat ere. Morfologikoki kasu genitiboan deklinatuta bai –preposizio edo aditzen batek hala eskatuta– baina sintaktikoki ISEk mendeko perpausean genitibo funtzioa duen kasurik ez.

Azken finean, errusierak badauka izaki bizidun –pertsonek– baten jabegoa adierazteko erlatibatzaile bat (*čej* izenordaina). Horregatik, ez da beharrezkoa *kto*-k kasu marka genitiboa hartzea.

Aurrekariaren izaera *kto*-rekin osatutako perpausetan

Gaur egungo errusiera estandarrean *kto* izenordainak (baita *čto*-ek ere) izen sintagma ez den aurrekari bat izan behar du edo hori da, behintzat, erabilpenik neutroena (Pugh 2006).

Egia da gaur egun gero eta sarriago atzematen dela horrelako erlatibatzaileekin izenak aurrekaritzat erabiltzeko joera, baina horien zuzentasuna oso eztabaidagarria izateaz gain, oso erregistro jakinetan baizik ezin dira erabili: poesian, ahozko hizkera ez-formalean edota azken horrengandik gertuko elkarrizketak deskribatzen dituen prosan. Alegia, edo oso estilo jaso edota oso apala.

Corpusean ez dago horren adibiderik, ziurrenik testu guztiak prosazkoak direlako, eta XIX. mendearen bigarren erdian eta XX. mendearen lehenengoan –garai horretakoak baitira gure corpuseko testu guztiak– ez zelako ohikoa ahozko hizkera islatzea.

Hori dena kontuan izanda, eta gure corpusean aurrekaritzat izen bat duen *kto*-dun perpausik ez daukagunez, fenomeno horren azterketa alde batera utziko dugu.

Izenaren hutsunea bi modutara bete daiteke *kto*-rekin osatutako perpausetan: ISEren tokia bere gain hartzen duen izenordain batekin (35a) edota ISEren elipsia eginez (35b).

(35)

a)

Svoboden ne *tot*, [*KTO* boretsja protiv režima].

ASKE EZ (DUK) *HORI*, [*ERL. NOM.* BORROKATZEN DA *PREP.* ERREGIMENA].

‘-Ez duk aske [erregimenaren aurka *borrokatzen dena*].’ (KONP:197)

b)

[*KTO* ne verit v silu pravdy], [v *KOM* net smelosti

[*ERL. NOM.* EZ SINESTEN DU *PREP.* INDAR EGIAREN], [*PREP. ERL. PREP.* EZ (DAGO) AUSARDIARIK do smerti stojat’ za neë].

PREP. HERIOTZA ZUTIK IRAUN *PREP.* HARENGATIK].

‘[Egiaren indarrean *sinesten ez duena*], [bizia emateraino haren alde *borrokatzen ausartzen ez dena*],’ (AMA: 193)

Ohikoena izenordainaren erabilpena da (corpuseko *kto*-dun perpausen %91). Gainontzekoetan (perpausen %9) aurrekariaren elipsia gertatzen da (‘erlatibo libreak’ deitu ohi direnak), gaztelaniazko *QUIEN calla otorga* edota *A QUIEN madruga dios le ayuda* bezalakoak, hain zuzen.

Aurrekari moduan agertzen diren izenordainen artean ohikoenak objektu bizidunei dagokien erakusleak badira ere (*tot* ‘hori/hura’, *te* ‘horiek/haiek’), beste mugatzaile batzuek ere bete dezakete ISEren tokia: zenbatzaileek (*vse* ‘denak’, *vsjakij* ‘edozein’, *každyj* ‘bakoitza/guztiak’), ezezko izenordainak (*nikto* ‘inor’), izenordain zehaztugabeak (*kto-to/nibud’* ‘norbait’). Aipaturiko hauek guztiak ageri dira gure corpusean: ezezkoak (36a), zehaztugabeak (36b) eta zenbatzaileak (36c).

(36)

a)

Net *nikogo*, [*s KEM* by my mogli idti rjadom,
EZ (DAGO) *INOR*, [PREP. ERL. INSTR. GENEZAKE JOAN ALDAMENEAN,
ne iskažaja našej very].
GABE ITXURALDATU GURE FEDEA].

‘Ez dago *inor* [gure fedea itxuraldatu gabe aldamenean gurekin batera *eraman dezakegunik*].’

(AMA: 364)

b)

Pojdi privedi mne *kogo-nibud’*, [*KTO* ubivaet našu massu].
AURKEZTU NIRI *NORBAIT*, [ERL. NOM. HILTZEN DU GURE MASA].

‘[Aurkeziez adak gure masetakoak *hiltzen dituen*] beste *norbait*.’ (LUB: 112)

c)

Da ešče tut *mного* est’, [*KTO* poblize]... oni vse
ETA PART. HEMEN (*JENDE*)ASKO, (DAGO) [ERL. NOM. URRUNERA GABE]...BERAIEK GUZTIEK
darom bremenjat zemlju!
ALFERRIK DAUDE LURREAN!

‘Lurrean egonean egotea beste lanik ez duen jende asko aurkituko duzu *urrunera gabe*.’

(ARH: 215)

2.1.7. Čej

Čej ‘zeinaren’ (*‘cuyo’*) aurrekari bizidunekin soilik erabiltzen den jabego-izenordain bat da. *Kotoryj*-k eta *kakoj*-k komunztadura bikoitza duten bezala –perpaus nagusiarekin eta mendekoarekin–, *čej*-k generoan, numeroan eta kasuan mendeko perpauseko elementu batekin bakarrik etorri behar du bat, hain zuzen, perpaus nagusiko pertsonak edo pertsonak jabetzan duten objektuarekin. Bere izenlagun izaera mantentzen duenez, komunztadura osoa du laguntzen duen izenarekin.

Perpasean hartzen duen posizioari dagokionez, *čej* beti mendeko EPren hasieran joango da, objektua bere atzetik etorriko delarik.

Gure corpusean *čej* jabego-izenordainarekin osatutako perpausak sei baino ez dira. (37)koa hartzen badugu, perpaus nagusian aurrekari bat dago (*ženščina* ‘emakume’), eta mendeko perpausaren hasieran *čej golos* ‘zeinaren ahotsa’ ikus dezakegu. Bertan *ženščina* datiboan dago, baina *čej-k golos-en* kasu, numero eta generoa hartzen ditu, alegia: nominatiboa, singularra eta maskulinoa.

(37)

Eščě odnoj *ženščine*, [ČEJ golos zvučal dlja nego]
 BESTE BAT EMAKUME, [ERL. NOM. AHOTSA DURUNDI EGIN PREP. BERA (M.)]
 ‘beste emakume bati, [zeinaren ahotsak diputatuarentzat propio egiten baitzuen durundi]’
 (PIK: 15)

Aurrekariaren izaera *čej*-rekin osatutako perpausetan

Normalean IS izaten da *čej* izenordainarekin eratutako EPen aurrekaria, baina izenordainak ere erabil daitezke, azken hauek beti ere izaki bizidunei erreferentzia egiten badiete, eta erreferentzia horiek aurretik baldin badatoz: *tot* ‘hori/hura’, *te* ‘horiek/haiek’. Gure corpusean seitik bi dira izena esplizituki agerian ez dutenak (38a-b).

(38)

a)

I sosut krov’ tex, [Č’I roži b’jut]...
 ETA HURRUPATZEN DUTE ODOLA HORIEK (GEN.) [ERL. AKUS. MUTURRAK BEROTZEN DITUZTE]...
 ‘...eta [muturra berotzen dietenen] odola hurrupatzen dutenak daude...’
 (AMA: 352)

b)

Tot, [v Č’EJ golove rodilos’ bol’she idej], *tot* bolšé drugix dejstvuet.
 HURA, [PREP. ERL. PREP. BURUAN SORTU GEHIAGO IDEIA], HORREK BIZIAGO BESTEEK (BAINO) EKIN.
 ‘buruan zenbat eta ideia gehiago sortu, orduan eta eginahal biziagoz ekiten dio gizakiak jardunari;’
 (GGH: 160)

2.1.8. Čto

Čto ‘zer’ izenordain erlatiboak bi aldaera ditu, guk *čto₁* eta *čto₂* deitu ditugunak. *Čto₁* izenordaina *kto*-ren baliokide bizigabea da. *Čto₂*, berriz, *kotoryj* eta *kakoj*-rengandik gertuago dago. Azken finean, erlatibatzaile berberaren bi erabilpen besterik ez diren arren, *čto*-ren funtzioen hedatze bat adierazten dutenez –gehienbat *čto₂* aldaerak–, egoki iritzi

diogu biak banantzeari. Aurrerago ikusiko dugunez, bata zein bestea euskaratzerako orduan, badaude desberdintasun batzuk, nahiz eta hain esanguratsuak ez izan.

Haatik, bi aldaeren arteko desberdintasuna funtsezkoa ez denean, besterik gabe *čto* erlatibatzaileari buruz hitz egitea ere gerta daiteke.

Gure corpuseko datuen arabera, *kotoryj*-ren ondoren, gehien erabiltzen den izenordain erlatiboa da *čto*; guztira 348 perpaus dira, corpus guztiaren %15. Horietatik gehienak *čto*₁ aldaerakoak (304 perpaus) eta gainontzeko 44 perpausak *čto*₂-rekin osatutakoak. Bestela esanda: *čto*₁-ekin osaturiko perpausak corpus guztiaren %13 hartzen dute, eta *čto*₂-rekin osaturikoak %2 besterik ez.

Azter ditzagun, beraz, oraingoz bereizita.

2.1.8.1. Čto₁

*Čto*₁ ‘zer’ *kto* ‘nor’ izenordainaren baliokide bizigabea da, bai galdetzaile moduan eta bai erlatibatzaile bihurtzen direnean ere. Balio semantiko murrizgarria edo ez-murrizgarria izan dezake, eta generoan eta numeroan ez dauka batere komunztadurarik inguruko elementuekin, nahiz eta ohikoenak nominatiboa eta akusatiboa diren.

Preposizioekin batera nahiz kasu marka guztiekin erabili badaiteke ere, ohikoena erlatibatzailea kasu zuzen batean egotea da, normalean nominatiboan (39a) edota akusatiboan (39a).

(39c-d), aldiz, non *čto*₁ instrumentalean eta prepositiboan ageri den, ezohikoak dira.

(39)

a)

I *to*, [ČTO₁ kazalos´ užasnym v ljudjax, neprostitel´nym i gadkim],
ETA HORI,[ERL. NOM. IRUDITU IKARAGARRIA PREP. JENDEARENGAN, BARKAEZIN ETA NAZKAGARRI]
‘Eta [jendearengan ikaragarria, barkaezina eta nazkagarria iruditzen zitzaion] guztia’

(ZPU: 88)

b)

Ja ljublju *to*, [ČTO₁ vy nazyvaete komfortom].

NIK MAITE DUT HORI,[ERL. AKUS. ZUK DERITZOZU EROSOTASUNA].

‘Ez dut ukatuko, [maite dut zuk erosotasuna deritzozun] hori.’

(AIS: 140)

c)

To est´ glavnoe, [ČEM₁ odarivaet režim svoju nomenklaturu].

HAU DA NAGUSIENA, [ERL. INSTR. OPARITU ERREGIMENAK BERE NOMENKLATURA].

‘Hau da, [erregimenak bere nomenklaturari egiten dion] opari nagusia.’ (KONP:193)

d)

Ja ne byl svidetelem vsemu, [O ČĚM ostaětsja mne uvedomit' čitatelja];
 NI EZ NINTZEN LEKUKO GUZTIA, [PREP. ERL. PREP. GERATU NIRI KONTATZEKO IRAKURLEARI];
 'Ez nintzen izan [irakurleari kontatzeko *daukadan*] *guztiaren* lekuko;'
 (KAP: 177)

Aurrekariaren izaera *čto*₁-ekin osatutako perpausetan

Kto-ren kasuan gertatzen den bezala, izena ez den aurrekari batekiko harreman anaforikoa adieraztean datza *čto*₁ izenordain erlatiboaren funtzio sintaktiko nagusia, eta *kto*-rekin bezala, bi modutara ezar daiteke harreman hori: aurrekaritzat izenordain bat erabilita edota aurrekariaren elipsiaren bidez. Izenordainek bizigabeak eta genero neutrokoak izan behar dute: *to* 'hori' erakuslea, *vsě* 'guztia' izenordaina eta *edinstvennoe* 'bakarra' bezalakoak.

Gure corpuseko perpausen %92ak izenordain bat dauka aurrekaritzat, eta soilik %8an gertatzen da elipsia. *Kto*-rekin lortzen genituen datuen oso antzekoak, beraz, ia-ia berdinak.

2.1.8.2. *Čto*₂

Čto izenordainaren aldaera berezi hau *kotoryj*-ren nolabaiteko baliokidea da. Azken finean, erlatibatzaile bezala gramatikalizatutako juntagailu bat denez, murrizketa batzuk dauzka: nominatiboan eta akusatiboan soilik ager daiteke –forma berbera dauka bi kasuetan–, eta preposiziorik ez du onartzen. Azken finean, juntagailu bihurtzen ari denez, morfologikoki eraldatzeko ahalmena galdu du.

Badirudi *čto*₂-ri azkeneko hamarkadetan gaztelaniako *que*-rekin gertatutakoaren antzeko zerbait gertatzen ari zaiola, alegia juntagailu izatetik izenordain erlatibo (erlatibatzaile) huts bihurtzera igarotzen ari dela. Ondorioz, kategoria batetik besterako trantsizioan ohikoa dena gertatzen ari da: funtzioen birbanaketa bat.

Teoriak dio ISEk mendeko EPn subjektu edo objektu zuzenaren funtzioa daukanean soilik erabil dezakegula *čto*, eta hori betetzen da *čto*₂-ren kasuan.

Haatik, ISE subjektua denean, izen bizidunei (40a) nahiz bizigabeei (40b) egin diezaieke erreferentzia, *čto*₁-ek ez bezala. Horrez gain, arau guztien arabera, aurrekariak bizigabea izan behar du objektu zuzenaren funtzioa hartzeko (40c), nahiz eta gaur egun erraza den eguneroko hizkeran bizidunekin ere topatzea. Egia esan, gure corpusean ere badago izen ardatz biziduna daukan adibide bat (40d). Halere, liburu horretako egilea ezagututa, azken adibide hau langileak 'objektu' bezala tratatuak direla adierazteko modu

bat izan daiteke. Baliteke, halere, adibide horretan maila sozial apaleko pertsonen ahozko hizkera islatu nahi izana.

(40)

a)

Kupit von tot kanal'ja *povar*, [ČTO₂ vyučilsja u francuza],
 EROSI HURA GIZATXAR *SUKALDARI*, [ERL. NOM. IKASI PREP. FRANTSESA],
 kota, obderët ego...
 KATUA, LARRUTU HURA...

'Hango *sukaldariak*, [bere lanbidea frantses batengandik *ikasi duen*] *gizatxar horrek*, katua erosten du, larrutu...'

(ARH: 148)

b)

V stanice pogovarivali o *bandax*, [ČTO₂ šli s nizov'ev Dona].
 PREP. HERRIAN MINTZO ZIREN PREP. *MATXINO-TALDEAK* [ERL. NOM. ZETOZEN PREP. BEHEAN DONEKO].
 'Herrian gari-bahiketaz mintzo ziren, [Don beheretik *zetozen*] *matxino-taldeen*.'

(DII: 135)

c)

... čto nado ispol'zovat' vse podčerknutye fakty
 ...JUNT. (-ELA) BEHAR DA ERABILI GUZTIAK AZPIMARRATUTAKO DATUAK
 iz tex *dos'e*, [ČTO₂ ty berëš u Fëdora].
 PREP. HORIEK *TXOSTENETAN* [ERL. AKUS. ZUK HARTU PREP. FIODOR].
 '...[Fiodorrek *ematen dizkizun*] *txostenetan* azpimarratutako datu guztiak erabili behar dituzula.'

(PIK: 45)

d)

Neizvestnye ljudi okazalis' novymi *rabočimi*, [ČTO₂ prislal Paškin]
 EZEZAGUNAK PERTSONAK JAKIN ZUTEN BERRIAK *LANGILEAK*, [ERL. AKUS. BIDALI PAŠKINEK]
 dlja obespečenija gosudarstvennogo tempa].
 PREP. BERMATZEKO ESTATU- ERRITMOA].
 'Pertsona ezezagun haiek langile berriak zirela jakin zuten; [[Paxkinek *bidaliak*], estatuak ezarrikiko erritmoa bermatzeko.'

(LUB: 51)

Dena den, objektu zuzenaren funtzioa, corpus guztian zehar, hiru perpausetan soilik agertzen da; subjektuzkoak, ordea, berrogei dira. Horrez gain, badago kasu bat hizkera

herrikoi edo ez-formalari egozten zaiona, non zehar-kasu baten erlatibatzea aipa daitekeen. Akusatibo bizidunekin gertatzen zen bezalaxe, teorian $\check{c}to_2$ -k ez du horrelakorik onartzen, baina ahozko hizkeran (41)en moduko arau-hausteak nahiko ohikoak dira (Pugh 2006: 220-222).

(41)

Vot u *pomeščika*, [$\check{C}TO_2$ my byli], xorošie ljudi.

ESATERAKO PREP. LURJABEA, [ERL. GU EGON GARA] (DIRA) ONAK JENDEAK.

'[*Bisitatu* berriak *ditugun*] *lurjabeen* morroiak, esaterako, jende onak dituk.'

(ARH: 66)

Aurrekariaren izaera $\check{c}to_2$ -rekin osatutako perpausetan

$\check{C}to_2$ izenordaina $\check{c}to_1$ -engandik bereizten duen ezaugarri nagusia, hain zuzen, aurrekarizat izen bat edukitzeko ahalmena denez, garbi dago aurrekariak izena izan beharko duela.

Egia da gure corpusean $\check{c}to_2$ -rekin osatutako 44 perpausetatik 38tan (%84) daukagula, esplizituki, izen bat, baina gainontzekoetan agertzen diren izenordainek ere erreferentzia garbia egiten diote aurretik ageri den izen bati.

2.1.9. Aditzondo erlatiboak

Izenordainek ez bezala, aditzondo erlatiboek espazioari edo denborari dagokion ñabardura bat gehitzen diote perpausari; ekintza bat non edo noiz gertatu den zehazten dute.

Lekuzko aditzondoak hiru dira (*GDE* 'non', *KUDA* 'nora' *OTKUDA* 'nondik') eta denborazkoa, berriz, bakarra (*KOGDA* 'noiz').

Gure corpusean bakoitzak duen maiztasunari erreparatuz gero, ikusten dugu *gde* lekuzko aditzondoa dela sarrien erabiltzen dena (aditzondo guztien %59); ondoren *kogda* denborazkoa (aditzondoen %27); azkenik *kuda* (%10) eta *otkuda* (%4) lekuzkoak dira gutxien direnak.

Lekuzko nahiz denborazko izan, aditzondo erlatiboek ezaugarri gramatikal gehienak partekatzen dituzte: beti mendeko perpausaren hasieran joan behar dute derrigorrez, eta ez daukate batere komunztadura formalik, ez ISErekin ezta mendeko EPko aditzarekin ere. ISErekin daukaten harremana semantikoa da bakar-bakarrik.

ISErekin komunztadura ez egitea gertatu ohi da beste erlatibatzaile batzuekin ere (*čej* eta $\check{c}to_2$ -rekin adibidez), baina aditzondo erlatiboak dira mendeko perpausako inongo

elementurekin ere harreman formalik ez duten bakarrak, azken finean aditzondoak direlako.

Aditzondo guzti hauek *kotoryj*-k ordezkatzeko ditzake –preposizioarekin eta leku-denborazko esanahia bereganatuz–, (42)ko adibideetan ikus dezakegunez: *kotoryj*-rekin osatutako lau perpaus dauzkagu (42a-d), preposizioekin eta zehar-kasuekin. Perpaus horietan, *kotoryj* ordezkatzeko posible da, hurrenez hurren, *gde*, *kuda*, *otkuda* eta *kogda* aditzondoekin.

(42)

a)

O. AMILDU PREP. HORI BERA BESAULKIA, [PREP. ERL. PREP. ZEGOEN BEZPERAN]
 Odintsova opustilas´ na to že samoe kreslo, [na KOTOROM sidela nakanune],
 ‘Odintsova [aurreko eguneko] besaulki berean amildu zen,’ (AIS: 144)

b)

... čto on nikak ne xotel vyxodit´
 ... JUNT. (-ELA) BERAK (M.) INOLAZ ERE EZ NAHI ZUEN IRTEN
 iz kolei, [v KOTORUJU popal nepredvidennymi sud´bami]
 PREP. BIDEA, [PREP. ERL. AKUS. SUERTATU ZEN USTEKABEKO PATUA]
 ‘...ezen ez baitzuen irten nahi [patuak ustekabeaz urratua zion] bide hartatik,’ (ARH: 137)

c)

... na reklamnyj ščit, [s KOTOROGO obil´no lilsja narisovannyj francuzskij šampun´].
 ...PREP. PUBLIZITATE-TAULA, [PREP. ERL. GEN. TURRUSTAN ISURI KOLORETSU FRANTSSES XANPUA].
 ‘Begietsi zuen ... publizitate-taula bat, [zeinetik turrustan isurtzen baitzen frantses xanpu koloretsu bat].’ (PIK: 241)

d)

Da vspomni ego vospitanie, vremja, [v KOTOROE on žil]
 BAINA GOGOAN IZAN HAREN (M.) HEZIKETA, GARAIA, [PREP. ERL. AKUS. BERA (M.) BIZI IZAN DA]
 ‘Baina gogoan izan haren heziketa, gogoan izan [bizitzea egokitu zaion] garaia.’ (AIS: 56)

Kotoryj-rekin osatuta dauden eta leku-denborazko interpretazioa izan dezaketen perpausetan, aditzondoa edo *kotoryj* erabili, esanahia ez da aldatzen. Halere, *kotoryj*-k genero, numero eta kasu bidezko komunztadura egiten duenez, ISEren eta mendeko perpausaren arteko harremana finkatzen eta anbiguotasunak ekiditen laguntzen du.

Aurrekariaren izaera aditzondo erlatiboekin osatutako perpausetan

Aditzondo erlatiboekin osatutako perpaus ia guztietan ISE izena da. Gure corpusean aditzondo erlatiboekin osatutako 284 perpausetatik 283tan da izena aurrekaria eta batean soilik izenik gabeko erakuslea (43).

(43)

Odna iz nix, ta, [*KUDA*, on privël našix prijatelej], nazyvalas´ kabinetom. BAT (F.) PREP. HAIETAKO *HURA*, [ERL. *NORA* BERAK ERAMAN GURE LAGUNAK] DEITZEN ZEN LANGELA. 'Haietako bati, [*NORA eraman baitzitu*en gure bi lagunak], langela deitzen zion.' (AIS: 162)

(43)n gauza deigarri bat gertatzen da: STan *kuda* 'nora' aditzondoarekin osatua dagoen perpausa euskaraz ere *nora* galdetzailearen forma adlatiboarekin agertzen da. Ezin da esan euskaraz adlatiboa aditzondo erlatibotzat erabiltzea oso ohikoa denik, eta guk geuk zalantzak dauzkagu forma hauen onargarritasunaren inguruan, baina badirudi onartua dagoela. Alberdi/García-k, adibidez, normaltasun osoz aipatzen dituzte "non, nora, nondik... galdegileak ere erabil daitezke erlatibo gisa leku-denborazko kasuak adierazteko" diotenean (*Alberdi/García 1998: 242*). Hialgok ere eskaintzen ditu testigantza batzuk: "*Eta horixe da puntua, nora eramaten gaituzten zure erreflexio petral horiek guztiek*" (Hidalgo 2003:49). Euskaltzaindiak ere Orotariko Euskal Hiztegian, *adinera heldu* sarreran, "*Umen ilunbea da leku bat, nora doazan adinera edo ezauberara eldu baño lenago ilten diranen arimak, beteotiak izan bagarik*" (OEH Itz Azald 41) adibidea ematen du.

Edonola ere, errusierazko aditzondoen kasuan ohikoena da perpaus nagusian agertzen den eta leku edo denborari erreferentzia egiten dion izen sintagma bat erlatibatzea: *derevuška* 'herrixka' (44a), *krepost´* 'gotorleku' (44b), *storona* 'albo bat' (44c), *minuta* 'minutu/une' (44d)...

(44)

a)

...na skate pologogo xolma otkrylas´ nakonec *nebolšája derevuška*, [*GDE* žili
...PREP. ALDAPA LEUN MUINO AGERTU AZKENIK *HERRIXKA*, [ERL. NON BIZI ZIREN
roditeli Bazarova].
GURASOAK BAZAROVEN].

'...[Bazaroven gurasoak *bizi ziren*] *herrixka* agertu zen muino bateko aldapa leunean.'

(AIS: 157)

b)

Gde takaja *krepost'*, [*KUDA* by puli ne zaletali]?
 NON (DA) HORRELAKO *GOTORLEKU*, [*ERL. NORA* BALEK EZ IRISTEN DIRA]?
 'Non da [balek *iristerik ez duten*] *gotorleku* hori?' (KAP: 91)

c)

Pokazal rukoj v *storonu*, [*OTKUDA* donosilas' usilennaja nočnoj tišinoj
 SEINALATU ESKUAZ PREP. *ALBO BAT*, [*ERL. NONDIK* ZETOZEN AREAGOTUTAKO GAUEKO ISILTASUNAK
 čelovečeskaja reč']
 GIZA- AHOTSAK]
 '...eskuaz seinalatu zuen albo batera, [gaueko isiltasunak areagotutako giza ahotsak *zetozen*]
aldera.' (PIK: 111)

d)

V pervoj moej molodosti, s *toj minuty*, [*KOGDA* ja vyšel
 PREP. LEHENENGO NIRE GAZTARO PREP. *HORI UNETIK*, [*ERL. NOIZ* NIK ALDE EGIN NUEN
 iz opeki rodných]
 PREP. ITZALETIK GURASOEN]
 'Gazte-gaztetatik, [gurasoen itzaletik *alde egin nuen*] *unetik* bertatik,' (GGH: 65)

Halaber, zuzenean denbora edo tokia adierazi gabe, badira izen batzuk, testuinguru jakin batzuetan esanahi horiek iradoki ditzaketenak, eta beraz, aditzondoekin erlatiba daitezkeenak: *dolžnost'* 'eginbeharra/kargua' (45a), *sila* 'indarra' (45b), *žadnost'* 'ekintza-egarri/enpeinu' (45c)...

(45)

a)

Ili po krajnej mere, ne poručat' im nikakix *dolžnostej*, [*GDE* est' otvetstvennost'].
 EDO BEHINIK BEHIN, EZ UTZI HAI EI INONGO *EGINBEHARRIK*, [*ERL. NON* DAGO ERANTZUKIZUNA].
 '...edo, behinik behin, ez uztea haien esku [inongo erantzukizunik *dakarren*] *eginbeharrik*.'
 (AIS: 26)

b)

No Sobakievitx vošël, kak govoritsja, v samuju *silu* reči, [*OTKUDA* vzjalas'
 BAINA SOBAKIEVITX ZEGOEN, BEZALA ESAN OHI DA, PREP. HITZA ETA PITZA, [*ERL. NONDIK*ATERA ZEN
 rys' i dar slova]:
 TROSTA ETA JARIOA HITZ-]:
 'Baina Sobakevitx hitz-jario zegoen, Ø [mihiak ekarri ahalean hitza eta pizza zeriola]:'
 (ARH: 154)

c)

... stali trudit'sja nad železnymi predmetami s toju tščatel'noj žadnostju,
 ...EKIN ZIOTEN LANDU PREP. BURDINAZKO OBJEKTUAK PREP. HORI ARRETATSU (EKINTZA)-EGARRI,
 [KOGDA prok bolee neobxodim, čem uščerb].

[ERL. NOIZ ONURA (DA) BEHARREZKOAGO, BAINO KALTEA].

'...burdinazko objektuak lantzeari ekin zioten; baita [onura kaltea baino beharrezkoagoa denean *izaten den*] *ekintza-egarri* arretatsuz ekin ere.'

(LUB: 172)

2.1.10. Aurrekaria perpaus oso bat denean

Badira gure inguruko hizkuntzetan erlatiboazko perpaus batzuk, aurrekaritzat aurretik azaldutako perpaus oso bat dutenak.

Errusieraz čto erlatibatzailearekin (46a-b) eta gatzelaniaz, oro har, *lo cual* erabilita osatu ohi diren perpaus hauek euskaraz ez dira gramatikalak, eta bi perpausen artean eten bat sartuz euskaratzen dira gehienetan perpaus hauek.

(46)

a)

... pribavil Nikolaj Petrovič, potiraja lob i brovi rukoju, [ČTO u nego
 ... ERANTSI NIKOLAJ PETROVIČEK, IGURTZIZ BEKOKIA ETA BEKAINAK ESKUAZ, [ERL.NOM. PREP. BERA
 vsegda služilo priznakom vnutrennego smuščenija]...

BETI SALATU (SEINALE) BARRU- URDURITASUNA]...

'...erantsi zuen Nikolai Petrovitxek, eskuaz bekokia eta bekainak igurtziz, // keinu horrek barruko urduritasuna [*salatu ohi baitzuen* berarengan]...'

(AIS: 27)

b)

On zastavil slugu, raskazyvat' vsjakij vzdor –
 BERAK (M.) BEHARTU ZERBITZARIA BERRI EMATERA GUZTIAK GORABEHERAK:

o tom, kto soderžal prežde traktir i kto teper', mnogo li daët doxoda,
 PREP. HORI NORK GOBERNATU LEHEN TABERNA ETA NORK ORAIN, HANDIA EA EMATEN DU ETEKINA,
 i bolšoj li podlec ix xozjain;

(ETA) OSO (DA) EA ZITALA (BERAIEN) JABEA;

[na ČTO polovoj, po obyknoveniju otvečal: "O, bolšoj, sudar', mošennik"].

[PREP. ERL. AKUS. MORROIAK, PREP. OHITURA ERANTZUN: "BAI, GALANTA, JAUNA, ALPROJA"]

‘...[gorabehera guztien berri jakinaraztera behartu zuen zerbitzaria: nork gobernatzen zuen lehen eta nork orain, ea etekin handiak ematen zituen, ea jabea oso zitala zen]. [Morroiak, ohi denez, honela erantzun zion: «Bai, jauna, alproja galanta da]».’

(ARH: 25)

Euskaraz eratu ezin direnez, (46)ren modukoak ez ditugu gure corpusean sartu, distortsio bat sorraz zezaketelako, corpua behar berezirik gabe puzteaz gain.

2.1.11. Errusierazko perpausen balio semantikoa erlatibatzaileen arabera

Erlatibatzaile bakoitza balio semantiko bati edo besteari lotuago dagoen baieztatzeko lagin batzuk aztertu ditugu, eta hauek erlatibatzaileen berezko ezaugarriekin erkatu ondoren, balio semantikoaren arabera erlatibatzaileak bi multzotan sailka ditzakegula ondorioztatu dugu.

- Edozein balio semantiko har dezaketenak; alegia, balio murrizgarri eta ez-murrizgarria adierazteko gai direnak. Ezaugarri hau batez ere *kotoryj*-ri dagokio, eta, neurri batean behintzat, *kakoj*-ri eta *čej*-ri.

- Sarritan balio murrizgarria daukatenak: aurrekaritzat izenordaina izan ohi dutenak (*čto*, *kto*) eta aditzondo erlatiboak.

Kotoryj-ri dagokionez, bere hedapen semantiko zabalak eta izenordain erlatiboetan markatu gabeena izateak edozein balio semantiko hartzea ahalbidetzen dio *kotoryj*-ri. Halere, badira kontuan izan beharreko elementu batzuk.

Aurrekariaren ikuspuntutik, esan daiteke erakusleek, mugatzaile diren heinean, balio semantiko murriztailea adierazteko aukera handiagoa dutela, objektu-multzo batetik objektu baten erreferentzia ateratzea errazten dutelako.

Noski, kontzeptu semantiko bati buruz ari garenez, testuinguruaren –eta honen interpretazioaren– menpe egongo da derrigorrez, perpaus bakoitza era batera edo bestera ulertzeak, balio semantiko ere desberdina izatea eragingo baitu.

(47a) murriztailea da eta (47b) ez-murriztailea. (47c), ordea, testuinguru zabalago baten faltan, egindako interpretazioaren araberakoa izango da: ez-murriztailea beste neskarik ez badu ondoan eserita, eta murriztailea beste neska batzuk ondoan baditu eserita, baina ez buru ondoan.

(47)

a)

Neuželi net na svete ženščiny, [KOTOROJ vy xoteli by ostavit'
OTE (DAGO) EZ PREP. MUNDUAN EMAKUMERIK, [ERL. DAT. ZUK NAHI ZENIOKE UTZI
čto-nibud' na pamjat']?
ZERBAIT PREP. OROIGARRI]?

'Ez da munduan *emakumerik* [oroigarri gisa zerbait *utzi nahi diozunik*]' (GGH: 204)

b)

Ona uvidela Sašku, [KOTORYJ pil čaj u stola i
BERAK (F.) ERREPARATU ZION SASHKARI, [ERL. NOM. EDAN TEA PREP. MAHAI ETA
ne podnimal glaz na božij mir].
GABE JASO BEGIAK PREP. MUNDUJA].

'Sashkari erreparatu zion, [mahai ondoan tea *ari baitzen edaten*], Jainkoaren munduari begirik jaso ere gabe.' (ZTG: 75)

c)

I devočka, [KOTORAJA sidela u eë golovy], tože dremala.
ETA NESKATOA, [ERL. NOM. ESERITA ZEGOEN PREP. BERE (F.) BURUA] ERE ERDI LOTAN.
'[eta buru ondoan *eserita zeukan*] *neskatoa* ere erdi lotan zegoen,' (LUB: 80)

Corpusean zehar interpretazio egokia egitea zailtzen duten adibide asko topatu ditugu. Hori dela eta, zaila izango da interpretazio semantiko ireki batean oinarrituriko datuekin lan egitea, eta horietatik estatistika eraginkorrak ateratzea.

Testuinguru zabalago bat izan ezean, anbiguotasuna sortzen da. Gainera, aurrekari den ISEn zenbat eta elementu mugatzaile gehiago izan, orduan eta murriztaileagoa izango da EPren interpretazio semantikoa. (48a-e)ko adibideetan izenaren aurretik honako determinatzaileak daude hurrenez hurren: *takoj* 'horrelako', *ta* 'hori-Fem.', *ta že* 'horixe-Fem.', *ta samaja* 'hori bera-Fem.', *tot* 'hori-Mask.'.

Guztiek interpretazio murriztailea –objektu-multzo batetik objektu bat bereiztea– errazten dutela esan daiteke.

(48)

a)

Net TAKOGO človeka, [o KOTOROM každý iz nas ne mog by sudit']!
EZ (DAGO) HORRELAKO GIZABANAKORIK [PREP. ERL. PREP. EDONORK PREP. GU EZIN DEZAKE EPAI]!
'Ez dago gizabanakorik gutariko edonork ezin epai dezakeenik!' (AIS: 232)

b)

I osobenno *TA mexaničeskaja kukla s ruž'ëm*, [KOTORAJA stučit
ETA BATEZ ERE HURA MEKANIKO PANPINA PREP. FUSILA, [ERL. NOM. ZAPALDU
nogami po korridor].

(HANKEKIN) PREP. KORRIDOREA]

'Eta, batez ere, [oin-hotsa sortuz korridorea zapaltzen zuen] *panpina mekaniko fusildun hura*'
(ZPU: 79)

c)

... *TA ŽE sila*, [KOTORAJA daët im vlast' nad nami], [vozbuždaet sredi nix
...*HORI XE INDAR*, [ERL. NOM. EMAN HAI EI BOTEREA PREP. GUREGAN][SORTU PREP. HAIEN
vraždebnye trenija].

TIRABIRAK]

'...[gure gaineko boterea *ematen dien*] *indar horrek tirabirak* sortzen ditu haien artean,'
(AMA: 388)

d)

Javilas' *devočka*, *TA SAMAJA*, [KOTORAJA nakanune pervaja
AGERTU ZEN NESKATOA, HURA BERA, [ERL. NOM. BEZPERAN LEHENA
vstretila priezžix na kryl'ce].

HARTU ZITUEN IRITSI BERRIAK PREP. ATAURREAN].

'[Aurreko egunean iritsi berriei ataurrean harrera egitera lehena *atera zen*] *neskato bera*
agertu zen...'

(AIS: 39)

e)

Žensčina ostalas' ležat' v *TOM večnom vozraste*, [v *KOTOROM* umerla].
EMAKUMEA GERATU ZEN ETZANDA PREP. *HORI BETIEREKO* ADINEAN, [PREP. ERL. PREP. HIL ZEN]
'Emakumea etzanda geratu zen, [bere heriotzaren adin *betiereko*] hartan.'

(LUB: 90)

Erakusleak izenik gabe agertzen diren perpausetan ere interpretazio murriztailea da ohikoena, (49a-c)n ikus dezakegunez.

(49)

a)

I pokazyvaja pal'cem na *TOGO*, [KOTORYJ čital]:
ETA SEINALATUZ HATZAZ PREP. HURA, [ERL. NOM. IRRAKURRI ZUEN]:

'Eta [epaia *irakurri zuena*] hatzaz seinalatuz:'

(ZPU: 33)

b)

... zakričala TA, [KOTORUJU nazyvali Zinoj].

... OIHU EGIN ZUEN HARK, [ERL. AKUS. DEITZEN ZIOTEN ZINA].

‘...egin zuen oihu [Zina esaten zioten] hark’.

(TXB: 62)

c)

Smejucja ot duši TE, [KOTORYE, vpročem, neskol’ko ploxo
BARRE EGITEN DUTE PREP. GOGOTIK HAIK, [ERL. NOM. NAHIZ ETA APUR BAT GAIZKI
uslyxali proisnesënnye im slova].

ENTZUN DITUZTE ESANDAKO HARK (M.) HITZAK].

‘...gogotik barre egiten dute urruntxeago daudenek, [nahiz eta ez dituzten oso ondo entzun haren hitzak;]’

(ARH: 238)

Interpretazio ez-murritztailearen ezaugarrietako bat ‘ISEren eta kotoryj-ren arteko komuntaduraren galera da’ (Švedova 2005: 522) edo beste era batera esanda, bi aurrekari daude (*muinoa/muinoz*) eta biak banatuta agertzen dira. Hala, ISE singularrean egonagatik, *kotoryj* pluralean ager daiteke (50).

(50)

... to neslas´ duxom s prigorka, [KOTORYMI byla usejana vsja stolbovaja doroga].

...EDO JAITSI AGUDO PREP. MUINOTIK, [ERL. INSTR. ZEGOEN JOSIRIK GUZTIA NAGUSIA BIDEA].

‘edo muinoetatik agudo jaistez batera, [zeren bide nagusia muinoz josirik zegoen].’

(ARH: 358)

Koj erlatibatzaileari ere berdin-berdin eragiten dio *kotoryj*-ren balio semantikoaren inguruan esandakoak, funtsean izenordain berbera baitira.

Čej-rekin osatutako perpausetan ere *kotoryj*-dunetan gertatzen denaren antzeko zerbait daukagula dirudi: testuinguruaren arabera erraz har ditzake balio murriztailea nahiz ez-murriztailea. Lagina oso handia ez den arren (6 perpaus), badirudi corpuseko datuek eta erlatibatzailearen ezaugarriek hori erakusten dutela.

Beste muturrean –balio murriztailea errazago hartzen dutenen artean– batetik *čto* eta *kto* dauzkagu eta bestetik aditzondoak.

Čto eta *kto* erlatibatzaileekin osaturiko perpausei dagokienez, izenordainen erabilera handia dela eta, balio murriztailea da ohikoena.

Aditzondoek ere balio murriztailea dute ez-murriztailea baino maizago. Hau ere logikoa da, azken finean balio ez-murriztailea dutenean, gehiago dira leku-denborazko aditzondo, erlatibatzaile baino.

3. GURE CORPUSEKO ERRUSIERAZKO PERPAUSEN EUSKAL ORDAINAK

Tesi honen helburuetarako, euskarazko erlatibakuntza-estrategiak sailkatzeko irizpide nagusitzat mendeko EPk izen ardatzarekiko daukan kokapena hartuko dugu. Honen arabera, bi multzo nagusi bereizten dira euskaraz: ardatzaren ezkerretara hedatzen direnak (oinarrizko erlatibakuntza-estrategiak) eta ardatzaren eskuinetara agertzen direnak (erlatibo aposatuak).

Batetik, izen ardatzaren ezkerretara hedatzen diren *-(e)n* atzizkidun erlatibo arruntak (51a) eta erlatibo jokatugabeak (51b) dauzkagu.

(51a)n *gizon* izen ardatza daukagu, eta honen ezkerretara *-en* erlatibatzailea daraman mendeko EP, non aditza jokatuta dagoen ([lanera *etorri den*]).

(51b)n, aldiz, perpaus berdina *gizon* ardatzarekin, baina mendeko EPko aditza jokatu gabe ([lanera *ETORRITAKO*] *gizon bat*).

(51)

- a) [Lanera *etorri den*] *gizon bat*
- b) [Lanera *etorritako*] *gizon bat*

Bestetik, hiru erlatibo aposatu mota dauzkagu euskaraz: *-(e)n* atzizkidun erlatibo aposatuak, *ZEIN/NON* galdetzaileen bidez osaturikoak eta *BAIT-* aurrizkiaren bitartez eratutakoak.

(52)ko hiru perpausetan *gizon* ardatza ezkerretara dago, eta mendeko EP, aldiz, eskuinetara, arrunt aposatu baten bidez (52a), *ZEIN/NON* galdetzaileez baliatuz (52b) edota izenordainik gabeko *BAIT-* aurrizkia erabiliz (52c).

(52)

- a) *Gizon bat*, [lanera *etorri den*]a
- b) *Gizon bat*, [zeina lanera *etorri den/baita*]
- c) *Gizon bat*, [lanera *etorri baita*]...

Hemen aipaturikoak dira, zalantzarik gabe, euskarak EPk osatzeko dituen baliabide nagusiak. Halere, hauez gain badira beste bi ere: *korrelaziozkoak* eta *aurrekaririk gabeko izenordaindunak* bezala ezagutzen direnak.

Gure corpusean euskarazko korrelaziozko perpausak zortzi besterik ez dira, eta aurrekaririk gabeko izenordaindunak, aldiz, ez dira agertu ere egiten. Ondorioz, biak ala biak dagokien lekuan laburki aipatzera mugatuko gara.

EPak osatzeko funtsezko lau moduetan jarriko dugu batez ere arreta: erlatibo arruntak eta jokatugabeak batetik eta erlatibo arrunt aposatuak, *ZEIN/NON* eta *BAIT*-erlatiboak bestetik. Ondoren bana-banan aztertuko ditugu, azalpena gure corpuseko adibideekin hornituko dugularik.

3.1. Izen ardatzaren ezkerretara hedatzen diren *-(e)n* erlatibo arruntak

Euskaraz oinarrizko erlatibakuntza-estrategia *gap strategy* ‘hutsunearen estrategia’ delakoa da; hots, mendeko EPn ISEren erreferentzia argirik ez agertzean datzan estrategia (Kuteva/Comrie 2005: 122-123). ‘Erlatibo arruntak’ izena beharbada eztabaidagarria izan daiteke ikuspuntu linguistiko zorrotz batetik, baina euskararen inguruko hainbat azterketatan nahiz EGLUn agertzen denez, izen hori gure egitea erabaki dugu.

Erlatibo arrunt hauek dira, esan bezala, euskaraz ohikoenak, zenbait hiztunentzat ia onargarriak diren bakarrak. Garbi dago ISEren isiltze horrek, markatzen ez den edozein elementurekin gertatzen den legez, anbiguitasun maila handiagoa izatea dakarrela.

Errusieraz –oro har indoeuropar hizkuntzetan– ardatzaren eskuinetara hedatzeak eta erlatibatzeak izenordain espezifikoko bat edo gehiago izateak anbiguitasuna ezabatzea errazten du.

Tesi honen hasieran erlatibo arrunten adibide bat ematen genuen (1'), eta euskararen oinarrizko erlatibakuntza-estrategia deskribatzen genuen, esanez sozietibo kasu marka daraman ISren barnean *mutil* ardatzarekiko izenlagunaren funtzioa hartzen duen perpaus menderatua zegoela: *liburu hau idatzi du*.

(1')

[Liburu hau *idatzi duen*] *mutilarekin* bizi da neska hau.

Aldi berean, esaten genuen euskaraz isildua badago ere, bazegoela *liburu hau idatzi duen* mendeko perpausaren baitan IS bat, kasu sozietiboan agertzen den ISrekiko

erreferentziakide dena, eta *mutil* ardatz duena. Horregatik esaten genuen bi perpaus geneuzkala: *mutilak liburu hau idatzi du* eta *mutil horrekin bizi da neska hau* (2').

(2')

[[~~Mutilak~~, (Ø) liburu hau idatzi duen] mutilarekin,] bizi da neska hau

Laburtuz, esan dezakegu euskarazko oinarrizko erlatibakuntza-estrategiaren ezaugarriak ondorengoak direla: bere ezkerretara mendeko perpaus bat daukan izen ardatz bat agertzea, eta mendeko perpausaren amaieran aditzak *-(e)n* atzizki bat eramatea, menderagailuaren funtzioa hartzen duena.

Erlatibo arruntak beti izen ardatzaren ezkerretara agertuko dira. Horixe da, hain zuzen, erlatibo aposatuengandik bereizten dituen ezaugarri nagusia. (53)ren modukoak ez ditugu kontuan hartuko, gure corpusean horrelako adibiderik ez dagoelako, eta euskara estandarrean hitz-segida nahiko ezohikoa delako.

(53) Gizon [aspaldi ikusi ez **nituen**]ak aurkitu nituen han (EGLU-V 1999:179).

Erlatibo arruntak metatu daitezke, baina beti ere aipatutako ordenari jarraituz.

EPren barneko hitz-segidari dagokionez, adierazpeneko perpausetan ez bezala, ezezko perpausetan ordena ez da aldatzen, eta aditzak beti mendeko perpausaren amaieran joan behar du.

Azter ditzagun orain erlatibo arrunten erlatibatze-eskalaren –hierarkiaren– nondik norakoak.

3.1.1. Erlatibo arrunten erlatibatze-eskala

I. kapituluan ikusi dugu erlatibakuntzaren hierarkia unibertsal bat –bere inguruan egon daitezkeen eztabaidak gorabehera– egon badagoela (Comrie/Keenan 1977), baina nola aplika dakioke hierarkia hori euskara bezalako hizkuntza bati?

Rudolf De Rijkek, euskal hiztunok funtzio sintaktiko desberdinak erlatibatzerakoan daukagun jokabidea ikertzerakoan, bi “dialekto” bereizten ditu: “dialekto murriztua”, non hiztunak aditz komunztadura duten kasu gramatikalak bakarrik onartzen dituen, eta “dialekto malguago” bat, gramatikalak ez diren kasuak ere –nagusiki instrumentala, inesiboa, ablatiboa eta adlatiboa– onartzen dituena (De Rijk 2008:474).

Dialekto hitza ez da ez geografikoki edo sozialki ulertu behar (De Rijkek berak onartzen du *dialekto* (jatorrizkoan *dialect*) hitza nahasgarria izan daitekeela–, hiztunaren malgutasunaren eremu bezala baizik.

Azkenik, bi “dialekto” horien azpitik aditzaren argumentu hurbil bati ez dagozkion sintagma adberbialak leudeke, oso erlatibagaitzak –maiz erlatibaezinak– lirakeenak: sozietatiboa (-EKIN), bizidunen leku-denborazkoak (-ENGAN, -ENGANA, -ENGANDIK), benefaktiboa (-ENTZAT) eta motibatiboa (-ENGATIK).

De Rijkek jasotzen dituen testigantzetan hiztunak ez omen dira koherenteak; hau da, hiztun bati egun batean onargarria iruditzen zaiona handik aste pare batera ez zaio hain zuzena iruditzen edo, alderantziz, hasieran onartezintzat jotakoari gero onargarri deritzo.

Fenomeno paradoxiko batzuk gertatzen direla ere ikusi zuen De Rijkek: hiztun batek sortutako perpausak beste bati onartezinak iruditzea, nahiz eta biek ala biek euskarazko kompetentzia-maila berdina izan.

Horrez gain, hiztun bakoitzak informazio bat deskodetzeko duen pazientzia bezalako faktore psikologiko indibidual batzuk ere aipatzen ditu De Rijkek.

Honek guztiak, azken finean, euskarazko oinarritzko erlatibakuntza-estrategiaren –erlatibo arrunten– anbiguitasuna berresten du, morfologikoki markatua ez egoteak berarekin dakarren zehazgabetasuna.

Comrie/Keenan-ek ere, beraien hierarkia azaltzerakoan, beste hizkuntza askoren artean, euskararen oinarritzko erlatibakuntza-estrategiaren ezaugarriak aurkeztu zituzten. Bertan baieztatzen zuten euskarak hutsune bidezko estrategia (*gap strategy*) hobesten duela, mendeko EPn ez duela kasurik markatzen (-case), eta kasu gramatikalak (absolutiboa, ergatiboa eta datiboa) soilik erlatiba ditzakeela (Comrie/Keenan 1977).

Hori hala da, nahiz eta euskarak badituen muga horiek gainditzeko zenbait baliabide, aurrerago ikusiko dugun bezala.

Edonola ere, gure corpora literatura-testu idatziz osatua dagoenez, erlatiboen prozesamenduan erregistro idatziaren eta ahozkoaren artean dauden desberdintasunak kontuan izan beharko ditugu, idaztea edo irakurtzea ez baita hitz egitea edo entzutearen parekoa.

Irakurtzeak deskodetzea erraztu eta anbiguitasunak murrizten ditu, denbora gehiago daukagulako adierazitakoa ulertzeko.

Ahokotasunaren bat-batekotasunak, aldiz, deskodetzea zailtzen du, buruak gorde eta kudeatu dezakeen informazioa murriztagoa delako, eta hartara, anbiguitasunak areagotzen direlako, adierazpen-baliabideen aukeraketa baldintzatuz.

Ondorioz, espero izatekoa da ahozko testigantzak jasotzen dituen corpus batean erlatibo arruntak batez ere kasu marka erlatibagarriekin (gramatikalekin) agertzea, eta idatzizko testuak biltzen dituen corpus batean, aldiz, alderantzizkoa gertatzea: kasu marka erlatibagaitzak sarriago erlatibatuak egotea.

Gure corpora oso-osorik idatzizko testuetan oinarritzen denez, pentsatzekoa da kasu marka erlatibagaitzak ahozko testuetan oinarrituriko corpus batean baino sarriago agertzea. Haatik, non dago erlatibo arrunten erlatibagarritasunaren muga? Noiz erabakitzen dute itzultzaileek erlatibo arrunt bat osatzea ez dela onargarria?

Galdera horiei erantzuteko euskarazko erlatibagarritasunaren eskalan bereizi ohi diren hiru mailak aztertuko ditugu: kasu marka erlatibagarriak (gramatikalak), erlatibagaitzak eta erlatibaezinak.

3.1.1.1. Kasu marka erlatibagarriak

Aditz komuntadura duten kasu gramatikalak dira euskarazko oinarritzko erlatibakuntza-estrategiarekin erlatibatzen errazenak, hots, absolutiboa, ergatiboa eta datiboa.

Ergatiboa eta absolutiboa ia inongo murrizketarik gabe erlatiba ditzakegu, bietatik erlatibagarriagoa zein den guztiz argitu gabe badago ere (ik. I kapituluko 1.2. puntua).

AH-k eztabaida ugari piztu izan du hizkuntza ergatiboari aplikatzerakoan, hain zuzen bertan *subjektua* bezalako kontzeptu bat aditzaren iragankortasunari jaramonik egin gabe erabiltzen delako.

Hizkuntza ergatiboetan subjektuak bi kasu marka izan ditzakeenez –sinpleki esateko, ergatiboa aditz iragankorrekin eta absolutiboa aditz iragangaitzekin–, gure corpuseko datuak aztertzerakoan, iragankortasuna kontuan izan beharko dugu.

Datiboari dagokionez, erlatibagarritasun-maila beste bienaren antzekoa da, prozesamenduaren ikuspuntutik beste biak baino koska bat beherago dagoela dirudien arren.

Edonola ere, (54a-d) perpausetan ikusten da erlatibatze arazo berezirik ez dela sortzen, ISEk edozein kasu marka gramatikal hartzen duela ere: ergatiboa (54a), subjektuaren funtzioa daukan absolutiboa (54b), objektuaren funtzioa daukan absolutiboa (54c) edota datiboa (54d) izan daiteke.

(54)

a)

Čelovek, [KOTORYJ vyvel tebjā k umiotu],
GIZONA, [ERL. NOM. ERAMAN ZU PREP. ATERPERA],
'[estepako aterpera eraman zintuen] gizon hura.'

(KAP: 113)

b)

I o tex blizkich, [ČTO vmeste vzojdu na èšafot].
ETA PREP. HORIEK HURBILAK, [ERL. NOM. BATERA IGOKO DIRA PREP. URKAMENDIA].
'Eta [urkamendira berarekin batera igoko ziren] lagun hurbilengan.'

(ZPU: 66)

c)

Ponjuxajte, kak slavno paxnet roza, [ČTO vy mne dal].
USAINDU, ZEIN GOZOA LURRINA DARIO ARROSA, [ERL. AKUS. ZUK NIRI EMAN DIDAZU].
'Usaindu zein lurrin gozoa darion [eman didazun] arrosari.'

(AIS: 207)

d)

Ax, vinovat, etogo moego psa... [KOTOROGO ja operiroval]?
A BAI, BARKATU, HORI NIRE TXAKURRA... [ERL. AKUS. NIK EBAKUNTZA EGIN]?
'A bai, barkatu, inondik ere nire txakurraz ari zara... [ebakuntza egin nion] nire txakur horretaz.'

(TXB: 168)

Ohartarazi behar dugu euskarazko adibide hauek eta hemendik aurrerako guztiak corpusetik atera ditugula, eta horregatik ematen ditugu ohiko moduan: lehendabizi errusierazko perpausa eta ondoren euskarazko itzulpena. Halere, argi geratu behar du hemen euskal ordainak aztertzen ari garela, eta puntu honetan berdin zaigula errusierazko jatorrizko perpausak zein baliabide erabiltzen dituen edota nola osatua dagoen.

3.1.1.2. Kasu marka erlatibagaitzak edo aditzaren argumentuei dagozkienak

Erlatibatze-eskalaren bigarren maila batean kasu marka erlatibagaitzak leudeke; alegia, aditzaren argumentuei dagozkien postposizioak (inesiboa, ablatiboa eta adlatiboa eta instrumentala).

Kasu gramatikalak baino nekezago bada ere, testuinguru egokia eskainiz gero modu nahiko errazean erlatibatzen dira. Hemen sartuko lirateke morfologikoki arin samarrak diren

zehir-kasuak: alde batetik instrumentala eta, bizigabeen kasuan, tokia nahiz denbora adierazteko, inesiboa, adlatiboa eta ablatiboa.

Gure corpusean ez dugu topatu ISE instrumentalean (ZEREZ) duen EP bakar bat ere. Inesiboak (NON-NOIZ), ordea, maiz agertzen dira corpusean. Gutxixeago baina nahiko sarritan agertzen dira adlatiboak (NORA) eta ablatiboak (NONDIK-NOIZTIK) ere.

Leku-denborazko kasu marken artean inesiboak dira errazen erlatibatzen direnak, eta beraz, baita gure corpusean sarrien agertzen direnak ere. Euskaraz horrelako EPk dauzkagunean, oso ohikoa da errusierazko jatorrizkoetan ere leku-denborazko aditzondoak izatea: *gde* ‘non’, *kuda* ‘nora’, *otkuda* ‘nondik’ eta *kogda* ‘noiz’ (55).

(55)

V pervoj moej molodosti, s *toj minuty*, [*KOGDA* ja vyšel
 PREP. LEHENENGO NIRE GAZTARO PREP. HORI UNETIK, [ERL. NOIZ NIK ALDE EGIN NUEN
 iz opeki rodných]
 PREP. ITZALETIK GURASOEN]
 ‘Gazte-gaztetatik, [gurasoen itzaletik *alde egin nuen*] *unetik* bertatik,’ (GGH: 65)

Horrek ez du esan nahi *kotoryj* edo *kakoj* bezalako izenordainek, preposizioekin eta leku-denborazko esanahia adierazten dutenean, agertu ezin dutenik (56).

(56)

... sela na kreslo vozle *divana*, [*na KOTOROM* ležal Bazarov].
 ...ESERI ZEN PREP. BESAUUKIA PREP. DIBANA, [PREP. ERL. PREP. ZETZAN BAZAROV].
 ‘...besaulki batean eseri zen, [Bazarov *zetzan*] *dibanaren* alboan.’ (AIS: 271)

Askotan perpaus hauek onargarriago egiteko *tokia* edo *garaia*, bezalako hitzak sartu behar ditugu, baita jatorrizko testuan halakorik ez dagoen kasuetan ere (57).

(57)

Potom soroka bulyxnula vmeste s teležkoju v *jamu*, [*KOTOROJU* načinalsja
 GERO MIKA SARTU BATERA PREP. TELEGA PREP. SAKONGUNE, [ERL. AKUS. HASTEN ZEN
 uzkiy pereulok], ves´ stremivšijsja vniz i zapružennyj grjaz´ju.
 MEHAR KALE], ALDAPATSU ETA BETERIK LOKATZEZ.
 ‘Gero, mika telegarekin batera sartu zen sakongune batean, [lokatzetz beteriko [kale mehar eta oso aldapatsu bat hasten zen]] *TOKIAN* bertan.’ (ARH: 327)

Adlatiboak (58a-b) eta ablatiboak (58c-d) ere gramatikalak dira euskaraz erlatibatzen direnean, baina prozesatzeko inesiboak baino koska bat zailagoak ere bai; inesiboengandik eratorriak izanik, konplexutasun morfologiko handiagoa dutelako.

Dena den, erlatibagaitzak dira, baina ez erlatibaezinak, gure corpusetik ateratako ondorengo adibideek frogatzen duten moduan.

(58)

a)

Gde takaja *krepost'*, [*KUDA* by puli ne zaletali]?

NON (DA) HORRELAKO *GOTORLEKU*, [ERL. NORA BALEK EZ IRISTEN DIRA]?

'Non da [balek *iristerik ez duten*] *gotorleku* hori?' (KAP: 91)

b)

...otvesti eë *kuda-nibud'*, [*KUDA* privodjat podbrošennyx detej]

...ERAMAN BERA (F.) *NORABAIT*, [ERL. NORA ERAMATEN DITUZTE ABANDONATUTAKO UMEAK]

'...eraman [abandonatutako umeak *eraman ohi dituzten*] *leku* horietako batera.' (PIK: 195)

c)

raskačival vetxij zabor *ogoroda*, [mimo *KOTOROGO* šla ona]

ASTINTZEN ZUEN ZAHARKITUA HESIA *SOROKO*, [PREP. ERL. GEN. *ZIHOAN* BERA (F.)]

'[ama albotik *zihoan*] *soroko* hesi zaharkitua astindu eta...' (AMA: 367)

d)

On zagljanul v *ščěložku* dveri, [*iz KOTOROJ* ona bylo vysunula golovu]

BERAK (M.) BEGIRATU PREP. *ZIRRITUA* ATEKO, [PREP. ERL. GEN. BERAK (F.) ZUEN AGERTU BURUA]

'Ate aldera begiratu zuen, [lehentxeago etxeoandreak burua *agertu zuen*] *zirritura* hain zuzen' (ARH: 76)

Adlatibo eta ablatiboen erlatibagarritasun-maila bertsuan leudeke, halaber, (zeren) *zain egon*, (zertarako) *gai izan* eta horrelako zenbait lokuzio, (59)n ikusten denez.

(59)

a)

... na ploščadi pokazalsja *tot*, [*KOTOROGO* my ožidali].

...PREP. PLAZAN AZALDU ZEN *HURA*, [ERL. AKUS. GUK ESPERO GENUEN].

'...eta, halako batean, [*zain geunden*] azaldu zen plazaren muturrean.'

(GGH: 83)

b)

Ona edinstvennaja ženščina v mire, [KOTORUJU ja ne v silax byl by obmanut´].
 BERA (F.) BAKAR EMAKUME PREP. MUNDU, [ERL. AKUS. NI EZ PREP. GAI ENGAINATZEKO].
 ‘Bera da [engainatzeko gai izango ez nintzatekeen] munduko emakume bakarra.’ (GGH: 140)

Garbi dago kasu marka erlatibagaitz hauen prozesamendua absolutiboa, ergatiboa eta datiboa baino “aldrebesagoa” egiten zaigula, izatez erlatibagarriak diren arren.

Halere, badaude euskararen oinarritzko erlatibakuntza-estrategiarentzat are erlatibagaitzagoak diren kasu markak: erlatibaezinak.

3.1.1.3. Erlatibo arruntekin erlatibaezinak diren kasu markak

Hirugarren maila batean, lehen aipatu bezala, aditzaren argumentu hurbil bati ez dagozkion sintagma adberbialak leudeke, gehienetan erlatibaezinak direnak: *soziatiboa* (-EKIN), *instrumentala* (-EZ), *bizidunen leku-denborazkoak* (-ENGAN, -ENGANA, -ENGANDIK), *benefaktiboa* (-ENTZAT) eta *motibatiboa* (-ENGATIK).

Aurreikusi zitekeen bezala, ez dugu kasu marka hauek erlatibatzen dituen erlatibo arrunt bakar bat topatu corpusean, baina bai atzeman ditugu itzultzaileek SHn horrelako kasu markak topatzean aukeratutako bi konponbide mota: eskuinetara hedatzen den erlatiboren bat erabiltzea, edota erlatibozkoa ez den beste baliabide baten bidez itzultzea.

Hala, (60a-c)ko adibideetan euskaraz erlatibo aposatuak erabiltzen dira jatorrizko perpausetan *norengan* (60a), *norengatik* (60b) edo *norekin* (60c) bezala itzul genitzakeen kasu markak erlatibatzen direnean.

(60d)n, aldiz, bigarren bidearen adibide bat daukagu: kasu marka soziatibo (*norekin*) bat euskaratzeko jatorrizko mendeko perpaus elkartua bereizten duen eten bat agertzen da, gero izenordain erresuntibo batek ardatzaren erreferentzia berreskuratzen duelarik.

(60)

a)

Ego pikovogo korolja, [na KOTOROGO on nadejalsja, kak na boga].
 BERE (M.) PIKA- ERREGE-, [PREP. ERL. AKUS. BERAK (M.) USTEA IZAN, BEZALA PREP. JAINKOA].
 ‘bere errege-pika, [zeinarengan Jainkoarengan baino uste hobea baitzuen].’ (ARH: 254)

b)

Devuškax... [iz-za KOTORYX streljalis´ pol’skie magnaty].
 NESKATXEN... [PREP. ERL. GEN. BORROKATZEN ZIREN POLONIAR HANDIKIAK].
 ‘...neskatxen istorioak, [zeinengatik dueluan borrokatzen baitziren handiki poloniarrek].’
 (ZTG: 65)

c)

Pavluška, *paren' djužij*, [s *KOTORYM* imet' delo bylo sovsem nevygodno]
 PAVLUSHKA, *GAZTE SENDOA*, [PREP. ERL. INSTR. INDARRAK NEURTZEA ZEN OSO EZ-ONURAGARRIA]
 'Pavlushka, *gazte sendoa bera*, [*zeinarekin* indarrak neurtzea ez baitzen oso onuragarria izango].' (ARH: 130)

d)

Ja imel *dobruju lošad'*, [s *KOTOROJ* delilsja skudnoj piščej].
 NIK NEUKAN *EDER ZALDI*, [PREP. ERL. INSTR. HAINBANATU URRIA JANARIA].
 '[*Zaldi eder* baten jabe nintzen.][*Berarekin* hainbanatzen nuen janari urria].'
 (KAP: 158)

Aurreko perpausak erlatibo arrunt batekin ematen saiatuz gero, garbi ikusten da prozesamendua kokka batean zailtzen dela. Akaso azkenekoa onargarria izan daiteke, behintzat De Rijkkek identifikatzen duen "dialekto malguago" horretan, eta izenordain erakusle erresuntiboez baliatuz; besteen gramatikaltasuna, ordea, oso zalantzazkoa da.

(60')

- a) *[Jainkoarengan baino *uste* hobea *zuen*] (bere) *errege-pika*.
- b) *[Handiki poloniarrek dueluan *borrokatzen ziren*] *neskatxen* istorioak.
- c) *Pavlushka, [indarrak neurtzea oso onuragarria *izango ez zen*] *gazte sendoa bera*.
- d) [*Berarekin* janari urria *hainbanatzen nuen*] *zaldi eder* baten jabe nintzen.

3.1.2. Testuinguru erlatibagaitzetan erlatibo arrunten erabilera ahalbidetzeko bideak

Euskarak kasu marka bat oinarrizko erlatibakuntza-estrategiarekin erlatibatzeke zailtasunak dauzkan kasuetarako hiru baliabide mota dauzka:

- Erlatibo aposatuak.
- Erlatibozkoak ez diren baliabideak.
- Oinarrizko erlatibakuntza-estrategia mantentzea.

Oinarrizko erlatibakuntza-estrategia ordezkatzeko erlatibo aposatuak edo baliabide ez-erlatibo bat erabiltzea ikusi dugu aurreko puntuan, baina desegokia den testuinguru batean erlatibo arrunt bat osatu nahi badugu, nola egin dezakegu? Bada, horretarako euskaraz ezagutzen ditugun baliabide jakin batzuk erabiliz.

Euskal hiztunen arteko joera nagusia oinarrizko erlatibakuntza-estrategiaz baliatzea da, kontestu normaletan eta prozesatzeko zailtasunak gainditzeko modukoak direnean.

Hiztun batek –kontziente edo inkontzienteki– joera horri eutsi nahi badio, euskarak baliabide batzuk eskaintzen dizkio, hala nola: azpikategorizazioa, kasu paralelismoa, izenordain erresuntiboak, sintagma erlatibatuak aditz komunztadura izanaraztea eta leku-denborazko izen ardatza duten EPei –ko atzizkia eranstea (EGLU-V 1999:189-196).

Gure corpusean, idatzizkoa eta literatura-testuek osatua izanik, kosta ahala kosta erlatibo arruntak osatzeko grina ez da ahozko testuetan bezain handia, baina itzultzaileen artean –hiztunen artean bezalaxe– erlatibo arruntekiko atxikimendu-maila desberdinak daude. Itzultzaileen arteko atxikimendu-maila desberdinak aztertzea izango da, hain zuzen, gure ikerketaren funtsezko helburuetako bat.

3.1.2.1. Azpikategorizazioa eta ezohiko erlatibakuntza-kasuak

Aditz bakoitzak bere errektzioa daukala gauza jakina da. Nahiz eta deklinatzen diren hizkuntzetan ikusten den hori garbien, deklinabide formalik ez daukateneke ere izan ditzakete marka morfologikoak. Adibidez, gaztelaniaz, preposizioen bidez gauzatzen da errektzioa, “hablar de”, “contar con” eta gisako esamoldeetan. Beraz, mendeko EPko aditzak erlatibatutako kasu marka azpikategorizatuta daukanean, hau da, kasu marka hori aditzaren nolabaiteko argumentu gisa agertzen denean, erraztu egiten da erlatibatzea. EGLUK (61a-b) adibideak ematen ditu fenomeno honetarako (EGLU-V 1999:187). (61a)n *solas egin* aditzak badu bere baitan *norekin* kasu markari dagokion esanahi bat, eta beraz, aditzak esanahi hori azpikategorizatuta izateak erlatibagarritasuna erraztuko luke. Berdin-berdin *konfiantza izan* aditzarekin, oraingoan *norengan* kasu markarekin (61b).

(61)

a)

Goiz honetan hain luzaz [*solas egin* duzun] lagunak kontaktuko zizun hori

SOLAS EGIN: [+ BIZIDUNA] EZAUGARRIDUN OSAGARRIA, SOZIATIBOA BEHAR DUENA.

b)

[Konfiantza duzun] norbaiti galdetu behar zenioke

KONFIANTZA IZAN: [+ BIZIDUNA] EZAUGARRIDUN OSAGARRIA, INESIBOA BEHAR DUENA.

Adibidez, (62)ko testuinguruan –printzipioz erlatibagaitza– erlatibo arrunta osatzea ahalbidetu duena azpikategorizazioa –edo beharbada azpikategorizazioaren urratzea– izan daiteke, ardatzaren eta mendeko EPren arteko komunztaduraren urratzea, alegia.

(62)

My stoim protiv *obščestva*, [*interesy KOTOROGO vam prikazano zaščičat'*]
 GU GAUDE PREP. GIZARTE, [INTERESAK ERL. GEN. ZUEI AGINDU DEFENDATZEA]
 [DITUEN INTERESAK DEFENDATZEKO AGINDU DIZUETEN] GIZARTE HORREN KONTRA GAUDE,
 (AMA: 387)

Edonola ere, gure ikerketarako interesgarria den zerbait irudikatzen du adibide honek: STko *kotoryj* izenordain erlatiboa euskararentzat bereziki erlatibagaitza den kasu marka genitiboan egonik, euskal ordaina erlatibo arrunt batekin eman nahi izanak behartu duela itzultzailea ezohiko erlatibo bat osatzera.

Aditzez gain, izen sintagma batek ere izan dezake kasu marka bat azpikategorizatua. Oihartzabalek (63a) jartzen du honen adibide moduan (Oihartzabal 1987:75). Gure corpuseko (63b) ere agian maila berean jar genezake, azpikategorizazio semantikoaren mailan: *lekuko* izenak *zeren* osagarria eta *izan* aditza dauzka azpikategorizatuta (*zeren lekuko izan*).

(63)

a)

[Neure burua *hil nahi nuen*] *arrazoiaz* ez naiz gogoratzen (Oihartzabal B. 1987: 75).

b)

Prežde neželi pristuplju k opisaniju strannyx *proisšestvij*, [*KOIM* ja
 AURRETIK EKIN PREP. KONTATU HARRIGARRIAK *GERTAERAK*, [*ERL. DAT. NI*
byl svidetel']

IZAN NINTZEN LEKUKO]

'[Lekuko *izan nintzen*] *gertaera* harrigarriak kontatzeari ekin aurretik...'

(KAP: 81)

3.1.2.2. Kasu paralelismoa

Erlatibagarritasuna errazteko bigarren bide hau sarritan erabili ohi dugu hiztunok. Perpaus nagusiak eta mendeko EPk kasu berbera dutenean sortzen da, hartara erlatibagarritasuna erraztuz (64).

(64)

Zergatik hautsi behar duk [behin *oheratzen haizen*] *neska guztiekin*?

(De Rijk 2008:477)

Gure corpusean ez da horrelako adibiderik ageri, euskarara itzulitako literatura-testuz osaturik dagoelako ziurrenik.

3.1.2.3. Izenordain erresuntiboen erabilpena

Euskarazko erlatibakuntza-estrategiak dakartzan anbiguotasuna eta prozesatzeko zailtasuna ekiditeko beste modu bat ISEk egon beharko lukeen tokian izenordain erresuntibo bat erabiltzea da, ISEren kasuarekin markatua.

Lehenago (60)ko perpausetan *ZEIN* erlatiboak erlatibo arrunt bihurtzeko zeuden zailtasunak nabarmentzen genituen.

(60')

*[Handiki poloniarrek dueluan *borrokatzen ziren*] *neskatxen* istorioak

*[Jainkoarengan baino *uste* hobea *zuen*] (bere) *errege-pika*

*Pavluška, [indarrak neurtzea oso onuragarria *izango ez zen*] *gazte* sendoa bera

Halere, perpaus horiek erlatibo arrunt bihurtzea asko errazten du ISEren lekuan izenordain erresuntibo bat jartzeak (65):

(65)

*?[Handiki poloniarrek *beraiengatik* dueluan *borrokatzen ziren*] *neskatxen* istorioak

*?[*Harengan* jainkoarengan baino *uste* hobea *zuen*] *errege-pika*

*?Pavluška, [*berarekin* indarrak neurtzea oso onuragarria *izango ez zen*] *gazte* sendoa bera

Beharbada lehendabizikoa eta hirugarrena izango dira onargarrienak eta ez hainbeste bigarrena, nahiz eta zenbait hiztunek guztien onargarritasuna zalantzan jarriko duten. Edonola ere, garbi dago izenordain erresuntiboek erlatibagarritasun-maila koska bat igotzea eragiten dutela, erlatibo arruntak osatzea ahalbidetzeaz gain.

Hala eta guztiz ere, beste behin azpimarratu behar da gurea bezalako literatura-testuen corpus batean ohikoena ez dela itzultzaileak horrelako kasuetan derrigorrez erlatibo arrunta mantentzea, baizik eta erlatibo aposatuak edota baliabide ez-erlatiboak erabiltzea.

EGLUren arabera, erdarazko testuak itzuli behar direnean erabiltzen omen dira bereziki erresuntiboak, eta ez euskararen berezko joera bati erantzuteko (EGLU 1999:190). Pentsatzekoa da testu mota asko izango zituztela kontuan ondorio horretara iristeko, eta hori gure corpusetik askoz haratago doan auzi bat da.

Esan behar da, hiztun bezala, izenordain erresuntiboak, oro har, onargarri egiten zaizkigula, baina egia da corpusean, egotekotan, adibide bakar bat topatu dugula (66).

(66)

... esli net malen'kogo i vernogo čeloveka, [v KOTOROM istina stala by
...BA(DAGO) EZ TXIKI ETA LEIAL PERTSONA, [PREP. ERL. PREP. EGIA BIHURTU
radost'ju i dviženiem]?

ALAITASUN ETA MUGIMENDU]?

'Leial eta txiki izango zitzaion eta egia hori BERARENGAN alaitasun eta mugimendu bihurtuko zuen pertsonarik ez bazeukan?' (LUB: 192)

Egia esan, (66)ko adibidea ere zalantzazkoa da, aldaketa asko ematen baitira errusierazko perpausaren eta bere euskal ordainaren artean: batetik, errusieraz perpaus bakarra daukagun lekuan euskaraz ardatz bakarrak (*pertsonarik*) mendeko bi EP dauzka (*leial eta txiki izango zitzaion eta egia hori BERARENGAN alaitasun eta mugimendu bihurtuko zuen*). Mendeko bigarren EP horretan agertzen da, hain zuzen, corpuseko erresuntibo bakarra.

EGLUren arabera badirudi literaturak ihes egin diola erresuntiboaren erabilerrari (EGLU-V 1999:191), Etxaidek eta Altubek ontzat hartu zuten arren, ISE adberbiala zen kasuetarako behintzat (Etxaide 1912; Altube 1929).

Gure corpusak –bere baitan literatura-testuak soilik izanik– garbiki erakusten du erresuntiboen erabilera ekiditeko joera.

BAIT- aurrizkiarekin osatutako erlatiboekin bai erabiltzen dira erresuntiboak, baina hori erlatibo aposatu mota hori aztertzerakoan aipatuko dugu (ik. kapitulu honetako 3.5. puntua).

3.1.2.4. ISEri aditz komunztadura izanaraztea

Estrategia hau bai topa daiteke gure corpusean, sarritan gainera. Hain sarri, ezen oso zaila baita kuantifikatzea. Oso ohiko baliabidea da bai eguneroko euskaran eta baita itzulpenetan ere.

Erlatibatze-eskalan behe samarrean dauden kasu markak ekidin eta gorago daudenekin ordezkatzean datza. Komunztadura hau numeroaren arabera izan daiteke, baina aditzaren aukeraketa ere baldintza dezake. Bereziki azken fenomeno honen adibide ugari dago gure corpusean.

Errusieraz kasu marka erlatibagaitz bat dagoenean –leku-denborazko aditzondoak edota prepositiboa eta instrumentala bezalako zehar-kasu markak adibidez– euskal ordainetan nabarmena da itzultzaileari gehien komeni zaion kasu marka bilatzeko joera; hartara aditzari komunztadura izanaraziz eta erlatibo arrunten osaketa ahalbidetuz.

Oso ohikoaenez, eta gure corpusean hamarnaka adibide daudenez, bakar batzuk bakarrik ekarriko ditugu hona. Adibidez, (67a)n errusieraz ISE leku-aditzondoak den bitartean, euskal ordainean objektu zuzena da ([*ibili nuen*] bidea). (67b) eta (67c)ko prepositiboak, eta (67d)ko instrumentala ere euskal ordainetan objektu zuzen bihurtzen dira: [*hartzen dituenak*], [*esan berri dudan*] harrotasun, [*sartzen diguzuen*] pozoina.

(67e)n errusieraz instrumentala dena datiboko kasu marka bihurtzen da euskaraz ([*egiten dion*] opari nagusia).

(67)

a)

I pošli po toj že doroge, [GDE nakanune ja sledoval za slepym].
ETA JOAN GINEN PREP. HURA-XE BIDEA, [ERL. NON BEZPERAN NI IBILI NINTZEN PREP. ITSUA].
'Eta [bezperan itsuaren atzetik *ibili nuen*] bidea hartu genuen.'

(GGH: 103)

b)

... te, [v KAKIX ljudi živut liš' iz-za nepogody].
...HAIEK, [PREP. ERL. PREP. JENDEA BIZI DA SOILIK PREP. EGURALDI TXARRA]
'[jendeak bizilekutzat eguraldi txarrarengandik babesteagatik soilik *hartzen dituen*]ak.'

(LUB: 45)

c)

... no soznajtes', što i v vas est' častica togo tščeslavija,
...BAINA ONAR EZAZU, JUNT. (-ELA) ERE PREP. ZU(K) BADUZU PUSKA HORI HARROTASUN,
[o KOTOROM ja sejčas govoril].
[PREP. ERL. PREP. NIK ORAIN ESAN DUT].

'...baina onar ezazu baduzula [esan berri dudan] *harrotasun* horren puska txikitxo bat.'

(AIS: 234)

d)

Jady, [KOTORYMI vy otravljaete nas]...
POZOINA (PL.), [ERL. INSTR. ZUEK SARTZEN DUZUE GURI]...
'[Sartzen diguzuen] *pozoina*...'

(AMA: 387)

e)

To est' *glavnoe*, [*ČEM₁* odarivaet režim svoju nomenklaturu].

HAU DA *NAGUSIENA*, [*ERL. INSTR.* OPARITU ERREGIMENAK BERE NOMENKLATURA].

'Hau da, [erregimenak bere nomenklaturari *egiten dion*] *opari nagusia*.' (KONP:193)

3.1.2.5. Leku-denborazko izen ardatza duten erlatiboazko perpausei *-ko* atzizkia eranstea

Leku edo denborazko izen ardatza duten erlatibo arruntetan sor litezkeen anbiguotasunak ezabatzeko *-ko* atzizkia eranstea aukera dauka euskarak. Eguneroko hizkeran idatzizkoan baino erabiliagoa izango da ziurrenik, baina gure corpusean ere agertzen dira batzuk.

Aurreko puntuan aipatu dugun komunztadura aldaketak ez bezala *-etengabe* gertatzen baita-, *-ko* atzizkia hartzen duten erlatibo arruntak hamar besterik ez dira corpus guztian, eta horregatik, denak azalduko ditugu hemen. Lekuzko bat (68a) eta denborazko bederatzi (68b-j) topatu ditugu; (68j)k ez beste guztiek errusieraz ere leku-denborazko erreferentzia dute.

(68)

a)

tu *derevjannuju lesenku*, [*na KOTOROJ* nekogda ego pocelovala xozjaizkaja doč'],
HURA EGURREZKO *ESKAILERA*, [*PREP. ERL. PREP.* NOIZBAIT BERA MUSUKATU UGAZABAREN ALABAK],
'...[ugazabaren alabak *musu eman zion*]-eko egurrezko *eskailera* hura.'

(LUB: 80)

b)

Est' *minuty*, [*KOGDA* ja *ponimaju* Vampira]
BADIRA *UNEAK*, [*ERL. NOIZ* NIK ULERTZEN DITUT BANPIROAK]
'Badira *une* batzuk [banpiroak *ulertzen ditudaneak*]

(GGH: 184)

c)

daleko *eščë to vremja*, [*KOGDA* inym ključom
URRUN (DAGO) ORAINDIK *HORI EGUNA*, [*ERL. NOIZ* BESTE ALDETIK
groznaja v`juga vdoxnoven`ja podymecja].
ERRUKIGABEA ERAUNTSIA INSPIRAZIOAREN JOKO DU].

'urrun dago oraindik [inspirazioaren errukigabeak beste alde batetik *joko duen*]-eko *eguna*.'

(ARH: 63)

d)

... i *tu noč'*, [KOGDA subbota, junaja subbota kralas' vdol' zakata]?
 ...ETA HURA GAU, [ERL. NOIZ LARUNBATA, GAZTEA LARUNBATA IRAGAZI ZEN PREP. ILUNSENTIAN]?
 '...eta gau hura, [larunbat hura, larunbat gazte hura ilunsentian zehar iragazi zen]-ekoa...?'
 (ZTG: 181)

e)

I rjadom – čislo *togo dnja*, [KOGDA ona podnjala znamenityj stakan].
 ETAALBOAN – (DATA) HURA EGUNA, [ERL. NOIZ BERAK (F.) JASO ZUEN ZORIONEKO EDALONTZIA].
 'Eta alboan, [zorioneko edalontzi hura jaso zion]-eko eguna.'
 (GGH: 136)

f)

Moment, [KOGDA on nakleival marku i opuskal pis'mo v jaščik]...
 UNEA, [ERL. NOIZ BERAK (M.) ITSATSI ZIGILUA ETA UTZI (GUTUNA) PREP. POSTONTZIAN]...
 '[Zigilua itsatsi eta gutuna postontzian erortzen uzten zuen]-eko uneak beti...'
 (LUB: 94)

g)

Vspomnilos' *to utro*, [KOGDA bezporjadočnaja strel'ba razbudila ego...].
 OROITU ZUEN HURA GOIZA, [ERL. NOIZ NAHASGARRIA TIROKETA IRATZARRI ZUEN BERA (M.)...]
 'Oroituen [goizik gertatutako tiroketa nahasgarriak iratzarri zuen]-eko goiza.'
 (PIK: 46)

h)

... Vernula Viktora v *to vremja*, [KOGDA žili oni vdvoëm s Mišej].
 ... ATZERA ERAMAN VIKTOR PREP. HURA GARAIA, [ERL. NOIZ BIZI ZIREN HAIEK BIAK PREP. MIŠA].
 '...denboran atzera eraman zuen [Viktor, Misha eta biok ... bizi ziren]-eko garaira.'
 (PIK: 150)

i)

srazu napomnil o *tom dne*, [KOGDA vyzvannaja Viktorom skoraja
 (SEGITUAN) GOGORATU PREP. HURA EGUNA, [ERL. NOIZ ESKATUTAKO VIKTORREK ANBULANTZIAK
 uvezla otsjuda Pidpalogo].
 ERAMAN ZUEN (HANDIK) PIDPALI].
 'ekarri zion gogora [berak eskatutako ambulanzia-autoak Pidpali eraman zuen]-eko eguna.'
 (PIK: 186)

j)

Ja teper' uže ne *tot zanoščivj mal'čik*, [KAKIM ja sjuda priexal].
 NI DAGOENEKO EZ (NAIZ) HURA HARROPUTZ UME, [ERL. INSTR. NI HONA IRITSI NINTZEN].
 'Dagoeneko ez naiz [hona iritsi nintzen]-eko ume harroputz hori.'
 (AIS: 245)

3.1.3. Erlatibo arrunten balio semantikoa

Erlatiboen arteko bereizketak egiteko bada irizpide semantiko bat oso ikertua izan dena, eta errusierazko erlatiboak aztertu ditugunean aipatu duguna: erlatiboen balio semantikoa.

EP batek errusieraz balio murrizgarria edo ez-murrizgarria izateak eragin handia izan dezake perpaus hori euskaratzeko moduan.

EP batek balio murrizgarria duela esaten da izen ardatzaren erreferentzia murrizten badu, objektu multzo batetik haietako bat edo batzuk bereiziz (erreferentzia murriztuz).

Beste batzuetan ez du bereizketa hori egiten, eta beraz, EP hori ez-murriztailea izango da (azken hauei esplikatio ere esaten zaie).

Erlatibo arruntek, oro har, balio semantiko murrizgarria izan ohi dute, (69)ko adibideek erakusten duten moduan. (69a)n erlatiboak balio murrizgarria dauka, *pertsona* horiek ezin direlako edozein pertsona izan, munduko pertsona posible guztietatik bereizten den talde murriz bat baizik, Pavelek haren bizitzan sartuak zituenak eta ez beste batzuk. (69b)n ere berdin, *papertxo* jakin batzuei buruz ari garelako, bere bizitzaren luzagarri direnak alegia.

(69)

a)

...odnoj bol'šoj dumoj o *ljudjax*, [KOTORYX vvěl Pavel v eë žizn'].
 ...BAKAR ZABAL GOGOETA PREP. *PERTSONAK*, [ERL. AKUS. SARTU PAVELEK PREP. BERE (F.) BIZITZA].

'Hitzik gabeko otoitza zen, [Pavelek haren bizitzan *sartuak zituen*] *pertsoneri* buruzko gogoeta zabal eta bakarrez osatua.'

(AMA: 97)

b)

U nego xranilis' kakie-to *bumažki*, [KOTORYMI on prodleval sebe
 PREP. BERA (M.) GORDETA BATZUK *PAPERTXO*, [ERL. INSTR. BERA (M.) LUZATZEN ZUEN ERREFL.
 bezopasnost' i žizn']

SEGURTASUNA ETA BIZITZA]

'[bere bizitza *luzatzen zuten*] *papertxo* batzuk zeuzkan gordeta,'

(PIK: 69)

Haatik, zenbait izen ardatzekin oso zaila da erreferentzia murrizgarri hori lortzea; hala nola, izenordain pertsonalekin (70a) eta izen bereziekin. Azken hauekin, oso ohikoa da erreferentzia mugatzen laguntzen duen erakusle bat sartzea (70b).

(70)

a)

Ты, [KOTOROGO ja ščital vseгда samym nepreklonnym protivnikom
HIK, [ERL. AKUS. NIK -TZAT EDUKI BETI (GEHIEN) AMORRATU ETSAI
podobnyx brakov]!

HORRELAKO EZKONTZEN]

‘Hik, [beti horrelako ezkontzen etsai amorratuzat *eduki haudan*] *horrek!*’

(AIS: 228)

b)

Syna *togo Koliazina*, [pod popečitel’stvom KOTOROGO naxodilis’
SEMEA HAREN KOLIAZIN, [PREP. ARDURA ERL. GEN. IZAN ZIREN
nekogda brat’ja Kirsanovy].

NOIZBAIT ANAIK KIRSANOVTARRAK].

‘[Kirsanov anaiak bere ardurapean *izan zituen*] *Koliazin* haren semea.’

(AIS: 90)

Morfologikoki markatu gabeko kontzeptu semantikoa den neurrian, interpretazioen menpe egongo da beti, eta ondorioz, zaila izango da datuen bidez objektibatzea. Izan ere, perpaus batzuk garbi-garbi murrizgarriak edo ez-murrizgarriak izan daitezkeen arren, ez dira gutxi bi interpretazioak onartzen dituzten adibideak.

Halere, eta balio semantikoaren datu zehatzak ateratzen saiatuko ez garen arren (objektibatzeko aipatutako zailtasunak direla medio), esan behar da corpusarekin lan egiterakoan atzematen dela nolabaiteko korrelazio bat errusierazko EPren balio semantikoaren eta euskarazko oinarrizko erlatibakuntza-estrategiaren erabilpen-maiztasunaren artean.

Euskal ordaina oinarrizko erlatibakuntza-estrategiaren bidez osatu nahi izanez gero, lagungarria da jatorrizko errusierazko EPk balio murrizgarria izatea, baina hori hala izanda ere, beste faktore askok aurkakoa gertatzea eragin dezakete.

(71a) eta (71b) hartzen baditugu –biak itzultzaile berberarenak– ikusiko dugu bietan erlatibatzailea eta aurrekaria berdinak direla: *kto* ‘nor’ galdetzailea eta *tot* ‘hura’ mugatzailea, hurrenez hurren. *Tot* mugatzaileak, berez, erreferentzia murrizten laguntzen du, eta *kto* erlatibatzailea, gure corpuseko datuak aurkeztean ikusiko dugunez, gainontzeko erlatibatzaileak baino maizago euskaratzen da erlatibo arrunt batekin. Hori dena kontuan izanda, espero izatekoa litzateke euskal ordainak ere balio murrizgarria izatea, baina (71b)n ez da hala: (71a)ko euskal ordaina bai ematen da erlatibo arrunt batekin (normalean

eta hemen murrizgarria), baina (71b)n, aldiz, *ZEIN* erlatibo bat daukagu (normalean eta hemen ez-murrizgarria).

(71)

a)

Naprotiv, *tot* skoree dostoin sožalenija, [*s KEM* èta štuka slučaetsja].
ALDERANTZIZ, *HORI* ZIURRENIK MEREZI ERRUKIA, [PREP. ERL. INSTR. HORI ZER GERTATZEN DA].
'Alderantziz, [zer hori *gertatzen zaion*]a da errukarria.'

(AIS: 140)

b)

Zagovoril *tot* iz nix, [*u KOGO* na golove vozvyšalas' na četvert' aršina
EKIN ZION *HARK* PREP. HAIETAKO, [PREP. ERL. GEN. PREP. BURUA NABARMENDU PREP. LAURDEN ARŠIN
kopna gusteišix v'juščixsja černyx volos].
ADATS UGARI KIZKUR BELTZ ILE].
'ekin zion haietako *batek*, [*zeinari* gutxienez lau arshin garai zen adats guztiz ugari eta kizkur
bat *nabarmetzen baitzitzaion* buruan].'

(TXB: 45)

(71a)n aditzaren argumentua aldatuz "lortzen" du itzultzaileak oinarrizko erlatibakuntza-estrategia erabiltzea, errusieraz instrumentala dena datibo bihurtuz ('norekin gertatzen da'-ren ordez 'nori gertatzen zaio' jarriz) eta, aldi berean, aurrekariaren elipsia eginez.

(71b)n, berriz, itzultzaileak *ZEIN* erlatiboa erabiltzeko "beharra" sentitzen duela esan genezake; alegia, errusierazko perpausaren kalko bat egiten du *ZEIN* galdetzailea erabiliz.

Kontuan izanda errusierazko bi perpausetan erlatibatzaileak euskarazko erlatibo arruntekin prozesatzeko zaila den kasu marka bat daramala ((71a)n preposiziodun instrumentala eta (71b)n preposiziodun genitiboa), arrazoa, itxura guztien arabera, bigarren perpausaren konplexutasunean bilatu behar dugu. (71b)n erlatibo arrunt bat osatzea posible bada ere, osaturiko perpausa prozesatzeko zail samarra litzateke: '...ekin zion [buruan gutxienez lau arshin garai zen adats guztiz ugari eta kizkur bat *nabarmetzen zitzaion*] haietako batek'.

Egia esan, gure corpusean konbinazio guztiak topa ditzakegu: errusieraz murrizgarriak izanik euskal ordain murrizgarriak nahiz ez-murrizgarriak dituztenak, eta baita errusieraz ez murrizgarriak izanik, denetariko euskal ordainak dituztenak ere, (72)n ikus daitekeenez.

(72)

a)

No mne zaxotelos' vzgljanut' eščë raz na to, [s ČEM ja rasstalsja],
 BAINA NIK NAHI IZAN BEGIRATU BERRIRO PREP. HORI, [PREP. ERL. INSTR. NIK ATZEAN UTZI],
 na tu grjadu, [GDE ja sidel].
 PREP. HORI BARATZE [ERL. NON NI ESERITA NENGOEN].

'Baina gogoia nian berriro begiratzeko [atzean utziko dudan] horri, [sustraiturik egon naizen] baratzeari.' (AIS: 238)

b)

A ja vsë-taki skažu, čto čelovek, [KOTORYJ vsju svoju žizn'
 (ETA) NIK KONTUAK KONTU ESANGO DUT, JUNT.(-ELA) GIZONEZKOA, [ERL. NOM. OSOA BERE BIZITZA
 postavil na kartu ženskoj ljubvi i kogda emu étu kartu ubili, raskis
 JOKATU PREP. KARTA EMAKUME- MAITASUN ETA JUNT. (NOIZ) BERAK HORI KARTA GALDU ZABARTU
 i opustilsja do togo, čto ni na čto ne stal sposoben]...
 ETA ABAILDU DA PREP. HORI, JUNT. (-ELA) EZERTARAKO EZ IZAN GAI]...

'Kontuak kontu, nire ustez, [bere bizitza osoa emakumezkoen maitasunaren kartara jokatu eta, karta hori galtzen duenean, zabartu eta ezertarako gai ez izateraino abailtzen den] gizonezkoa...'. (AIS: 56)

c)

... sam Xristos, [KOTOROGO ona vsegda ljubila smutnoj ljubov'ju].
 ...BERA (M.) KRISTO, [ERL. AKUS. BERAK BETI MAITE IZAN KORAPILOTSU SENTIMENDU]
 '...[sentimendu korapilatsu batez maite izan zuen] Kristo hori' (AMA: 266)

d)

Tot, [KTO eščë ne tak davno xodil, dvigalsja, igral v vist
 HURA, [ERL. NOM ORAINDIK EZ HAIN ASPALDI IBILI, MUGITU, JOKATU PREP. WHISTEAN
 podpisывal raznye bumagi]...
 SINATU ASKOTARIKO PAPERAK]...

'arestian gizon hura (Ø) kalean ibiltzen zen, mugitzen zen, whistean jokatzen zuen, askotariko paperak sinatzen zituen...'. (ARH: 304)

e)

Smejucja ot duši TE, [KOTORYE, vpročem, neskol'ko ploxo
 BARRE EGITEN DUTE PREP. GOGOTIK HAIK, [ERL. NOM. NAHIZ ETA APUR BAT GAIZKI
 uslyxali proisnesënnye im slova].
 ENTZUN DITUZTE ESANDAKO HARK (M.) HITZAK].

'...gogotik barre egiten dute urruntxeago daudenek, [nahiz eta ez dituzten oso ondo entzun haren hitzak;]'
 (ARH: 238)

f)

Dostatočno bylo *tomu*, [KOTORYJ popal na zamečanie so storony ostroumija],
 ASKI ZUEN HORREK (M.) [ERL. NOM. NABARMENDU PREP. ALDERDI BURU-JANTZI],
 dostatočno bylo emu tol'ko pošvelit'sja...

ASKI ZUEN BERA (M.) SOILIK ZIRKIN BAT EGIN...

'[Baten bat *nabarmetzen bazen*] gainerakoak baino buru-jantziagoa izateagatik, aski zuen zirkinik txikiena egitea...' (ARH: 329)

(72a-c)n euskal ordainak erlatibo arruntak dira, nahiz eta errusierazko jatorrizko perpausetan denetik daukagun. Beste hainbeste (72d-f)ko adibideetan, non euskal ordainak bestelako baliabideekin ematen diren, batzuetan erlatibakuntza-estrategia desberdinak erabiliz, besteetan erlatibakuntza ezabatu eta beste egitura mota batzuek baliatuz: (72d)n menderakuntzaz osaturiko perpaus elkartua adierazpen-perpaus bakun bihurtzen da. (72e)n eta (72f)n erlatiboa beste menderakuntza mota batekin ordezkatzeko da, lehendabizikoan kontzesiboa eta bigarreanean baldintzazkoa.

Ikusitakoa laburbilduz, esan dezakegu SHko perpausak balio murrizgarria edo ez-murrizgarria izateak baduela eragina XHko ordainengan, baina beste faktore askorekin batera aztertu behar denez, zaila da harreman zuzen bat ezartzea SHko perpausen balio semantikoaren eta hauek XHn dauzkaten ordainen balio semantikoaren artean.

3.1.4. Izen ardatzaren izaera erlatibo arruntetan

Aipatu dugu EPren balio semantikoak harreman zuzena duela izen ardatzaren izaerarekin. Euskaraz izen ardatzaren funtzioa har dezaketen hitzak izen arruntak, izen bereziak eta izenordain zehaztugabeak dira.

3.1.4.1. Izen arruntak

Izen ardatz ohikoenak dira (73). Alboan erakusle bat edukitzeak erreferentzia murrizten laguntzen dion arren, *estilo* izenak berak ere erreferentzia aski mugatua dauka.

(73)

V *tom stile*, [KOTORYJ izvesten u nas pod imenem Aleksandrovskogo];
 PREP. HORI ESTILO [ERL. NOM. (DA) EZAGUN PREP. GUREAN PREP. IZENA ALEKSANDROVSKI];
 '[Gure herrian Alexandrotarra deritzoten] *estilo horretan* alegia;'

(AIS: 116)

3.1.4.2. Izen bereziak

Izen bereziak euskaraz ez dira inguruko hizkuntzetan bezain erlatibagarriak, oinarrizko erlatibakuntza-estrategiaz baliatu nahi badugu behintzat.

Izen bereziak erlatibo aposatuez baliatuz bai erlatiba daitezke, baina horrelakoak ere ez dira hain ugariak euskaraz. Corpus guztian (74)ko lau adibideak soilik topatu ditugu: (74a) eta (74b)ko *Izotzetako Aitona* –Errusian opariak ekartzen dituen pertsonaia, Olentzero edo Aita Noel bat, itzultzaileak hitzez hitz itzulia– eta *Kristo* izen bereziak ote diren zalantzagarria izan badaiteke ere, (74c) eta (74d) izen propioak dira argi eta garbi. Halere, adibide hauek arretaz aztertuz gero, ikusiko dugu erakusle batez laguntzen dela itzultzailea izen berezi horiek erlatibatzeke.

(74)

a)

Zagadku nočnogo *Deda Moroza*, [KOTORYJ prinës vestočku i podarki ot Miši...] IGARKIZUN GAUTARRA AITONA IZOTZETAKO, [ERL. NOM. EKARRI MEZUA ETA OPARIK PREP. MIŠA...] ‘[Mixa ez-pinguinoaren mezua eta opariak *ekarriak zituen*] *Izotzetako Aitona* gautarraren igarkizuna.’

(PIK: 96)

b)

... sam *Xristos*, [KOTOROGO ona vsegda ljubila smutnoj ljubov’ju]. ...BERA (M.) KRISTO, [ERL. AKUS. BERAK BETI MAITE IZAN KORAPILOTSU SENTIMENDU] ‘...[sentimendu korapilatsu batez *maite izan zuen*] *Kristo* hori’ (AMA: 266)

c)

Syna *togo Koliagina*, [pod popečitel’stvom KOTOROGO naxodilis’ SEMEA HAREN KOLIAZIN, [PREP. ARDURA ERL. GEN. IZAN ZIREN nekogda brat’ja Kirsanovy]. NOIZBAIT ANAIK KIRSANOVTARRAK].

‘[Kirsanov anaiak bere ardurapean *izan zituen*] *Koliagin* haren semea.’ (AIS: 90)

d)

A *kto* (Ø) èta *Maša*, [pered KOTOROJ iz’jasnjaešsja v nežnoj strasti ETA NOR (DA) HORI MAŠA, [PREP. ERL. INSTR. AITORTZEN DUZU PREP. SUTSUA MAITASUNA i v ljubovnoj napasti]? ETA PREP. BIHOTZEKO OINAZEA]?

‘Eta nor da [zeure maitasun sutsua eta bihotzeko oinazeak *aitortzen dizkiozun*] *Masha* hori?’ (KAP: 60)

Erlatibo aposatuekin nahiko erraz euskaratzen dira izen bereziak; horren adibideak topatu ditugu corpusean (75a-d).

(75)

a)

A *Arkadij*, [KOTORYJ načal bylo slušat' ego ne bez nekotorigo izumlenija, ETA ARKADIJ, [ERL. NOM. HASIA ZEN ENTZUTEN BERA (M.) EZ PREP. NOLABAITEKO HARRIDURA, no i ne bez sočustvija]...

BAINA ERE EZ PREP. GUPIDAZ]...

'eta *Arkadij*, [nolabaiteko harriduraz baina, aldi berean, nolabaiteko gupidaz aitari *entzuten jarria baitzen*]...' (AIS: 31)

b)

Viktor vniatel'no slušal *Pidpalogo*, [KOTORYJ vsë bol'së i bol'së rasxodilsja]...

VIKTOR ADI-ADI ENTZUTEN PIDPALI, [ERL. NOM. GERO ETA SUTSUAGO MINTZATZEN ZEN]...

'Viktorrek adi-adi entzuten zion *Pidpaliri*, [gero eta situago *mintzaten baitzen*]...' (PIK: 82)

c)

A ja pošel k *Švabrinu*, [s KOTORYM i provël celyj večer].

ETA NI JOAN PREP. ŠVABRIN, [PREP. ERL. INSTR. EMAN NUEN OSOA ARRATSALDEA].

'...nik *Shvabrinen* etxera jo nuen [eta *berarekin* eman nuen arratsaren gainerakoa].' (KAP: 55)

d)

Pokazalsja kakoj-to *Sysoj Pafnut'evič* i *Makdonald Karlovič*,

AGERTU ZEN -REN BAT SYSOJ PAFNUT'EVİÇ ETA MAKDONALD KARLOVIČ,

[o KOTORYX i ne slyšno bylo nikogda];

[PREP. ERL. PREP. EZ ADITU ZUEN INOIZ];

'Bat-batean agertu ziren Sisoj Pafnutievitx bat eta MacDonald Karlovitx bat, [zeinen *berririk inork ez baitzuen inoiz aditu*];'

(ARH: 280)

3.1.4.3. Izenordain mugagabeak

Izenordain mugagabeak –*nor bait* edo *zer bait* (76) bezalakoak– bai izan daitezke ardatz, azken batean izen baten ordezeko besterik ez baitira.

(76)

... čto za nimi est' čto-to, [ČEGO my ne imeem],

...JUNT. (-ELA) PREP. HAI EK DAGO ZERBAIT, [ERL. GEN. GUK EZ DAUKAGU],

'...haien atzean badela [guk ez *daukagun*] *zer bait*' (AIS: 86-87)

3.1.4.4. Izenordain pertsonalak

Errusieraz izenordain pertsonalak erlatibagarriak dira, maizegi gertatzen ez den arren. Euskarazko oinarrizko estrategiarekin, ordea, nekez erlatibatzen dira. Gure corpusean errusierazko sei adibide topatu ditugu, zeinetan aurrekaria izenordain pertsonal bat den. Horietatik euskarazko bi ordain daude erlatibo arruntekin emanak (77a-b), eta gainera, biak ere maila hurbileko erakusle bat gehituta, EGLUK euskalki batzuetara soilik mugatzen duen baliabidea (EGLU-V 1999: 197).

(77)

a)

Ja, tot samyj ja, [KOTOROGO vy izvolite videt' teper' pered soboju]...
 NIK, HORI BERA NI, [ERL. AKUS. ZUEK IKUSTEN DUZUE ORAIN PREP. ERREFL.]...
 'Nik, nik neuk, [orain aurrez aurre daukazuen] honek...'

(AIS:165)

b)

Ty, [KOTOROGO ja ščital vseгда samym nepreklonnym protivnikom
 HIK, [ERL. AKUS. NIK -TZAT EDUKI BETI (GEHIEN) AMORRATU ETSAI
 podobnyx brakov]!
 HORRELAKO EZKONTZEN]

'Hik, [beti horrelako ezkontzen etsai amorratzat eduki haudan] horrek!' (AIS: 228)

3.1.5. Izen ardatza isildurik daukaten erlatibo arruntak

Gerta daiteke erlatibo arruntetan izen ardatza agerian ez egotea. Horrelako erlatiboetarako bi mota bereizi ohi dira: testuinguruan erreferentziaren bat izatea edo erreferentziarik gabeak (generikoak deituak). Beraien arteko desberdintasunak identifikatzea ez da beti erraza, interpretazioen menpe dagoelako. Egia esan, gure ikerketarako desberdintasun hori ez da oso funtsezkoa.

Oro har, ardatza isildua daukaten erlatibo arruntak –besterik gabe– erlatibo arruntzat hartu ditugu, ardatza duten erlatibo arruntengandik desberdindu gabe. Hori dela eta, ezaugarri orokor batzuk laburki aipatzera mugatuko gara.

Esan bezala, ardatza isildua da, baina aurretik agertzen den izen sintagma batekiko, aurrekariarekiko, erreferentzia izan dezake (batzuetan besteetan baino argiagoa); ingurunearekiko nolabaiteko lotura finka dezakegu.

Erlatibatzeko eskalaren ikuspuntutik, erlatibo arrunten aldean ez dute zailtasun berezirik sortzen, ardatza daukatenen ezaugarriak partekatzen baitituzte (78a-c).

(78)

a)

... a *takix*, [KOTORYE by na vseobščij pozor vystavili svoju fiziognomiju ...ETA HORRELA KOAK,[ERL. NOM. PREP. GIZARTEAREN LOTSAGARRI ERAKUTSI BERA IEN FISIONOMIA pod publičnuju opleuxu], otyščetsja razve kakix-nibud´ dva, tri čeloveka. PREP. JENDAURREAN ZAPLAZTEKO], TOPATUKO (BAIZIK) BI, HIRU PERTSONA. ‘...eta [gizarte osoaren aurrean lotsagarri gera daitezen aurpegia jendaurrean zaplatzea *merziko luketen*]ak bizpahiru baizik ez dira.’ (ARH: 350)

b)

Tot, [KOTORYJ u nas s obyskom byl]...
 HURA, [ERL. NOM. PREP. GUREAN PREP. MIAKETA ETORRI]...
 ‘[Gure etxea miatzera *etorri zenari*]...’ (AMA:128)

Erlatibo generikoen erlatibatze-eskalak izen ardatza dutenena baino murrizketa gehiago dauzka, ardatzaren batere erreferentziarik ez egoteak anbiguitasuna areagotzea dakarrelako. Soilik kasu marka gramatikalak erlatiba daitezke modu honetan: ergatiboa (79a) absolutiboa (79b) eta datiboa (79c).

(79)

a)

... ot *togo*, [KTO imel smelost´ vzjat´ na sebja vsju tjagost´ otvetstvennosti] ...PREP. HORI,[ERL. NOM. IZAN AUSARDIA HARTU PREP. ERREFL. GUZTIA ZAMA ERANTZUKIZUNAREN] ‘...[erantzukizunaren zama guztia bere lepo gainean hartzeko *ausardia izan duen*]ari.’ (GGH: 220)

b)

... a [KTO po čužim zakromam šarit]...
 ...BERRIZ [ERL. NOM. PREP. BESTEREN BIHITEGIAK MIAKETAN IBILI]...
 ‘[besteren bihitegian *zoko-miaketan dabilen*]ak, berriz...’ (DII: 40)

c)

My počti vseгда izvinjaem to, [ČTO ponimaem].
 GUK IA BETI BARKATZEN DUGU HORI, [ERL. AKUS. ULERTZEN DUGU].
 ‘la beti barkatzen dugu [*ulergaitz zaigun*]a.’ (GGH: 92)

Gainontzeko kasu markentzat ardatza isildua egotearena oztopo handiegia da, eta ezin dira erlatibatu. Horregatik agertzen dira ardatz gisa izen generikoak (*tokia, unea, arratsa, eguna, modua...*) leku-denborazko kasu markak erlatibatzerakoan, lehenago aipatu dugun bezala.

3.2. Erlatibo jokatuabeak euskaraz

Izen ardatzaren ezkerretara hedatzen diren erlatiboak bi motatakoak izan daitezkeela aipatu dugu: orain arte sakonki aztertu ditugun erlatibo arruntak eta erlatibo jokatuabeak.

Erlatibo jokatuabeak asko erabiltzen dira euskaraz. Perpaus erlatiboez gain, baita perpaus osagarrietan, denborazkoetan ere, besteak beste.

Erlatibo jokatuabeak hiru motatan sailkatu ohi dira: erlatibo jokatuabe arruntak (gure corpusean 82 perpaus edo jokatuabe guztien %95), korrelaziozko jokatuabeak (corpuseko 4 perpaus, jokatuabeen %5) eta galde-izenordainarekin osatutakoak (*ez dugu non lo egin* modukoak).

Errusierazko erlatibozko perpausak itzultzeko galde-izenordainarekin osatutako perpausik topatu ez dugunez, lehenengo bietan finkatuko dugu gure arreta: batez ere erlatibo jokatuabe arruntetan eta neurri txikiagoan, korrelaziozko jokatuabeetan.

3.2.1. Erlatibo jokatuabeen hainbat ezaugarri orokor

- Ez dute *-en* menderagailua hartzen, erlatibo jokatuak ez bezala.
- Aditza nahitaez mendeko perpausaren amaieran izan behar dute.
- Izen ardatzaren ezkerretara agertu ohi dira, baina batzuetan eskuinetara ere bai.
- Ezinezkoa zaie ezezko perpausak eratzea.
- Partizipio burututik abiatuta osatzen direnez, aspektuaren ikuspuntutik mugatuta daude, normalean *-ez beti-* burututako ekintzak adieraziko dituztelarik: *sorturiko guztia = sortu den guztia*. Testuinguruak ahalbidetu dezake iraganekoa ez beste interpretaziorik, adibidez *behar* eta *ezin* erabiliz osatutakoetan, non ez dagoen partizipio buruturik.

3.2.2. Erlatibo jokatuabe arruntak

Ohikoenak dira (horregatik dira, hain zuzen, arruntak), eta gure corpuseko erlatibo jokatuabe guztien %95 dira. Osatzeko moduarengatik hiru azpimota bereizten dira:

- Partizipio burutuaren *-ta/-ik* formari izenlagunen *-ko* atzizkia erantsita lortzen direnak (corpuseko jokatuabe arruntaren %55): Atzo [prestatutako/prestaturiko] arropak.
- Izen ardatza isildua duten jokatuabe arrunt generikoak (corpuseko jokatuabe arruntaren %40): Atzo [prestatutakoak/prestaturikoak].
- Partizipio burutu hutsarekin osatutakoak, *-ko* atzizkia erantsi gabe (corpuseko jokatuabe arruntaren %5). Atzo [prestatu-Ø] arropak.

Ikus dezakegunez, lehenengo biak dira nagusi, oso antzeko proportzioetan.

3.2.2.1. -TA/-IK + -KO

Lehendabizikoei dagokienez --*ta/-ik* + *-ko* egiturari, alegia– Mendebaldeko euskalkietan *-ta* erabiltzen den bitartean (80a), Ekialdekoetan *-ik* da ohikoena (80b).

(80)

a)

... Zdes´ byvajut razrjadki vsex romanov, [KOTORYE kogda-libo načinalis´
...HEMEN IZAN BURUTZEA GUZTIEN AMODIOEN, [ERL. NOM. NOIZBAIT HASI ZIREN
u podošvy Mašuka].

PREP. OINA MAŠUKEN]

‘...hemen burutzen dira [Mashuken oinean noizbait *sortutako*] *amodio* guztiak.’

(GGH: 178)

b)

A už kudy byvaet metko vse to, [ČTO vyšlo iz glubiny Rusi],
ETA EZIN DOIAGO GUZTI HORI, [ERL. NOM. SORTU DA PREP. BARRENA ERRUSIAREN],
‘Eta ezin doiagoa izaten da [Errusiaren barren-barrenetik *sorturiko*] guztia;’

(ARH: 162)

Euskalkien araberako bereizketa hau (*sortutako* ≠ *sorturiko*) benetakoa izango da eguneroko ahozko hizkuntzari dagokionez; haatik, gaur egungo hizkuntza jasoan – gehienbat idatzian, baina baita ahozkoan ere– hitzun guztiok, euskalki batekoak edo bestekoak izan, forma guztiak erabili ditzakegu, maiz testu berean nahasirik, nahiz eta azken hau eztabaidagarria izan daitekeen koherentziaren ikuspuntutik.

Euskal hitzunak bere egunerokotasunetik urrun sumatzen dituen egiturak euskara batuaren bidez bereganatzen dituzenez, ohikoa da bere euskalkiko baliokideei baino jasoago iriztea besteetatik hartuetakoei; alegia, gipuzkoar bati *sorturiko* forma *sortutako* baino jasoagoa, idatzizkoagoa irudituko zaio, hain zuen bigarren hau erabiltzen duelako bere egunerokoa. Aipatutakoaz gain, badira aditz batzuk *-behar* eta *ezin* batez ere– *-ko* atzizkia gehituta erlatibo jokatugabeak osatzen dituztenak. Gure corpusean badugu hauen adibide sorta bat, *behar* aditzarekin sei perpaus (81a-f) eta *ezin*-ekin hiru (81a-c).

(81)

a)

Ved´ u menja mnogo takix, [KOTORYX nužno vyčerknut´ iz revizii].
JUNT. (ZEREN) PREP. NIK MORDOA HORRELAKOAK [ERL. AKUS. BEHAR EZABATU PREP. ERROLDA]

‘Erroldatik [ezabatu *beharreko*] *arima mordoa* zeukaat.’ (ARH: 127)

b)

I vdrug ja ponjal, čto upustil *moment*, [*KOGDA* nužno bylo ostanovit’sja].
ETA BAT-BATEAN NIK ULERTU, (-ELA) ATZEAN UTZI *MOMENTUA*, [*ERL. NOIZ* BEHAR ZEN *GELDITU*]
‘Eta bat-batean ulertu nuen [*gelditu beharreko*] *momentua* atzean utzia nuela.’ (KONP:148)

c)

Est’ teper’ *drugoe*, [*ČTO* nužno sdelat’ xorošo] – umeret’.
BADAGO ORAIN *BESTE ZERBAIT*, [*ERL. AKUS.* BEHAR EGIN ONGI] – HILTZEA.
‘Orain badugu [ongi *egin beharreko*] *beste* gauza bat: hiltzea’ (ZPU: 72)

d)

... Dviženie pal’cev, šag nogoju byl takim složnym i gromodzkim *predprijatiem*,
...MUGIMENDU HATZEN URRATS HANKA ZEN HAIN ZAIL ETA NEKAGARRI *ZEREGIN*,
[*KOTOROE* ran’še nužno očen’ dolgo obdumat’].
[*ERL. AKUS.* AURREZ BEHAR OSO LUZE HAUSNARTU].
‘...hatzen mugimendu bakoitza, hanken urrats bakoitza *zeregin* zail eta nekagarria zela,
[aurrez oso luze *hausnartu beharrekoa*].’

(ZPU: 38)

e)

I čto takoe on imenno: takoj li *čelovek*, [*KOTOROGO* nužno
ETA ZER (DA) BERA (M.) HAIN ZUZEN: HORRELAKO AL (DA) *GIZONA*, [*ERL. AKUS.* BEHAR
zaderžat’ i sxvatit’ kak neblagonamerennogo],
ATXILOTU ETA HARRAPATU, BEZALA *GAIZKILEA*].
‘eta Txixikov zer zen jakin: gaizkilea izateagatik [harrapatu eta atxilotu *beharreko*] *gizona*,’
(ARH: 285)

f)

Vy tak emu i skažite – ja vsě, [*ČTO* nado], sdelaju!
ZUK HORRELA BERARI (M.) ESAIOZU – NIK *GUZTIA*, [*ERL. AKUS.* BEHAR] EGINGO DUT!
‘Bada, esaiozu [egin *beharreko*] *guztia* egingo dudala!’
(AMA: 97)

Behar aditzarekin osatutako euskal ordain guztietan errusieraz ere beharizana adierazten duten *nužno* eta *nado* aditzondoak topatzen ditugu. Beraz, ondoriozta daiteke errusieraz *behar* hitzaren baliokide zuzenekin osaturiko erlatiboak ongi euskaratzen direla *behar* hitzarekin eraturiko erlatibo jokatugabe arrunten bidez.

Ezin hitzarekin antzeko zerbaite gertatzen da, jatorrizko hiru perpausetatik bitan baitaukagu errusieraz ezintasuna adierazten duen esamolderen bat: *nel’zja* ‘ezin da’

predikazio-aditzondoa (82a) eta *ne mogla* ‘ezin zuen’ aditza (82b). (82c)n ere jatorrizkoak eta bere euskal ordainak antzeko esanahia daukate, agerikoa ez bada ere: errusieraz, hitzez hitz, *benetan daukazun oharmen hori* dena, euskaraz *oharmen ezin ukatuzko hori* bihurtu da. Finean, benetakoa izatetik “ezin ukatuzkoa” izatera ez baitago alde handirik.

(82)

a)

Na šee u nego tože bylo povjazano čto-to takoe, [KOTOROGO nel’zja bylo razobrat’]:
PREP. LEPOA PREP. BERA ERE ZEGOEN LOTURIK ZERBAIT, [ERL. AKUS. EZIN ZEN SAILKATU]:
‘[Ezin sailkatuzko] zerbait zeraman lepo inguruan loturik:’

(ARH: 174)

b)

Mat’ otvetila s dosadoj, [KOTORUJU ne mogla sderžat’].
AMAK ERANTZUN ZUEN PREP. BARNEMIN, [ERL. AKUS. EZ AHAL EUTSI].
‘Amak [eutsi ezineko] barneminez erantzun zuen:’

(AMA: 230)

c)

Ja dumaju o tom, otkuda mogla prijti vam èta nabljudatel’nost’,
NIK PENTSATU PREP. HORI, JUNT. (NONDIK) DAITEKE ETORRI ZURI HORI OHARMEN,
[KOTORAJA dejstvitel’no est’ v vas].
[ERL. NOM. BENETAN DAGO PREP. ZU].
‘Pentsatzen ari naiz nondik ote datorkizun *oharmen* [ezin ukatuzko] hori.’

(AIS: 234)

3.2.2.2. Erlatibo generiko jokaturgabeak

Erlatibo jokaturgabeak –erlatibo arruntetan geratzen zen bezalaxe– izen ardatzik gabe ager daitezke; alegia, ardatza isildua izan dezakete. Horrelakoak ez dira gutxi gure corpusean (jokaturgabe arrunt guztien %26). Aurreko puntuan erlatibo arruntak aztertzerakoan ikusi dugun bezala, testinguruan erreferentziaren bat dutenak (83a) edo generiko hutsak izan daitezke (83b), nahiz eta desberdintasun hori guretzat funtsezkoa ez izan, lehenago aipatu dugun bezala.

(83)

a)

Togo samogo, [ČTO byl komendantom v odnoj iz orenburgskix krepostej]?
HORI BERA, [ERL. NOM. ZEGOEN KOMANDANTE PREP. BATEAN PREP. ORENBURGEKO GOTORLEKUAK]

‘[Orenburg eskualdeko gotorlekuetako batean komandante *izandakoa*]?’

(KAP: 80)

b)

Stoit li podrobno rasskazyvat’ o tom, [ČTO bylo dal’še]?
 MEREZI OTE (DU) XEHETASUNAK KONTATZEA PREP. HORI, [ERL. NOM. GERTATU HORTIK AURRERA]?
 ‘Merezi ote du [hortik aurrera *gertaturikoari*] buruzko xehetasunak kontatzeak?’

(KONP:82)

3.2.2.3. Partizipio burutu hutsarekin osatutako erlatibo jokatugabe arruntak

Ekialdeko euskalkien eguneroko hizkeraren ezaugarria da *–ko* erantsi gabe partizipio burutu hutsarekin erlatibo jokatugabeak egitea. Gaur egun euskalki guztietako hiztunak balia daitezke erlatibo mota honetaz, euskara jasoan ari badira. Gure corpora horren adibide garbia da, itzultzaile guztiak Hegoaldekoak izan arren, horrelako hamahiru perpaus dauzkagulako (84a-b). Erlatibo jokatugabea normalean ardatzaren ezkerretara ageri dela esan dugun arren, (84a)koa aposatua egotea deigarria da, baina erlatibo jokatugabeen ezaugarri orokorrak azaldu ditugunean, aipatu dugu *–gutxitan bada ere–* gerta daitekeela erlatibo jokatugabeak ardatzaren eskuinetara agertzea.

(84)

a)

Čto žizn’ naša? – Dolina, [GDE poselilis’ gosti].
 ZER (DA) BIZITZA GUREA? – HARANA, [ERL. NOM. BABESTU DIRA NAHIGABEAK].
 ‘Zer da gure bizitza? *Haran bat* [gure nahigabeen babesleku *bihurtua*].’

(ARH: 235)

b)

...blagodarno molitvennoj dumoj o ljudjax, kotorye sredi opasnostej idut
 ...ESKER ONEZ ERLIJIOSO GOGOETA PREP. LAGUNAK, ERL. NOM. PREP. ARRISKUAK DOAZ
 k tem, [KTO okovan cepjami truda]...
 PREP. HORIEK, [ERL. NOM. LOTUAK KATEAK LANAREN]...
 ‘...arriskuei aurre eginez [lanaren kateek *lotuengana*] abiatu eta ... eramaten zieten lagunenganako esker oneko gogoeta erlijioso baten antzeko...’

(AMA: 255)

3.2.3. Korrelaziozko erlatibo jokatugabeak

Erlatibo jokatugabe arruntez gain, korrelaziozko jokatugabeak ere badaude. Berez, korrelaziozko erlatibo jokatuak ere badaude. Hemen jokatugabeak azalduko ditugun arren, azalpen honek jokatueterako ere balioko du.

Korrelaziozko EPak, oro har, nahiko zabalduak daude euskararen eremu osoan, baina maizago agertzen omen dira Ekialdeko euskalkietan (EGLU-V 1999: 248).

3.2.3.1. Korrelaziozko erlatiboen egitura

Erlatibo mota honetan bi perpausetatik batek galde-izenordain bat dauka (normalean *ZER/NOR* edo leku-denborazkoetarako *NON/NOIZ*) eta bestean izenordain anaforiko bat (gehienetan *HAU*, *HURA* gisako erakusleak edota leku-denborazkoetarako hauetatik eratorritako forma adberbialak).

Esan bezala, gure corpusean korrelaziozko erlatibo jokatugabeak lau besterik ez dira guztira (85a-d). Lehenengo hiruretan errusieraz ere korrelaziozko perpausak dauzkagunez, horiek korrelazioaren bidez euskaratzeak ez gaitu harritzen. Laugarrenak (85d) merezi du azterketa sakonago bat.

(85)

a)

...tol'ko nikogda ne t orgovalsja: [*ČTO* zaprosit] davaj.

...SOILIK INOIZ EZ TRATUAN ARITU: [*ERL. AKUS. ESKATU*] EMAN.

'...baina inoiz ez zen tratutan aritzen: [zenbat eskatu, hainbeste eman behar];' (GGH: 34)

b)

Takov už byl člověk: [*ČTO* zadumaet], podavaj;

HORRELAKO ZEN GIZONA: [*ERL. AKUS. BURURATU*], EMAN;

'Horrelakoxea zen gizona: [buruan zer sartu, hura lortu behar];' (GGH: 67)

c)

... čto baba čto mešok: [*ČTO* položat, to nesët]

...(ZER) EMAKUMEA (ZER) ZAKUA: [*ERL. AKUS. SARTU, HORI ERAMAN*]

'...emakumea zaku baten antzekoa dela ([barruan zer sartu, hori eraman])' (ARH: 280)

d)

Služi verno, [*KOMU* prisjagneš'];

ZERBITZATU ZINTZO, [*ERL. DAT. ZIN EGIN*];

'Leialtasun-zina [nori egin, berori zintzo zerbitzatu];' (GGH: 27)

(85d) *kto* 'nor' izenordaina datiboan jarrita osatutako aurrekaririk gabeko perpaus bat da (gaztelaniazko *A QUIEN madruga...* esaldiaren gisakoa), eta hitzez hitz ondorengo esanahia izango luke: *zintzo zerbitzatu leialtasun-zina egin diozunari*.

Zaila da esatea itzultzailea zerk eraman duen esaldi hori korrelazioz ematera. Interesgarria da korrelaziozko lau jokatugabe hauek guztiak itzultzaile berberarenak direla,

hauetatik hiru perpaus liburu bakar batean agertzen dira gainera (Lermontoven *Gure Garaiko Heroian*).

Itzultzaile horren joera baten aurrean ote gaude? Liburu horretan bertan errusierazko beste bi korrelaziozko perpaus euskaraz korrelazioz eman izanak eraman al du itzultzailea, analogiaz, hau ere korrelazioz ematera? Edo datiboaren kasu marka bere horretan erlatibagaitzagoa iruditu zaio, perpausaren egitura aldatzeari egokiago iritziz? Aurrerantzean saiatuko gara galdera horiei eta antzeko beste batzuei erantzuten.

3.2.3.2. Korrelaziozko erlatiboen zenbait ezaugarri

Egituraz gain, erlatibo hauek badauzkate berezko beste ezaugarri batzuk ere.

- Ez dira izenlagun gisa agertzen, honek erlatibo arruntetatik bereizi eta aposatuetara hurbiltzen dituelarik.

- *ZEIN/NON* eta *BAIT*- erlatiboak ez bezala, korrelaziozko EPak ez dira aposatuak, beti izenordain anaforikoaren ezkerretara agertzen baitira, horretan erlatibo arruntetatik gertuago daudelarik.

Edonola ere, korrelaziozko perpausak gure corpusean hain urriak izanik, hemendik aurrera corpusean duten presentziaren araberako arreta eskainiko diegu, ez gehiago.

3.2.4. Erlatibo jokaturagabeen erlatibatze-eskala

Perpaus jokaturagabeetan, oro har, ISEk kasu marka absolutiboa hartu ohi du (EGLU-VII 2011: 399). Euskaraz kasu marka absolutiboak bere baitan perpaus iragangaitzetako subjektuak eta perpaus iragankorretako objektu zuzenak hartzen dituela kontuan izanda, gure helburuetarako interesgarriak diren bi galdera erantzuten saiatuko gara.

- Gure corpuseko euskal ordainak erlatibo jokaturagabeak direnean, absolutiboa erlatibatzen al dute beti?

- Eta absolutiboak erlatibatzen dituztenean, zer erlatibatzen dute maizago, perpaus iragangaitzetako subjektua edo perpaus iragankorretako objektu zuzena?

Bada, lehenengo galderari erantzunez, gure corpuseko datuei erreparatuz gero, ikusten dugu perpaus jokaturagabe arrunt ia guztiek –inesiboa daramaten 4 perpaus (jokaturagabe guztien %5) salbu–, kasu marka absolutiboa daukatela.

Erlatibo jokaturagabe arrunt guztien %59k, aldiz, objektu zuzenak erlatibatzen dituzte (86a) eta %36k, aldiz, subjektuak (86b). Datu hauek bere horretan hartuta, objektuen

erlatibakuntza-abantaila bat iradokiko lukete, baina hori corpusetik ateratako datu guztiak dauzkagunean eztabaidatu beharreko gaia izango da.

(86)

a)

Žestokie *vyraženija*, [*na KOTORYE* batjuška ne poskupilsja], gluboko oskorbili menja.
ANKERRAK *ESAKUNEAK*, [*PREP. ERL. AKUS. AITA EZ AURREZTU*], BIZIKI MINDU NI.
'[Aitak barra-barra *erabilitako*] *esakune* ankerrek biziki mindu ninduten.' (KAP: 74)

b)

Neprijatno bylo tol'ko *to*, [*ČTO* proizošlo na sude].
DESATSEGINA ZEN BAKARRA *HORI*, [*ERL. NOM. GERTATU ZEN PREP. EPAIKETA*]
'[Epaiketan *gertatutakoa*] zen gauza desatsegin bakarra,' (ZPU: 35)

Erlatibo jokatugabe arruntek euskaraz ergatiboa eta datiboa ere erlatiba omen ditzakete (EGLU-VII 2011: 400-401), baina gure corpusean ez da ageri bi kasu marka hauen batere adibiderik, eta Euskaltzaindiak berak onartzen du erlatibo jokatuekin baino askoz ere beherago daudela kasu marka hauek erlatibo jokatugabeen eskalan.

Leku-denborazko kasuak euskaraz erlatibagaitzak diren arren, corpuseko erlatibo jokatugabe arrunten artean kasu marka inesibodun lau perpaus topatu ditugu (87a-d).

(87)

a)

...zatem vozbuždali k sebe lëgkij, vnešnij interes rasskazami
... GERO SORTU *PREP. ERREFL. ARIN, AZALEKO INTERES KONTUEKIN*
o *mestax*, [*GDE* oni rabotali]...
PREP. TOKIEI, [*ERL. NON BERAIEK LANEAN IBILI*]
'...gero azaleko interes pittin bat sortzen zuten [*lanean ibilitako*] *TOKIEI* buruzko kontuekin...'
(AMA: 19)

b)

Tronul loščad', čtoby exat' obratno v *to prostranstvo*, [*GDE* on byl].
ERAGIN ZALDIA, *JUNT. JOATEKO ATZERA PREP. HURA EREMU*, [*ERL. NON BERA (M.) EGON*].
'Zaldiari eragin zion, atzera [lehen *egondako*] *EREMU* hartara joateko.' (LUB: 106)

c)

...suščestvuet ego *srok*, [*KOGDA* pridëtsja leč' na kojku,
... ZEGOEN BERE (M.) *EPEA*, [*ERL. NOIZ BEHAR ETZAN PREP. OHEA*,

povernut'sja licom k stene i skončat'sja, ne sumev zaplakat'].

JIRATU AURPEGIA PREP. HORMA ETA ZENDU, GABE IKASI NEGAR EGIN].

'bazegoela bere epea amaitzen zeneko *UNE BAT*; [ohean etzan, aurpegia hormarantz jiratu eta negar egiten ikastea lortu gabe *zendu beharrekoa*].'

(LUB: 46)

d)

I vdrug ja ponjal, čto upustil *moment*, [*KOGDA* nužno bylo ostanovit'sja].

ETA BAT-BATEAN NIK ULERTU, (-ELA) ATZEAN UTZI *MOMENTUA*, [*ERL. NOIZ* BEHAR ZEN *GELDITU*]

'Eta bat-batean ulertu nuen [*gelditu beharreko*] *momentua* atzean utzia nuela.'

(KONP: 148)

Jatorrizko errusierazko lau perpausak aditzondo erlatiboekin osatuak daude, bi lekuzko (87a-b) eta bi denborazko (87c-d). Horrez gain, badira denetan –bai jatorrizkoetan eta bai euskal ordainetan– leku-denborazko esanahia duten izen ardatz batzuk, erreferentzia markatzen laguntzen dutenak: *toki*, *eremu*, *une*, *momentu*.

Deigarria da (87)ko lau perpausetatik hiru itzultzaile bakar batek eginak direla (eta ez da corpuseko laginik handiena daukana). Honek itzultzailearen berezko joera bat erakusten al digu ala beste zerbaitek behartzen ote du horretara (testuek, hizkuntza-sistemek...)?

Zeren erlatibo jokatu gabeek kasu marka inesiboa erlatibatzeke ahalmena izateak, ez baitu esan nahi aditzondoak itzultzeko baliabiderik ohikoena erlatibo jokatu gabeak osatzea denik. Beste itzultzaileek ez dituzte neurri berean erabiltzen.

Itzultzaile bakoitzaren estiloa aztertzen dugunean, ikusiko dugu kasu marka erlatibagaitzak erlatibo jokatu gabeekin itzultzeak harreman zuzena duela itzultzaile honen (B itzultzailea izango dena) berezko erlatibakuntza-estiloarekin.

Edonola ere, gure corpuseko datuek euskaraz erlatibo jokatu gabeak erabiltzeko daukagun moduaren inguruan aurretik idatzitakoa berresten dute.

3.2.5. Izen ardatzaren izaera erlatibo jokatu gabeetan

Erlatibo jokatu gabeek, printzipioz, izen mota guztiak erlatiba ditzakete, baina nagusiki izen arruntak erlatibatzen dituzte; gure corpusean ere halakoak dira ia denak.

Izen berezirik ez da erlatibatzen estrategia hau erabiliz, baina bai topatu ditugu zenbait izenordain eta zenbatzaile: *guztia* (88a), *zerbait* (88b) *norbait* (88c)...

(88)

a)

Daže, kazalos', Viktor pomnil vsě, [ČTO Nina govorila za stolom].
ARE GEHIAGO, IRUDITU, VIKTORREK GOGORATU GUZTIA [ERL. AKUS. NINAK ESAN PREP. MAHAIA].
'Are gehiago, Viktorrek irudipena zuen [Ninak mahaiian *esandako*] *guzti-guztia* gogoratzen
zuela.' (PIK: 183)

b)

Na šee u nego tože bylo povjazano čto-to takoe, [KOTOROGO
PREP. LEPOA PREP. BERA (M.) ERE ZEGOEN LOTURIK ZERBAIT, [ERL. AKUS.
nel'zja bylo razobrat']:

EZIN ZEN SAILKATU]:

'[*Ezin sailkatuzko*] *zerbait* zeraman lepo inguruan loturik.'

(ARH: 174)

c)

To byl, naverno, sčetovod s večernix zanjatij ili prosto
HURA ZEN, ZIURRENIK, KONTULARI PREP. GAU- ESKOLA EDOTA BESTERIK GABE
čelovek, [KOTOROMU skučno spat'].
PERTSONA, [ERL. DAT. ASPERTURIK LO EGIN].
'ziurrenik, gau-eskolatik zetorren kontulari bat izango zen. Edota [*lo egiteak asperturiko*]
norbait, besterik gabe.'

(LUB: 46)

3.2.6. Erlatibo jokatugabe arrunten kokapena izen ardatzarekiko

Orain arteko erlatibo jokatugabe arruntetan ohikoena izen ardatzaren ezkerretara joatea dela ikusi dugu, eta hala da, oro har. Ardatzaren eskuinetarako adibide bakarra (89)koa da. Badirudi kokapen hau euskaraz gramatikala dela, nahiz eta hitz-ordena markatua izan.

(89)

V gostinoj stojala prekrasnaja mebel', obtjanutaja ščëgol'skoj šëlkovoj
PREP. EGONGELAN ZEGOEN EDER ALTZARI, TAPIZATUA DOTORE SEDAZKO
materiej, [KOTORAJA, verno, stoila ves'ma neděšëvo];
OIHAL, [ERL. NOM., INONDIK ERE, EROSI SAMAR GARESTI];

‘Egongelan, esaterako, altzari ederrak zeuden, sedazko *oihal* dotore [inondik ere garesti samar *erositako*] batek tapizatuak...’

(ARH: 46)

Ardatzaren ezkerretara hedatzen diren erlatibo arruntak eta jokatugabeak aztertu ondoren, ikus dezagun banan-banan nolako ezaugarriak dituzten gure corpuseko euskarazko erlatibo aposatuak.

Dakigunez, hiru erlatibo aposatu mota nagusi agertzen dira gure corpuseko euskal ordainetan: erlatibo arrunt aposatuak, *ZEIN/NON* erlatiboak eta *BAIT*-erlatiboak.

3.3. Erlatibo arrunt aposatuak

Euskaraz erlatibo arruntak aposizioan erabil daitezke, nahiz eta oinarrizko erlatibakuntza-estrategia ez izan. Ageriko ardatzik ez dutela iruditu arren, aurretik aipaturiko IS bati egiten diote erreferentzia, eta *kanpoko ardatza* daukala esan daiteke.

Erlatibo arrunt aposatuak morfologikoki oinarrizko erlatibakuntza-estrategiari jarraitzen diote --*en* menderagailuarekin osatzen dira--, baina ardatzetik eskuinetara hedatzen direnez, aposatutzat hartuko ditugu.

Bi modutara ager daitezke: alboko arrunt bezala (90a) edota gibeleratuta, ardatzaren eta mendeko EP aposatuaren artean perpaus nagusiko aditza dagoenean (90b).

(90)

a)

Da net takix *dverej*, [*KOTORYE* polnost’ju zakrytye!]

EZ (DAGO) HORRELAKO *ATERIK*, [*ERL. NOM.* (DAUDE) ERABAT ITXITA]

‘Ez dago *aterik* [erabat *itxita dagoenik*]!’ (PIK: 214)

b)

Čto-to bylo v nej, [*ČTO* vyzyvalo v něm iskrennjuu žalost’]

ZERBAIT ZEGOEN PREP. BERA (F.) [*ERL. NOM.* ESNARAZI PREP. BERA (M.) ZINEZKO ERRUKIA]

‘*zerbait* zegoen han, [Viktorren baitan zinezko errukia *esnarazten zuena*].’ (PIK: 139)

3.3.1. Erlatibo arrunt aposatuen erlatibatze-eskala

Corpuseko erlatibo arrunt aposatudun euskal ordainetan zaila da erlatibatze-eskalan kasu marka gramatikaletatik beheragoko posizioak erlatibatuta ikustea, azken finean, erlatibo arrunten antzera, ISE isildua izateak, erreferentzia ezak eragiten dielako.

Halere, errusierazko jatorrizko perpaus batzuetan ISEk kasu marka erlatibagaitza dauka. Hala, errusieraz genitiboan doan ISE euskaraz absolutibo –zehazkiago objektu zuzen– bihur daiteke (91a). Berdin (91b)n, non, kasu marka instrumental bat absolutibo batekin (objektu zuzena hau ere) euskaratzen den.

(91)

a)

No est' *strasti*, [*KOTORYX izbran'e* ne (∅) ot *čeloveka*].

BAINA BADIRA *GRINAK*, [*ERL. GEN. AUKERA EZ (DA) PREP. GIZABANAKOAREN*].

'Baina badira *grina batzuk* [gizabanakoak aukeratzen ez dituenak].'

(ARH: 353)

b)

Net *nikogo*, [*s KEM* by my mogli *idti* *rjadom*,

EZ (DAGO) *INOR*, [*PREP. ERL. INSTR. GENEZAKE JOAN ALDAMENEAN*,

ne *iskažaja* *našej very*].

GABE ITXURALDATU GURE FEDEA].

'Ez dago *inor* [gure fedea itxuraldatu gabe aldamenean gurekin batera *eraman dezakegunik*].'

(AMA: 364)

Deigarria da (92)n gertatzen dena: errusierazko kasu marka prepositiboa euskaraz inesibo batekin ematen da edo hori da behintzat interpretazio posibleetatik bat. Ulertzen badugu itzulera *oharrear* agintzen dela, inesiboa izango da. Aditzaren argumentua aldatuz, *oharrak* agintzen duela ulertzen badugu, ordea, ISE ergatiboan dagoela interpreta dezakegu.

(92)

Sredi pački bumag na podokonnike razyskal tu samuju *zapisku*, [*v KOTOROJ* Miša

PREP. ZORRO PAPER- PREP. LEIHO-KOSKA KAUSITU HURA BERA OHARRA, [*PREP. ERL. PREP. MIŠAK obeščal pojavit'sja*, " *kogda uljažetsja pyl*"].

AGINDU AGERTZEA "JUNT. (-NEAN) PAUSATU HAUTSA"].

'Leiho-koskan pilaturiko paper-zorroen artean kausitu zuen *oharra*, [Mixak "hautsa berriro pausatzen denean" itzuliko zela agintzen zuena].' (PIK: 131)

Badirudi hizkuntza idatzirako (92) behartu samarra dela. Gure ustez, *ZEIN/NON* erlatibo bat egokiagoa litzateke kasu honetan.

Paradoxikoki, errusierazko ordainetan ISEk erlatibatzeko zaila den kasu markaren bat izateak behartzen gaitu erlatibo aposatu bat erabiltzera, baina gero erlatibo arrunt aposatu horietako ISE kasu marka gramatikal –hots, erlatibagarri– batekin erabili behar da.

Erlatibatzeko zailtasuna markatuagoa denean erresuntiboek ere lagun dezakete horiek gainditzen, adibidez inesibo bat erlatibatzerakoan (93).

(93)

Est' takoe mesto v duše čelovečeskoj, [na KOTOROM ničego drugogo DAGO HORRELAKE LEKU PREP. ARIMAN GIZA- [PREP. ERL. PREP. EZER BERRIRIK ne vyrastet]...

EZ HAZIKO DA]...

'Gizakiaren arimaren barruan baduk halako *leku* bat [bertan ezer berririk hazterik ez dagoena]...'

(AMA: 78)

3.4. ZEIN/NON erlatiboak

Inguruko hizkuntza guztiek bezala, gaur egungo –eta azkeneko mendeetako– euskarak ere baditu galdetzailleetatik eratorritako izenordain erlatiboak, zeinak izen ardatzaren eskuinetara hedatzen diren, izen ardatza EPren ezkerretara geratzen den aurrekari bihurtzen delarik.

Euskarak galdera-izenordainetatik eratorritako bi izenordain erlatibo ditu: *ZEIN* eta *NON*. Biak ere anaforikoak dira, aurretik agertzen den izen sintagma bati erreferentzia egiten diotelako.

ZEIN izenordaina kasu marka guztietarako erabili daiteke eta –nahi izanez gero– leku-denborazko kasuetan *NON* izenordainarekin ordezkatzeko aukera dago, baina ez da derrigorrezkoa.

Erlatibo erromaniko, erlatibo indoeuropar, erderismo, kalko eta beste hainbat ezizen jarri izan zaizkie erlatibo hauei. Horietako batzuek garbiki adierazten dute jende askoren aldetik ez dutela estimazio askorik izan.

Egia esan, egitura hauen aldeko argumentuak oso sendoak dira; hala nola, garai guztietan euskalki guztietako idazleek erabili izana, baita egitura hauen aurkako zenbait gramatikalarik, beraien testu propioak idazten zituztenean ere, Hialgok Larramendiren kasuan bere tesiko zati askotan agerian uzten duen bezala (Hidalgo 1995). Horrez gain, tradizio zabala izan dute euskal literaturaren hastapenetik beretik: Axularrengan eta bestelako klasikoengan ohikoak dira, eta, bide batez, baita gure corpusean ere.

Hala eta guztiz ere, zenbait aro historikotan ospe txarra izan dute, garbizaletasunaren –edo garbizalekeriaren, nondik begiratzen diogun– garaian garaiko indarraren araberakoa beti ere. *Zeinismoa* eta *antizeinismoaren* arteko tirabirak gorabehera, bereziki bortitzak XX mendean (Azkue 1905; Echaide 1912), ez dirudi gaur egungo hizkuntza idatzian eta maila jasoari dagozkion testuinguruetan –iritzi partikularrak gorabehera– hauen erabilpena gehiegi eztabaidatzen denik. Erabilpenaren maiztasuna izan ohi da eztabaidagai nagusia.

Maiztasunaren inguruan ikuspegi zabalagoak eta murrizagoak daude gaur egun ere, kasu hauetan ohikoa denez, oro har euskararen hitz-ordenarekin eta hainbat fenomeno linguistikorekin gertatzen den bezala.

Ikuspegi zabalenak edozein testuingurutan erabil daitezkeela defendatzen du.

Ikuspegi murriztaileak, aldiz, esango du ahal den neurrian ekidin behar direla, euskararentzat arrotzak direlako; beharrezko gaitz bat, nolabait esateko.

Edonola ere, badirudi gaur egun –kontziente edo inkontzienteki– erdibideko posizio bat ari dela nagusitzen, alegia forma hauek onartzeak ez du esan nahi beraien neurrigabeko zabalkundeari bidea eman behar zaionik, baina erlatibo mota hauek egunerokotasunean (prentsan, literaturan, ikus-entzunezko ekoizpenean) eta gure corpusean daukaten presentzia zabalak erakusten digu funtzio bat betetzen dutela.

Gure corpora hartzen badugu, segituan nabari da bertan *ZEIN/NON* galdetzaileekin osatutako erlatiboen garrantzia: errusierazko perpausen euskal ordain erlatibo bat duten kasuen %13a baitira horrelakoak (%10 *ZEIN*-ekin eta %3 *NON*-ekin). Beste modu batera esanda, gure corpuseko errusiar testuen euskal itzultzaileek osatzen dituzten 100 perpaus erlatibotatik 13 *ZEIN/NON* erlatiboek dagozkie. Datu horiek, noski, ez dituzte itzultzaileen arteko aldeak islatzen –esanguratsuak diren arren, IV. Kapituluaren ikusiko dugun bezala–, baina garbi dago funtsezko tokia daukatela erlatibozko perpausen barnean, baita itzulitako literaturan ere.

Zeinismoaren eta *antizeinismoaren* arteko eztabaidak gorabehera, gure posizioa ondorengo da: euskararen oinarrizko erlatibakuntza-estrategia izen ardatzaren ezkerretara hedatzen diren *-(e)n* erlatibo arruntak osatzea da, eta erlatibatzeke zailtasunik izan ezean, horiek hobesten ditugu. Haatik, erlatibo aposatuak –batez ere *ZEIN/NON* motakoak– ere baliagarriak dira, eta gehiegikeriak saihestea beste mugarik ez daukan zilegitasuna aitortzen diegu. Hori da, gure ustez, gure corpuseko emaitzek eta gaur egungo egoerak berresten duten errealitatea.

Euskarazko *ZEIN/NON* erlatiboek hiru ezaugarri nagusi dituzte:

a) Mendeko EPren hasieran kokatzen diren galdetzaille batzuk (*zein, non*) baliatzen dira. Izenordain hauek derrigorrez mendeko EPren hasieran agertu behar dute. Menderagailua daraman aditza, berriz, izenordainaren ondoren joan daiteke, baina baita atzerago ere, perpausaren erdialdean edo bukaeran.

b) Izenordain erlatiboak aurrekaria (izen ardatza) badu –normalean izan behar du–, hori kanpoan geratzen da, mendeko EPren ezkerretara beti.

c) Menderagailua *-(e)n* atzizkia edo *BAIT-* aurrizkia izan daitezke, eta aditzari itsasten zaio.

3.4.1. Menderagailua *ZEIN* erlatiboetan

BAIT- eta *-(e)n* menderagailuen banaketa geografikoa nahiko garbia da: Mendebaldeko euskalkietan historikoki *-(e)n* menderagailua erabiltzeko joera izan da. Ekialdekoetan, berriz, *BAIT-* aurrizkia da nagusi.

Gure corpuseko datuak nahiko deigarriak dira zentzu honetan: corpuseko 167 *ZEIN* erlatiboetatik 149 (%89) *BAIT-* aurrizkiarekin osatzen dira (94a). Gainontzeko 18 perpausetatik 16ek *-(e)n* atzizkia gehitzen diote aditzari, (94b)n bezala.

(94)

a)

... o novom *upravljajuščem*, [*KOTORYJ* nakanune prixodil k nemu žalovat'sja].

...PREP. BERRIA *ADMINISTRATZAILE*, [*ERL. NOM. BEZPERAN ETORRI* PREP. BERARI KEXATZERA].

'*administratzaile* berria, [*zeina* Foma beharginaz kexatzera *etorri baitzitzaion* aurreko egunean]'

(AIS: 45)

b)

Vopros, [*otvet na KOTORYJ* emu zaranee izvesten].

Galdera, [erantzun prep. *Erl. AKUS.* berari aurretik (zaio) ezagun].

'*GALDERA* BAT, [*ZEINAREN ERANTZUNA AURRETIK EZAGUNA ZAION*].'

(KONP: 200)

Menderagailuari dagokionez, hiru kasu aipagarri topatu ditugu corpusean (95a-c).

(95)

a)

Ja uže prošel tot *period* žizni duševnoj, [KOGDA iščut tol'ko sčast'ja],
 NIK JADA ATZEAN UTZI HORI GARAI BIZITZAKO ARIMAREN, [ERL. NOIZ BILATU SOILIK ZORIONA],
 [KOGDA serdce čustvuet neobxodimost' ljubit' sil'no i strastno kogo-nibud'].
 [ERL. NOIZ BIHOTZAK SENTITU PREMIA MAITATZEKO BIZIRO ETA SUTSUKI NORBAIT].
 '...atzean utzia dut bizitzaren *garai* hori, [zeinean arimak zoriona soilik *bilatzen duen*], [zeinean
 bihotzak norbait biziro eta sutsuki maitatzeko premia *sentitzen baitu*].'

(GGH: 139)

b)

Net v mire čeloveka, [nad KOTORYM prošedšee priobretalo by
 EZ DAGO PREP. MUNDUAN GIZABANAKORIK, [PREP. ERL. INSTR. IRAGANAK LORTU
 takuju vlast', kak nado mnoj].
 HORRELAKO AHALMENA, BEZALA PREP. NIRE].
 'Ez da munduan beste *gizabanakorik* [zeinarengan iraganak nire gainean bezain ahalmen
 handia *duenik*].'

(GGH: 131)

c)

Čem ja objazan, Lidočka, tem poputnym *vetrom*, [KOEGO... KOEGO...] Dostali pivo?
 ZERI NIK ZOR DIOT, LID., HORI ALDEKO HAIZE, [ZEINAK... ZEINAK...] EROSI GARAG.?
 '-Zeri zor diot, Lidotxka, *ekarri zaituen* haize... [zeinak... zeinak...] Garagardoa erosi duzu?'

(KONP.: 93)

Batean ardatz berak bi EP dauzka metatuak, bakoitza menderagailu batekin:
 lehendabizikoa *-(e)n* atzizkiarekin eta bigarrena *BAIT-* aurrizkiarekin (95a).

Bigarreanean, menderagailuaren ondoren *-ik* atzizki partitibo bat ageri da *-(e)n*
 menderagailuari lotuta (95b). Egia esan, perpaus horren gramatikaltasuna bera zalantzan
 jartzeko modukoa da, batez ere mendeko EPko aditzaren subjektua ez delako ISE,
 mendeko EPn bertan dagoen izen bat baizik (*iraganak*).

Hirugarrenean ez dago batere menderagailurik, pertsonaiak esaldia ez duelako
 amaitzen, besterik gabe (95c). Azken finean, amaiera jakinik ez daukan EP bat
 euskaratzeko beharrezkoa da izenordain erlatibo batez baliatzea, erlatibo arrunt bat izanez
 gero, ez baikenuke jakingo *-(e)n* atzizkia zeri lotu. Gainontzean erlatibakuntza ezabatu eta
 bestelako baliabide bat sartzea litzateke aukera bakarra.

ZEIN erlatibo gehienek menderagailu gisara *BAIT-* aurrizkia izatea are deigarriagoa
 da, kontuan izanda corpusean ditugun itzultzaile guztiak Hegoaldekoak direla. Euskaldunok
 gure euskalkikoak ez diren elementuei izaera jasoagoa egozteko daukagun joera egon
 daiteke horren atzean, euskara batuaren bidez iristen zaizkigulako, besteak beste.

Edonola ere, gaur egun euskalkien arteko marra hori nahiko lausoa dela garbi dago, behintzat itzulitako testuetan (gure corpuseko datuek iritzi hori berresten dute).

Arazorik gabe meta daitezke, juntagailuen bidez (96a-b) edota alborakuntzaz (96c).

(96)

a)

oščuščeniju polnoj tišiny, [KOTOROE znakomo každomu] i
 SENTIPENERA ERABATEKO ISILTASUN, [ERL. NOM. (DA) EZAGUN BAKOITZA] ETA
 [prelest' KOTOROGO sostoit v edva soznatel'nom, nemotstvujueščem podkaraulivan'e
 [XARMA ERL. GEN. DATZA PREP. APENAS HAUTEMATE, ISIL ZELATATZE
 širokoj žiznennoj volny, nepreryvno katjaščejsja i krugom nas i v nas samyx]
 ZABAL BIZI UHIN, ETENGABE BIRAKA INGURUAN GURE ETA PREP. GUREGAN BARNE]
 'isiltasun erabatekoaren *sentipenera*, [zeina denok *ezagutzen baitugu*] eta [zeinaren *xarma baita* gure inguruan eta gure barnean etengabe pilpiratzen den bizi-uhin zabal horren hautemate lausoa, zelatatze isila.]' (AIS: 244)

b)

...*Sidora*, [dlja KOTOROGO ja dolžen iz koži lezt'] i
 ...SIDOR, [PREP. ERL. GEN. NIK BEHAR PREP. AZAL ATERA] ETA
 [KOTORYJ mne daže spasibo ne skažet].
 [ERL. NOM. NIRI ERE ESKERRAK EZ ESAN].
 '...*Sidor*, [zeinaren *gatik zazpi ahalak egin behar baitituf*] eta [ez *baitzikit emango eskerrak ere*]
 (AIS: 181)

c)

Volšebnyj *mir*, [v KOTORYJ on uže vstupal
 LILURAZKO MUNDU, [PREP. ERL. AKUS. BERA (M.) JADA MURGILDUA
 iz tumannyx voln prošedšego], ševel'nulsja.
 PREP. LANBROTSU UHINEN IRAGANEKO], DAR-DAR TXIKIA EGIN.
 'Dar-dar txiki bat egin zuen *lilurazko mundu hark*, [zeinean *murgildua baitzen*], [zeina iraganeko garai lanbrotsuetatik *agertua baitzitzaion*],' (AIS: 88)

(96a)n ZEIN izenordaina bi perpaus metatuen hasieran errepikatzen da, eta *sentipenera* da bien ardatza. Kasu honetan erlatibatzailea errepikatzea ez da harrizkoa, ISEk funtzio desberdinak baitauzka mendeko bi EPetan.

(96b)ko bi EPetan ere funtzio desberdinak dauzka *Sidor* ISEk, baina kasu honetan, bigarren EP ZEIN izenordainik gabe ageri da. Honek zalantzan jarriko luke, beharbada,

bigarren EP hori *ZEIN* erlatibo bat izatea; agian *BAIT-* erlatiboa dela esan dezakegu, eta ondorioz, zergatik ez kausazkoa?

(96c)n alborakuntza soilez daude metatuak bi EPak, *ZEIN* bietan ageri delarik.

3.4.2. *ZEIN* izenordain erlatiboaren deklinabidea oro har eta gure corpusean

ZEIN izenordain erlatiboaren deklinabideak garaiaren eta euskalkiaren arabera gorabeherak izan ditu historian zehar. Alberdi/García ongi azaltzen dute bilakaera hori. Hiru eredu egon direla aipatzen dute (Alberdi/García 1998):

3.4.2.1. XVI. eta XVII. mendeetako idazle klasikoaren ereduak

Lehenengo ereduak XVI. eta XVII. mendeetako idazle klasikoena da: Leizarragak, Oihenartek eta Axularrek adibidez, deklinabide mugagabea erabiltzen zuten. Garai hartatik iritsi zaizkigun formen paradigma honelako zerbait litzateke:

NOR	ZEIN
NORK	ZEINEK
NORI	ZEINI
NOREN	ZEINEN
ZEREZ	ZEINEZ/ ZEINETZAZ
ZERTAN	ZEINETAN
ZERTATIK	ZEINETARIK

Taula 8 XVI eta XVII mendeetako idazle klasikoaren ereduak

3.4.2.2. XVII. mendeko bigarren erditik XIX. mendea arte

XVII. mendeko bigarren erditik bertatik hasita, XVIII. eta XIX. mendeetan zehar deklinabide mugatua finkatzen da. Mugatuaren aldeko joeraren ondorioz, singularra eta pluralaren arteko aukera irekitzen da.

	SG.	PL.
--	-----	-----

(NOR)	ZEINA	ZEINAK
(NORK)	ZEINAK	ZEINEK
(NORI)	ZEINARI	ZEINEI
(NOREN)	ZEINAREN	ZEINEN
(NOREKIN)	ZEINAREKIN	ZEINEKIN
(NORENTZAT)	ZEINARENTZAT	ZEINENTZAT

Taula 9 XVII mendeko bigarren erdia-XIX mendea

Idazle lapurtarrek, halere, leku-denborazko kasuetarako deklinabide mugagabeari eusten diote; alegia, *zeinean*, *zeinera*, *zeineko* bezalakoak ez dira ageri haiengan.

3.4.2.3. XIX. eta XX. mendeetako eredia

XIX. mendean aurreko biak nahasten dituen hirugarren eredu bat finkatzen da, gehienbat bizkaieraz –Moguel, Añibarro, Astarloa, Uriarte–. Egile hauek singularrerako forma mugagabea hartzen dute, eta pluralerako mugatua.

	SG.	PL.
NOR	ZEIN	ZEINTZU(B)EK
NORK	ZEINEK	ZEINTZU(B)EK
NORI	ZEIN(ER)I	ZEINTZU(B)EI
NOREN	ZEINEN	ZEINTZU(B)E(E)N
NOREKIN	ZEINEGAZ	ZEINTZU(B)EKAZ
NORENTZAT	ZEINENTZAT	...
NORENGATIK	ZEINGAITIK	...
ZERTAN	ZEINETAN	ZEINTZU(B)ETAN
ZERTATIK	ZEINETARIK	ZEINTZU(B)ETATIK
ZERTARA	ZEINETARA	ZEINTZU(B)ETARA

Taula 10 XIX-XX mendeak

3.4.2.4. Gure corpuseko *ZEIN* erlatiboen deklinabide-eredua

Gaur egun izenordain hauen formen inguruko arau garbirik ez dagoen arren, badirudi bigarren ereduak duela tradizioz zabalena (XIX eta XX mendekoak). Gure corpusean behintzat eredu hori da nagusi, testu nahiz itzultzaile desberdinak gorabehera, eta beraz, tradizioz zabalduenarekin bat eginez argi eta garbi.

	SINGULARRA	PLURALA
NOR	ZEINA	ZEINAK
NORK	ZEINAK	ZEINEK
NORK	ZEINAK	ZEINEK
NORI	ZEINARI	ZEINEI
NOREN	ZEINAREN	ZEINEN
NOREKIN	ZEINAREKIN	∅
NORENGATIK	ZEINAGATIK/ ZEINARENGATIK	
NON/NORENGAN	ZEINEAN/ ZEINARENGAN	ZEINETAN
NORA	ZEINERA	ZEINETARA
NONDIK	ZEINETIK	ZEINETATIK

Taula 11 Gure corpuseko deklinabide-eredua

Corpus guztian zehar betetzen da paradigma hau, salbu zortzi perpausetan; horietan paradigma mugagabeak ordezkatzeko du mugatua. Deigarria da, halaber, zortzi salbuespen hauek liburu bakar batean gertatzen direla, hots itzultzaile bakar batek eta liburu bakar batean deklinatzen ditu *ZEIN* erlatiboak gisa horretan. Are harrigarriagoa da datu hau, jakinda corpusaren %80 berak itzulia dela eta liburu horrez gain, beste sei ere badituela itzuliak. Kronologikoki itzultzaile honek euskaraturiko lehenengo liburua denez, horrek izan lezake apika zerikusirik formen ezegonkortasun horretan.

Ondorengo adibideetan ikus daitekeenez, (97a)n *zeinek* ageri da, corpuseko beste perpausetan *zeinak* daukagun tokian; (97b)n *zeini zeinari*-ren ordezkari datiboan; inesiboan *zeinetan* eta ez *zeinean* (97c, 97d eta 97e); soziatiboan *zeinekin* eta ez *zeinarekin* (97f); azkenik, (97g-h)n dauzkagu genitibo edutezkoan *zeinen zeinaren*-en ordezkari.

(97)

a)

Lilsja narod tēmnoj lavoj, vlekomyj étoj *pesnej*, [KOTORAJA naporom zvukov, JARIOAN HERRIA ILUN LABA, ERAKARRIRIK HARK *KANTA*, [ERL. NOM. SAKATURIK HOTSEK, kazalos´, oprokidyvala pered soboj vsë]...

ITXURAZ, IRAULI PREP. ERREFL. DENA]...

‘Herria jarioan zetorren laba beltzaren antzera, *kanta* hark erakarririk, [*zeinek* (eta ez *ZEINAK*), hotsek sakaturik, itxuraz, dena *iraultzen zuen* bere aurrean]...’(AMA: 195)

b)

Kogda proxodili mimo doma beznogogo *Zosimova*, [KOTORYJ polučal s fabriki

(-EAN) IGARO PREP. ETXE HERREN *ZOSIMOVEN*, [ERL. NOM. JASO PREP. FABRIKA

za svojě uveč'e ežemesjačnoe posobie]...

PREP. BERE EZINTASUN HILEROKO SOROSPIDE]...

'Zosimov herrenaren etxe aurretik igaro zirenean, honek, [*zeini* (eta ez *ZEINAR!*) ezintasunaren kalteordain gisa fabrikak hileroko sorospidea *ematen zion*]...' (AMA: 188)

c) *ZEINETAN* ≠ *ZEINEAN*

...navsegda brosaet *mesto*, [*GDE* prošla tēmnaĵa i tjažēlaja polosa eē žizni],

... BETIKO UTZI *LEKU*, [*ERL. NON* IGARO ILUN ETA LATZ GARAI BERE (F.) BIZITZAKO],

[*GDE* načalas' drugaja, polnaja novogo gorja i radosti]...

[*ERL. NON* HASIA ZEN BESTE BAT, JOSITAKO BERRI ZORITXAR ETA ALAITASUN]...

'...sentitu zuen betiko uzten zuela *leku* hura, [*ZEINETAN* (eta ez *ZEINEAN*) bere bizitzako garai ilun eta latz bat *igaro* eta zoritxar eta alaitasun berriz jositako beste bat *hasia baitzen*].'

(AMA: 218)

d)

Ej vspominalos' detstvo i ta xorošaja *radost'*, [*s KOTOROJ* ona, BERA (F.) GOGORATU HAURTZAROA ETA HURA ONA *POZTASUN*, [*PREP. ERL. INSTR.* BERA (F.), byvalo, xodila iz sela na prazdnik v dal'nij monastyr' k čudotvornoj ikone].

(OHI), JOAN PREP. HERRITIK PREP. JAIEGUN PREP. URRUNEKO MONASTERIO PREP. MIRARIGILE IKONO].

'Haurtzaroa gogoratzen zuen, eta zein pozik joan ohi zen jaiegunetan herritik urruneko *monasterio* batera, [*ZEINETAN* (eta ez *ZEINEAN*) ikono mirarigilea *baitzegoen*].' (AMA: 237)

e)

Kak by okutyvaja ix nepronicaemym *oblakom*, [*skvoz' KOTOROE*

ANTZERA BILTZEN HAIEK URRAEZIN *HODEI*, [*PREP. ERL. AKUS.*

ne dostigalo do nix ničto izvne].

EZ IRITSI PREP. HAIEK EZER KANPOKO].

'Bere barnean biltzen zituen *hodei* urraezin baten antzera, [*zeinetan zehar* (eta ez *ZEINEAN ZEHAR*) ez *baitzen* haiengana kanpoko ezer *iristen*].'

(AMA: 376)

f)

...otražaja v svoix slovox mnenie *policii*, [*s KOTOROJU* ona žila družno,

... BILDUZ PREP. BERE HITZAK IRITZIA *POLIZIA*, [*PREP. ERL. INSTR.* BERA (F.) BIZI ADISKIDETSU(KI),

kak so vsemi ljud'mi]:

BEZALA PREP. GUZTIAK JENDE]:

'Bere hitzetan *poliziaren* iritzia bilduz, [*ZEINEKIN* (eta ez *ZEINAREKIN*), jende guztiarekin bezala, harreman adiskidetsuak *zituen*].' (AMA: 183)

g)

... o *boge*, [*imenen KOTOROGO* xotjat zastavit' vseĵ ljudej

...PREP. *JAINKO*, [*IZEN ERL. GEN.* NAHI DUTE -ARAZI GUZTIA JENDEA

podčinit'sja zloj vole nemnogix]...

MAKURTU GAIZTO GURARI BANAKA BATZUEN]...

'...mehatxu egiteko erabiltzen duten *beste horretaz*, [ZEINEN (eta ez ZEINAREN) *izenean* jende guztia banaka batzuen gurari gaiztoetara *makurrarazi nahi duten*] *jainko horretaz ari naiz.*'

(AMA: 77)

h)

...udivljala ix vera, [*glubinu KOTOROJ* ona čustvovala vsë jasnee].

...MIRETSI HAIEN FEDEA, [*MUINA ERL. GEN. BERAK (F.) SENTITU GERO ETA ARGIAGO*].

'...miresten zuen haien *fedea*, [ZEINEN (eta ez ZEINAREN) *sakoneko muina* gero eta argiago *baitezekusan.*]'

(AMA: 141)

Laburtuz, irizpide-batasun erabatekorik ez dagoen arren, badirudi gure corpuseko zatirik handienez badagoela eredu bat, nahiko barneratua dagoena gaur egun euskaraz idazteko edo maila jasoan hitz egiteko ardura dutenengan.

3.4.3. ZEIN erlatiboen erlatibatze-eskala

ZEIN erlatiboetan ISEk, partitiboa ezik, edozein kasu marka har dezake, izenordain erlatibo bat erabiltzeak eta aposatua izateak asko errazten baitu prozesamendua. Erlatibo aruntek alor honetan dituzten zailtasunen aringarri perfektua, beraz.

ZEIN erlatiboek ez dute arazorik inesibo bizigabeak (98a) inesibo bizidunak (98b), ablatiboak (98c), adlatiboak (98d), soziatiboak (98e), motibatiboak (98f), edutezko genitiboak (98g) nahiz genitibo lekuzkoak (98h) erlatibatzeko.

(98)

a)

Nomer ščëta, [*KUDA* vy možete perevesti vašu sponsorskuju pomošč]

ZENBAKIA KONTU, [*ERL. NORA ZUEK DEZAKEZUE EMAN ZUEN BABESLE- LAGUNTZA*]

'...kontu *zenbakia*, [*zeinean* babesle-laguntza *eman baitezakezue*]'

(PIK: 223)

b)

Net v mire človeka, [*nad KOTORYM* prošedšee priobretalo by

EZ DAGO PREP. MUNDUAN GIZABANAKORIK, [*PREP. ERL. INSTR. IRAGANAK LORTU*]

takuju vlast', kak nado mnoj].

HORRELAKO AHALMENA, BEZALA PREP. NIRE].

'Ez da munduan beste *gizabanakorik* [zeinarengan iraganak nire gainean bezain ahalmen handia *duenik*].' (GGH: 131)

c)

Položenija trogatel'nye, [iz KOTORYX vsě-taki xočetsja poskoree vyjtí]
EGOERA HUNKIGARRIAK, [PREP. ERL. GEN. (-) NAHI IZATEN DA LEHENBAILEHEN ATERA]
'egoera hunkigarriak [zeinetatik, hala ere, lehenbailehen atera nahi izaten baita].' (AIS: 41)

d)

O stoličnyx aristokratičeskix gostinyx, [KUDA ix ne puskajut].
PREP. HIRIBURU- ARISTOKRAZIA- ARETOAK, [ERL. NORA HAI EK EZ SARTZEN UTZI]
'hiriburuko aristokraziaren aretoak, [zeinetara ez baitiete sartzen uzten].' (GGH: 115)

e)

Byvšij *povožočnyj* Revtribunala, [s KOTORYM ne svedeny byli u menja
(OHI) KOTXE-GIDARI AUZITEGIKO, [PREP. ERL. INSTR. EZ GARBITUAK NEUZKAN
davnje ščety]...
ASPAIDIKO GORABEHERAK]...

'Iraultza-Auzitegiko *kotxe-gidari* ohia, [zeinarekin garbitzeke bainituen aspaldiko gorabehera batzuk]...' (ZTG: 175)

f)

... voznenavidel etogo poslednego mužika ...[dlja KOTOROGO ja dolžen iz koži lezt'].
...GORROTO HARTU HARI AZKEN MUŽIK ... [PREP. ERL. GEN. NIK BEHAR PREP. AZAL ATERA]
'...nik gorroto hartu zioat azken *mujik* horri, ... [zeinarengatik zazpi ahalak egin behar baititu]'.
(AIS: 181)

g)

Eščë odnoj ženščine, [ČEJ golos zvučal dlja nego]
BESTE BAT EMAKUME, [ERL. NOM. AHOTSA DURUNDI EGIN PREP. BERA (M.)]
'beste emakume bati, [zeinaren ahotsak diputatuarentzat propio egiten baitzuen durundi]'
(PIK: 15)

h)

Potom byli pokazany tureckie kinžaly, [na odnom iz KOTORYX po ošibke
GERO ZIREN ERAKUTSI TURKIAR SASTAKAIAK, [PREP. BATEAN PREP. ERL. GEN. PREP. AKATSA
bylo vyrezano : M.S.S.].
ZEGOEN ZIZELATUA: M.S.S.].

'Gero Turkiako *sastakaiak* ikusi zituzten, [zeinetako batean "Saveli Sibiriakov eskulangilea"
zizelatua zuen –tronpaturik– norbaitek].' (ARH: 115)

3.4.4. *NON* galdetzailearekin ordezkatzea

Leku-denborazko kasuetan *zeinean/zeinetan* erabili ordez, *NON* galde-aditzondotik eratorritako izenordain erlatiboa ere erabil daiteke (99a-b).

(99)

a)

Na *gumne*, [*GDE* postojanno razbojničali sosedskie kozy]...

PREP. *LARRAIN*, [*ERL. NON* ETENGABE EZKUTUAN SARTU AUZOEN AHUNTZAK]...

'...bere *larrainean* [*non* etengabe *sartzen baitziren* auzoen ahuntzak ezkutuan]' (DII: 140)

b)

... i žit' pri etom v *strane*, [*GDE* letom doxodit do pljus soroka]...

...ETA BIZI HALERE PREP. *HERRIAN*, [*ERL. NON* UDAN HELDU PREP. PLUS BERROGEI]...

'eta *herri honetan* bizi behar izateak, [*non* udako tenperatura berrogei gradutik gora (sic) *heltzen den*]...' (PIK: 82)

Badirudi Euskaltzaindiak *NORA* eta *NONDIK* adberbioak izenordain erlatibo moduan erabiltzea onartzen duela, nahiz eta hiztun askorentzat nahiko arraroak diren.

EGLU-k ematen du horrelako adibide bat *NONDIK* adberbioarekin (100). Horren zuzentasunaren ingurukorik esaten ez duenez, pentsatu beharko dugu zuzentzat duela.

(100)

'...bere ama Maria gelditu zela doncella oso eder mellarik gabe, nola kristalebat, [*nondik* pasatzen den iruzkiaren argia]' (EGLU-V 1999: 229)

Zuzena dela onartuta ere, garbi dago oso gutxitan erabiltzen direla. Gure corpusean hiru adibide soilik topatu ditugu, bi *NORA*-rekin (101a-b) eta bat *NONDIK*-ekin (101c).

(101)

a)

Odna iz nix, *ta*, [*KUDA*, on privël našix prijatelej], nazyvalas' kabinetom.

BAT(F.) PREP. HAIETAKO *HURA*, [*ERL. NORA* BERAK ERAMAN GURE LAGUNAK], DEITZEN ZEN LANGELA.

'Haietako bati, [*NORA eraman baitzuten* gure bi lagunak], langela deitzen zion.' (AIS: 162)

b)

Otpравilis domoj, v *Mar'ino*, [*KUDA* i pribyli blagopolučno

ABIATU ETXERA, PREP. *MARINO*, [*ERL. NORA* IRITSI OKERRIK GABE

na sledujuščij den´ večerom]

PREP. HURRENGO EGUN ARRATSALDE]

‘etxera abiatu ziren, Marinora, [NORA biharamun arratsaldean *iritsi baitziren* ezeren okerrik gabe]’

(AIS: 193)

c)

Vozvratilsja on k sebe v *gostinicu*, [*iz KOTOROJ* bylo vyšel

ITZULI BERA (M.) PREP. ERREFL. PREP. OSTATURA, [PREP. ERL. GEN. ZEN ATEREA

v takom xorošem raspoloženíi duxa]...

PREP. HAIN ONEKO ALDARTE (ARIMAREN)]...

‘...itzuli zen *ostatura*, [NONDIK hain aldarte oneko *atera baitzen*]’ (ARH: 309)

3.4.5. Aurrekariaren kokapena ZEIN erlatiboetan

Aurrekariaren elipsia ezinezkoa da ZEIN erlatiboetan, eta aposatuak izaki, aurrekariaren eskuinetara agertzen dira. Askotan ondoan, baina batzuetan aparte.

Hurbileko aposizioan, normalean, aurrekariaren atzetik joaten dira, eta bereizita agertzen badira, beste izan sintagma batean sartuta dagoelako (102a) edo haren ondotik aposizio bat datorrelako (102b) izan ohi da.

(102)

a)

...osobenno posle zvonka *glavnogo*, [*KOTORYJ* vežljivo toropil ego]...

...BATEZ ERE PREP. DEIA BURUAREN, [ERL. NOM. ADEITSU PRESARAZI BERA (M.)...

‘batez ere *buruaren* telefono-deiaren ondoren, [*zeinak* adeitasunez *presarazi baitzuen*.]’

(PIK: 133)

b)

On sklonil i drugogo *činovnika*, svoego *tovarišča*, [*KOTORYJ* ne ustojal

BERAK (M.) LERRATU ERE BESTE FUNTZIONARIO, (BERE) LANKIDEA, [ERL. NOM. EZ GAI IZAN

protiv soblazna],

PREP. TENTAZIOA],

‘bere aldera lerratu zuen beste *funtzionario* bat —*bere lankidea*—, [*zeina*, zaharra izanik ere, *ez baitzen gai izan* tentazioari *gogor egiteko*.]’ (ARH: 344)

ZEIN erlatiboak gibeleratuta ager daitezke (103a-b). Aditza aurrekariaren eta mendeko EPren artean dago.

(103)

a)

Govorili o *socialistax*, [KOTORYE razbrasyvajut napisannye sinimi černilami listki]
 HITZ EGIN PREP. SOZIALISTAK, [ERL. NOM. ZABALDU IDATZITAKO URDINEZ TINTAZ ORRIAK]
 ‘Auzoan *sozialistei* buruz hitz egiten zuten, [zeinek tinta urdinez idatzitako orriak *zabaltzen baitzituzten*].’

(AMA: 61)

b)

Čužoe *zlo*, [KOTOROMU Viktor za trista dolarov v mesjac
 ARROTZA GAITZA, [ERL. DAT. VIKTORREK PREP. HIRUEHUN DOLAR PREP. HILEKO
 pridaval filosofskij smysl].
 EMATEN ZION FILOSOFIKO ZENTZUA]
 ‘Gaitz arrotza zen, [zeinari Viktorrek *ematen baitzion*, hiruehun dolaren truke hileko, zentzu filosofiko halako bat].’

(PIK: 249)

3.4.6. ZEIN erlatiboen balio semantikoa

ZEIN erlatiboen balio semantikoari buruz asko eztabaidatu izan da. Batzuek diote interpretazio posible bakarra ez-murrizgarria dela. Beste zenbaiten iritziz interpretazio murrizgarria ere izan dezake.

Edonola ere, garbi dago balio ez-murrizgarria erraz hartzen dutela *ZEIN* erlatiboek, horixe izaten baita sarritan beraien agerpena errazten duen ezaugarria: oinarrizko erlatibakuntza-estrategiarekin erlatibatzeke zailak diren aurrekari ez-murrizgarriak erlatibatzeke ahalmena.

Orokorrean zalantza asko daude, baina badirudi kasu marka adverbial batekin edota postposizio batekin erabiltzen denean interpretazio murrizgarria ere izan dezakeela. Halaber, lehenago aipatu dugun moduan, interpretazio semantikoaren menpe egoteak berarekin dakarren anbiguotasuna dela medio, batzuetan ez da erraza aurrekari batek balio murrizgarria edo ez-murrizgarria duen zehaztea.

3.5. BAIT-erlatiboak

BAIT-erlatiboak aski bereziak dira. XX. mendean *ZEIN* erlatiboek izandako ospe-galerari egotzi izan zaio hauen erabilpenaren areagotzea. Ekialdeko euskalkietan du

jatorria, eta erlatibozko interpretazioaz gain, beste perpaus mota batzuegandik –bereziki kausazkoegandik– bereizten dituen marra oso fina da, zenbaitentzat finegia.

Erlatibo mota honetako menderagailu bakarra *BAIT-* aurrizkia da, eta ez dauka ageriko izenordainik. Halere, askotan erresuntiboekin batera erabili ohi direnez (104a), esan daiteke erresuntibo hauek izenordain erlatiboen erreferentzia-funtzioa betetzen dutela nolabait. Haatik, erresuntiborik gabe ere ager daitezke (104b).

(104)

a)

... éto *Il'í Seměnoviča*, [*KOTORYJ* budet zanimat'sja vašim pitomcem]...
 ...HAU (DA) *IL'Í SEMĚNOVIČA*, [*ERL. NOM.* ARDURATUKO DA ZURE APOILOAZ]...
 '...*Ilia Semionovixena* da, [*HURAXE arduratuko baita zure apopiloaz*].'

(PIK: 231)

b)

A *baba*, [*KOTORAJA* prihodila žalovat'sja, čto eë " na kolotiki podnjalo"]...
 ETA *EMAKUMEA*, [*ERL. NOM.* ETORRI KEXUKA, (-ELA) BERA (F.) "PREP. ZITADA JAUZIKA"]...
 'Eta *emakumeak*, [«jauzikako min-zitadak» zituela esanez *etorria baitzen* kexuka]'

(AIS: 258)

Erresuntiboak ez dauka zertan erakuslea izanik, beste izenordain bat izan daiteke (*denak, batzuk...*). Halaber, leku kasuetan forma deklinatuaren ordez izenordain deiktikoaren forma berezia erabil daiteke erresuntibo gisa (*han, bertan...*).

3.5.1. Erlatibatze-eskala *BAIT-* erlatiboetan

Erlatibo mota honetan ISEk edozein kasu marka har dezake: kasu gramatikala, adberbiala nahiz genitiboa. Noski, erresuntibo bat agertuz gero, guztiz gardena gertatzen da interpretazioa eta, alderantziz, erresuntiborik gabe anbiguotasuna areagotu egiten da.

BAIT- erlatiboak erresuntiboekin edo haiek gabe erabiltzea erlatibatze- eskalaren araberakoa da: prozesamendurako zailtasuna zenbat eta handiagoa, orduan eta handiagoa suertatuko da erresuntiboen beharra ere. Ondorioz, erlatibatze- eskalan beherantz goazen neurrian, espero izatekoa da erresuntibo gehiago agertzea, nahiz eta horrek ez duen esan nahi kasu gramatikaletan agertu ezin direnik.

Gure corpuseko datuek erresuntiboaren eta erlatibatze- eskalaren arteko harreman zuzen hori berresten dute. Euskal ordainak *BAIT-* erlatiboak diren kasuetan beraien jatorrizko errusierazko baliokidea hartzen badugu, ikusten da errusieraz zehar-kasu bat

daukatenen %76 erresuntiboekin erlatibatzen direla (105a-c). Genitiboetan datua %100era iristen da (105d). ISE subjektua (105e) edo objektu zuzena (105f) denean, aldiz, *BAIT-* moduko euskal ordainen %10ean bakarrik erabiltzen dira erresuntiboak.

(105)

a)

...otdërgivaetsja rozovjy *fler*, [skvoz *KOTORYJ* on smotrel na dela i
...URRATU ARROSA- *ERREZEL*, [PREP. ERL. AKUS. BERAK (M.) BEGIRATU PREP. EGINTZAK ETA
čustva čelovečeskie].

SENTIMENDUAK GIZA-].

‘...*errezel* arrosa urratzen zaionean, [*BERTATIK ikusten baitzuten* gizakien egintzak eta sentimenduak]’. (GGH: 90)

b)

... v storonu zelënoj *zanesi*, [čerez *KOTORUJU* Viktor vošël v kazino
... PREP. ALDEA BERDEA *ERREZEL*, [PREP. ERL. AKUS. VIKTOR SARTU PREP. KASINO
prošloj noč’ju].

AURREKO GAUEAN].

‘...*errezel* berdea, [*HANDIXE sartua baitzen* Viktor kasinora aurreko gauean].’ (PIK: 295)

c)

...pokinuv *ministerstvo* udelov, [*KUDA* po protekcii otec ego zapisal]...
...UTZIRIK *MINISTERIO* ONDARE-, [ERL. NORA PREP. ITZAL AITAREN BERA (M.) SARTU]...

‘Ondare Ministerioa utzirik —[aitak, bere itzalaz baliaturik, HAN sartzea *lortu baitzuen*—]’

(AIS: 18)

d)

... k potencialnym *sponsoram*, [*bez deneg* *KOTORYX* nevozmožno bylo otpravit’
...PREP. BALIZKO *BABESLEAK*, [PREP. DIRU ERL. GEN. EZINEZKOA ZEN BIDALTZEA
ukrainskix učënyx v Antarktidu].

UKRAINAR ZIENTZIALARIAK PREP. ANTARTIKA].

‘...laguntza eskatzen zien balizko *babesleei*, [*HAIEN* diru ekarririk gabe ez baitzegoen zientzialari ukrainarrak Antartikara *bidaltzerik*].’ (PIK: 189)

e)

Skazal on nakonec *kapitanu*, [*KOTORYJ* xotel vyrvat’ pistolët moj
ESAN BERAK (M.) AZKENIK *KAPITAINA*, [ERL. NOM. NAHI ZUEN KENDU PISTOLA NIREA

iz ruk doktora...].

PREP. ESKUAK DOKTOREAREN.']

'esan zion azkenik *kapitainari*, [*HONEK* nire pistola eskutik *kendu nahi baitzion* doktoareari-.]

(GGH: 213)

f)

... čtoby ne zaključalos' èto v značitel'noj summe, čtoby ne trogat' uže

... (-T(Z)EKO) EZ ESAN NAHI HORI PREP. ESANGURATSU KOPURU, (-T(Z)EKO) EZ UKITU JADA

tex *deneg*, [*KOTORYX* položeno bylo ne trogat'];

HAIEK SOSAK, [*ERL. GEN. ERABAKIA ZUEN EZ UKITZEA*];

'...laguntzeak ez bazuen esan nahi *diru askorik* ematea edo bere aurrezkiak ukitzea, [*DIRU HORI* ez ukitzeko erabaki sendoa *hartua baitzuen*];' (ARH:332)

Genitiboen lagina, ohi bezala, ez da oso adierazgarria, guztira bi perpaus direlako.

Zehar-kasuen kopurua bai da esanguratsua, errusieraz zehar-kasu bat daukaten 51 perpausetatik 39k behartzen baitute itzultzailea erresuntibo batez baliatzera.

Subjektuetan, alderantziz, oso garbia da erresuntiborik gabe agertzeko joera, 84 perpausetatik 76tan gertatzen baita hori.

Euskal ordaina *BAIT-* erlatiboa denean, errusieraz ISEk objektu zuzenaren funtzioa izatea oso ohikoa ez bada ere, 19 perpausetatik 17tan erresuntiborik ez izatea nahiko adierazgarria da.

3.5.2. *BAIT-* erlatiboak eta kausazko perpausak

Erlatibo mota honen eta *BAIT-* aurrizkidun kausazko perpausen arteko anbigutasuna garbia da, maiz interpretazioaren baitan dagoelako.

Egia esan, gure corpusean *BAIT-* aurrizkiarekin osatutako perpaus gehien-gehienak interpreta daitezke kausazko bezala, baina STan denak erlatibozkoak direnez, aipagarriak eta erlatibo aposatuen artean sartzeko modukoak iruditu zaizkigu, *BAIT-* aurrizkiaren bidez osatutako erlatiboak direla hobetsiz, beraien balizko kausazko izaeraren kaltetan. Aipatutako anbigotasunaren adibidetzat har dezakegu (106)ko perpausa.

(106)

... k *glinišču*, [*KUDA* svalivaetsja doxlaja skotina], svernuli kučkoj.

...PREP. *HARROBI*, [*ERL. NORA* AMILARAZI HILAK ABEREA], SAIHESTU TRUMILKA.

‘...trumilka saihestu ziren *harrobirantz*, [*BERTATIK amilarazten baitzituzten* abere hilak].’

(DII: 41)

Euskarazko testuan uler daiteke harrobi hartarantz saihestu zirela, hildako animalia-aren bat amiltzeko beharra zutelako. Jatorrizkoak ez du interpretazio horretarako biderik ematen. Horrelako perpaus askotan interpretazio semantikoaren eta testuinguruaren araberakoa izango da kausazkoa edo erlatibozkoa den esatea.

(107)ko lau *BAIT-* erlatiboen errusierazko baliokideak erlatibatzaile desberdin banarekin osatuak dira: (107a) *kuda* lekuzko aditzondoarekin eta beste hirurak, hurrenez hurren, *čto*₂ (107b), *kakoj* (107c) eta *kotoryj* (107d) izenordainekin. Guztiak errusieraz beste interpretaziorik onartzen ez duten EPak dira. Euskarazko ordainetan, aldiz, anbiguitasun bat dago, eta jatorrizko errusierazko esaldia ezagutu ezean edo beste testuingururik ez badaukagu, kausazko bezala interpretatzea zilegi da.

(107)

a)

...pokinuv *ministerstvo* udelov, [*KUDA* po protekcii otec ego zapisal]...

...UTZIRIK *MINISTERIO* ONDARE-, [ERL. *NORA* PREP. ITZAL AITAREN BERA (M.) SARTU]...

‘Ondare Ministerioa utzirik —[aitak, bere itzalaz baliaturik, HAN sartzea *lortu baitzuen*—]’

(AIS: 18)

b)

Podošli k *korčme* Šmerelja, [*ČTO* stoit na Rovnenskom xosse]...

HURBILDU PREP. *OSTATURA* ŠMEREL´.EN, [ERL. *NOM.* DAGO PREP. ROVNO- ERREPIDEA]...

‘Shmerelen ostatura hurbildu ziren, [Rovnorako errepidean *baitago*]...’ (ZTG: 32)

c)

... *prostoty*, [s *KAKOJ* my rešali k tomu vremeni vse mirovye voprosy]

...SINPLEKERIA, [PREP. ERL. *INSTR.* GUK KONPONDU PREP. HARTAN GARAI GUZTIAK MUNDU- AUZIAK]

‘...sinplekeriarik, [garai hartan HORRELA *konpontzen baitzenituen* munduko auzi guztiak].’

(ZTG: 193)

d)

... i pročimi *sladostjami*, [*KOTORYE* on pokupal teper´ v bolšix količestvax]

...ETA BESTELAKO *LITXARRERAK*, [ERL. *AKUS.* BERAK (M.) EROSI ORAIN PREP. HANDI KOPURU]

‘...eta bestelako *litxarreriekin*, [orain kopuru handietan *erosten baitzizkion*].’ (PIK: 133)

3.6. Bestelako erlatibozko perpausak

Orain arte izen ardatzaren ezkerretara hedatzen diren erlatiboak (arruntak eta jokatugabeak) eta erlatibo aposatuak (arrunt aposatuak, *ZEIN/NON* erlatiboak eta *BAIT-*

erlatiboak) aztertu ditugu, baina hauez gain, badira beste hiru mota ere: korrelaziozkoak, aurrekaririk gabeko izenordaindunak eta aurrekarizat perpaus oso bat dutenak.

Korrelaziozkoen kopurua sinbolikoa da (corpusa osatzen duten 2402 perpausetatik 2 besterik ez) eta beste bien arrastorik ere ez dugu topatu; hortaz, laburki aipatzera mugatuko gara.

3.6.1. Korrelaziozko erlatibozko perpausak

Erlatibo jokatugabeak aztertu ditugunean ikusi dugu haien azpi-mota bat korrelaziozkoak zirela. Bada, han esandakoek berdin-berdin balioko digute korrelaziozko erlatiboak ulertzeko. Korrelaziozko jokatugabeekiko desberdintasun bakarra aditza jokatua izan behar dutela da.

Gure corpus guztian bi dira korrelaziozko erlatibotzat jo ditzakegun perpaus bakarrak (108a-b). (108a)n korrelaziozko harreman garbia daukagu perpaus nagusi eta mendekoaren artean. (108b) semantikoki korrelaziozkotzat har badaiteke ere, agian harreman hori erlatibozkoa den eztabaidagarriagoa izan liteke.

(108)

a)

... i klal *pervoe*, [*ČTO* popadalos' pod ruku]:
 ...ETA HELDU *LEHENENGOA*, [ERL. NOM. EDUKI PREP. ESKUA]
 '...[irispidean *zer* eduki], *horrix*e heltzen zion.'

(ARH: 116)

b)

Tot, [*v Č'EJ* golove rodilos' bol'she idej], *tot* bolšé drugix dejstvuet.
HURA, [PREP. ERL. PREP. BURUAN SORTU GEHIAGO IDEIA], HORREK BIZIAGO BESTEEK (BAINO) EKIN.
 'buruan *zenbat* eta ideia gehiago sortu, *orduan* eta eginahal biziagoz ekiten dio gizakiak jardunari;'

(GGH: 160)

3.6.2. Aurrekaririk gabeko izenordaina dutenak

Aurrekaririk gabeko izenordaindun deiturikoak, "*Erranen diot nori ere erranen baituzu*" bezalakoak (EGLU-V 1999:175), ez dira ohikoak, Ekialdeko hizkera batzuetan ez bada. Gure corpusean ere horrelako adibiderik ez dagoenez, ez gara aipamen labur honetatik harago joango.

3.6.3. Aurrekaria perpaus oso bat denean

Errusieraz osa daitezke, normalean *čto*₁-en bidez, baina euskaraz beste baliabide batzuen alde egitea da ohikoena.

ZEIN eta *BAIT*- erlatiboekin erraz osatzen dira aurreko esaldi bat erreferentziazat daukaten perpausak, baina eztabaidagarria da euskaraz gramatikalak edo kalkoak diren.

Erlatibo arrunt aposatuekin teoriaran osa daitezke (109)ren modukoak, baina hiztun askorentzat ez dira oso onargarriak. Ardatzaren ezkerretarako erlatibo arrunt batekin ematea, aldiz, ia ezinezkoa da.

(109)

Gaur euria egingo du; berez, [niretzat arazo bat *ez dena*].

Corpusa osatzean erabaki bat hartu genuen: errusierazko horrelako perpausak kanpoan uztea; euskarazko ordainak beti beste baliabide mota batzuen bidez ematea espero genuenez, distortsioak eragin zitzakeelako, eta corpusaren neurria beharrik gabe ez puzteko. (110)en, adibidez, *BAIT*-erlatibo batekin osatua dago euskal ordaina, horrelako perpausak euskaratzeko baliabiderik egokienetakoa ziurrenik.

(110)

... pribavil Nikolaj Petrovič, potiraja lob i brovi rukoju, [*ČTO* u nego
... ERANTSI NIKOLAJ PETROVIČEK, IGURTZIZ BEKOKIA ETA BEKAINAK ESQUAZ, [*ERL.NOM. PREP. BERA*
vsegda služilo priznakom vnutrennego smuščenija]...

BETI SALATU (SEINALE) BARRU- URDURITASUNA]...

‘...erantsi zuen Nikolai Petrovitxek, eskuaz bekokia eta bekainak igurtziz, // keinu horrek barruko urduritasuna [*salatu ohi baitzuen* berarengan]...’

(AIS: 27)

IV. KAPITULUA: CORPUSEKO EMAITZEN ANALISIA

1995etik 2009ra arte errusieratik zuzenean euskaraturiko literatura-testu guztiak hartu eta errusierazko testuetan topatutako erlatiboak perpaus guztiak beraien euskal ordainekin lerrokatu ditugu, literatura-corpus paralelo bat osatuz.

Lerrokatutako perpausak eta beraien euskal ordainak gure ikerketarako erabilgarri izan daitezten, ordea, bi sailkapen mota burutu ditugu.

1) Lehendabiziko fase batean sailkapen orokor bat burutu dugu, euskal ordainak erlatiboak edo ez-erlatiboak diren zehazteko.

a) Ordain erlatiboetan erlatibakuntza-estrategien banaketa nolakoa den aztertuko dugu; alegia, zenbat EP agertzen diren izen ardatzaren ezkerretara eta zenbat eskuinetara (aposatuta).

b) Ordain ez-erlatiboen izaera sistematizatzen ere saiaturiko gara; zenbat mota dauden eta zein den bakoitzaren maiztasuna.

2) Bigarren fase batean, errusierazko perpausari zenbait irizpide –edo irizpide-multz– aplikatuta, hizkuntza-sistemak eta itzultzaileen estiloak itzulpen-prozesuan izan dezaketen eragina zehazten eta bata bestearekin kontrajartzen saiaturiko gara.

a) Hizkuntza-sistemaren eragina neurtzeko bi irizpide finkatu ditugu: ISEren posizio sintaktikoaren arabera, eta errusierazko erlatibakuntza-baliabide morfosintaktikoei dagokiena.

b) Azkenik, itzultzaileen estiloa zehaztu ahal izateko, hauetako bakoitzak itzultitako perpausak hartu eta aurretik aipatutako sailkapen guztiak errepikatu beharko ditugu, baina oraingoan itzultzaileen jardunaren arabera banatuta: itzultzaile bakoitzak zenbat ordain erlatibo eta ez-erlatibo osatzen dituen; ordain erlatiboetatik zenbat diren ardatzaren ezkerretarakoak eta zenbat eskuinetarakoak; zein ordain ez-erlatibo erabiltzen dituzten eta nolako maiztasunarekin; ISEren posizio sintaktiko edota baliabide morfosintaktiko berdinei modu berean erantzuten ote dieten edo ez...

Laburtuz, esan dezakegu sailkapen orokorrak corpora osatzen duten testuetan zer gertatzen den esango digula, eta hizkuntza-sistemaren nahiz itzultzaileen arabera sailkapenek, aldiz, gertatzen den horren zergatiak azalerrazten lagunduko digutela.

1. CORPUSEKO PERPAUSEN SAILKAPEN OROKORRA

Gure corpora 2402 errusierazko perpaus erlatibok eta hauen euskarazko ordainek osatzen dute, eta berau osatzeko erabili dugun moduaren ondorioz, izaera asimetrikoa dauka: errusierazko perpaus guztiak erlatibozkoak dira –horixe baitzen gure corpusean sartzeko bete behar zuten nahitaezko baldintza–, baina beraien euskal ordainak erlatiboak edo ez-erlatiboak izan daitezke. Zehazki, errusierazko 2402 perpausetatik 1639tan (corpus guztiaren %68) erlatibakuntza mantentzen da, eta gainontzeko 763etan (%32) erlatibakuntzaren ezabaketa gertatzen da.

Argitu beharreko kontuetako bat da errusierazko erlatiboen euskal ordainen bi heren erlatiboen bidez euskaratzea asko edo gutxi ote den, eta beste horrenbeste esan dezakegu heren batek erlatibozko izaera galtzeari buruz.

Errusierazko erlatibo bat euskaraz ere derrigorrez erlatibo batekin eman behar dela esan ezin dugun arren, logikoena horixe litzateke, eta gure corpuseko datuek diote joera nagusia ere erlatibakuntzaren mantentzea dela. Haatik, perpaus guztien heren batean erlatibakuntza ezabatzea ere esanguratsua da; gure ikerketarako erlatibakuntzaren mantentzea baino are esanguratsuagoa.

Horrez gain, badakigu euskarazko erlatiboak ez direla beti berdinak –ezta errusierazkoak ere–, eta euskal ordain erlatiboen izaerak ondorio desberdinetara eraman gaitzake. Adibidez, euskal ordainean mendeko EP ardatzaren ezkerretara edo eskuinetara agertzea ezin dugu berdin interpretatu.

Halaber, pentsa dezakegu euskal ordain ez-erlatibo guztiak ere ez direla berdinak, eta beharbada bat edo bestea agertzeak ere ondorio desberdinak izan ditzakeela gure ikerketan.

Galdera horiei erantzun ahal izateko, ordain erlatiboak eta ez-erlatiboak xehetasun handiagoz aztertu beharko ditugu; hots, itzultzaileek gure corpusean erlatibakuntza mantentzeko eta ezabatzeko erabili dituzten modu desberdinak zeintzuk diren eta zein proportziotan agertzen diren zehaztu beharko dugu.

1.1. Ordain erlatiboak

III. kapituluko 3. puntuan luze eta zabal deskribatu ditugu euskarak eskura dauzkan erlatibakuntza-estrategia desberdinak. Bada, gure corpusean erlatibo mota nagusi guztiak daude ordezkatuak: izen ardatzaren ezkerretara hedatzen direnak (arruntak eta jokatu-gabeak), eta izen ardatzaren eskuinetara aposatuta agertzen direnak (-en arrunt aposatuak, *ZEIN/NON* eta *BAIT*-erlatiboak).


Ezkerretara hedatzen diren euskal ordainen muina *-(e)n* atzizkidun erlatibo arruntek osatzen dute (*[idatzi dudan] gutuna* bezalakoek), eta hauengan finkatuko dugu batez ere gure arreta. Erlatibo jokatugabeak ere (*idatzitako gutuna*-ren modukoak) izen ardatzaren ezkerretara agertu ohi direnez, erlatibo arruntekin batera sailkatu ditugu, prozesamenduari dagokionez elkarrengandik hurbilen daudenak direlako.

Erlatibo aposatuak, nagusiki, hiru motatakoak dira euskaraz: *ARRUNT* aposatuak, *ZEIN/NON* eta *BAIT*- erlatiboak.

12. grafikoan ikusten da 1639 euskal ordain erlatiboetatik 1073 (%66) erlatibo arruntak direla eta 86 (%5) jokatugabeak. Ondorioz, esan dezakegu ardatzaren ezkerretara hedatzen diren erlatiboen bidez euskaraturiko perpausak 1159 direla (euskal ordain erlatibo guztien %71).

Gainontzeko 480 ordain erlatiboak (ordain erlatibo guztien %29) erlatibo aposatuen bidez osatuak daude, maiztasun handienetik txikienera: *ZEIN* erlatiboak 167 perpaus (ordain erlatibo guztien %10), *BAIT*- erlatiboak 160 (%10), *ARRUNT* aposatuak 93 (%6) eta *NON* erlatiboak 58 (%3).

Horrez gain, badira korrelazioz emaniko bi perpaus, baina han edo hemen aipamen laburren bat izan ezik, ez diegu arreta gehiagorik eskainiko.



Grafikoa 12 Euskal ordain erlatiboen banaketa corpusean

Bistakoa da euskarazko oinarritzko erlatibakuntza-estrategia dela errusierazko perpaus erlatiboak euskaratzeko modurik ohikoena, hamar euskal ordain erlatibotatik ia zazpitan gertatzen baita hau (erlatibo jokatugabeak batuz gero, ozta-ozta zazpiren

gainetik). Beraz, errusierazko erlatiboak euskaratzeko orduan ere oinarrizko erlatibakuntza-estrategia dela ondoriozta dezakegu.

Proporzio hori esanguratsua den arren, ordain erlatiboen gainerako %34 erlatibo aposaturen baten bidez osatua izatea ez da baztertzeko moduko datua; alderantziz, guri gehien interesatzen zaiguna da, horixe baita gure ikerketaren helburu nagusietako bat: zerk behartzen du itzultzailea oinarrizko erlatibakuntza-estrategiatik aldentzera?

Lehenago aipatu dugun bezala, emaitza horiek oraindik orokorregiak direnez, datuak fintzen eta irizpide desberdinen arabera sailkatzen jarraitu beharko dugu, baina lehendabiziko hurbiltze honetatik zenbait ondorio behintzat atera ditzakegu: errusierazko perpaus guztien %68k euskal ordain erlatibo bat dauka, eta euskal ordain erlatibo horien %71 ardatzaren ezkerretara hedatzen dira.

Halaber, erlatibo aposatuek, gutxiengoa izanik ere, corpus guztiaren heren bat hartzen dute, eta ondorioz, azterketa zehatzago bat behar dute.

1.2. Ordain ez-erlatiboak

Aipatu dugu errusierazko perpausen heren bat erlatibakuntza ezabatuz euskaratzen dela. Erlatibakuntzaren ezabaketak, noski, beste baliabide batzuen agerpena dakar berarekin, baina zeintzuk dira beste baliabide horiek? Ordain ez-erlatiboen azterketa xehe bat burutu ondoren, itzultzaileek –kontziente edo inkontzienteki– erlatibakuntza ezabatzeko hautua egiten duten kasuetan, oro har, bi gauza gerta daitezkeela ikusi dugu: errusieraz menderakuntzaz osaturiko EP elkartuak euskaraz perpaus elkartuaren izaera mantentzea edota perpaus bakun bihurtzea (predikazioa perpaus mailakoa izan beharrean sintagma mailakoa izatera igarotzea, alegia). Perpaus-elkarketari eustea, berriz, bi eratara gauza daiteke: *hipotaxiaz* edo *parataxiaz*.

Hipotaxia agertzen da errusierazko erlatibozko perpausari euskaraz beste mendeko perpaus mota bat dagokionean; alegia, errusieraz mendeko EP bat daukagun tokian euskaraz denborazko, baldintzazko edota moduzko mendeko perpaus bat agertzea.

Parataxia, aldiz, erlatibozko perpausa eten eta bi esaldi edo gehiagotan banatzean datza.

Laburtuz, errusierazko perpaus bat euskaratzerakoan erlatibakuntza ezabatzen den kasuetan –gure corpuseko datuetan oinarrituta, beti ere– hiru gauza gerta daitezkeela baieztatu dezakegu:

- Erlatibozko perpausa beste mendeko perpaus mota bat bihurtzea, normalean testuinguruak aldaketa semantiko bat ahalbidetzen edo behartzen duelako.

- Perpaus nagusiaren eta mendeko EPren artean eten bat agertu eta bi perpaus edo gehiagotan zatitzea.

- Perpaus nagusia eta mendeko EP batu eta perpaus bakun bihurtzea, hots, predikazioa perpaus mailakoa izatetik sintagma mailakoa izatera igarotzea.

a) *PARATAXIA*: perpaus nagusiaren eta mendeko EPren artean etena agertzen da, menderakuntza juntadurarekin edo eten soil batekin ordezkari daiteke, azken hau normalean marka ortografikoen bidez adierazia (puntu, koma, puntu eta koma edota bi puntu).

(111)n errusierazko EPren ordezkari, euskaraz perpausa bitan banatzen duen eten bat agertzen da, kasu honetan puntu batez adierazia. Lehenengo perpausaren agertzen den *ostalari* izen ardatzaren erreferentzia etenaren ondorengo perpausaren *hai*ek erakuslearen bidez berreskuratzen da.

(111)

...ukazyvaja na našix grjaznyx xozjaev, [*KOTORYE* molča na nas smotreli
...ERAKUTSIZ PREP. GURE ZIKINAK *OSTALARI*, [*ERL. NOM.* ISILIK PREP. GU BEGIRATU
v kakom-to ostolbenenii]...
PREP. NOLABAITEKO HARRIDURA]...
'...[gure *OSTALARI* zikinak erakutsiz]. (Ø) [*HAIEK* isilik begiratzen ziguten, apur bat harrituta].'
(GGH: 28)

b) *HIPOTAXIA*ren bitartez menderakuntza mantentzen da, baina beste mendeko perpaus mota batekin. Adibidez, (112)n errusieraz erlatiboazko perpausa dena, euskaraz *nahiz eta* juntagailuarekin osatutako perpaus kontzesibo bihurtzen da.

(112)

Krepko stisnul jego obnažennuju krasnuju ruku, [*KOTORUJU* tot ne srazu
GOGOR ESTUTU BERE (M.) BILUZI EDER *ESKU*, [*ERL. AKUS.* HARK EZ BEHINGOAN
jemu podal].
BERARI LUZATU].
'...gogor estutu zion esku biluzi ederra, [*nahiz eta* hark ez zion behingoan *luzatu*].'
(AIS: 22)

c) *SINPLIFIKATZEA* edo predikazioa perpaus mailatik IS mailara eramatea: (113)n ikus daiteke mendeko EP nola bihurtzen den izen sintagma, menderakuntza ezabatuz eta beraz, perpaus bakun bihurtuz. Euskaraz hitzez-hitz 'mahai batera [*zeinetan/non* Sidorovek

idazten zuen]’ edota ‘[Sidorov *idazten ari zeneko*] *mahaira*’ litzatekeena ISren mailara jaiste aukeratu du itzultzaileak: ‘Sidoroven lan-mahaira’.

(113)


Ja podbežal togda k *stolu*, [*na KOTOROM* pibal Sidorov], i perelistal knigi.
 NI HURBILDU ORDUAN PREP. MAHAI, [PREP. ERL. PREP. IDATZI SIDOROVEK] ETA PASATU LIBURUAK.
 ‘Azkar asko hurbildu nintzen orduan *Sidoroven lan-mahaira*, eta haren liburuen orri-pasa egin nuen.’

(ZTG: 42)

Sinplifikatzea kontzeptua sarritan erabili ohi da itzulpengintza-unibertsalen inguruko eztabaidetan. Hemen aipatutako zentzu hertsia emango diogu: *sinplifikatze* kasu baten aurrean gaudela esango dugu errusieraz perpaus erlatibo elkartu bat izanik, erlatibakuntza ezabatu eta errusierazko mendeko EP euskarazko IS bihurtzen bada.

Beraz, euskal ordain ez-erlatiboak hiru eratakoak izan daitzeke: *parataxiaz*, *hipotaxiaz* eta perpausa *sinplifikatuz* osatuak.

Ikus dezagun bakoitzaren agerpen-maiztasuna (13. grafikoa).



Grafikoa 13 Euskal ordain ez-erlatiboaren banaketa corpusean

Gure corpuseko itzulpenetan erlatibakuntza ezabatzearen aldeko hautua egiten denean, batez ere perpaus-elkarketa mantentzera –eta zehazki, *parataxiara*– jotzen dute itzultzaileak. Errusierazko perpaus erlatiboek ordain ez-erlatibo bat daukaten 763 perpausetatik 492tan (ordain ez-erlatibo guztien %64) gertatzen da hori. Errusierazko 83 perpaus *hipotaxiaz* euskaratzen dira (ez-erlatiboaren %11). Azkenik, gainontzeko 188ak (%25) predikazioa perpaus mailatik IS mailara igaroarazita osatzen dira.

1.2.1. *Parataxia*

Aipatu bezala, corpuseko ordain ez-erlatiboaren artean *parataxia* erabiltzen da sarrien, menderakuntza juntadura bihurtuz, eta hartara, prozesamendua erraztuz (de Vries, 2002).

Ohikoa da, halaber, diakronikoki *parataxia* sintaxiaren aurreko urrats bezala aurkeztea (Givon 2008, 2012; Dahl 2009). Horrek azalduko luke euskarak menderakuntza egin ezin duen kasuetan itzultzaileek *parataxiara* jotzea, etena eginez eta menderakuntzaz osaturiko perpausa juntaturazko perpaus bihurtaraziz.

Parataxia gauzatzeko baliabide morfosintaktikoei dagokienez, etena zeinu ortografiko baten (114a), edota juntagailu baten bidez adierazia egon daiteke; ohikoenak emendiozko perpausak dira (114b), baina badaude adbertsatiboak ere (114c). Oso ohikoa da, halaber, etenaren ondoren elementu erresuntiboren bat agertzea, normalean izenordain bat (114d) edota berreskuratutako izen ardatza bera (114e). Gerta liteke alborakuntza soilez elkartzera ere (114f).

(114)

a)

Vam nepremenno nadobno sxodit' k odnoj zdešnej dame, [KOTORAJA soveršenno ZUK HUTSIK GABE BEHAR JOAN PREP. BAT HEMENGO DAMA, [ERL. NOM. GUZTIZ (DAGO) v sostojanii ponjat' vas].
PREP. MODUAN ULERTU ZU].

'...hutsik egin gabe joan behar duzu [hemengo dama bat] ikustera. (Ø) [Guztiz da gai zu ulertzeko].'

(AIS: 95)

b)

Èto byla lošad' pyšnogo èksteréra, no s syrimi formami, [KOTORYE mne HURA ZEN ZALDIA BIKAINENKO SATAI, BAINA PREP. BIGUN ITXURA, [ERL. NOM. NIRI togda kazalis' tjaželovatyimi].
GARAI HARTAN IRUDITU ASTUN].

'Satai bikainekoa zen zaldia baina [itxura bigunekoa], ETA [niri garai hartan aski astuna iruditzen zitzaidan].' (ZTG: 91)

c)

Osypala ee voprosami, [na KOTORYE Mar'ja Ivanovna otvečala koe-kak].
JOSI ZUEN BERA (F.) GALDERAZ, [PREP. ERL. AKUS. MAR'JA IVANOVNAK ERANTZUN HAINBESTEAN].
'[Galderaz josi zuen], BAINA [Maria Ivanovnak hainbestean erantzun zion].'

(KAP: 186)

d)

Predsstavljajsja samomu ix predvoditelju, [KOTORYJ dopustil ego
AGERTU ZEN BERAREN BERE BURUZAGIA, [ERL. NOM. MUIN EGITEN UTZI BERARI (M.)

k svoej ruke]...

PREP. ERREFL. ESKUAN]...

‘eta *buruzagiaren* beraren aurrera agertu zela, ETA HONEK, [eskuan *muin egiten utzi* ondoren]...’ (KAP: 86)

e)

Čtoby ukazat’ emu samogo ugnětěnnogo *batraka*, [KOTORYJ počti spokon veka (-T(Z)EKO) ERAKUTSI BERARI GEHIEN ESPLATATUA JORNALARIA. [ERL. NOM. IA MENDEZ MENDE rabotal darom na imuščix dvorax].

LANEAN DOAN PREP. DIRUDUN ETXE].

‘...honi kulakek gehien esplotaturiko JORNALARIA erakustera. [JORNALARI hura dirudunen etxeetan ia betitik doako lanean aritua zen]’ (LUB: 145)

f)

Ob’javil, naprimer, *prantikantke* iz Litvy, [s KOTOROJ byl edva znakom]:

ESAN ZION ADIBIDEZ, PRAKTIKALARI PREP. LITUANIA, [PREP. ERL. INSTR. ZEN APENAS EZAGUN]:

‘Praktikatan zegoen Lituaniako *neska* bati, adibidez, [ia ezagutu ere egin gabe], esan zion:’

(KONP: 242)

1.2.2. Hipotaxia

Hipotaxiaren kasuan badirudi birmoldaketa semantiko baten moduko zerbait gertatzen dela. Erlatibakuntza mantentzeko zailtasunen bati aurre egiteko, itzultzailea testuinguruaz baliatzen da erlatibakuntza beste menderakuntza mota batekin ordezkatzeko, aldaketa semantiko bat eraginez; alegia, EP bat zena baldintzazko (115a), denborazko (115b), kausazko (115c), ondoriozko (115d) edo kontzesibo (115e) bihurtaraziz.

(115)

a)

Derža svet na vsjakij nesčastnyj slučaj ili
MANTENDUZ ARGIA PREP. EDOZEIN ZORIGAIZTOKO KASU EDOTA
dlja *togo*, [KTO vnezapno zaxočet pit].

PREP. HORI, [ERL. NOM. BAT-BATEAN SARTU EGARRIA].

‘Zorigaiztoren bat gertatzen bazen ere, edota [norbaiti bat-batean egarrria SARTUTA ERE], argia manten zedin.’ (LUB: 43)

b)

Kak *kot*, [u KOTOROGO slegka poščekotali za ušami pal’cem].

BEZALA KATUA, [PREP. ERL. GEN. LEUNKI IGURTZI PREP. BELARRI HATZA].

‘Hala nola egin ohi baitu *katuak* [belarrien atzealdea hatz-puntekin leunki *IGURTZITZEN DIOTENEAN*].’

(ARH: 49)

c)

Vot ta prokljataja *devjatka*, [*na KOTOROJ* ja vsë prosadil!]
HARA HAU MADARIKATU *BEDERATZIKO*, [*PREP. ERL. PREP. NIK GUZTIA GALDU*]!

‘Dena galdu diat [bederatziko madarikatu hau *ATERA DELAKO*].’

(ARH: 124)

d)

On čustvoval, čto tjaželo emu budet rasstat’sja
BERAK (M.) SUMATU, -ELA ZAILA BERARI IZANGO DA UZTEA
s ètoju *žizn’ju*, [*k KOTOROJ* on tak privyk];
PREP. HORI *BIZITZA*, [*PREP. ERL. DAT. BERA* (M.) HAIN OHITUTA];

‘Sumatzen zuen zaila gertatuko zitzaiola *etxe hura uztea*, [*HAIN ZEGOEN* hango bizimodura ohiturik].’

(AIS: 153)

e)

Possorilas’ s *otcom*, [*KOTOROGO* ljubila], prognali iz gimnazii i oskorbili;
ETSAITU NINTZEN PREP. *AITA*, [*ERL. AKUS. MAITE NUEN*], BOTA PREP. INSTITUTUTIK ETA IRAIN EGIN;
‘[*MAITE BANUEN ERE*], *aitarekin* etsaitu nintzen; institututik bota ninduten eta irain egin zidaten.’ (AMA: 233)

1.2.3. Sinplifikatzea

Perpaua *sinplifikatzea* ere *–parataxiaren* ondoren baliabide ez-erlatibo ohikoena ez da beti berdin gertatzen. Sarrien gertatzen dena da predikazio-balioa izan dezakeen sintagma bat egotea, perpau nagusiaren parte huts bihurtzen dena, azken finean erlatibozko perpaus funtzio adjektibala daukatenez, normala da batzuetan mendeko perpaua predikazio bihurtzea, (116a-c)n bezala.

(116a)n hitzez hitz ‘...*hari*, [*zeinarekin* solasean aritu bainintzen]’ bezalako zerbait dagoen tokian, euskaraz besterik gabe ‘*solaskideari*’ agertzen da.

(116b)n ‘[biderako prest zegoen] *britxka* ikusi zuen’ izan beharrean ‘*britxka* ikusi zuen, biderako prest’ daukagu.

(116c)n, aldiz, mendeko EP adierazpen-perpau bakun soil bihurtzen da: ‘aletetikiko *zoko bat*, [*ZEINETAN/NON* urte asko egin baitzituen] □ Urte asko egin zituen aletetikiko zoko batean.

(116)

a)

Redko gljadel na *togo*, [s *KOTORYM* govoril]...

GUTXITAN BEGIRATU PREP. *HURA*, [PREP. *ERL. INSTR.* SOLAS EGIN]...

'Gutxitan begiratzen zion *solaskideari*...' (ARH: 143)

b)

On uvidel svoju *bričku*, [*KOTORAJA* stojala sovsem gotovaja].

BERAK (M.) IKUSI ZUEN BERE *BRIČKA*, [*ERL. NOM.* ZEGOEN ERABAT PREST].

'Bere *britxka* ikusi zuen kalean, *biderako prest*.'

(ARH: 130)

c)

I ona očutilas' v uglu *molotil'nogo saraja*, [*GDE* stojala dolgie gody]...

ETA BERAK (F.) EGOKITU PREP. *ZOKO ALETEGI*, [*ERL. NON* EGON ZEN ASKO URTE]...

'*eta urte asko egin zituen aletegiko zoko batean*...'

(AIS: 244)

2. CORPUSEKO DATUEN SAILKAPENERAKO IRIZPIDE MOTA DESBERDINAK: HIZKUNTZA-SISTEMA VS. ITZULTZAILEAREN ESTILOA

Alde batetik, bistakoa da hizkuntza batetik besterako itzulpen-prozesua bi hizkuntza horien ezaugarri gramatikalek baldintzatua dagoela, ez baita berdin EP bat errusieratik

antzeko erlatiboazkoak dituen hizkuntza batera itzultzea –gaztelaniara, alemanera edo ingelesera, kasu– edo EP hori bera euskarara isurtzea.

Halaber, bi hizkuntzen arteko desberdintasun gramatikalek eragindako zailtasun objektibo baten aurrean, itzultzaile guztiek ez daukate zertan erabaki berdinak hartu; izan ere, sarritan aurkakoa gertatzen da. Beraz, itzultzaile bakoitzaren estilo ‘subjektiboa’ nolabait objektibatzen eta neurtzen saiatu beharko dugu, estilo horrek itzultzailearen erabakietan duen eragina zehaztu ahal izateko.

Lehenik eta behin, esan behar da hizkuntza-sistemen inguruko azterketa objektibatzea askoz ere errazagoa dela, itzultzailearen estiloarekin gauza bera egitea baino. Hizkuntza barne-logikadun sistema antolatua den bitartean, estiloa, idazkera edota ideologia linguistikoa bezalako kontzeptuak nahiko labainkorrak suerta daitezke, eta edozein kasutan, objektibatzekeo zailak.

Gure corpuseko datuei hizkuntza-sistemaren eta itzultzaileen araberrako irizpideak aplikatzeak hizkuntza-sistemak berak inposatzen dituen murriztapenak identifikatzea, eta ondoren, murriztapen horiei itzultzaile guztiek modu berdinean erantzuten ote dieten ikustea ahalbidetuko digu.

Itzultzaileen artean desberdintasunak topatuz gero, eta horiek itzultzaileen gaindiko arrazoi objektiboren bati leporatzea lortzen ez badugu, itzultzaile horien estilo, ideologia edota idazkera jakin bati egozteko aukera irekiko zaigu.

Itzultzaileen artean desberdintasunik ez balego, ordea, itzultzaileek erlatibakuntza-estilo propiorik ez daukatela onartu beharko dugu, behintzat eskuragarri dauzkagun datuak eta guk aplikatutako irizpideak oinarri hartuta.

Hizkuntza-sistemaren araberrako irizpidearen –irizpide linguistikoaren– arabera, testu bat SHtik XHra isurtzerakoan, bi hizkuntzetako egituren elkarrekintzak itzultzailea erabaki batzuk hartzera bultzatzen dutela hartuko dugu abiapuntutzat. Adibidez, errusierazko perpausean ISEk euskarak erlatibatu ezin duen –edo nekez erlatiba dezakeen– kasu marka bat izateak, berez, itzultzailearen erabakia baldintzatu behar lukeela pentsa daiteke. Itzulpen-prozesuan parte hartzen duten bi hizkuntzek mugak ezartzen dizkiete itzultzaileei, eta gure corpuseko datuei irizpide linguistikoak aplikatuta, muga horiek zeintzuk diren identifikatzen saiatuko gara.

Muga edo murriztapen horiek zeintzuk diren eta nola eragiten duten zehazten dugunean, corpuseko datuei bigarren irizpide-multzoa aplikatuko diegu; hots, muga edo murriztapen horien aurrean itzultzaile guztiek berdinean erantzuten ote duten zehazten saiatuko gara. Horretarako, itzultzaile bakoitzaren datuak isolatzeaz gain, beraien erabakietan eragin dezaketen bestelako elementuak atzematen ahaleginduko gara, gero

elementu horiek itzultzaile bakoitzaren datuei behin eta berriz aplikatzeko, beraien arteko desberdintasunen peskizan.

Kapitulu honen hasieran esaten genuen datuen sailkapen orokorra burutu eta gero, bigarren fase batean erradiografia orokor hori findu beharko genuela hizkuntza-sistemak eta itzultzailearen estiloak itzulpen-prozesuan duten eragina neurtu eta bakoitzari dagokion garrantzia finkatzeko.

Halaber, hizkuntza-sistemaren eta itzultzailearen eragina neurtzeko corpuseko perpausei aplikatu beharreko ondorengo sailkapen-irizpideak finkatzen genituen.

Hizkuntza-sistemaren eragina neurtzeko bi irizpide: ISEren posizio sintaktikoaren arabera irizpidea, eta errusierazko erlatibakuntza-baliabide morfosintaktikoei dagokiena.

ISEren posizio sintaktikoari dagokionez –orain arte errusierazko nahiz euskarazko erlatiboari buruz esandakoa kontuan hartuta–, espero izatekoa da errusieraz ISEk erlatibatze-eskalaren goiko posizioetako bat hartzen badu (adibidez subjektua edo objektu zuzena) emaitza batzuk lortzea, eta beheko aldean kokatua egonez gero (demagun, genitiboa), beste batzuk.

Bigarren irizpide linguistikoak –erlatibatzaileen arabera– errusieraz EPak osatzeko baliabide morfosintaktiko bat edo bestea erabiltzeak euskarazko ordainak aukeratzera eraginik ba ote duen ala ez esango digu.

Itzultzaileen estiloa zehaztu ahal izateko, aldiz, esaten genuen hauetako bakoitzak itzulitako perpausak hartu eta aurretik aipatutako sailkapen guztiak errepikatu beharko ditugula, baina oraingoan itzultzaileen jardunaren arabera banatuta: itzultzaile bakoitzak zenbat ordain erlatibo eta ez-erlatibo osatzen dituen; ordain erlatiboetatik zenbat diren ardatzaren ezkerretarakoak eta zenbat eskuinetarakoak; zein ordain ez-erlatibo erabiltzen dituzten eta nolako maiztasunarekin; ISEren posizio sintaktiko edota baliabide morfosintaktiko berdinei modu berean erantzuten ote dieten edo ez...


Corpusaren izaera asimetrikoa dela medio, ohartarazi behar dugu irizpide formal hauek SHko perpausei aplikatuko dizkiegula, gero XHn haien baliokideak zeintzuk diren ikusteko, baina ez dugu aztertuko ISEren funtzioa XHko ordainetan.

3. HIZKUNTZA-SISTEMAK ITZULPEN-PROZESUAN DUEN ERAGINA NEURTZEN

3.1. Perpausen sailkapena ISEren posizio sintaktikoaren arabera

Errusierak guztira bost posizio sintaktiko erlatiba ditzake; hots, ISEk mendeko EPn har ditzakeen posizio sintaktiko posibleak bost dira: subjektua, objektu zuzena, zehar-objektua, zehar-kasuak eta genitiboa. Errusierak, indoeuropar hizkuntza akusatiboa den heinean, alor honetan Comrie/Keenanen *AH*-arekin bat egiten du, inongo arazorik gabe.

14. grafikoa ikus dezakegunez, gure corpuseko errusierazko perpausetan 5 posizio sintaktiko horiek guztiak daude ordezkaturak. Ugarienak subjektuzkoak dira, corpusaren %43 hartzen baitute. Perpausen %37an ISE zehar-kasu batean agertzen da, %16 objektu zuzena da, %3 genitiboa eta azkenik, ozta-ozta perpausen %1ean, zehar-objektuaren funtzioa hartzen du.



Grafikoa 14 Errusierazko perpausetan erlatibatutako posizioen banaketa corpusean

Beraz, gure corpuseko datuen arabera, egin daiteken lehendabiziko baieztapena da ez dirudiela agerpen-maiztasuna eta prozesatzeko erraztasuna zuzenki proportzionalak direnik. Subjektuen kasuan posible da korrelazio hori ezartzea, sarrien agertzen direnak baitira, eta baita teorian, Europako hizkuntza indoeuroparretan behintzat, erlatibagarrienak ere. Haatik, subjektuen atzetik ugarienak zehar-kasuak dira, eta zehar-kasuak, oro har, objektu zuzenak edota zehar-objektuak baino erlatibagarriagoak direla pentsatzeko arrazoirik ez daukagu. Ziurrenik preposiziodun kasu marka guztiak zehar-kasutzat hartzeak izango zuen eraginik emaitza hauetan.

Hala eta guztiz ere, ez dugu ahaztu behar tesiaren sarreran esan duguna: corpus jakin batean lortutako maiztasunek ezin dute hierarkia osoa kolokan jarri. Hori hala izanik, ezin da ukatu egitura batzuen maiztasunak ondorio esanguratsuak utz ditzakeela, ondorio horien eragina behar bezala mugatzen baldin bada.

Maiztasunak, berez, funtzio bakoitzaren jokabideari buruzko informazio garbirik ematen ez digun arren, corpusaren argazki osoagoa eskaintzeaz gain, funtzio bakoitzaren laginaren tamaina erakusten digu, eta beraz, bakoitzak eskainiko dizkigun emaitzen adierazgarritasuna ere bai.

Ikusten da badirela bi funtzio –subjektuak eta zehar-kasuak–, lagin oso adierazgarria dutenak: 1036 eta 875 perpaus edo corpus guztiaren %43 eta %37. Ondorioz, bien artean corpus osoaren %80 hartzen dute.

Objektu zuzenen kopurua ere nahiko esanguratsua da, aurreko biena baino urriagoa izan arren: 391 perpaus edo corpusaren %16.

Aldiz, zehar-objektuen eta genitiboen laginaren adierazgarritasuna zalantzazko proportzioetan mugitzen da: errusierazko 30 perpausetan soilik hartzen du ISEk zehar-objektuaren posizioa (corpusaren %1 ozta-ozta), eta 70 perpausetan genitiboarena (corpusaren %3).

Aurrerago ikusiko dugun bezala, azterketa xeheagoak burutzerakoan kopuruak erabakigarriak izan daitezke; alegia, iduri dezake 70 genitibozko perpausak lagin mamitsu bat osa dezaketela, baina, adibidez, 70 perpaus horien euskal ordainen azpisailkapenak egiten hasten garenean (erlatiboak edo ez-erlatiboak diren, nolako erlatiboak, nolako ez-erlatiboak etab.) ohartuko gara fenomeno bakoitzarentzako lagina gero eta txikiagoa dela, eta beraz, ehunekoetan emandako proportzioen adierazgarritasuna geroz eta urriagoa.

Are gehiago zehar-objektuekin, guztira 30 perpaus badira, eta horiek fenomeno askotan azpisailkatu behar baditugu.

Zehar-kasuen inguruko ikerketetan maiz instrumentala hartzen da zehar-kasu eredugarritzat (Comrie/Keenanen 1977n kasu). Guk denak hartu ditugu kontuan: instrumentala, prepositiboa eta preposiziodun guztiak (akusatiboak, datiboak, genitiboak, instrumentalak eta genitiboak) eta leku-denborazko aditzondoak (*gde* ‘non’, *kuda* ‘nora’, *otkuda* ‘nondik’ eta *kogda* ‘noiz’...). Horiek denak zehar-kasutzat hartu izanak, noski, gure corpusean kasu marka hori duten perpausen kopurua asko igoarazi du, baina errealitatea islatzen duela deritzogu.

Objektu zuzenaren funtzioa hartzen duten perpausak ohikoenen artean egotea ere ez da harrizkoa, subjektuentzat erabili dugun argumentu berarengatik, eta horrexegatik zen espero izatekoa genitiboen agerpen-maiztasun eskasa ere.

Euskararen ikuspuntutik deigarri suerta daitekeena zera da: zehar-objektuak, teorikoki oso erlatibagarriak izanik, gure corpusean hain gutxi agertzea, eta zehar-kasuak, alderantziz, erlatibagaitzagoak izanik, hain maiztasun handia izatea.

Errusieraren ikuspuntutik, izenordain erlatiboaren erabilpena dela medio, zehar-kasuak ez dira hain erlatibagaitzak, baina errusieraz zehar-objektuak hain gutxi erabiltzeak ba ote du azalpenik? Noski, gure corpusean datibo kasu marka zeukaten ISE guztiak sartu bagenitu, askozaz ere gehiago lirateke, baina errusieraz kasu marka datiboak zehar-objektuekin zerikusirik ez duten beste funtzio asko hartzen ditu. Adibidez, perpaus predikatiboetan izenordain pertsonala datiboan jartzen da, subjektu funtzioa adieraziz: *mne xolodno* 'hotz naiz' (hitzez hitz "hotz zait").

Ondorioz, maiztasunaren garrantzia posizio sintaktiko bakoitzaren laginaren tamaina zehaztean datza batez ere.


Halere, behin laginaren tamaina ezarrita, STko ISEek hartzen dituzten funtzioak eta euskal ordain motak harremanetan jartzea falta da. Horretarako bi datu-mota erauzi beharko ditugu corpusetik.

- Lehenik eta behin, funtzio sintaktiko bakoitzeko ordain erlatiboaren proportzio orokorra zein den ikusi beharko dugu, alegia euskal ordain erlatiboak zenbat diren. Adibidez, ISE subjektua denean zenbat euskal ordainetan mantentzen da erlatibakuntza? Zenbatetan ezabatzen da? Gauza bera beste funtzioekin.

- Corpusetik atera beharreko bigarren datua ordain erlatibo nahiz ez-erlatiboak zehazki nolakoak diren izango da; alegia, euskal ordain erlatiboaren artean zenbat diren erlatibo arruntak, jokatugabeak, arrunt aposatuak, *ZEIN/NON* erlatiboak eta *BAIT*-erlatiboak. Ez-erlatiboaren artean, berriz, *parataxiaren*, *hipotaxiaren* eta *sinplifikatzearen* banaketa zein den ikusi beharko dugu.

Lehenengo datua (ordain erlatiboaren proportzio orokorra edo, hemendik aurrera ordain erlatiboak) laburki aipatu eta aztertuko dugu, erreferentzia bezala baliagarria delako, baina emaitzen mamia bigarren datuan egongo da: itzulpen-prozesuan zehar ISEren funtzio desberdinei dagozkien ordain erlatibo eta ez-erlatiboaren izaeran, hain zuzen.

Funtzio sintaktikoaren irizpidea aplikatuta, 15. grafikoak errusierazko erlatibakuntza posizio sintaktiko bakoitzean zein portzentajetan mantentzen den erakusten digu.



Grafikoa 15 Euskal ordain erlatiboak eta posizio sintaktikoa

Printzipioz, *AH*ko erlatibatze-eskalaren translazio zuzen bat egingo bagenu, diagrama honek goitik beheranzko joera izan behar luke –erlatibagarritasun handienetik txikienera–, baina hemen ez da hori gertatzen: errusierazko perpausetan ISE subjektua den kasu guztien %71n da erlatiboak euskal ordaina. Objektua denean, aldiz, %75ean, eta zehar-objektua denean are sarriago (%83an).

Hortik beherago dauden posizioetan bai esan daiteke esperotako goitik beheranzko progresioa ageri dela, errusierazko zehar-kasu guztien %63 eta genitiboan %49 soilik euskaratzen baita erlatiboak perpaus batekin.

Behin-behineko datu honen arabera, errusierazko perpausetan ISEk zehar-objektuaren funtzioa hartzen duenean izango genuke euskal ordaina erlatiboak izateko aukerarik handiena (perpausen %83rekin). Ondoren, objektu zuzenak leudeke %75ko ordain erlatiboan proportziorekin, subjektuak %71rekin, zehar-kasuak %63rekin eta genitiboak %49rekin.

Esan bezala, ordain erlatiboan proportzio orokorra oso parametro zabala da, bere baitan datu desberdin asko hartzen dituelako, baina sakontzen hasteko abiapuntu egokia delakoan gaude.

Elementu azpimarragarri bat dago emaitza hauetan: *AH*ari buruzko eztabaida nagusiak ematen diren puntuak eskaintzen ditu gure corpusak ezohiko datuak; subjektuen eta objektuen arteko asimetria, hain zuzen (ik. I. kapituluko 1.2.2. eta 1.2.3.).

Zehar-objektuei dagokionez, hauen itzulpena subjektuena eta objektuena baino erlatibagarriago suertatzea ez da ohikoa, baina tesian zehar sarritan aipatu dugun moduan,

gure helburua ez da, inondik ere, Comrie/Keenanen hierarkia edo erlatibozkoen inguruko beste inolako hipotesi ezbaian jartzea, gure corpus konkretu eta oiso espezifikoko baten gainean baikabiltza lanean.

Gainera, ohartarazi dugu euskal ordain erlatiboen proportzio orokorrak ez duela ordain erlatibo nahiz ez-erlatibo desberdinen artean bereizten, ezin baita berdin aztertu, adibidez, errusierazko EP bat euskaraz erlatibo arrunt batekin edo *ZEIN* erlatibo batekin itzuli izana.

Horregatik, funtsezko ondorioak atera ahal izateko, ordain erlatiboen proportzio orokorra euskal ordain erlatibo eta ez-erlatiboen azterketa xeheago batekin alderatu beharko dugu.


3.1.1. Ordain erlatiboak eta ISEren posizio sintaktikoa

Aipatu dugu ordain erlatiboen proportzio orokorrak erlatibo mota desberdin asko hartzen dituela bere baitan. Kontua da, euskal itzultzaileek erlatibakuntza mantentzearen aldeko hautua egiten duten kasuetan zein erlatibo mota erabiltzen duten. Balio berdina ote du euskarazko ordaina ardatzaren ezkerretara hedatzen dena izateak (erlatibo arrunta edo jokatu gabea) edota eskuinetara hedatzen den erlatibo aposatua izateak (*arrunt aposatua*, *ZEIN/NON* erlatiboa edo *BAIT-* erlatiboa)?

Gure ustez, euskal hiztunaren –eta idazle-itzultzailearen– lehen aukera ezkerretara hedatzen den eta *-(e)n* atzizkia duen erlatibo arrunta erabiltzea da. Erlatibo jokatu gabeen onarpena ere oso zabala da, baina ez dira hain ugariak eta testuinguru askotan ezin dira erabili; adibidez, zehar-kasuak edo genitiboak erlatibatzeke.

Erlatibo aposatu bat erabiltzea, aldiz, oinarrizko erlatibakuntza-estrategiaren osaketarako zailtasunen baten adierazle izan ohi da: kasu marka erlatibagaitz bat, ISEren eta *gap*-aren artean material morfolo giko asko egotea...

Euskal ordain erlatiboak banan-banan aztertzen baditugu, ikusiko dugu 15. grafikoko eta 16. grafikoko datuek irudi aski desberdinak eskaintzen dizkigutela.



Grafikoa 16 Euskal ordain erlatiboak eta posizio sintaktikoa

Ordain erlatiboen inguruko datuak interpretatzen hasi aurretik, erabaki bat hartu behar izan dugu: prozesatzeko erraztasuna neurtzerakoan nola banatu behar ditugu datuak, erlatibo arruntak alde batetik eta gainontzeko guztiak bestetik edota erlatibo jokatu gabeak erlatibo arruntekin elkartu behar ote ditugu? Izan ere, erlatibo jokatu gabeak ardatzaren ezkerretara hedatzen dira, eta erlatibatze-hierarkiako goiko posizioak soilik har ditzakete. Horrek, prozesamenduaren –eta beraz, itzulgarritasunaren– ikuspuntutik erlatibo arruntengandik gertuago kokatzen ditu aposatuengandik baino.


Guk biak bateratzearen alde egin dugu, azken finean, ardatzaren ezkerretara hedatzen diren erlatiboek, ageriko izenordainik ez daukatenez, hutsunea (*gap*-a) leku berean sortzen dutelako (izen ardatza agertu aurretik, alegia), *ZEIN* edo *BAIT*-erlatiboek ez bezala.

Ondorioz, ardatzaren ezkerretarako euskal ordain erlatibo guztiak datu bakar baten pean bilduko ditugu, eta horri erlatibo aposatuei dagokien datua kontrajarriko diogu.

3.1.1.1. ISEren posizio sintaktikoa eta ardatzaren ezkerretarako erlatiboak

17. grafikoan ikusten denez –subjektu-objektu asimetria izan ezik– dena espero bezala gertatzen da.

Ardatzaren ezkerretarako erlatiboak soilik kontuan hartuta, objektuak dira erlatibagarrienak –hots, erlatibo arrunten edo jokatu gabeen bidez euskaratuak izateko aukera handiena dutenak– perpausen %87arekin. Ondoren subjektuak (perpausen %74), zehar-objektuak (%72), zehar-kasuak (%61) eta genitiboak (%38).



Grafikoa 17 Euskarazko ardatzaren ezkerretarako erlatiboak eta posizio sintaktikoa

Bestalde, ordain erlatiboen proportzio orokorrari zegokion 15. grafikoan zehar-objektuek eskaintzen zuten ezohiko irudia –denetan erlatibagarrienak izatea– neurri batean azalduta geratzen da hemen: egia da zehar-objektuak sarritan ematen direla ordain erlatiboekin, baina ordain erlatibo hauetatik ardatzaren ezkerretara zenbat hedatzen diren aztertuta, ikusten da ez direla hainbeste, ez behintzat subjektuak eta objektuak bezainbeste. Ordain erlatibo asko baldin badituzte, baina ardatzaren ezkerretarako proportzio erlatiboa jaisten bada, horrek esan nahi du erlatibo aposatuen kopuruak datu altu bat eskainiko duela.

Izan ere, zehar-objektuen gaineko datu hauek abiapuntu hartuta, ideia orokor bat finka dezakegu: ordain erlatiboek kopuru handi bat ardatzaren ezkerretarako kopuru erlatiboki baxu batekin batera agertzea, erlatibo aposatuen ugaritasun nabarmen baten adierazle izango da.

Erlatibo jokatu-gabeek ere merezi dute aipamen bereizi bat: euskaraz erlatibo jokatu-gabeetako ISEk ia beti kasu marka absolutiboa hartzen duen arren (gure corpuseko jokatu-gabeen %95ean gertatzen da hori), ordaintzat erlatibo jokatu-gabeak errusierazko perpausetako ISEek posizio guztiak har ditzakete, eta antzeko proportzioetan gainera: errusierazko objektu zuzenak erlatibo-zko batekin ematen diren kasuen guztien %9 dira erlatibo jokatu-gabe; subjektuen %5, zehar-kasuen %4 eta genitiboen %3. Aipagarria da, halaber, errusierazko perpausetan ISEk edozein posizio hartzen duela ere, euskarazko ordainean ia beti absolutiboa bihurtzea, euskararen erlatibakuntza-arauek agintzen duten moduan.

Hain arraroa al da gure corpuseko datuen arabera, itxuraz behintzat, objektu zuzenak subjektuak baino erlatibagarriagoak izatea? Euskararen kasuan, ez derrigorrez. Tesiaren I. kapituluaren (1.2.2. eta 1.2.3. puntuetan) ikusi dugunez, subjektu eta objektu kategoriek sortarazten dituzte *AH*aren inguruko eztabaida bizienetako batzuk. Hortik erartortzen zen, hain zuzen, Fox-en hierarkia absolutiboa edota euskaraz objektuak subjektuak baino errazago prozesatzen direlako ustea (Carreiras et al. 2010). Beraz, gure corpuseko emaitzetan subjektu-objektu asimetria agertzea ez da hain harrigarria. Edozein modutan, segur aski ez da soberan egongo beste behin ere gure lanaren mugak gogoraraztea: errusieratik euskaraturiko literatura-testuez osaturiko corpus espezifikoko honetatik ateratako emaitzek ezin dute erlatibatutako posizio sintaktikoen hierarkia orokor bat kolokan jarri.

Erlatibo arrunten eta jokatu-gabeen inguruko datuak aztertu ondoren, ikus dezagun zer gertatzen den gure corpuseko erlatibo aposatuak ISEren posizioaren arabera sailkatzen baditugu.


3.1.1.2. ISEren posizio sintaktikoa eta erlatibo aposatuak

Jakina denez, hiru erlatibo aposatu mota hartu ditugu kontuan gure ikerketan, adierazgarrienak direlakoan: *-(e)n* atzizkidun erlatibo arrunt aposatuak, *ZEIN/NON* erlatiboak eta *BAIT-* erlatiboak.

III. kapituluaren, erlatibo arrunt aposatuak aztertzean (III-ko 3.3. puntua), ikusten genuen euskaraz erlatibo mota honen erlatibatze-eskala nahiko murrizta dela, kasu gramatikalak soilik erlatibatzen dituelako; alegia, euskaraz erlatibatze-zo zailtasun gutxi dutenak.

Honek *ZEIN/NON* erlatiboengandik bereizten ditu, horien ezaugarri nagusia, hain zuzen, erlatibatze-zo zailtasunen bat dagoenean agertzea baita.

Arrunt aposatuak gure corpusean ISEren posizio sintaktikoaren arabera duten banaketa ikusita (18. grafikoa) erlatibo arruntan eta jokatu gabeen antzeko egoera bat irudikatzen dute.



Grafikoa 18 Euskarazko erlatibo arrunt aposatuak eta posizio sintaktikoa

Corpuseko euskarazko ordainetan arrunt aposatu bat daukagunean, gehienetan jatorrizko perpausoko ISEk subjektuaren posizioa hartzen du mendeko EPn (ordain erlatibo guztien %8). Gero, hurrenez hurren, genitiboak (%6), objektu zuzenak (%5), zehar-objektuak eta zehar-kasuak (%3) leudeke.

Datu hauek, genitiboarenak salbu, Comrie/Keenanen erlatibatze eskalarekin bat letozke, nahiz eta ez dagoen garbi hau espero behar ote genukeen. Euskaraz erlatibo aposatuen agerpena prozesatzeko zailtasunen baten ondorio dela onartuz gero, kontrako progresio bat litzateke logikoena (goitik beherakoa), non genitiboak diren gehien agertzen direnak, eta hauen atzetik, hurrenez hurren, zehar-kasuak, zehar-objektuak, eta azkenik subjektuak/objektu zuzenak (bi azken hauen elkarren arteko segida asimetrikoa gorabehera).

Genitiboen ustekabeko emaitza altu hori, dena den, laginaren neurriarekin nahiko erraz azaltzen da. *-(e)n* atzizkidun aposatuak, oro har, ez dira oso ohikoak gure corpusean: guztira 93 perpaus (ordain erlatiboen %6), hauetatik 58 jatorrizkoan subjektuak (subjektu guztien %8), 16 objektu zuzenak (objektu zuzenen %5), perpaus 1 zehar-objektua (zehar-objektuen %4), 16 zehar-kasuak (hauen %3) eta 2 genitiboak (genitiboen %6).

Esan bezala, horietako bitan bakarrik da ISE errusieraz genitiboa (117a-b), baina genitiboak, oro har, gure corpusean gutxi direnez, 2 perpaus genitibo guztien %6 izatera iristen dira. Gainera, erlatibo arrunt aposatuen bidez itzultitako bi genitiboak (117a-b) itzultzaile berdinarekin dira.

(117)

a)

No est´ *strasti*, [*KOTORYX izbran´e* ne (Ø) ot čeloveka].

BAINA BADIRA *GRINAK*, [*ERL. GEN. AUKERA EZ (DA) PREP. GIZABANAKOAREN*].

‘Baina badira *grina batzuk* [gizabanakoak *aukeratzen ez dituenak*].’

(ARH: 353)

b)

Potomu Nozdrev velel prinesti butylku *madery*, [*lučše KOTOROJ* ne pival HORREGATIK NOZDREVEK AGINDU EKARTZEA BOTILA MADEIRAKO ARDO [*HOBEA ERL. GEN. EZ EDAN sam fel´dmaršal*].

EZTA KAPITAIN GENERALAK (ERE)].

‘Gero, botila BAT Madeirako ardo ekartzeko agindu zuen, [kapitain jeneral batek inoiz edango lukeena] baino hobea.’


(ARH: 116)

Bi perpausetan erakusle mugagabe bat ageri da (*grina batzuk* eta *botila bat*), eta dakigunez, erlatibo arrunt aposatuak osatzerakoan ohikoa da horrelako erakusleez baliatzea (*ezagutzen dut DENDA BAT, [liburu onak saltzen dituenak]* bezalakoak).

(117a)n, adibidez, ikusten da aditzaren komunztadura aldatuta konpondu duela itzultzaileak arrunt aposatu batekin genitibo bat osatzeko arazoa, eta (117b)n erlatibozko mendeko EP konparaziozko perpaus bat osatzeko erabili izanak perpaus honetan *hipotaxia* kasu bat atzematea ahalbidetuko liguke, eta beraz ordain ez-erlatibo bat dela baieztatzea.

Erlatibo aposatuen paradigmatik gertuago daude *ZEIN/NON* erlatiboak, eta hauen barnean batez ere *ZEIN* erlatiboak, corpus osoaren %10 osatzen baitute (167 perpaus).

19. grafikoan ikusten denez, *ZEIN* erlatiboen datuetatik abiatuta sortzen den korrelazioa ardatzetik ezkerretarakoekin –arruntekin eta jokatu gabeeekin– osatzen genuenaren juxtu alderantzizkoa da.



Grafikoa 19 ZEIN erlatiboak eta posizio sintaktikoa

Corpusean dauzkagun errusierazko genitiboak ordain erlatibo batekin euskaratzen diren kasuen ia erdia (%47) osatzen da *ZEIN* galdetzailea erabiliz. Ondoren, zehar-kasuak (ordain erlatiboen %17), zehar-objektuak (%8), subjektuak (%7) eta objektu zuzenak (%3). Esan bezala, ardatzaren ezkerretarako erlatiboen inguruko datuen juxtu kontrakoa.

Erlatibo aposatuak ardatzaren ezkerretarako erlatiboen ifrentzua direnez, 19. grafikoa, espero bezala, behetik goranzko itxura dauka (subjektua>objektua>zehar-objektua>zehar-kasua>genitiboa), non *ZEIN* erlatiboekin euskaratuak izateko aukera gutxien subjektuek duten eta gehien genitiboek; alegia, zenbat eta posizio erlatibagarriagoa, orduan eta *ZEIN* erlatibo gutxiago.

Emaitza hauek *ZEIN* erlatiboek euskarazko erlatibozkoen artean duten funtsezko zeregina berretsiko lukete: oinarritzko erlatibakuntza-estrategiarentzat erlatibagaitzak diren testuinguruetan erlatibagarritasuna ahalbidetzea. Hala, errusierazko kasu marka bat zenbat eta erlatibagaitzagoa izan, orduan eta handiagoa izango da perpaus horren euskal ordaina *ZEIN* erlatibo bat agertzeko aukera.

NON erlatiboen kasuan, jatorrizko perpausetako ISEren posizio sintaktikoaren garrantzia are handiagoa da, galdetzaile honen leku-denborazko esanahiak berak murriztapen batzuk ezartzen dituelako zentzu horretan, *ZEINEAN/ZEINETAN* bezalako izenordainen ordezkia edo baliokidea baita azken finean.

NON galdetzailearekin eraturako 58 euskal ordainetatik 57tan errusierazko ISE zehar-kasu batean dago (118a), eta perpaus batean ISE genitiboa da (118b).

(118)

a)

Načinaja ot bol'six arestantskix tufel', končaja životom, [*na KOTOROM* ottopyrivalsja xalat].

HASI PREP. HANDI PRESO- ZAPATA, AMAITU SABELA, [*PREP. ERL. PREP. HARROTU ATORRA*]

'Preso-zapata handietatik hasi eta sabeleraino, [*non* atorra harrotzen baitzizaion].'

(ZPU: 75)

b)

... i otpravilis' čerez tĕmnuju i počti pustuju zalu, [*iz-za dveri KOTOROJ*

...ETA ABIATU PREP. ILUN ETA IA HUTS ARETO, [*PREP. ATEA ERL. GEN.*

mel'knulo molodoe ženskoe lico], v gostinuju.

AZALDU ZEN GAZTE EMAKUME- AURPEGI], PREP. EGONGELA.

'egongelarantz abiatu ziren areto ilun eta ia huts batetik zehar, [*non* emakume gazte baten aurpegia azaldu baitzen lipar batez atez bestaldean].'


(AIS: 32)

(118b)koa ez da harritzekoa, genitiboak zehar-kasuengandik oso gertu daudelako erlatibatze-eskalan. Harrigarriagoa zatekeen subjektu edo objektu bat horrela itzultzea, baina hori gertatzea ere ez da ezinezkoa, testuinguru egokia egokituz gero. Kasu honetan, itzultzaileak komeni zitzaion bezala moldatu edo sinplifikatu du (118b)ko errusierazko perpausa: errusieraz hitzez hitz 'Areto ilun eta ia huts batetik zehar, [*ZEINAREN/ZEINETAKO* ATEAREN ATZETIK* emakume gazte baten aurpegia *azaldu baitzen...*]' Euskarazko testuan 'Areto ilun eta ia huts batetik zehar, [*NON* emakume gazte baten aurpegia *azaldu baitzen...*]'.

BAIT- erlatiboek eta *ZEIN* erlatiboek badituzte antzekotasunak, baina baita desberdintasunak ere.

BAIT- aurrizkiarekin osaturako perpausen lagina nahiko esanguratsua da: 160 perpaus edo corpuseko ordain erlatiboen %10 (*ZEIN* erlatiboen bidez osaturikoak 167 ziren).

ISEren posizioaren ikuspuntutik, ordea, *BAIT-* erlatiboen presentzia *ZEIN* erlatiboena baino banatuago dago (20. grafikoa).

Grafikoa 20 *BAIT*- erlatiboak eta posizio sintaktikoa

BAIT- aurrikiarekin osatutako euskarazko perpausen errusierazko baliokideetan ISEek edozein posizio sintaktiko har dezakete, eta posizio desberdinen proportzioak nahiko antzekoak dira, gainera.

Euskaraz *BAIT*- erlatibo bat daukagun kasuetan, errusierazko perpausetan ISEren funtziorik ohikoena subjektuzkoa da (corpuseko subjektuzko guztien %11 da *BAIT*-erlatibo), erlatibo aposatu batengandik espero izango ez genukeena. Ondoren zehar-kasuak (corpuseko zehar-kasu guztien %9), objektu zuzenak (%7) eta azkenik, genitiboak (%6) leudeke.

BAIT- erlatiboari irizpide hau aplikatuta sortzen den hierarkia nahiko deigarria da. 20. grafikoko datuei erreparatuz, erlatibo aposatua izan arren, ez dirudi jatorrizko perpausetan kasu marka erlatibagaitz bat izateak bereziki handitzen duenik *BAIT*- erlatiboen erabilera euskal ordainetan. Beste faktoreren bat izan behar ote dugu kontuan? Perpausen luzera edo ISEren eta *gap*-aren artean distantzia –material morfologiko– asko izatea beharbada?

Emaitzak findu ahala, galdera hauei erantzuteko moduan egongo garela uste dugu.

Korrelaziozko perpaus erlatiboari dagokienez, lehenago aipatu bezala, korrelazio hutsez osatutako bi perpaus besterik ez daude corpus guztian: batean errusierazko perpausaren ISE subjektua da (119a), eta bestean zehar-kasu batean dago, lekuzkoa dei genezakeena, *čej* edutezko erlatibatzailea kasu marka prepositiboarekin (119b).

(119)

a)

... i klal *pervoe*, [*ČTO* popadalos´ pod ruku]:

...ETA HELDU *LEHENENGOA*, [ERL. NOM. EDUKI PREP. ESKUA]

‘...[irispidean *zer* eduki], *horrix*e heltzen zion.’

(ARH: 116)

b)

Tot, [*v Č’EJ* golove rodilos´ bolš’e idej], *tot* bolšé *drugix* dejstvet.

HURA, [PREP. ERL. PREP. BURUAN SORTU GEHIAGO IDEIA], HORREK BIZIAGO BESTEEK (BAINO) EKIN.

‘buruan *zenbat eta* ideia gehiago sortu, *orduan eta* eginahal biziagoz ekiten dio gizakiak jardunari;’

(GGH: 160)

(119b)n euskal ordaina korrelazioz eman izanak –eta erlatibatzailearen beraren edutezko izaera horrek– agian izan lezake irizpide sintaktikoarekin zerikusiren bat; (119a)ri –eta oro har korrelazioa erabiltzeari– dagokionez, badirudi gure corpusean anedoktikoa dela; aitzitik, biak itzultzaile berdinak osatu izanak, itzultzaile horren une bateko erabakia dirudi, zilegia baina neurri batean arbitrarioa, erabaki asko bezala.

3.1.2. Ordain ez-erlatiboak eta ISEren posizio sintaktikoa

Jakina da gure corpuseko errusierazko perpausen euskal ordainen zati bat ez dela erlatibozkoa, bestelako baliabide batzuekin emana baizik. Hiru bereizten genituen: *parataxia*, *hipotaxia* eta *sinplifikatzea* (perpaus mailako predikazioa sintagma mailakoa bihurtzea).


Baina zer gertatzen da euskal ordain ez-erlatibo horiekin errusierazko perpausari irizpide sintaktikoa aplikatuz gero?

Euskal ordaina erlatibozkoa zenean, erlatibo mota bat edo bestea erabiltzeak, ikusi dugunez, bazeukan bere garrantzia, erlatiboen prozesamenduaren ikuspuntutik ez baita berdina, demagun, erlatibo arrunt bat edo *ZEIN* erlatibo bat erabiltzea.

Ordain ez-erlatiboen artean finka al daitezke horrelako desberdintasunak? Esan al daiteke *parataxiak* abantailaren bat daukala perpausa *sinplifikatzearekiko*, edota *hipotaxia* errusierazko erlatibakuntzaren zailtasunen baten ondorio dela, *parataxiarekin* alderatzen badugu? Finka al dezakegu eskala edo korrelazio modukoren bat ordain ez-erlatiboen artean, ordain erlatiboekin egin dugun bezala, zeinak zehaztuko duen zailtasun maila

batetik aurrera ordain ez-erlatibo bat –eta ez bestea– erabiltzeko aukera handiagoa dugula?

21. grafikoan ditugu posizio sintaktikoaren arabera euskal ordain ez-erlatiboaren sailkapenaren emaitzak.



Grafikoa 21 Euskal ordain ez-erlatiboak eta posizio sintaktikoa

Joera interesgarri bat nabari da 21. grafikoan: erlatibatze-eskalan beherago dauden posizioetan –zehir-kasuetan eta genitiboetan–, *parataxiaren* proportzioa igotzen da, *sinplifikatzearen* kaltetan. Eskalan gorago dauden posizioetan, aldiz, alderantzizkoa gertatzen da: subjektu eta objektu zuzenetan *sinplifikatzea* igotzen da, *parataxiaren* kaltetan.

Oro har, *parataxia* posizio guztietan da nagusi, baina erlatibagarrietan apur bat jaisten da: *parataxiar* osatutako ordain ez-erlatiboaren kopurua genitiboetan %75era iristen da, eta zehir-kasuetan %67ra. Subjektuetan datu hori apalxeagoa da (%63), eta objektu zuzenetan are apalagoa (%58).

Sinplifikatzeari dagozkion datuak juxtu alderantzikoak dira: subjektu eta objektu zuzenetan ez-erlatibo guztien %30aren bueltan dabilen bitartean, zehir-kasuetan %20an dago eta genitiboetan %16an.

Emaitza hauetatik bi ondorio atera ditzakegu:

- Batetik, 21. grafikoko datuek *parataxiaren* erlatibakuntza-abantaila bat iradokitzen duela dirudi, *sinplifikatzearekin* alderatuta. Erlatibakuntza sintaktikoki zailtzen doan heinean, EP bat bitan banatzeko aukera *-parataxia-* handiagoa bada, *parataxia* erlatibakuntza-zailtasunei aurre egiteko *sinplifikatzea* baino egokiagoa dela esan dezakegu, azken honek testuinguru erlatibagarriagoak beharko lituzkeelako.

- Aldi berean, erlatibatzeke zailtasunak txikiagoak direnean *-subjektuetan eta objektu zuzenetan-*, *sinplifikatzea* gehiago agertzeak iradoki lezake testuinguruak ahalbidetzen duenean baliabide honen aldeko joera *parataxiarekikoa* baino handiagoa dela, nahiz eta subjektuetan eta objektu zuzenetan ere *parataxia* nagusi izan.

Noski, erlatibakuntzaren ezabaketa aztertzeak *-hots, SHko erlatibakuntza eta XHko ez-erlatibakuntza harremanetan jartzeak-* hainbat arazo sortzen ditu, datuen asimetria dela eta. Halere, 21. grafikoko emaitzetan itxuraz erregularitasun batekin topo egin dugunez, corpuseko perpausak beste irizpide batzuen arabera sailkatzen ditugunean erregularitasun horiek errepikatzen badira, hizkuntza bateko erlatibakuntzaren eta besteko erlatibakuntza-ezabaketaren arteko korrelazio bat finkatzeko aukera izango dugu.

Hipotaxiari dagokionez, laginak murriztagoak dira, eta ondorioz, nahiko baliabide markatua dirudi. Baliabide honek zehar-kasuetan jotzen du goia (ordain ez-erlatibo guztien %13). Objektu zuzenen datu ia berdina da (%12). Azkenik, genitiboen %8 eta subjektuen %7 osatzen dira *hipotaxiaz*, hau da, mendeko EP beste mendeko perpaus mota batekin ordezkatur.

Hipotaxiaren kasuan zaila dirudi korrelazio bat finkatzea, datuak ISEren posizioaren arabera sailkatutakoan behintzat.

3.1.3. ISEren posizio sintaktikoaren arabeko irizpidea: ondorioak

Oro har, esan daiteke frogatuta geratu dela SHn ISEk mendeko EPn hartzen duen funtzioak eragina duela perpaus horren XHko ordaineen.

Ikusi dugu posizio desberdinek duten agerpen-maiztasuna ez dela erabakigarria. Esate baterako, zehar-kasuak askotan agertzeak ez du esan nahi erlatibagarriagoak direnik, funtzio anitz hartzen dituztela baizik. Horrez gain, guk zehar-kasuen zakuan gauza desberdinak sartu ditugula kontuan hartuta, agerpen-maiztasuna, esan bezala, ez da erabakigarria.

Halaber, ikusi dugu ordain erlatiboen proportzio orokorra ere, bere horretan, ez dela oso fidagarria, ordain erlatibo nahiz ez-erlatibo desberdinen artean ez duelako bereizten.

Ordain erlatibo eta ez-erlatibo desberdinak xehetasunez aztertuta, aldiz, zenbait erregularitasun atzematea lortu dugu.

1) Ardatzaren ezkerretarako ordain erlatiboei (arrunt eta jokaturagabeei) dagokienez, hierarkiarekin bateragarriak diren emaitzak lortu ditugu: ISEren posizioa zenbat eta erlatibagarriagoa (eskan zenbat eta gorago), orduan eta handiagoa euskal ordaina ardatzaren ezkerretara hedatzeko aukera. Subjektu-objektu asimetriak gorabehera, ohi bezala.

2) Ardatzaren eskuinetarako erlatibo aposatuetan denetariko emaitzak topatu ditugu.

a. Erlatibo aposatu paradigmatico bezala definitu ditzakegun *ZEIN/NON* erlatiboek esperotako emaitzak eskaintzen dizkigute, erlatibo arrunt eta jokaturagabeen juxtu kontrakoak: erlatibatzeke zailtasuna areagotzen den neurrian handitzen da *ZEIN/NON* erlatiboak osatzeko aukera ere.

b. Erlatibo arrunt aposatuen presentzia, berriz, askoz ere banatuago dago, eta lagina ere ez da *ZEIN/NON* erlatiboena bezain zabala, nahiz eta kontuan hartzeko modukoa izan (93 perpaus edo corpuseko ordain erlatibo guztien %6). Banaketaz gain, ez dirudi erlatibo arrunt aposatuen osaketak ISEren funtzioaren araberrako logika batek gobernatzen duenik, ez behintzat erlatibo aposatuen berezko logika batek: 18. grafikoko datuen araberr, erlatibo arrunt aposatuek gure corpusean osatzen duten erlatibatze-eskala gertuago dago ardatzaren ezkerretarako erlatiboengandik erlatibo aposatuengandik baino.

c. Azkenik, *BAIT-* erlatiboek ere datu deigarriak eskaintzen dizkigute: *ZEIN* erlatiboekin hainbat ezaugarri –adibidez morfologikoak eta sintaktikoak– partekatzen dituzten arren, errusierazko perpausetako ISEren funtzioaren araberr sailkatutakoan, guztiz bestelako irudia bistaratzen digute: batetik, euskal ordainak *BAIT-* erlatiboekin osatzen diren kasuetan, jatorrizko errusierazko perpaus gehienetan ISE zehar-objektua edo subjektua da. Ondoren zehar-kasuak, objektua zuzenak eta azkenik genitiboak. Edonola ere, posizio batetik besterrako desberdintasun handirik gabe, eta erlatibo aposatuengandik alde zurretik espero genuen erlatibakuntzarako testuinguru zailtan agertzeko joerarik nabaritu gabe.

3) Ordain ez-erlatiboek, bestalde, irudi interesgarri bat eskaintzen digute: *parataxia* da baliabide ez-erlatiboen artean nagusi, ondoren perpausa *sinplifikatzea* eta azkenik *hipotaxia*. Ikusiko dugunez, segida hau beti betetzen da, ISEk hartzen duen posizioa (edo, oro har, aplikatutako irizpidea) edozein dela ere.

Horrez gain, 3.1.2. puntuko 21. grafikoan korrelazio interesgarri bat atzeman dugu ordain ez-erlatiboen artean: erlatibagarritasuna zailtzen den testuinguruetan –zehir-kasu eta genitiboetan– *parataxiaren* proportzioa altuagoa da, *sinplifikatzearen* kaltetan eta alderantziz, berez erlatibagarriagoak diren –edo izan behar luketen– posizioetan –subjektu eta objektu zuzenetan– *parataxiaren* kopuru erlatiboa jaitsi egiten da, *sinplifikatzearen* mesedetan (nahiz eta bigarren kasuan ere *parataxiak* nagusi izaten jarraitzen duen).

Balizko erregulartasun hori aztertzean esaten genuen bi ondorio atera zitezkeela:

- a. Testuingurua zailtzen doan heinean, *parataxia* baliabide egokiagoa bihurtzen dela.
- b. Ondorioz, posizio erlatibagarriagoak euskaratzeko *sinplifikatzea* maizago erabiltzek esan nahiko luke *sinplifikatzeari* lehentasuna ematen zaiola, eta zailtasunen bat agertu behar duela *parataxiara* jotzeko.


Edozein modutan, *parataxiaren* eta *sinplifikatzearen* balizko korrelazio hori beste irizpide batzuen arabera sailkapenetan errepikatzea –eta ikusiko dugu 3.2.2. puntuko 28. grafikoan horixe gertatzen dela–, korrelazio horren aldeko argumentu pisutsua izango da.

3.2. Perpausen sailkapena errusierazko erlatibatzaileen arabera

ISEren posizio sintaktikoaz gain, faktore linguistikoaren artean erlatibatzaileen arabera bereizten genuen. Irizpide hau gure corpuseko datuak errusierak erlatibakuntzarako dauzkan baliabide morfosintaktikoen –erlatibatzaileen– arabera sailkatzean datza.

Badakigu errusieraren erlatibakuntza-estrategia nagusia izenordain erlatiboen erabileran oinarritzen dela, baina izenordain edo erlatibatzaile horiek ez dira beti berdinak, ez dute modu berean jokatzen, eta ondorioz, litekeena da errusierazko EPetan erlatibatzaile bat edo bestea agertzeak beraien euskal ordainen izaeran eragina izatea. Eragin hori nolakoa eta norainokoa izan daitekeen ikusteko, esan bezala, gure corpuseko perpausak beraiek osatzeko erabilitako erlatibatzaile desberdinen arabera sailkatu ditugu.

Lehenik eta behin, batzuen eta besteen laginen adierazgarritasuna zehazte aldera, erlatibatzaile bakoitzaren agerpen-maiztasuna aztertuko dugu (22. grafikoa).



Grafikoa 22 Errusierazko erlatibatzaileen agerpen-maiztasuna corpusean

Lehendabiziko begi-kolpetik nabarmena da *kotoryj* erlatibatzailea dela errusieraz erabiliena, eta beraz, markatu gabeena, *kotoryj*-rekin osatuak baitaude jatorrizko errusiar EP guztien %65 edo 1567 perpaus. Honi *čto₁* izenordainak (304 perpaus edo corpusaren %13) eta aditzondo erlatiboak (284 perpaus edo corpusaren %12) jarraitzen diote.

Gainontzekoen artean errusieraz funtsezkoak diren batzuk daude, nahiz eta maiztasuna txiki samarra izan: *kto*, *kakoj* eta *čto₁*, hurrenez hurren errusierazko perpaus guztien %4, %3 eta %2, edo kopurutan, 106, 84 eta 44 perpaus. Horiez gain, badira bi erlatibatzaile ozta-ozta agertzen direnak: *čej* (guztira 6 perpaus) eta *koj* (7 perpaus).


Kotoryj erlatibatzailearen datuek –corpusaren %65–, emaitza orokorrak baldintzatuko dituztela garbi dagoenez, asimetria horrekin ere tentuz ibili beharko dugu, gerta baitaiteke *kotoryj*-ri soilik dagokion ezaugarriren bat erlatibatzaile guztiei egozteko tentazioa agertzea.

Hemen argitu nahi dugun zalantza da: errusieraz erlatibatzaile bat edo bestea erabiltzeak eragiten ote du euskal ordainaren izaeran? Hala bada, nola eta zein neurritan?

Galdera hauei erantzun ahal izateko, erlatibatzaileen araberrako irizpidea aplikatu eta, aurreko puntuan ISEren posizioarekin egin bezala, hiru datu-multzo aterako ditugu: batetik, ordain erlatiboaren proportzio orokorra, eta bestetik, ordain erlatiboak eta ez-erlatiboak banan-banan.

Erlatibatzaileen araberrako ordain erlatiboaren proportzio orokorrak esango digu errusierazko EPak erlatibatzaile jakin batekin osatuak dauden kasuetatik zenbatetan diren beraien euskal ordainak erlatiboak, eta zenbatetan ezabatzen den erlatibakuntza hori.

Lehenago ere esan dugu ordain erlatiboen proportzio orokorra testuinguru orokorra finkatzeko soilik balioko digula, ez dituelako ordain erlatibo eta ez-erlatibo desberdinak bereizten, baina erreferentzia gisara izango zaigu baliagarri (23. grafikoa).



Grafikoa 23 Euskal ordain erlatiboen proportzio orokorra eta errusierazko erlatibatzaileak

Ordain erlatiboa izateko joera nabarmenena *kto*, *kakoj* eta *čto₁* erlatibatzaileek dute, hurrenez hurren, beraiekin osatzen diren errusierazko perpausen %88, %85 eta %87an mantentzen baita erlatibakuntza euskaraz.

Kotoryj-ren eta aditzondo erlatiboaren ordain erlatiboaren proportziok, berriz, dezente baxuagoak dira: %65 eta %61, hurrenez hurren.

Čto₂-rekin –aurrekari moduan izen bat daukan *čto*-rekin–osatzen diren perpausen %55ek soilik dauka euskaraz ordain erlatiboa, beste guztiena baino askoz ere datu baxuagoa. Horrek esan nahi du erlatibatzaile honek euskal ordain ez-erlatibo asko dituela.

Azkenik, *čej* eta *koj* erlatibatzaileak oso gutxi agertzen dira; sei eta zazpi perpaus, hurrenez hurren.


Koj-rekin osatuetakoetatik %57 soilik da erlatiboa. Erlatibatzaile hau *kotoryj*-ren zaharkitutako baliokide bat denez, biek oso antzeko datuak izatea ulergarria da, *koj*-ren lagina –zazpi perpaus guztira– oso adierazgarria ez den arren.

Čej erlatibatzailearekin eraturako errusierazko sei perpausen euskarazko ordaina erlatibozkoa da.

Testuinguru orokor hau kontuan izanik, azter ditzagun xehetasunez euskarazko ordain erlatiboak eta ez-erlatiboak, errusiar erlatibatzaileen arabera sailkatuta.

3.2.1. Ordain erlatiboak eta erlatibatzaileak

Aurreko puntuan gertatu bezala, euskarazko ardatzaren ezkerretarako erlatiboen (arrunt eta jokatu gabeen) emaitzak eta erlatibo aposatuenak kontrajartzen baditugu, emaitzak zertxobait aldatzen direla ohartzen gara (24. grafikoa).



Grafikoa 24 Euskal ordain erlatiboak eta errusierazko erlatibatzaileak

3.2.1.1. Erlatibatzaileak eta ardatzaren ezkerretarako erlatiboak

24. grafikoa begiratzen badiogu, nahiko ongi definituriko bi multzo nabari dira.

Hierarkiaren goi aldetik hasita, *čto₂*-rekin gertatzen dena da deigarriena: ordain erlatiboan ia %92ra iristen da erlatibo arruntan eta jokatu gabeen proportzioa. Ordain erlatiboan proportzio nahiko baxua zeukala kontuan izanda, ondoriozta dezakegu *čto₂*-rekin osatutako EPak euskaratzerakoan erlatibakuntza gutxitan mantentzen bada ere, mantentzen den kasu ia guztietan ardatzaren ezkerretara hedatzen direla.

Kto eta *čto₁* erlatibatzaileen portzentajeak ez dira ia aldatzen, lehen bezain altuak izaten jarraitzen baitute. Horrek esan nahi du bi erlatibatzaile hauekin osatutako errusierazko EPen euskarazko ordain gehienak erlatibozkoak izateaz gain, erlatibozko horiek ia beti ardatzaren ezkerretarakoak direla. Beraz, erlatibagarritasun handia dutela esan dezakegu.

Kotoryj-ri eta leku-denborazko aditzondoei dagokienez, lehendik ere altuegia ez zen erlatibagarritasuna, gutxi bada ere, are gehiago jaisten da ardatzaren ezkerretarako

erlatiboen proportzioa aztertuz gero: %58 eta %55, hurrenez hurren. Horrek zera emango liguke aditzera: errusieraz *kotoryj* erlatibatzailea edota *gde, kuda, kogda, otkuda* aditzondo erlatiboak dauzkagunean, euskarazko ordain erlatiboak, gutxi izateaz gain, askotan ez direla ardatzaren ezkerretara agertzen, aposatuta baizik.

Kakoj-ren erlatibagarritasuna ere jaisten da, erlatibo guztiak batera azertu ordez, arruntak eta jokatu-gabeak bakarrik aintzat hartuz gero. Halere, aldaketa hain bortitza ez izateak esan nahiko luke *kakoj* itzultzeko erlatibo aposatuak erabiltzeko joera *kotoryj* eta aditzondoak itzultzerakoan baino txikiagoa dela.

Edonola ere, *kakoj* bi multzoen artean dagoela dirudi: berez, etimologikoki adjektiboa izateak *kotoryj*-rengana hurbilduko luke eta *čto₁, kto*, eta *čto₂*-rengandik aldendu, hauek izenordainetatik eratorriak baitira. Halere, erlatibakuntza-mailak *-kotoryj*-ren eta aditzondoan aldean– altua izaten jarraitzen du. *Čto₁, kto*, eta *čto₂*-rekin konparatuz gero, ordea, gutxiagotan mantentzen du erlatibakuntza.

Laburtuz, erlatibatzaileen artean, ordain erlatiboen arabera, bi bloke bereizten dira:

- Batetik, ardatzaren ezkerretarako proportzio oso handia daukaten lau erlatibatzaile dauzkagu (*čto₁, kto, čto₂*, eta *kakoj*), non arrunt eta jokatu-gabeak, hurrenez hurren, ordain erlatiboen %97, %94, %92 eta %86 diren. Oso emaitza altuak, inondik ere.

- Bestetik, erlatibo arrunt eta jokatu-gabeen proportzio askozaz ere txikiagoa duten *kotoryj* (ordain erlatiboen %62) izenordaina eta aditzondo erlatiboak (%60) agertzen zaizkigu.

Emaitza hauen zergatia azaltzerakoan, zerikusia izango du erlatibatzaile bakoitzak posizio sintaktiko jakin batzuk hartzeko daukan ahalmenarekin; hau da, genitibo eta zehar-kasuekin sarritan erabil daitekeen erlatibatzaile batek *-kotoryj* edo *kakoj* kasu– normalean ordain erlatibo gutxiago izateko joera izango du, eta ordain erlatibo horietako batzuk euskaraz aposatuta eman beharko direla aurreikustea ere ez da zaila.

Bestalde, aditzondoak itzultzerakoan erlatibakuntza gutxitan mantentzea, eta mantentzen denean sarritan erlatibo aposatuak izatea erraz azaltzen da euskarazko erlatibo arruntek eta jokatu-gabeek kasu marka adberbialak erlatibatzeke dauzkaten zailtasunekin (ik. III. kapituluko 3.1.1. puntua).

Čto₁, kto eta *čto₂* erlatibatzaileek euskaraz ardatzaren ezkerretarako erlatibo asko eragitea ere ez da guztiz harrigarria, aditzaren argumentu izateko joera dutenez, posizio erlatibagarrietan agertzea ohikoagoa delako.


3.2.1.2. Erlatibatzaileak eta erlatibo aposatuak

Dagoeneko badakigu erlatibo aposatuak ardatzaren ezkerretarakoen ifrentzua direla. Azken hauen proportzioa handia bada, lehendabizikoena txikia izango da eta alderantziz.

Ondorioz, euskarazko erlatibo aposatuen proportziorik handiena *kotoryj*-k eta aditzondoek eragingo dute. *Čto₁*, *kto*, eta *čto₂* erlatibatzaileak euskaratzeko erabiliko dira gutxien erlatibo aposatuak, eta *kakoj* erdibidean baina azken hauengandik gertuago.

Halere, erlatibo aposatu guztiak berdinak ez direnez, azter dezagun zeintzuk diren erlatibo aposatu mota bakoitzaren ezaugarriak errusierazko erlatibatzaileak euskaratzean.

Erlatibo arrunt aposatuak *-gizon bat [etorri dena]-* oso ugariak ez diren arren, errusiar erlatibatzaile guztiek dute noizbait horrelako euskal ordainen bat (25. grafikoa).




Grafikoa 25 Euskarazko erlatibo arrunt aposatuak eta errusierazko erlatibatzaileak

Corpuseko ordain erlatibo guztien ehunetik sei euskaratzen dira *-(e)n* atzizkidun erlatibo arrunt aposatu batekin. Batez besteko honen gainetik daude *kotoryj* eta *kakoj*: ordain erlatiboaren %8na. Batez bestekoaren azpitik, berriz, *kto* %5arekin, *čto₂* %4arekin, *čto₁* %2arekin, eta azkenik, errusierazko aditzondoak bi aldiz bakarrik agertzen dira erlatibo arrunt aposatu batekin emanak gure corpusean.

Ondorio esanguratsuak ateratzeko lagin murrizt samarra da beharbada. Edonola ere, onartu behar dugu emaitza hauetan erregulartasun handirik ez dela nabari.

Bestelakoa da *ZEIN* erlatiboaren kausa: erlatibatzaileen ikuspuntutik oso lokalizatuta dago beraien erabilpena: *kotoryj*, *kto* eta aditzondoak euskaratzeko bakarrik erabiltzen dira (26. grafikoa). Gainontzeko erlatibatzaileek ez dute horrelako euskal ordainik eragiten.



Grafikoa 26 ZEIN/NON erlatiboak eta erusierazko erlatibatzaileak

Espero bezala, *kotoryj* eta aditzondoak dira *ZEIN* erlatiboekin osaturiko ordainen zatirik handiena hartzen dutenak. Zehazki *kotoryj*-rekin osatutako perpausen euskal ordain erlatiboen %15 (120a) da *ZEIN* motakoa. Aditzondoaren kasuan %7 da (120b). *Kto*-rekin osaturikoetatik, aldiz, bakar bat ematen da *ZEIN* erlatibo baten bidez (120c).

(120)

a)

Vopros, [*otvet na KOTORYJ emu zaranee izvesten*].
 GALDERA, [ERANTZUN PREP. ERL. AKUS. BERARI AURRETIK (ZAI)O EZAGUN].
 ‘Galdera bat, [zeinaren erantzuna aurretik ezaguna zaion].’

(KONP: 200)

b)

O stoličnyx aristokratičeskix *gostinyx*, [*KUDA ix ne puskajut*].
 PREP. HIRIBURU- ARISTOKRAZIA- ARETOAK, [ERL. NORA HAIK EZ SARTZEN UTZI]
 ‘hiriburuko aristokraziaren aretoak, [zeinetara ez baitiete sartzen uzten].’

(GGH: 115)

c)

Zagovoril tot iz nix, [*u KOGO na golove vozvyšalas’ na četvert’ aršina*
 EKIN ZION HARK PREP. HAIETAKO, [PREP. ERL. GEN. PREP. BURUA NABARMENDU PREP. LAURDEN ARŠIN
 kopna gusteišix v’juščixsja čerņyx volos].
 ADATS UGARI KIZKUR BELTZ ILE].

‘ekin zion haietako batek, [zeinari gutxienez lau arshin garai zen adats guztiz ugari eta kizkur bat nabarmentzen baitzitzaion buruan].’

(TXB: 45)

Horrez gain, *čej*-rekin osaturiko beste bat eta *koj*-rekin eraturiko bi ere itzultzen dira horrela, lehenago aipatu dugunez (III. kapitulua 2.1.4. puntua).

Esan bezala, esperotako emaitzak dira hauek: *kotoryj* edozein preposizio eta kasu markarekin erabiltzen da –baita erlatibagaitzenekin ere– eta gainera, perpaus luzeak osatzeko ere oso egokia da. Perpaus luzeak eta kasu marka erlatibagaitzak dira *ZEIN* erlatiboan agerpenerako testuingururik egokiena.

Aditzondoekin beste hainbeste: leku-denborazkoak izanik, *ZEIN* erlatiboak oso egokiak dira hauek euskaratzeko, beste arrazoi askoren artean leku-denborazko kasu marka bat erantsi ahal diogulako (zeinetan, zeinetara, zeinetatik...).

NON erlatiboekin ere antzeko zerbait gertatzen da: 58 euskal ordainetan agertzen dira, eta horietatik 23k (%40) *kotoryj*-rekin hasten den EP bat daukate errusieraz (121a). Gainontzeko 35ak (%60) STetan leku-denborazko aditzondoekin osatuta daude (121b).

(121)

a)

I razmotal *znamja*, [*na KOTOROM* byla narisovana zvezda].

ETA HEDATU *BANDERA*, [*PREP. ERL. PREP. AGERI MARRAZTURIK IZAR BAT*].'

'eta *bandera* hedatu zuen, [*non* izar bat *ageri baitzen* marrazturik]. (ZTG: 67)

b)

Na komode – *stekljannaja gorka*, [*GDE* babuška vystavljala napokaz svoju gordost'].
 PREP. KOMODA – *BEIRA- ARASA*, [*ERL. NON AMONAK ZEUKAN IKUSGAI BERE HARROTASUN*].

'Komodaren gainean *beira-arasa* bat zegoen, [*non* amonak *ikusgai baitzeukan* bere harrotasunaren karia].' (PIK: 187)

BAIT- aurrizkiarekin osatutako euskal ordainei buruz esan dezakegu, *kto*, *čej* eta *koj* ez beste erlatibatzaileak euskaratzen direla erlatibo mota honekin. Maiztasun handienetik txikienera: *kotoryj* (122a), aditzondoak (122b), *kakoj* (122c), *čto₂* (122d) eta *čto₁* (122e).

(122)

a)

I v osobennosti takomu *otcu*, [*KOTORYJ*, kak ty, nikogda i

ETA PREP. BEREZI(KI) HORRELAKO *AITA*, [*ERL. NOM.*, BEZALA ZU, INOIZ ETA

ni v čem ne stesnjaj moej svobody].

EZTA PREP. ZER EZ ERAGOTZI NIRE ASKATASUNA].

'Eta are gutxiago zu bezalako *aita* batena, [inoiz eta inola ez *baitidazu* askatasuna *eragotzi*].'

(AIS: 40)

b)

Zamolčal vnezapno, sorvavšis´ krikom vniz, v *bezdn*, [*KUDA* po zakonam
ISILDU BAT-BATEAN, JAUSIZ OIHUKA BEHERA, PREP. *LEIZE*, [*ERL. NORA* PREP. *LEGE*
pritjaženija smerti padaet vsë].

GRABITATE HERIOTZAREN ERORI DENA].

‘Bat-batean isildu zen, oihu batean behera jausiz, *leizera*, [*bertara erortzen baita oro*]’

(PIK: 62)

c)

Ub´ju ja eë ne iz straxu, a po sovesti, za tex *bratov - tovarišev*,
HIL NIK BERA (F.) EZ PREP. BELDUR, BAIZIK PREP. BARRENA, PREP. HORIEK *HAURRIDE KAMARADAK*,
[*KAKIE* golovy poklali čerez eë izmenšestvo].

[*ERL. NOM. BURUAK GALDU* PREP. BERE (F.) *SALDUKERIA*].

‘Hil egingo dut, ez beldur naizelako, barrenak hala aginduta baizik, *haurride-kamaradengatik*,
[emakume horren saldukeria dela-eta *erori baitziren*].’

(DII: 34)

d)

Podošli k *korčme* Šmerelja, [*ČTO* stoit na Rovnenskom xosse]...

HURBILDU PREP. *OSTATURA ŠMEREL´-EN*, [*ERL. NOM. DAGO* PREP. *ROVNO-* ERREPIDEA]...

‘Shmerelen ostatura hurbildu ziren, [Rovnorako errepidean *baitago*]...’

(ZTG: 32)

e)

Da eščë to *neulovimoe*, [*ČTO* est´ sama molodost´] i [*ČTO*₁ zvučalo


BAITA HORI *ANTZEMANEZIN*, [*ERL. NOM. DA FUNTSA GAZTETASUN*] ETA [*ERL. NOM. SOINUA EGIN*
tak jasno v eë golose, čistom, garmoničnom].

HAIN ARGI PREP. BERE (F.) AHOTSA, GARBI, HARMONIATSUA].

‘baita gaztetasunaren funtsa den eta haren ahotsean hain soinu argia egiten zuen *zer antzemanekin* hori ere, [garbia *baitzuen* ahotsa], harmoniatsua.’

(ZPU: 25)

27. grafikoari begiratzuz gero, erlatibo aposatuengandik espero ditugun emaitzak topatzen ditugu bertan, alegia ardatzaren ezkerretarako erlatiboen inguruko emaitzen juxtu alderantzizkoa: *kotoryj* eta aditzondoak ematen dira sarrien *BAIT-* erlatibo batekin (hurrenez hurren, ordain erlatiboen %13 eta %12); *kakoj*-ren ordain erlatiboen %6, *čto*₂-ren %4 eta *čto*₁-en %1.



Grafikoa 27 BAIT-erlatiboak eta errusierazko erlatibatzaileak

3.2.2. Ordain ez-erlatiboak eta erlatibatzaileak

Zer gertatzen da euskal ordain ez-erlatiboekin errusieraz erlatibatzaile bat edo bestea agertzen denean? Alegia, erlatibakuntzaren ezabaketa burutzeko modua aztertu al dezakegu errusierazko perpausak daraman erlatibatzailearen arabera?

3.2.1. puntuaren lortutako datuetatik badakigu gure corpusean ageri diren erlatibatzaileen ordain erlatiboaren proportzio orokorra zein den.

Kotoryj eta aditzondoak erlatibatzerakoan mantentzen bazen gutxien erlatibakuntza, ordain ez-erlatiboaren proportziorik altuena beraiek izango dute.

Čto₁, *kto* eta *kakoj* aldiz, ia beti erlatibo batekin euskaratzen dira, eta ondorioz, oso gutxitan euskaratuko dira baliabide ez-erlatibo baten bidez.

Čto₂-ren kasua berezia zela aipatzen genuen, ordain erlatiboaren proportzio orokor txiki samarra baitzeukan –alegia, ordain ez-erlatiboaren proportzio handia–, nahiz eta gero ordain erlatibo horietatik gehienak ardatzaren ezkerretarakoak izan.

Datu hauek arazorik gabe ateratzen dira aurreko grafikoetatik, baina guri hemen ordain ez-erlatibo bakoitzaren banaketa interesatzen zaigu.


ISEren posizioaren araberrako emaitzak aztertzean, aipatzen genuen nolabaiteko korrelazioa atzematen zela ISEk kasu bakoitzean zeukan posizio sintaktikoaren eta gure corpuseko baliabide ez-erlatiboaren artean, batez ere *parataxiaren* eta perpausa *sinplifikatzearen* artean (21. grafikoa).

Posizio erlatibagarrienetan (subjektu eta objektuetan) *parataxiaren* bitartez euskaratzen zen portzentajea txikiagoa zen, *sinplifikatzea* sarriago erabiltzen zen bitartean.

Posizio erlatibagaitzagoetan alderantziz, *parataxiaren* gorakada bat gertatzen zen, perpausa *sinplifikatzearen* kaltetan.

Hipotaxiaren banaketa uniformeagoa zen, kasu marka edozein izanda ere.

Corpuseko ordain ez-erlatiboak erlatibatzaileen arabera sailkatuz gero, horrelako joerarik nabaritzen ote da?



Grafikoa 28 Euskal ordain ez-erlatiboak eta errusierazko erlatibatzaileak

28. grafikoa ikusten da, oro har, erlatibagarritasun-maila handiagoa erakusten zuten erlatibatzaileak –*čto₁*, *kto* eta *čto₂*– euskaratzerakoan nabarmena dela perpausa *sinplifikatzeko* joera. Alderantziz, *kotoryj*-k eta aditzondoek *parataxi* bidez etenak eragiteko joera handiagoa dute, perpausa *sinplifikatzearen* kaltetan. *Kakoj* batzuen eta besteen tartean legoke, aurretik sarritan gertatu bezala.

Ondoriozta dezakegu gure corpuseko ordain ez-erlatiboek erregulartasun bat erakusten dutela, aurreko puntuan posizio sintaktikoaren arabera finkatutako korrelazioa hemen ere betetzen baita: *čto₁*, *kto* eta *čto₂*-rekin osaturiko perpausen %76, %62 eta %60, hurrenez hurren, euskaratzen da *sinplifikatzearen* bidez, hots, predikazioa perpaus mailatik IS mailara pasatuz. Horien atzetik, *kakoj* erlatibatzailea dator %31rekin, eta azkenik, *kotoryj* eta aditzondoak itzultzeko erabiltzen da gutxien (%20 eta %16).

Beste ondorio bat ere atera dezakegu: corpus guztia kontuan hartuta *parataxia* nagusigoa izatea *kotoryj*-ren lagin handiak eragiten duela.

3.2.3. Errusierazko erlatibatzaileen euskaratzea: ondorioak

Errusierazko erlatibatzaileen arabera datuak aztertuta, bi bloke bereizten direla ikusi dugu:

- Batetik, *kto*, *čto₁* eta *čto₂* (neurri batean *kakoj* ere bai) erlatibagarriak ditugu, alegia, euskaratzean ardatzaren ezkerretarako erlatibo asko eta erlatibo aposatu gutxi eragiten dituztenak, eta ordain ez-erlatiboekin euskaratzen direnean perpausa *sinplifikatzea* eragiten dutenak *parataxia* baino maizago.

- Bigarren bloke batean *kotoryj* eta aditzondoak izango genituzke (neurri batean *kakoj* ere bai). *Kotoryj* eta *kakoj* funtzio nahiz preposizio guztiekin erabili ahal izateak, eta aditzondoak, definizioz, euskarazko oinarriko estrategiarentzat erlatibagaitzak suertatzeak, batetik ardatzaren ezkerretarako erlatiboak osatzea zailtzen du, eta bestetik, erlatibakuntza ezabatzen denean, *parataxia* eragiten dute euskarazko ordain ez-erlatibo gehien-gehienetan.

3.3. Irizpide linguistikoak aplikatetik lortutako emaitzen garrantzia

Tesi honen azken helburua itzultzaile bakoitzaren balizko erlatibakuntza-estiloa azalratzea den arren, estilo hori modu isolatuan aztertu ahal izateko, lehendabizi faktore exogenoen eragina baztertu behar genuen, eta itzulpen-prozesuaren baitan itzultzaileaz gaindiko faktore nagusia hizkuntza da, edo zehazkiago esanda, hizkuntzak: sorburu-hizkuntza (SH) eta xede-hizkuntza (XH).

Gure corpuseko datuak hizkuntzarekin zerikusia duten elementuen arabera aztertu ahal izateko bi sailkapen-irizpide aukeratzen genituen: Izen Sintagma Erlatibatuak (ISE) errusierazko mendeko EPn hartzen duen funtzioa, eta errusierak erlatibakuntzarako eskuragai dituen baliabide morfosintaktiko –erlatibatzaile– bakoitzaren ezaugarriak.

Bi irizpide horiek aplikatuta, ondorioztatu dugu badirela korrelazio esanguratsuak itzultzaileak errusierazko perpaus erlatiboak euskaratzeko garaian hartzen dituen erabakien eta errusierazko perpaus horien propietateen artean.

Gainera, ikusi dugu bi ISEren posizioa eta errusierazko erlatibatzaileen ezaugarri morfosintaktikoak elkarrekin hertsiki loturik daudela, erlatibatzaileen euskaratzea, bestek beste, har ditzaketen kasu marken arabera ere badelako, lotura estua baitaude,

adibidez, ISEren posizio erlatibagaitzek *kotoryj* eta aditzondoan erabilpenarekin, eta berdin posizio erlatibagarriek *kto*, *čto₁* eta *čto₂* erlatibatzaileen agerpenarekin.

Behin kanpoko faktoreak aztertuta, sar gaitzen bete-betean gure corpusean itzultzaile bakoitzak errusierazko erlatibakuntza euskaratzeko daukan modua analizatzera.

4. ITZULTZAILEAREN ERLATIBAKUNTZA-ESTILOAK ITZULPEN-PROZESUAN DUEN ERAGINA NEURTZEN

Honezkero badakigu errusierazko EPek euskal ordain erlatiboak eta ez-erlatiboak izan ditzaketela. Halaber, ikasi dugu bi ordain mota horiek ere aldaera desberdinak dituztela.

Euskal ordain erlatiboak ardatzaren ezkerretarakoak (erlatibo arruntak eta jokatugabeak) edota aposatuak (erlatibo arrunt aposatuak, *ZEIN/NON* erlatiboak eta *BAIT*-erlatiboak) izan daitezke.

Euskal ordain ez-erlatibo bat daukagunean, aldiz, hiru gauza gerta daitezke: errusieraz erlatiboazko perpausa dena eten baten edo gehiagoren bidez zatitzea (*Parataxia*), errusieraz mendeko erlatiboazko perpaus elkartua dena beste menderakuntza mota batekin ordezkatzeta (*Hipotaxia*); edota errusieraz menpeko perpaus elkartu bat daukagun tokian perpaus bakun bat agertzea (*Sinplifikatzea*).

Errusierazko EPen euskal ordainak erlatiboak edo ez-erlatiboak izatea zerk eragiten duen aztertu ahal izateko, corpuseko datuei aplikatu beharreko bi sailkapen-irizpide mota finkatzen genituen: irizpide linguistikoak (ISEren posizio sintaktikoa eta errusierazko erlatibatzaile desberdinak euskaratzeko modua) eta irizpide estralinguistikoak (batez ere itzultzailearen estiloari dagozkionak).

Corpuseko perpausak irizpide linguistikoen arabera sailkatu ondoren, emaitzek berretsi digute bi hizkuntza-sistemek ezinbestean eragiten dutela itzulpen-prozesuan, hots, itzultzaileen erabakietan.

Hizkuntzaren eraginaz gain, ordea, itzultzaile bakoitzaren jarduerak – estiloak, idazkerak, izaerak, lehentasun nahiz iritzi linguistikoek– ere itzulpen-prozesuaren baitan zeresan handia dutela deritzogu. Ondorioz, ezinbestekoa zaigu itzultzaileen jarduera individualaren zantzuak atzematea, hizkuntza-sistemak (sintaxiak, perpausen luzerak, erlatibatzaileek...) inposatzen dizkion erabakiengandik isolatuz.

Estiloa kontzeptu aski labainkorra da (ik. I. kapituluko 2.2.3. puntua). Itzultzaile baten estiloak edo idazkerak alderdi asko izan ditzake, eta erlatibakuntza osatzeko (edo ezabatzeke) modua horietako bat besterik ez da. Haatik, errusieraren eta euskararen erlatiboazko egiturak elkarrengandik hain desberdinak izateak hitzez hitzeko itzulpena

zailtzen du, eta itzultzaileari erabaki propio gehiago hartzea eskatzen dio. Erlatibakuntza-sistemen arteko distantzia tipologiko handi batek, beraz, itzultzailearen jarduteko elementu interesgarri bat gehitzen dio gure ikerketari.

Egile baten estiloa, kontzeptu labainkorra izateaz gain, oso orokorra ere bada, idazkeraren alderdi ugari har baititzake bere baitan (ik. I. kapituluko 2.2.3. puntua). Guk hemen kontzeptu horren interpretazio murriztaile bat egingo dugu: guretzat estiloa itzultzaileak SHko erlatibakuntza euskaratzeko daukan modua izango da. Beraz, 'estiloa' diogunean balizko 'erlatibakuntza-estilo' bati buruz ari garela ulertu behar da.

Ikuspegi honen arabera, itzultzaile bakoitzak bere erlatibakuntza-estiloa izango luke, SHko erlatibakuntza XHra isurtzeko modua, hain zuzen. Erlatibakuntza isurtzeko modua izan daiteke erlatibakuntza mantentzea nahiz ezabatzea, hau da, itzultzaile bakoitzak errusierazko erlatiboari emaniko euskal ordain erlatiboak eta ez-erlatiboak nolakoak diren eta noiz –eta zenbatetan– egiten duen batzuen edo besteen aldeko hautua.

Nola isola dezakegu, ordea, itzultzailearen erlatibakuntza-estiloa? Nola jakin erabilitako euskal ordain erlatibo edo ez-erlatibo bat hizkuntza-sistemek eragindakoa den edota itzultzailearen ekarpen/ezaugarri pertsonal bat iradokitzen duen?

Itzultzailearen erlatibakuntza-estiloari buruzko informazioa lortu ahal izateko, lehendabizi itzultzailearen menpe ez dauden faktore guztiak baztertu beharko ditugu, hartara geratzen dena itzultzailearen estiloari berari egotzi ahal izateko. Bestela esanda, itzultzaile batek erlatibakuntza-estrategia batzuekiko besteekiko baino atxikimendu handiagoa erakusten badu, eta atxikimendu hori itzulpen-prozesuaren baitako hizkuntzek ezarritako murriztapenen edota beste faktoreren baten bidez azaltzea posible ez bada, orduan ezaugarri horiek itzultzaile horren estiloaren zantzutzat hartuko ditugu.

Itzultzaile desberdinen emaitzak beraien artean konparatzeko aukerak ere erreferentzia garrantzitsu bat eskainiko digu; testuinguru eta baldintza konparagarrietan erabaki desberdinak hartzen dituztela ikusiz gero, baliteke desberdintasun horiek bakoitzaren estiloaren bidez azaldu ahal izatea.

Itzultzailearen jokabidearen argigarri izan daitezkeen bi datu-iturri posible finkatu ditugu gure corpusean.

- Jatorrizko testuaren egilearen –errusiar idazlearen– erlatibakuntza-estiloari buruzko datuak.

- Hizkuntza-sistemaren baitako irizpideak itzultzaile bakoitzaren jardunari aplikatuz lorturiko datuak.

Errusiar idazleak, itzulpen-prozesuaren abiapuntu den ST-ren egileak, izan dezake bere erlatibakuntza-estiloa.

Adibidez, errusiar idazle batek perpaus luzeekiko zaletasuna edo alderantziz, perpaus labur eta hitz gutxikoak erabiltzeko joera izan dezake. II. kapituluko 3.2.1. puntuan (7. eta 9. grafikoetan) ikusten genuen Hídalgoek zuzenean lotzen zuela erlatibo aposatuen (arrunt aposatuen eta *ZEIN* erlatiboan) agerpena perpausen osagai kopuruarekin, biak zuzenki proportzionalak baitziren: bat igotzen zenean, besteak ere gora egiten zuen.

Hortik zera ondoriozta dezakegu: errusierazko erlatiboak euskarazko erlatibo aposatuen baliokidetzat har ditzakegunez (izen ardatzaren eskuinetara hedatzen direnak eta izenordaindunak izanik), perpaus luzeak osatzeko joera duen errusiar idazle baten testuetan perpaus erlatiboak topatzea errazagoa izango da; azken finean, perpaus luzeak egiteak menderakuntza –eta beraz, erlatiboak– erabiltzeko joera erakutsiko luke. Modu berean, alderantzizkoa gertatzea espero liteke perpaus laburren bidez idazten duen errusiar idazlearen kasuan: erlatibakuntza urriagoa izatea litzateke logikoena.

Hori horrela dela onartzeak idazle horien testuak euskaratzeko garaian idazlearen faktorea isolatzen lagundu diezaguke.

Demagun EP luzeak osatzeko joera duten bi errusiar idazle ditugula, eta gainera erlatibo horiek prozesatzeko zailak direla (erlatibatzaile nahiz kasu marka erlatibagaitzen ugaritasunagatik).

Imajina dezagun erlatiboazko perpausak antzera osatzen dituzten bi errusiar idazle horiek euskal itzultzaile bana daukatela, baina itzultzaile batek nagusiki ardatzaren ezkerretarako erlatibo arruntak erabiltzen dituela errusierazko EPen ordaintzat, eta bestearen itzulpenetan, aldiz, erlatibo aposatuen proportzioa biziki altua dela. Bi idazleen estiloak konparagarritzat jo baditugu, baina itzultzaileen arteko emaitzak desberdinak baldin badira, azalpena itzultzaileengan –beraien erlatibakuntza-estiloan– bilatzea izango da logikoena. Itzultzaileen erlatibakuntza-estiloa isolatzeko modu bat litzateke.

Noski, errusiar eleberri berdinen euskarazko bi bertsiok izango bagenu, are garbiago bereizi ahal izango genituzke itzultzaile desberdinen estiloak, baina, zoritxarrez, oraindik ez dago bi itzultzaile desberdinek euskaratutako errusierazko testurik.

Idazleen estiloaz gain, itzultzaile bakoitzaren perpausentzako aurretik landu ditugun faktore linguistikoak aplikatuz gero (ISEren posizio sintaktikoen nahiz erlatibatzaile desberdinen ezaugarrien aurrean duten jokamoldea), itzulpen-prozesuaren parte diren bi hizkuntzek inposaturiko murrizketek itzultzaile bakoitzarengan daukaten benetako eraginaren neurketa fintzea espero dugu.

Adibidez, itzultzaile batek erlatibo aposatuak besteek baino maizago erabiltzen baditu, eta maiztasun hori faktore linguistikoei edota idazlearen estiloari egozteak lortzen ez badugu, ondorioztatu beharko da itzultzaile horrek erlatibo aposatuak erabiltzeko berezko joera duela, ezerk edo inork baldintzatu gabekoa, ez itzulpen-prozesuan parte hartzen duten hizkuntzek, ezta jatorrizko testuaren idazleak ere.

Beste itzultzaile batek alderantzizkoa egiten badu –euskarazko ordainak kostatu ahala kostatu erlatibo arruntekin ematen saiatzen bada, alegia– itzultzaile horrek euskarazko oinarriko erlatibakuntza-estrategiarekiko berezko atxikimendu sendoa bat daukela esango dugu.

Kasu horietan itzultzaileen erlatibakuntza-estiloa isolatzea lortu dugula esan ahal izango dugu, itzultzaile baten erabaki konkretu bat idazlearen edota hizkuntza-sistemen ezaugarrien bidez azaltzeko zailtasunak iradokiko digulako itzultzailearen erlatibakuntza-estilo propio baten aurrean egon gaitzkeela.

4.1. Errusiar idazleen erlatibakuntza-estiloa: analisi kuantitatibo baterako saiakera

Idazleen erlatibakuntza-estiloa oso gai arantzatsua izan daiteke. Nola neurtu idazle batek perpaus erlatiboak osatzeko daukan modua? Eta hori neurtzea lortuz gero, nola kalkulatu balizko estilo horrek euskal itzultzailearengan izan dezakeen eragina?

Egile baten estiloa objektibatzea berez da langintza konplexua, ez bakarrik erlatibakuntzari dagokionez, eta horretarako bide egokia iruditu zaigu errusiar idazle bakoitzak erabilitako erlatibo kopurua neurtzea.

Erlatibo kopuru handi batek menderakuntzarako –eta beraz, perpaus luzeak erabiltzeko– joera iradokiko lukeela aipatu dugu gorago. Gure ustez, modu horretako testuetan prozesatzeko zailak diren EPk topatzeko aukera handiagoa izango denez, testu horiek euskaratzeko ardatzaren ezkerretarako erlatiboak –hots, arruntak eta jokatu gabekoak– gutxiago erabiltzea eta erlatibo aposatuekiko nahiz bestelako ordain ez-erlatiboekiko joera handitzea ekarri behar luke.

Logika horren arabera, idazlearen aldetik erlatibo kopuru txikiagoa izateak aurkako efektua eragin behar luke: menderakuntzarako joera txikiagoa eta ondorioz, perpaus laburragoak eraikitzeke ohitura iradokiko luke; logikoa da pentsatzea idazle mota honen testuak euskaratzeko ardatzaren ezkerretarako erlatibo gehiago erabiltzea, erlatibo aposatuen nahiz bestelako ordain ez-erlatiboekin kaltetan.

Hori dela eta, errusiar idazleen erlatibakuntza-estiloa definitzeko bi norabide zehaztu ditugu:

- Lehendabizi errusiar idazleen idazkera edo estilo orokorrari buruz dakigunaren inguruko hainbat xehetasun eskainiko ditugu.

- Idazle horietako bakoitzaren erlatibakuntza-estiloa kuantifikatzen saiatuko gara, osatutako erlatibo kopuruaren bidez.

Gure corpusean sartu diren errusiar idazleen aipamen labur bat egingo dugu ondoren, egileak kronologikoki banatuz; estiloa elementu nagusiki indibiduala izan arren, garai historikoak ere izan baitezake eraginik idazteko moduan, aurrerago XIX eta XX mendeen arteko desberdintasunei buruz hitz egitean ikusiko dugun bezala.

Aleksandr S. Puxkin (KAP 1836): A. Puxkin errusiar idazleak XIX mende erdialdean gertaturiko erromantizismotik errealismorako jauzia irudikatzen du, eta horrez gain, errusiar hizkuntza garaikidearen sortzailatzat hartua izan da, nahiz eta Errusiatik kanpo hain ezaguna ez izan.

Idazle baten erlatibakuntzaren erabilerari buruzko lanak topatzea ia ezinezkoa den arren, Puxkinen estiloa alderdi kontaezinetatik ikertu izan dute Errusiako eta mundu osoko adituek. Lotman-en aburuz, *Kapitainaren Alaba* eleberrian –1836an argitaratua eta gure corpuseko 12 liburuetako bat– Puxkinek pertsonaia bakoitzaren klase soziala islatzeko herritar soilen hizkera eta nobleziarena kontrajartzen ditu (Lotman 1995: 212-227). Oro har, Puxkinen estiloak errealismoaren lehenengo urteetako ezaugarriak dituela esan ohi da: ordura arte baztertuta zegoen ahozko hizkerara gerturatzeko nahia, zehaztasunaren bilaketa, herri-tradizioetara itzultzeko saiakera, ipuinetan, abestietan, folkloreaken berrir aurkitzea... Pentsa daiteke ikuspuntu horrek perpaus laburragoak –eta beraz, erlatibo gutxiago– erabiltzera bultzatzea zezakeela inkontzienteki, baina ezin dugu ziur baieztatu.

Mikhail J. Lermontov (GGH 1840): Puxkinen garaikide M. Lermontoven kasua oso antzekoa da. Biak jotzen dira errusiar errealismoaren sortzailatzat, eta idazkera ere oso antzekoa dutela esan daiteke. Vengeroven hitzetan, zehaztasuna, zorrotasuna, perpaus laburrak eta aldi berean adierazkorrak erabiltzen ditu Lermontovek (Vengerov S. 1900-1917: 312-313).

Litekeena da bai Lermontovek bai Puxkinek erlatibo gutxi erabiltzea, baina, esan bezala, zaila da horrelako zerbait ziurtatzea, benetan perpaus guztien luzera neurtu gabe.

Nikolai V. Gogol (ARH 1842): Gogol aurreko bien garaikide eta laguna izan bazen ere, hizkuntzaren aldetik badira desberdintasun batzuk. Hirurak zeuden garai hartako herri-hizkeraren eta nobleziaren hizkeraren arteko borrokan murgilduak, baina Vinogradoven hitzetan 'Gogolen hizkuntzan dialektikoki elkarrekin bizi ziren joera iraultzaileak eta zaharkituak. Gogolen estilo-aldaketaren historia are gehiago zailtzen zuen egilearen

elebitasunak, errusierako eta ukrainerako elementuak nahasten baitziren berarengan' (Vinogradov 1936).

Vinogradoven hitzetatik ondoriozta dezakegu Gogolek Puxkinen eta Lermontoven antzeko hizkuntza-egoera bizi izan zuela, baina estiloa ez zuela haien biak bezainbeste soildu. Hori bat dator Gogolen inguruan dagoen iritzi hedatuarekin, "perpaua luzedun prosa joria duela" diotenarekin, hain zuzen. Ondorioz, aurreikusteko modukoa litzateke Puxkinek eta Lermontovek baino perpaua luzeagoak eta erlatibakuntzarako joera handiagoa izatea.

Ivan S. Turgeniev (AIS 1865) da errusieratik zuzenean euskaraturiko erreialismo klasikoko ordezkari bakarra, Dostoievski, Tolstoi edota Gontxarov bezalakoak ez baitaude oraindik itzulita. Bere estiloaren ezaugarri nagusia ez da sinpletasuna –narratzailea egilea bera denean behintzat– perpaua luzez eta adjektiboz betetako prosa landua baizik. Gure corpuseko *Aita-semeak* eleberrian, herriko jende xehearen edota gazte progresisten ahotan jartzen duen hizkera eta narratzaileak darabilena, adibidez, ez dira berdinak (Lotman L. 1982: 120-159). Dena den, esan daiteke orobat perpaua luzeak eta erlatibakuntzarako joera espero ditugula berarengandik.

Orain arte aipatutako lau idazleak –XIX mendeko erreialismoaren ordezkariak guztiak– estilo aldetik nahiko antzekoak direla esan daiteke, nahiz eta beharbada Gogolengan –eta neurri txikiago batean Turgenievengan– espero genitzake perpaua luzeagoak, eta beraz menderakuntza (erlatibakuntza) joriagoa.

Ez dirudi XX mendeko idazle gehienek estiloa hain markatua denik, ondorengo ataletan ikusiko dugun moduan.

Maksim Gorki (AMA 1906): M. Gorki erreialismo sozialistaren ordezkari nagusienetako bat da. Hizkuntza iraultza egiteko instrumentu bezala ikusten zuen, goimailako klaseek bere egin nahi izan zuten instrumentu iraultzaile bezala, bere hitzetan: '...gizartea klaseetan antolatzeak langileriarri arrazoimenaz eta garapen libre batez gozatzeko eskubidea kentzea eragin du, beste eskubide batzuekin batera... Eta langile-masek mendeetan zehar (hizkuntzaren alde) eginiko ahalegina estaltzeko asmoz, esplotatzaileek bere egin zituzten lorpen horiek, hizkuntza beraien jabego bihurtzeraino...'.
Literaturaren alderdi estetikoari ez dio hainbeste erreparatu, baina bestalde, gure corpuseko *AMA* eleberri mardula da, eta horri buruzko erreferentzia garbirik topatu ez badugu ere, intuitiboki esan dezakegu bertan erabiltzen dituen perpauak ez direla bereziki laburrak.

Leonid N. Andreiev (ZPU 1908): askok errusiar espresionismoaren sortzailetzat jotzen dute. Oro har, mende hasierako modernismoan eta dekadentismoan kokatzen da, eta oso prosa adierazkorra dauka. Hutchingsen hitzetan, '... the "density" of the language,

the plethora of figures of speech, the abundance of qualifying words and phrases, the overstated “literariness” of the narration...’ (Hutchings 1990: 225). Hutchingsen deskribapen honetan oinarrituz gero, pentsa genezake posible dela menderakuntza –eta beraz, erlatibakuntza– konplexu bat agertzea Andreieven testuetan, baina, ohi bezala, zaila da hori egiaztatzea perpausen luzera benetan kalkulatu gabe.

Isaak E. Babel (ZTG 1923-1937): *erromantizismo iraultzailea* bezala definitu izan denaren ordezkari ezaguna. Ipuin laburren maisu izanik, bere estilo lakonikoagatik Txekhovekin alderatu izan dute zenbait adituk (Sicher 1986). Estilo lakoniko horrek – *Zalditeria gorri*-ko ipuinek ere badutena– iradokitzen du perpausak ez direla oso luzeak izango, eta ondorioz, erlatibakuntzak ere ez luke ez sarriegia eta ez konplexuegia izan behar.

Mikhail A. Bulgakov (TXB 1925): Bulgakoven estiloa aldatuz eta sotilduz joan zen urteetan zehar, Profferrek ongi aztertu bezala (Proffer 1984). Oro har perpaus laburrez osaturiko prosa dinamiko eta bizkorra egotzi ohi zaio, ziurrenik literatura satirikoaren maisu bati dagokion moduan. Beraz, orain arteko logika berberari jarraiki, perpaus laburrak eta erlatibakuntza gutxi edo/eta konplexutasun gutxikoa topatzea ez litzateke harrizkoa.

Mikhail A. Xolokhov (DII 1926): Errealismo sozialistaren ordezkariarik ezagunena, eta sari askoren jabea: 1941ean Stalin saria, 1960an Lenin saria eta 1965 Nobel saria jaso zituen (azken hau *Don barea* eleberri epikoarengatik). Sobietar boterearen defendatzaile sutsua eta Errusia hegoaldeko kosakoen bizimodua eta iraultza garaian nahiz ondoren bertan bizi izandako egoera izan zuen hizketagai bere lanetan. Nekazarien eguneroko hizkera Errusia hegoaldeko estepen deskribapen joriekin uztartzen dira bere lanetan (Ilin 1985). Don ibaiko ipuinak 1926an argitaratu ziren lehenengo aldiz, aurretik aldizkari eta egunkarietan agertu eta gero. Formatu laburrak beharbada perpaus laburragoak idatzera behartuko du, baina ezin dugu ziur baieztatu hori hala denik.

Andrei Platonov (LUB 1930): Platonoven estiloa errusiar literaturaren testuinguruan berezietakoa dela esan daiteke. Hizkuntzaren automatismoetatik urrundu nahiak prosa orijinal bezain (irakurketarako) aldrebes batekin esperimintatzera eraman zuen. Iosif Brodski nobel saridunak Platonoven Lubakiaren lehenengo argitalpenerako idatzitako “hitzatzean” zioen:

...bi gauza esan daitezke berari (Platonoven prosari) buruz, biak ere neurri berean zuzenak: errusiera irteerarik gabeko kale semantiko batera eramaten duela, edota –hau are zuzenagoa– hizkuntzak berak barnean daraman irteerarik gabeko kalearen filosofia aurkitzen duela (Brodski 1973).

Kornienkoren iritziz, Platonoven idazkera bereziak errealismo sozialistaren *estiloa herria da* formulazioak egilearengan eragindako ezinegona islatzen du (Kornienko 2000: 123), eta bide bertsutik jotzen du Bitovek ere, zera dioenean: ‘Platonovek bere testuak nolabaiteko Kristo aurreko kontzientzia primitibo baten hizkera erabiliz idaztea lortu zuen...’ (Bitov 2011).

Prosa, sakon, kiribildu eta erretorika luzeko hori kontuan izanik, perpaus luzeak eta erlatibakuntza konplexua aurreikus daitekeela deritzogu.

Sergei D. Dovlatov (KONP 1973-1980): Sergei Dovlatoven prosak ezaugarri nahiko markatuak ditu. Kasu honetan zalantzarik gabe baieztatu dezakegu perpaus laburrak erabiltzen dituela, eta formalki oso estilo arina duela. Ronkinek ohartarazi duen bezala, perpausak zehatz-mehatz neurtuta daudela dirudi, sarritan hiru puntuz amaitzen dira, gauza asko esan gabe uzteko keinu bat bailitzan (Ronkin 1999). Horrez gain, Dovlatovek berak esan zuen norbaiten antzekoa izan behar balu, Txekhov aukeratuko lukeela, eta jakina denez, Txekhoven estiloaren ezaugarri formal nagusienak, hain zuzen, estilo arina eta laburra dira.

Hori dena kontuan izanik, egile honen testuetan erlatiboetako perpaus gutxi eta laburrak izatea normala litzateke.


Andrei J. Kurkov (PIK 1997): *Piknika izotzetan* liburuak ezagutarazi zuen Andrei Kurkov Ukrainatik harago. Bere estilo orokorra *errealismo fantastikoa* bezala definitu izan da. Egile berria izanik, bere lanari buruzko ikerketak ez dira asko. Corpusean sartu dugun *Piknika izotzetan* eleberria nahiko mardula da, baina perpausen luzeraz ezin dugu informazio askorik eskaini. Erlatibo asko edo gutxi dituen, aldiz, aurrerago argituko dugu.

Idazleei buruzko irudi orokorra aurkeztu ondoren, erlatibakuntza-estiloa kuantifikatzen saiatuko gara, horretarako corpusetik ateratako datuak 29. eta 30. grafikoetan aurkeztuko ditugularik.

29. grafikoan idazle bakoitzak berari dagokion testuan erabili dituen perpaus erlatiboen kopuru osoa erakusten da.

Gure corpuseko 12 liburuak 12 idazleri dagozkenez, kasu honetan –eta hemendik aurrera fokua idazlearengan ezarri nahi dugun orotan– idazleen izenak baliatuko ditugu liburuak izendatzeko.

Horrez gain, kronologikoki antolatuko ditugu idazleak (zaharretik berrienera), egile batzuen eta besteen arteko aldea sarritan garai historikoaren arabera izaten baita. Corpuseko errusiar idazleen arteko bereizketa esanguratsuenak, ikusiko dugun bezala, XIX eta XX mendeen artekoak da.



Grafikoa 29 Errusiar idazleen erlatibo-kopuru osoa

Grafiko honen garrantzia idazle bakoitzaren laginaren tamaina ematean datza. Bertan ikus dezakegu Gogolek beste guztiek baino askoz ere erlatibo gehiago dauzkala (686 perpaus). Horrek esan nahi du gure corpus guztiaren ia herena (%29) idazle bakar baten ekarpena dela.

Ondoren, Ivan Turgeniev, Mikhail Lermontov eta Maksim Gorki leudeke, bakoitza corpusaren %10 ingururekin.

Hortik behera, kopuru apalagoekin, handienetik txikienera, Andrei Kurkov, Aleksandr Puxkin, Leonid Andreiev, Andrei Platonov, Isaak Babel, Mikhail Bulgakov, Sergei Dovlatov eta Mikhail Xolokhov daude.


30. grafikoan, aldiz, idazle bakoitzaren erlatiboaren kopuru proportzionala lortzeko – corpuseko liburuen neurri desberdinak distortsiorik sor ez dezan–, 29. grafikoko kopuruei euskarazko itzulpenen orrialde kopurua zatitu diogu; hartara, idazle bakoitzak benetan orrialdeko zenbat erlatibo osatzen dituen jakin ahal izango dugu. Euskarazko bertsiok aukeratu ditugu orrialde kopuruaren erreferentzia eskuratzeko, horretarako arrazoi batzuk ikusten genituelako.

Batetik, STen eta XTen proportzioak nahiko orekatuak direla iruditzen zaigulako, testuak itzultzaileen eskuetatik igaro ondoren ez direlarik ez luzeagoak eta ez nabarmen laburragoak.

Bestetik, errusierazko testuek, askotan Errusiako eta munduko literaturaren klasikoak direnez, argitalpen asko izan dituzte denboran zehar, bai errusieraz eta bai gure inguruko hizkuntza handietan. Euskaraz, aldiz, liburu guztiek euskarazko bertsiok bakarrik daukate,

eta gainera gehienak ‘Literatura unibertsala’ bildumakoak direnez, orrialde formatua, letraren tamaina eta beste hainbat elementu bateratuta dauzkate.

ST bakoitzeko erlatibo kopuruari XTaren orrialde kopurua zatituz gero, beraz, idazle batek erlatibakuntza benetan asko edo gutxi erabiltzen duen baieztatzetik gertuago egongo gara. Emaitza hauek maneia garriago egite aldera, 100 orrialdeko datuetara bihurtu ditugu (30. grafikoa).



Grafikoa 30 Errusiar idazleen erlatibo-kopuru proportzionala (100 orriko)

Oro har, datu hauen objektibotasunak zalantzak eragitea onartuta ere, lehenengo begirada batean, idazle gehienek estiloari buruz geneuzkan (aurre)iritziak neurri handi batean baieztatzen direla dirudi. Halere, garbi utzi behar da erlatibakuntza sarritan edo gutxitan erabiltzeak ez duela erlatibakuntza horren nolakotasunaren inguruko informaziorik eskaintzen.

Hasteko, erlatibo kopuru proportzional hau kontuan hartuta, agerian geratzen da XIX mendeko errusiar idazle klasikoak direla erlatibakuntza gehien erabiltzen dutenak, eta oraingoan ezin diogu liburuen luzerari leporatu: kopuru handienetik txikienera, Nikolai Gogol, Mikhail Lermontov, Ivan Turgeniev eta Aleksandr Puxkin (100 orrialdeko, hurrenez hurren, 123, 109, 102 eta 86 erlatibo) dira erlatibakuntza-maila altuena erakusten dutenak.

Gogolek proportziorik altuena izaten jarraitzen du, nagusigo hori kopuru absolutuetan bezain argia ez den arren. Honek berresten du idazlearen estiloak EPen erabilera ahalbidetzen duela, baina Gogolen kasuan eleberri luzea izateak efektu hau biderkatzen duela ere bai.

Datu hauetan oinarrituta, XIX mendeko gainontzeko idazleen kasuan ere (Lermontov, Turgeniev eta Puxkin) erlatibakuntzarekiko atxikimendua XX mendekoengan baino altuagoa dela baieztatu dezakegu.

Lermontoven erlatibo kopurua bereziki igotzen da kopuru proportzionala kontuan hartuta. Gorkirekin, ordea, juxtu alderantzizkoa gertatzen da: erlatibo kopuru absolutuetan oso goitik zebilen arren, datu proportzionaletan asko jaisten da; horrek esan nahi du testu luzea izateak egileak erlatibakuntzarekiko –eta pentsatu beharko dugu, menderakuntzarekiko– daukan atxikimendua puzten duela.

Hortik behera, 29. eta 30. grafikoetako datuak oso antzekoak dira; hots, gainontzeko itzulpenetan testuen hedadurak ez du datu proportzionaletan eragiten.

Aurrerantzean 30. grafikoko kopuru proportzionala hartuko dugu kontuan, idazlearen estiloa zorrotzago islatzen dutela baiteritzogu.

Bi bloke nabarmentzen dira, beraz, idazleen balizko erlatibakuntza-estiloaren arabera: XIX mendeko eleberririk klasikoak (erlatibo kopuru proportzionalik handiena) eta XX mendeko egileen lanak (erlatibo kopuru proportzionalik txikiak).

Idazleen erlatibakuntza-estiloaren inguruko azterketa osatzeko, horietako bakoitzaren datuei ohiko bi irizpide linguistikoak aplikatuko dizkiegu: ISEren posizio sintaktikoaren eta erlatibatzaileen araberrakoa.


Hori eginda, itzultzaileen erlatibakuntza-estiloa isolatzeko bidean aurrerapauso handia emango dugu: erlatibo kopuru altua daukan idazle bat baldin badaukagu, eta horrez gain, kasu marka erlatibagaitzak sarritan erabiltzen baditu, euskal ordainetan ardatzaren ezkerretarako erlatibo gutxi topatzea espero dugu, baina hala eta guztiz ere, idazle hori euskaratzean ardatzaren ezkerretarako erlatibo asko ageri badira, hori ezingo diogu ez idazlearen ez eta hizkuntzen eraginari egotzi, eta ondorioz, itzultzailearen berezko erlatibakuntza-estilo baten zantzuak aurkitu ditugula esateko arrazoiak izango ditugu.

4.1.1. Errusiar idazleak eta ISEren posizioa

Zer esan nahi du idazleei buruzko datuak ISEren posizioaren arabera sailkatzeak? Bada, errusiar idazleek EPak osatzeko erabilitako kasu markak erlatibagarriak, erlatibagaitzak edota –euskararen oinarritzko erlatibakuntza-estrategiarentzat behinik behin– erlatibaezinak diren zehaztea.

Horrek idazlearen erlatibakuntza-estiloari buruzko informazio gehigarria eman behar liguke, eta ondorioz, baita idazleak itzultzailearen erabakiak baldintzatzeko daukan ahalmenari buruz ere.

Esan behar da irizpide hau aplikatuta ateratzen zaizkigun datuak nahiko homogeneoak eta gorabehera handiegirik gabekoak direla. Xolokhovengan izan ezik (zeinak ez baitauka genitiborik), gure corpusean sartu diren idazle guztiek erlatibatzen dituzte posizio sintaktiko guztiak eta oso antzeko proportzioetan gainera (31. grafikoa).



Grafikoa 31 Errusiar idazleak eta ISEren posizio sintaktikoa

Hizkuntzaren baitako irizpideak aztertu ditugunean (ik. kapitulu honetako 3.1. puntua), garbi geratu da euskal ordainak eta erlatibatutako posizio sintaktikoak hertsiki lotuta daudela.


Ikusten genuen errusierazko subjektuek eta objektuek eragiten dituztela euskaraz posizio erlatibagarrienak; alegia, beraiek dira ardatzaren ezkerretarako erlatiboekin euskaratuak izateko aukera gehien erakusten dutenak.

Zehar-kasuak eta genitiboak, alderantziz, erlatibagaitzagoak direla ondorioztatzen genuen, subjektu eta objektuetan baino ohikoagoa delako beraien euskal ordaina erlatibo aposatua edota baliabide ez-erlatiboa izatea.

Liburu asko direnez, datu maneigarriagoak lortzen lagunduko digu ISEren posizio sintaktikoaren araberrako irizpidea aplikatuz lortutako emaitzak bi multzotan banatzeak:

kasu marka erlatibagarriak batetik (subjektuak eta objektuak) eta erlatibagaitzak bestetik (zehar-kasuak eta genitiboak).

Ikus dezagun sailkapen horrek gure corpuseko idazleen erlatibakuntza-estiloari buruz zer iradokitzen digun (32. grafikoa).



Grafikoa 32 Errusiar idazleak eta ISEren posizio sintaktikoa

Argi utzi behar dugu, aurretik behin baino gehiagotan egin bezala, hierarkia maiztasunaren ikuspuntutik atzertzen ari garela, gure corpusetik atera ditzakegun datuak horiek direlako.

Gorkiren perpausen hiru laurdenak kasu marka erlatibagarriak dira, beste inon baino gehiago.

Beste muturrean Platonov (%48) eta Kurkov (%43) dauzkagu, kasu erlatibagarrien kopuru txikienarekin eta beraz, erlatibagaitzenen proportzio handienarekin.

Gainontzeko bederatzi testuetan kopuruak nahiko orekatuak dira, beti ere kasu marka erlatibagarrien maiztasuna erlatibagaitzena baino altuxeago mantentzen delarik.

Honelako sailkapenen mugak aipatu ditugu lehen ere (maiztasunak ezin direla hierarkia guztiaren adierazletzat hartu, alegia), baina hala eta guztiz ere, maiztasun hauek idazleekin harremanetan jarrita bi gauza lortu nahi genituzke: batetik, idazleen erlatibakuntza-eredu desberdinei erantzuteko moduan itzultzaileen artean egon daitezkeen desberdintasunak azalerratez, eta bestetik, itzultzaile bakoitzak berdinduz jokatu ote duen berak euskaratutako liburu guztietan (itzultzaile guztiek gutxienez bi libururen euskaratzean parte hartu baitute).

Idazle batek kasu marka erlatibagarriak erabiltzeko joera izateak, bere testuen itzultzaileak euskal ordain erlatiboen aldeko hautua egitea ahalbidetu behar luke, eta gainera, erlatibo horien proportzio altu bat izen ardatzaren ezkerretara hedatu behar litzateke. Hori betetzen ez bada, idazlearen estiloari egotzi beharrean, itzultzailearen beraren joera bati erantzuten diola ondorioztatzeko aukera eskainiko digu.

Alderantzizkoa ere gerta daiteke: idazleak EPak sarritan kasu marka erlatibagaitzekin erabiltzen baditu, baina horiei euskarazko ordainetan ardatzaren ezkerretarako erlatiboen proportzioa ohi baino altuago bat baldin badagokie, itzultzaileak euskararen oinarritzko erlatibakuntza-estrategiarekiko berezko atxikimendua –edo erlatibo aposatuekiko atxikimendu-eza– erakusten duela ondorioztatu ahal izango dugu.

4.1.2. Errusiar idazleak eta erlatibatzaileak

Erlatibaturiko posizio sintaktikoez gain, ikusi dugu STan idazleak erabilitako baliabide morfosintaktikoen ezaugarriek badutela eraginik beraien euskal ordainetan (ik. kapitulu honetako 3.2. puntua). Erlatibagarritasun-mailaren arabera bi erlatibatzaile mota bereizten genituen. Ardatzaren ezkerretarako erlatiboekin zenbatetan itzultzen diren, hainbateko erlatibagarritasuna aitortzen genien erlatibatzaile horiei. Erlatibagarrienak erlatibo arruntekin eta jokatugabeekin sarrien itzultzen direnak dira, eta erlatibagaitzenak, alderantziz, erlatibo aposatuekin nahiz baliabide ez-erlatiboekin gehiago euskaratzen direnak.


- Erlatibagarriak (*čto₁*, *čto₂*, *kto* eta *kakoj*).
- Erlatibagaitzak (*kotoryj* eta aditzondo erlatiboak).

Erlatibatzaileen erabilerak idazlearen erlatibakuntza-estiloaren inguruko informazioren bat eskaini ote diezagukeen argitu nahi dugu hemen. Adibidez, logikoa dirudi pentsatzea *čto₁*, *čto₂*, *kto* edo *kakoj* erlatibatzaileak euskaratzean zailtasun gutxiago topatzea, eta ondorioz, ardatzaren ezkerretarako erlatibo gehiago erabiltzea. Hori hala ez denean, azalpen bat eman beharko zaio.

Berdin-berdin *kotoryj* eta aditzondoekin: oso erlatibagarria den kasu marka batekin euskaratuak ikusten baditugu, azalpen posible bat itzultzailearen beraren erlatibakuntza-estiloa izango da.

Ikus dezagun idazle bakoitzak berak idatzitako testuetan zer nolako baliabide morfosintaktikoak dituen gustukoen, ISEren posizioaren arabera irizpidearekin egindako

bereizketa berbera eginez erlatibatzaileekin ere: erlatibagarrienen –*kto*, *čto*₁, *čto*₂ eta *kakoj*– eta erlatibagaitzenen –*kotoryj* eta aditzondoak– artekoa (33. grafikoa).



Grafikoa 33 Errusiar idazleak eta errusierazko erlatibatzaileak

Grafiko honetako emaitzak azaletik aztertuta, esan dezakegu lehenengo lau liburuetan –XIX. mendeko idazleenetan, alegia– *kotoryj* eta aditzondoaren proportzio oso altu bat nabari dela. Deigarria da XX. mende hasieratik –Gorki eta Andreievengandik– hasten dela *kotoryj* eta aditzondoaren kopurua jaisten.

Hortik aurrera, gorabehera asko dago: Xolokhov eta Dovatoven testuetan, adibidez, *kotoryj* eta aditzondoak oso gutxitan agertzen dira, eta ondorioz, *kto*, *čto*₁, *čto*₂ eta *kakoj* beste inon baino gehiagotan.

Horrez gain, Platonoven, Xolokhoven eta Dovatoven testuetan beste gauza deigarri bat gertatzen da: Xolokhovek eta Platonovek erabilitako erlatibatzaileen %26 aditzondoak dira (batez besteko orokorra %11n dagoen bitartean). Dovatoven kasuan *čto*₁-ez osaturikoak perpaus guztien %25 dira, batez bestekoa %10ean dagoen arren.

Halaber, nabarmendu daiteke Andreieven eta Gorkiren testuetan ere altua dela erlatibatzaile erlatibagarrien proportzioa, nahiz eta ez Xolokhov eta Dovatovengan bezainbeste. Gainontzeko idazleengan *kotoryj* eta aditzondo erlatiboaren nagusigoa argia da.

4.1.3. Errusiar idazleen erlatibakuntza-estiloa: ondorioak

Idazle bakoitzak bere estiloa duela inor gutxik jartzen du zalantzan, eta horregatik intuitiboki erraz ulertzen da errusiar idazle bat euskaratzetik beste bat euskaratzera itzulpen-prozesuaren baitan aldaketak gertatzea, eta horrek itzultzaileen erabakietan eragina izatea. Zailagoa da intuitiboki onartutako aldaketa horiek atzeman, aztertu eta ondorio konkretuetara iristea.

Idazleen balizko erlatibakuntza-estiloaren ezaugarrien gaineko datu neurgarriak eskuratu ahal izateko, beraiek erabilitako erlatibo kopurua neurtzea proposatu dugu, errusiar egileen erlatibo-kopuru altu batek, euskaraz ardatzaren ezkerretarako erlatiboak osatzea nahiz erlatibakuntza mantentzea zailduko duelakoan. Idazleen erlatibo-kopuru baxu batek menderakuntzarako joera txikiagoa iradoki eta beraz, euskal erlatibakuntza – ardatzaren ezkerretarako– erraztu beharko lukeen neurri berean, hain zuzen.

Orrialdeko erlatibo kopurua neurtuta, XIX. eta XX. mendeetako idazleen arteko desberdintasunak, behintzat, esanguratsua dirudi (30. grafikoa).

Ondoren, ISEren posizio sintaktikoaren eta erlatibatzaileen arabera sailkatu ditugu datuak idazlez idazle: lehenengoak egileen arteko desberdintasun esanguratsurik azaleratu ez duen bitartean (guztiek neurri bertsuan erlatibatzen zituzten posizio sintaktiko desberdinak), bigarrenean argixeago ikusten da erlatibatzaileen eta estilo jakinen arteko harremana.

Kapitulu honetako ondoriorik garrantzitsuena zera da: idazleen erlatibakuntza-estiloa –eta beraz, baita idazkeraren beste alderdi batzuk ere– kuantitatiboki neurtzeko saiakerak bere fruituak eman ditzakeela, baina, aldi berean, hortik ateratako ondorioak kontu handiz maneiatu behar direla estiloa kuantifikatzea beti delako zaila.

Edonola ere, idazleen erlatibakuntza-estiloari buruz bildutako zantzu hauek itzultzaileen estiloa isolatzeko erabiltzen ditugunean ikusiko da benetan erreferentzia modura baliagarriak diren ala ez.


4.2. Gure corpuseko euskal itzultzaileak

Corpuseko hamabi liburuetako datuak idazleen arabera sailkatu ditugunean, hamabi balizko erlatibakuntza-estilo agertu zaizkigu, idazle bakoitzari liburu bana zegokiolako.

Hamabi liburu horiek euskaratu dituzten itzultzaileak, ordea, lau dira, eta beraz, erlatibakuntza-estilo desberdinak atzemateko bidea hauetako bakoitzak euskaraturiko liburuetako emaitzak bateratu eta aztertzea izango da, hartara itzultzaile bakoitzaren jardunaren ikuspegi ahalik eta osoena lortu ahal izateko.

Lehenengo hurbilketa batean itzultzaile bakoitzak corpusari egindako ekarpena neurtuko dugu, corpuseko perpaus guztietatik itzultzaile bakoitzari zenbat dagozkion jakin ahal izateko.

Gure corpuseko A, B, D eta E itzultzaileek euskaratu dituzten errusierazko EPen kopuruan asimetria nabaria dago: corpusak dituen 2402 perpausetatik 1905 (%79) A itzultzaileak euskaratuak dira. Gainontzekoak B itzultzailearen (164 perpaus edo corpusaren %7), D-E itzultzaileen (137 perpaus edo %6) eta E itzultzailearen (196 perpaus edo %8) artean itzuli dituzte (34. grafikoa).




Grafikoa 34 Euskal itzultzaileek corpusari egindako ekarpena

A itzultzailearen nagusigoa bistakoa da, perpaus guztien %80 berak itzulitako testuetatik hartu baititugu. Horregatik, itzultzaileka sailkatu beharko ditugu lortutako datuak, asimetria horrek emaitzetan eragin ez dezan.

Itzultzaileen jardunari buruzko hiru daturen bila arakatu dugu corpusa:

- Ordain erlatiboen proportzio orokorra; alegia, errusierazko EPak itzultzean, itzultzaile bakoitzak zenbatetan mantentzen duen erlatibakuntza eta zenbatetan ezabatzen.
- Erlatibakuntza mantentzen den kasuetan, itzultzaile bakoitzaren testuetan euskarazko erlatibakuntza-estrategia desberdinen banaketa zein den.
- Erlatibakuntza ezabatzen den kasuetan, baliabide ez-erlatiboen (*parataxia*, *hipotaxia* eta *sinplifikatzearen*) banaketa nolakoa den.

35. grafikoa aurkezten dugu itzultzaile bakoitzak zenbatetan mantentzen duen errusierazko jatorrizko erlatibakuntza eta zenbatetan ezabatu.



Grafikoa 35 Ordain erlatiboen proportzio orokorra euskal itzultzaileengan

35. grafikoko datuen arabera, badirudi erlatibakuntzaren mantentzearen edo ezabaketaren alorrean ez dagoela itzultzaileen artean desberdintasun handirik. Hori bera adierazgarria izan daiteke.


D-E itzultzaileak eta E itzultzailea –bi liburutan batera eta beste batean bietako batek bakarka itzultzen duen itzultzaile bikotea– dira erlatibakuntza sarrien mantentzen dutenak: %80 eta %78, hurrenez hurren. B itzultzailearen emaitzak ez dabilta horiengandik oso urrun (%74). Azkenik, erlatibakuntza mantentzeko joera gutxien erakusten duena A itzultzailea da: itzuli dituen errusierazko perpausen %66an soilik mantendu du erlatibakuntza. Ondorioz, beste inork baino maizago ordezkutzen du errusierazko erlatibakuntza bestelako baliabide ez-erlatiboekin.

Datu horiek, bere horretan hartuta, itzultzaileen arteko hierarkia bat osatzeko tentaziora eraman gaitzakete, baina lehenago ere ikusi dugunez, datu hau orokorregia da ondorio esanguratsuak ateratzeko, euskal ordain erlatibo eta ez-erlatibo desberdinak ez dituelako bereizten (kapitulu honetako 3.1 eta 3.2 puntuak aztertu dugu hau).

Bestalde, itzultzaile batek liburu bat baino gehiagoren itzulpenean parte hartu badu – eta gure corpusean hala da kasu guztietan– hemen aurkeztutako edozein datu itzultzaile horiek itzuli dituzten liburu guztietako emaitzen batez bestekoa besterik ez da izango.

Egoera hori aintzat hartu eta itzultzaile bakoitzak liburuz liburu egin duena zehaztu dugu.

A itzultzailearen kasuan bereziki garrantzitsua da liburukako azterketa bat burutzea: zazpi liburu itzuli dituenaz, litekeena delako desberdintasun esanguratsuak agertzea. Itzultzaile honek %66ko ordain erlatiboaren proportzio orokorra daukala diogunean – euskarazko ordain guztien %66 direla erlatiboak, alegia– kontuan izan behar dugu itzultzaile honen datuak, liburuz liburu, %54ko tasa baxuenetik %85eko altuenera doazela, tartean %59, %67, %69, %74 eta %76ko proportzioak ageri direlarik. Nahiko anitza da, beraz, itzultzaile honek sorturiko testuen egoera (36. grafikoa).



Grafikoa 36 A itzultzailea eta euskal ordain erlatiboaren proportzio orokorra

36. grafikoa A-ren itzulpenak argitalpen-dataren arabera sailkatuta daude, itzultzailearen ibilbidea jarraitu ahal izateko.

Euskaratutako lehenengo liburuan (AMA) erlatibakuntza mantentzeko joera handia agertzen du (ordain guztien %85).


Hurrengo hiru liburuetan (GGH, KAP, ARH) proportzio hau jaitsi egiten da, batez ere azkeneko bietan: hurrenez hurren, errusierazko erlatiboaren %69, %59 eta %54 euskaratzen du erlatibo baten bidez.

Azkeneko hiruetatik –AIS, TXB, ZPU–, lehenengoan eta hirugarrenean kopurua nahiko goitik dabil (%74, %75), baina TXBn ez hainbeste (%67).

Datu honek, bere orokortasunean, itzultzaileak erlatibakuntza mantentzeko jarritako enpeinua neur dezake apika, baina ordain erlatiboak eta ez-erlatiboak banaka aztertutakoan bakarrik jakingo dugu datu orokor hau esanguratsua den ala ez.

Beste itzultzaileen kasuan, liburu gutxiago itzuli dituztenez, laginaren adierazgarritasuna beti egongo da kolokan neurri batean, baina horiek euskaratutako testuek ere badituzte besteengandik bereizten dituzten zenbait ezaugarri esanguratsu.


B itzultzailearen batez besteko ordain erlatiboen proportzioa %74koa dela ikusi dugu, baina berak euskaraturiko bi liburuetako bakoitzean egoera bat daukagu: KONPen euskal ordain erlatibo bat duten errusierazko perpausak %84 diren bitartean, LUBen proportzio hori %70era jaisten da (37. grafikoa).



Grafikoa 37 B itzultzailea eta euskal ordain erlatiboen proportzio orokorra

D-E itzultzaile bikoteak bere zereginen banaketa nola antolatu duen oraingoz alde batera utzita, 38. grafikoa ikusten dugu biek batera itzuliriko ZTG eta DII liburuetako ordain erlatiboen proportzioan desberdintasun handi samarra nabari dela, lehenengoan perpausen %76an mantentzen baita erlatibakuntza, eta bigarreanean %91n.

E itzultzaileak bere kasa euskaraturiko PIK liburuan ordain erlatiboen proportzioa %78koa da, alegia D-rekin batera itzultitako ZTGko datuaren ia berdina.




Grafikoa 38 D-E itzultzaileak eta ordain erlatiboen proportzio orokorra

Dena den, esan bezala, datu orokor hau erreferentzia bat izan daiteke, baina behin betiko ondorioetara iritsi ahal izateko, datu horren atzean dauden ordain erlatibo nahiz ez-erlatiboen benetako izaera aztertu beharko dugu.

4.3. Euskal itzultzaileak eta ordain erlatiboak

Erlatibakuntza mantentzen den kasuetan ordain erlatibo desberdinak bereizteak emaitza fidagarriagoak eskaintzen dizkigu (39. grafikoa).



Grafikoa 39 Euskal itzultzaileak eta ordain erlatiboak

39. grafikoak garrantzia handia dauka gure ikerketan, bertan topatzen baititugu gerora gure corpuseko itzultzaile bakoitzari dagokion erlatibakuntza-estiloaren lehendabiziko zantzuak.

D-E itzultzaileak eta E itzultzaileak –bakarka itzultzen duenean– beraien artean oso antzeko datuak dituztela berrestez gain, antzekotasun horiek beste bi itzultzaileengandik bereizten dituztela ikusten dugu. Besteengandik bereizte hori bereziki garrantzitsua da, itzultzaile horien erlatibakuntza-estilo propio bat atzeman dugula iradokitzen digulako.

D-E itzultzaileak eta E itzultzailea, konparatiboki, oso gutxi baliatzen dira ardatzaren ezkerretara hedatzen diren erlatiboez: batera itzultzen dutenean, osatzen dituzten euskal

ordain erlatibo guztietatik %47 bakarrik dira erlatibo arruntak edo jokatu gabeak eta E-k bakarka itzultzen duenean ordain erlatibo guztien %48.

Honek bi gauza behintzat uzten ditu agerian:

- D-E itzultzaileei erlatibakuntza-estilo oso markatua nabari zaie, bai batera itzultzen dutenean eta bai E-k bakarka lan egitean. Honek euskarazko testuen egiletza bakarraren alde egingo luke.

- Bestalde, itzultzaile hauen erlatibakuntza-estiloaren ezaugarriak beste itzultzaileen testuetan ez errepikatzeak berezko erlatibakuntza-estilo baten presentzia berretsiko luke. Azken hau bereziki garrantzitsua da tesi honen helburuetarako.

Are deigarriagoak dira datu hauek kontuan izanda 38. grafikoko emaitzetan ordain erlatiboen proportzio orokorrik altuena D-E itzultzaileek zutela. Hortik ateratzen dugun ondorioa da errusierazko EPak beste edozein itzultzailek baino maizago ematen dituztela euskal ordain erlatibo batekin. Aldi berean, ordea, euskarazko erlatibo horiek beste edozein itzultzailearen testuetan baino gutxiagotan dira izen ardatzaren ezkerretarakoak.

Ondorioz baieztapen hau egin dezakegu: D-E itzultzaileengan erlatibo aposatuak erabiltzeko joera beste itzultzaile guztiengan baino nabarmenagoa da.

A eta B itzultzaileen emaitzak, lehenengo begi-kolpe batean behintzat, elkarrengandik gertuago daude D-E itzultzaileenetatik baino, nahiz eta sakonago aztertzean hauen arteko desberdintasunak ere agerikoak diren.

B itzultzaileak dauka guztien artean ardatzaren ezkerretarako erlatiboen proportziorik handiena, horrela osatzen baititu errusierazko EPen euskal ordain erlatiboen %87. Ondorioz, B-k euskaraturiko testuetan erlatibo aposatuen presentzia beste itzultzaileen lanetan baino txikiagoa izango da nahitaez.

A itzultzailearen testuetan ardatzaren ezkerretarako erlatiboen proportzioa apur bat jaisten da B-rekin alderatuz gero –ordain erlatiboen %74–, eta ondorioz, A-ren erlatibo aposatuen proportzioa B-rena baino altuagoa dago, baina D-E-renaren azpitik dago.

Esan bezala, 39. grafikoko datuak oso garrantzitsuak dira, lehenengo aldiz itzultzaileen erlatibakuntza-estilo desberdinen zantzuak atzeman ditugulako, non muturreko bi jokabide (B eta D-E itzultzaileena) eta erdibideko bat baikeneuzkan: B-k erlatibo aposatu gutxi eta ardatzaren ezkerretarako asko, D-E-k erlatibo aposatu asko eta ardatzaren ezkerretarako gutxi, eta A-k bi mutur horien arteko egoera bat irudikatzen du.


Dena den, datu hauek itzultzaile bakoitzak euskaraturiko liburu guztien batez bestekoa dira. Orain banan-banan ordain erlatiboak osatzerakoan itzultzaile bakoitzak

liburuz-liburu izan duen ibilbidea aztertuko dugu, ondorengo galderari erantzuna eman ahal izateko: itzultzaileek guk hemen egotzi diegun estiloari liburu guztietan eusten diote ala batez besteko horren atzean ez dago itzultzaile jakin baten testu guztietan errepikatzen den ildo koherenterik?

4.3.1. A itzultzailea eta ordain erlatiboak

Aurreko puntuan ikusi dugu A itzultzailearen batez besteko datuek –beste itzultzaileekin alderatuta beti– erdibideko irudi bat eskaintzen zutela.

40. grafikoan liburuz liburu ikus dezakegu A itzultzaileak erabiltzen dituen erlatibakuntza-estrategien korrelazioa, ohi dugun bezala, ardatzaren ezkerretarako arabera sailkatuta: arruntak eta jokatu gabekoak batetik (ardatzaren ezkerretarakoak), eta erlatibo aposatuak bestetik (arrunt aposatuak, *ZEIN/NON* erlatiboak eta *BAIT*-erlatiboak).




Grafikoa 40 A itzultzailea eta ordain erlatiboak

Oro har, nolabaiteko jarraitasuna nabari da itzultzaile honen liburu guztietan, AISen izan ezik, non erlatibo aposatuen proportzioa beste guztietan baino gorago dagoen. Gainontzeko itzulpenetan ez dago gorabehera handirik, eta beraz, badirudi oraingoz daukagun datuek itzultzaile honen jokamolde orekatua berresten dutela.

4.3.1.1. A itzultzailea eta ardatzaren ezkerretarako erlatiboak

A itzultzailearen ardatzaren ezkerretarako erlatiboak liburuz liburu sailkatuz gero, 41. grafikoko emaitzak lortzen ditugu.



Grafikoa 41 A itzultzailea eta ardatzaren ezkerretarako erlatiboak

Itzultzaile honek bere ibilbidean erlatibo arrunt eta jokatu gabeak zein proportziotan osatu dituen aztertuta (41. grafikoa), eta 36. grafikoa itzultzaile honek erakusten zuen ordain erlatiboaren proportzio orokorrekin alderatuz gero, A-ren erlatibakuntza-estiloaren irudi nahiko zehatza jasoko dugu.

Adibidez, argitaratutako lehenengo bi itzulpenetan –AMA eta GGH– erlatibakuntza perpausen %85ean eta %69an mantentzen bazuen, ordain erlatibo horietatik, hurrenez hurren, %86 eta %72 dira ardatzaren ezkerretarakoak.

Argitaratutako hurrengo bi liburuetan –KAP eta ARH–aldaketa esanguratsua nabari da: bietan ordain erlatiboaren proportzio orokorra nahiko baxua zen arren –errusierazko perpausen %59 eta %54 bakarrik ematen ziren euskaraz erlatibozkoekin–, horietatik asko dira ardatzaren ezkerretarakoak (%78, %76). Ondorioz, esan dezakegu KAP eta ARH euskaratzerakoan, erlatibakuntzari dagokion jokabidea ondorengoia izan dela: itzultzaileak gutxitan mantendu du STko erlatibakuntza XTn, perpaus guztien ia erdia baliabide ez-erlatiboaren bidez osatu baitu, baina aldi berean, osatu dituen euskal ordain erlatibo gutxi horien zati oso handi bat ardatzaren ezkerretarako erlatiboak dira, erlatibo aposatuen kaltetan. Alegia, ordain erlatiboetatik asko suertatu dira oinarriko erlatibakuntza-estrategiarekin erlatibatze modukoak (edota berak horrela itzuli ahal izateko moldatu ditu).

AISen, berriz, juxtu alderantzizkoa gertatzen da: errusierazko perpausen zati handi bat ordain erlatiboaren bidez itzultzen bazuen ere (%74), ardatzaren ezkerretarako erlatiboak beste inon baino gutxiago erabili ditu; hots, erlatibakuntza askotan mantentzen da –beraz,

baliabide ez-erlatiboetara apenas jo duen-, baina erlatibakuntza horren erdia soilik da ardatzaren ezkerretarakoa (perpausen %51). Ondorioz, euskal ordain erlatiboen beste erdia aposatuta agertuko da. Liburu honetan A itzultzailearen erlatibakuntza-estiloa D-E itzultzaileen jokamoldera hurbiltzen dela esan daiteke.

Azkenik, TXB eta ZPU liburuetan, ordain erlatiboen proportzio orokorra %62 eta %72 zen, hurrenez hurren, eta erlatibo hauetatik %72 (TXB) eta %87 (ZPU) da ardatzaren ezkerretarakoa. Horrek adierazten digu bi liburu hauetan erlatibakuntza sarritan mantentzeaz gain, ardatzaren ezkerretarako erlatiboak nahiko ohikoak direla, batez ere ZPUn.


Erlatibo jokatu gabeen adibideak konparatiboki gutxi direnez –nahiz eta, gure ustez, lagin adierazgarria osatu-, erlatibo arrunten barnean gal ez daitezen, beraien erabilpenari buruzko aipamen labur bat egingo dugu.

A itzultzaileak errusierazko EPak ordain erlatibo batekin euskaratzen dituen kasuen %5ean erabakitzen du erlatibo jokatu gabe bat osatzea. Liburuka aztertuta, emaitzak zertxobait aldatzen dira: batez besteko %5ean edo horren gaineratik daude GGH, KAP, ARH eta ZPU (%5, %6, %7 eta %8, hurrenez hurren). Batez bestekoa baino txikiagoa da AMA, TXB eta AIS liburuetan: %3, %3 eta %1.

Edonola ere, datu hauetan ere ez dugu ikusten erlatibo jokatu gabeak erlatibo arruntengandik bereizteko funtsezko arrazoirik.

4.3.1.2. A itzultzailea eta erlatibo aposatuak

Erlatibo aposatuak ardatzaren ezkerretarakoen ifrentzua direla kontuan izanik, 42. grafikoan ikusten duguna azaletik aztertuta, zera esan dezakegu: euskarak erlatibo aposatuak osatzeko eskura dituen estrategietatik hemen aztertzen ari garenak (arrunt aposatuak, *ZEIN/NON* erlatiboak eta *BAIT-* erlatiboak), aski uniformeki banatuta daudela A itzultzailearen testuetan. Beste itzultzaileen emaitzak dauzkagunean ikusiko dugu, gainera, horixe dela, hain zuzen, A itzultzailearen ezaugarriarik deigarriena: emaitzen uniformetasuna eta erregularitasuna.



Grafikoa 42 A itzultzailea eta erlatibo aposatuak

Lermontov (GGH), Gogol (ARH), Turgeniev (AIS) eta Andreiev (ZPU) idazleen testuen euskarazko bertsioetan euskal erlatibo aposatuen aniztasun guztia dago ordezkaturia.

Lehenago aipatu dugun moduan, testu batean erlatibakuntza askotan mantentzen bada, baina ardatzaren ezkerretarako erlatibo gutxi atzematen baditugu, erlatibo aposatuen proportzioa ohikoa baino handiagoa izango da, eta alderantziz, ardatzaren ezkerretarako erlatiboek laginaren zati handi bat hartzen badute, erlatibo aposatuen proportzioa txikiagoa izango da.

Erlatibo aposatuen artean, oro har, bi mota bereiz ditzakegu: maiztasun handiko *ZEIN* eta *BAIT-* erlatiboak batetik, eta urriagoak diren erlatibo arrunt aposatuak nahiz *NON* galdetzailerekin osatutakoak bestetik.

Lehenago ere ikusi dugu *NON* erlatiboaren erabilpena bereziki lokalizatua dagoela, azken finean *ZEIN* erlatiboaren ordezkotzat izateak eta lekuzko esanahietara mugatuak egoteak asko baldintzatzen dituelako.

Erlatibo arrunt aposatuen kopurua txikia den arren, oso zabalduta dago bere erabilpena; alegia, gutxi izan arren, corpus guztian zehar barreiatuta daude.

Edonola ere, esanguratsuenak *ZEIN* galdetzailearekin eta *BAIT-* aurrizkiarekin osatutako erlatiboak dira, hain zuzen, A itzultzailearen testuetan sarrien agertzen direnak.

A itzultzaileak euskaraturiko perpaus guztien %10 dira *ZEIN* erlatiboak eta beste hainbeste *BAIT-* aurrizkiarekin eratutakoak. Alegia, A-k errusierazko erlatiboari emandako bost euskal ordainetatik batek (%20) *ZEIN* edo *BAIT-* bat dauka bere baitan. Gainera, beraien hedapena nahiko banatua dago, itzultzaile honek euskaratutako liburu guztietan topatzen baita aleren bat eta antzeko proportzioetan gainera.

ZEIN erlatiboari dagokienez, AIS liburuan agertzen dira beste inon baino maizago: ordain erlatibo guztien %20 dira.

TXBn ere altua da *ZEIN* erlatiboaren proportzioa: ordain erlatiboaren %15.

Batez bestekoaren bueltan dabilta GGH eta ARH: ordain erlatiboaren %11 eta %9, hurrenez hurren.

Gainontzeko hiru itzulpenetan *ZEIN* erlatiboaren erabilpen-maila jaitsi egiten da: AMA eta KAP euskaratzerakoan, ordain erlatiboaren %6an eta %4an geratzen dira. ZPUren kopurua, aldiz, guztiz sinbolikoa da: ordain erlatiboaren %1 edo bestela esanda, perpaus bakarra.

BAIT- erlatiboetan ere, beste erlatibo aposatu guztietan bezala, AIS da maiztasunik altuena erakusten duen testua, ordain erlatiboaren %19arekin. Kasu honetan, ordea, liburu gehiagok dituzte emaitza altuak: KAP (erlatiboaren %15), TXB (%12) eta GGH (%10).

Hortik behera, baina edozein kasutan kopuru adierazgarrietan, ZPU (%8) eta ARH (%7) daude.

Azkenik, AMAn *BAIT-* aurrizkiarekin osatutako bost perpaus bakarrik daude, ordain erlatiboaren %2.

Korrelaziozko erlatiboak erabiltzen dituen itzultzaile bakarra A itzultzailea da: GGH eta ARH liburuetan perpaus bana osatzen du horrela. Lagina oso adierazgarria ez denez, eta bi perpausak itzultzaile honen testuetan soilik agertzen direnez, aipamen honetara mugatuko gara.

4.3.1.3. A itzultzailea eta errusiar idazleen erlatibakuntza-estiloa ordain erlatiboetan

A itzultzailearen datuak berak itzulitako testuen jatorrizko egileen erlatibakuntza-estiloarekin kontrajarrita (ik. kapitulu honetako 4.1. puntua), itzultzaile honek euskaratutako liburuaren arteko desberdintasunen alderdi batzuk azaldu daitezkeela deritzogu.

Zeintzuk dira egoera hori argitzeko eskuragarri dauzkagun datuak?

Batetik, idazlearen erlatibakuntza-estiloa objektibatzen saiatu garenean, haietako bakoitzak 100 orrialdeko osatutako erlatibo kopurua finkatzen genuen.

Bestetik, badakigu A itzultzaileak berak liburu bakoitzean zenbat ordain erlatibo osatzen dituen, eta horietatik zenbat diren ardatzaren ezkerretarakoak eta zenbat aposatuak.


Bi datu hauek kontrajarriz gero, idazlearen eta itzultzailearen “harremana” objektibatzea lortu dugula baieztatu ahal izateko, idazlearen orrialdeko erlatibo kopurua eta itzultzailearen ardatzaren ezkerretarako erlatiboen proportzioa alderantziz proportzionalak izan behar lukete.

Idazleak orrialdeko erlatibo kopuru handi bat daukanean itzultzaileak ardatzaren ezkerretarako erlatiboak gutxiagotan erabiltzea espero liteke, erlatibo kopuru altu batek idazlearen aldetik erlatibakuntzarekiko –eta beraz, menderakuntzarekiko– atxikimendu handia iradokiko lukeelako, eta horrelako idazle batek osatutako perpaus erlatiboak oinarritzko estrategiarekin euskaratzea zailago izan behar lukeelako.

Alderantziz, idazlearen erlatibo kopuru txiki batek itzultzailearen erlatibo arrunt eta jokatu gabeen proportzio handiagoa eragin behar luke, beti ere helburua datu hauek objektibatzea eta harremanetan jartzea lortu dugula egiaztatzea izanda.

Logika honi eragozpen bat jarri diezaiokegu: idazle batek erlatibo kopuru handia baldin badu, baina erlatibo hauek laburrak edo erlatibagarriak badira? Ez dirudi hori gertatzen denik, gure corpusean behintzat. 31, 32. eta 33. grafikoetan garbi ikusten genuen erlatiboen izaera antzekoa zela idazle guztiengan: ISEren funtzioen nahiz erlatibatzaileen banaketa uniforme zen, eta ez zegoen alde esanguratsurik beraien artean.

Halere, sarritan aipatu izan dugun moduan, estilo bat kuantifikatzeak muga asko ditu. 43. grafikoan batera jarri ditugu A itzultzailearen ezkerretarako erlatiboen proportzioa eta berak euskaratutako idazle bakoitzaren erlatibo kopurua, eta onartu behar da emaitza kontraesankor samarrak eskaintzen dituela.



Grafikoa 43 A itzultzailearen ordain erlatiboak eta errusiar idazleen erlatibakuntza-estiloa

Errusiar idazleak osatutako erlatibo kopurua erlatibo horien euskaratzerako esanguratsua izan dadin, erlatibo kopuru txikiena duen Bulgakovek, adibidez, ardatzaren ezkerretarako erlatiboaren proportziorik handiena eragin behar luke bere testuen euskarazko bertsioetan, baina ez da hala gertatzen.

Turgenieven kasuan, aldiz, idazle honek erlatibo asko eraten dituenez, euskarazko testuan ardatzaren ezkerretarako perpausen proportzioa ordain erlatiboaren erdira jaitea normalizat joenezake.

Gorkiren eta Puxkinen euskarazko bertsioetan ere esperotako korrelazioa betetzen dela esan genezake: bi idazle horiek Turgenievek baino erlatibo gutxiago osatzen dituzte, eta ardatzaren ezkerretarako erlatibo gehiago erabiltzen ditu A-k hauen testuak euskaratzean.

Gogolen eta Lermontoven datuak, ordea, ez datoz logika honekin bat: Turgenievek baino are erlatibo gehiago osatzen dituzten arren, euskaraz eragiten dituzten ardatzaren ezkerretarako erlatiboak ere gehiago dira.

Beraz, ezin dugu baieztatu –A itzultzailearen emaitzetan oinarrituta behintzat– harreman zuzena ezar daitekeenik STaren egileak osatutako erlatibo kopuruaren eta XTren egileak ardatzaren ezkerretara hedatutako erlatiboaren maiztasunaren artean.

4.3.2. B itzultzailea eta ordain erlatiboak


B itzultzailearen datuek ez daukate A itzultzailearenak aztertzeak daukan konplexutasuna, bi liburu bakarrik direlako euskaratu dituenak.

Itzultzaile guztien ordain erlatiboen proportzio orokorra aurkeztu dugunean, ikusten genuen D-E itzultzaileek B-k baino sarrigo mantentzen zutela erlatibakuntza, baina orain badakigu D-E itzultzaileek erlatibakuntza mantentzeko zuten joera hori erlatibo aposatuen maiztasun ezohikoari zegokiela nagusiki, ardatzaren ezkerretarako erlatiboen kaltetan.

39. grafikoa ikusten genuen B-k itzulitako testuetan juxtu aurkakoa gertatzen zela: erlatibakuntza sarritan mantentzeaz gain, erlatibo horiek ardatzaren ezkerretarakoak dira kasu gehien-gehienetan. KONPen ordain erlatiboen %91 dira arrunt edo jokatu gabeak eta LUBen, berriz, erlatiboen %85.

4.3.2.1. B itzultzailea eta ardatzaren ezkerretarako erlatiboak

Erlatibo arruntei dagokionez, KONPen %84 eta LUBen %75aren arteko desberdintasuna esanguratsua dela esan dezakegu. Hauei jokatu gabeen emaitzak gehituz gero, hurrenez hurren %7 eta %10, egoera orokorra ez da asko aldatzen: B itzultzaileak, beste itzultzaileekin alderatuta, euskarazko erlatibakuntza-estrategia nagusiarekiko atxikimendu irmoa erakusten du (44. grafikoa).



Grafikoa 44 B itzultzailea eta ardatzaren ezkerretarako erlatiboak

Itzultzaile honek euskaratutako bi liburuetan oso goitik dabilta ardatzaren ezkerretarako erlatiboen proportzioak. Horrek oinarritzko erlatibakuntza-estrategiarekiko atxikimendua, euskarazko ahozkotasanarekiko gertutasuna edo erlatibo aposatuez


baliatzeko ohitura eza iradoki lezake. Hori benetan zerk eragiten duen jakiteko –jakingo badugu– datuak findu arte itxoin beharko dugu.

Erlatibo jokatu gabeen dagokionez, aipagarria da beste itzultzaileek baino erlatibo jokatu gabeen proportzio handiagoa daukala: corpus guztian zehar jokatu gabeak, batez beste, ordain erlatiboaren %5 diren bitartean, B itzultzaileak euskaratutako bi testuetan gaintzen da marra hori: KONPen ordain erlatibo guztien %7 dira eta LUBen %10.

Erlatibo jokatu gabeen maiztasun altu honek, itxuraz, B itzultzaileak erlatibakuntza-estrategia erlatibagarrienera (arrunt eta jokatu gabeekiko) daukan zaletasuna berretsiko luke, erlatibo jokatu gabeak osatzeko ere testuinguru oso erlatibagarriak behar baitira.

4.3.2.2. B itzultzailea eta erlatibo aposatuak

Ardatzaren ezkerretarako erlatiboak sarritan erabiltzeak erlatibo aposatuen proportzio apal bat izatea dakar derrigorrez (45. grafikoa).



Grafikoa 45 B itzultzailea eta erlatibo aposatuak

B-k osatutako erlatibo aposatuak aztertzen hasi aurretik, laginaren adierazgarritasun arazoak nabarmendu behar dira: KONPeko erlatibo aposatuak lau perpaus besterik ez dira guztira, eta LUBekoak 12.

KONPeko lau perpausetatik hiru ZEIN galdetzailearekin osatutako erlatiboak dira, eta laugarrena erlatibo arrunt aposatua.

LUBi dagokionez, hor dauden 12 erlatibo aposatuetatik 9 erlatibo arrunt aposatuak dira (ordain erlatibo guztien %11). Nahiz eta kopuru txikia izan, aipagarria da B itzultzaileak, erlatibo aposatu bat osatzeko hautua egiten duenean, erlatibo arrunt aposatuei lehentasuna ematea.

NON erlatiboak ordain erlatiboen %3 dira LUBen (corpusaren batez bestekoaren maila bertuan, guztira 2 perpauk besterik ez diren arren). *KONPen NON* erlatibo bakar bat ere ez da ageri.

B itzultzaileak ez du bere itzulpenetan *BAIT-* erlatiborik erabiltzen, gainontzeko itzultzaileengan nahiko ohikoak diren arren (gogoratu corpuseko ordain erlatibo guztien %10 direla).

Datu hauetan oinarrituta, B itzultzailearen erlatibakuntza-estiloa argitzen doala dirudi: itxura guztien arabera, kosta ahala kosta saiatzen da erlatibo arruntak edo jokatu gabekak osatzen, eta erlatibo aposatuez nahiz bestelako baliabideez oso noizean behin soilik baliatzen da.


4.3.2.3. B itzultzailea eta errusiar idazleen erlatibakuntza-estiloa

Itzultzaile honek euskaratutako liburuen bi egileen –Sergei Dovlatov eta Andrei Platonoven– idazkerak oso desberdinak dira. Kasu honetan, gainera, desberdintasunak oso agerikoak dira.

Dovlatoven prosa perpauk laburrez eta elkarrizketez betea dago. Platonovena, alderantziz, perpauk luzez eta estilo narratiboago batez (ik. kapitulu honetako 4.1. puntua).

Dovlatoven testua itzultzerakoan, itzultzaileak ardatzaren ezkerretarako erlatibo gehiago erabili ditu, eta ondorioz, aposatu gutxiago. Platonov euskaratzean, aldiz, ardatzaren ezkerretarako erlatiboen maiztasuna erori da, erlatibo aposatuen mesedetan.

Beraz, B itzultzaileak euskaratutako errusiar egileen erlatibo kopurua kuantifikatzea esanguratsua dela egiaztatu dugu, alderantziz proportzionalak baitira STko erlatibo kopurua eta xede-testuko ardatzaren ezkerretarako erlatiboen maiztasuna (46. grafikoa).




Grafikoa 46 B itzultzailearen euskal ordain erlatiboak eta errusiar idazleen erlatibakuntza-estiloa

Noski, bi liburu soilik izateak zalantzak eragin ditzake. A itzultzaileak zazpi liburu itzuli beharrean bost euskaratu izan balitu –demagun, Gogol eta Lermontov ezabatzen ditugula–, datuak bat etorriko lirateke idazlearen estiloa neurtzeko proposatu dugun metodologiarekin. Hori dela eta, metodologia hau guztiz baztertzen ez dugun arren, eragozpenak dituela aitortu beharko dugu, kuantifikatzeko zailak diren gauzei zenbakiak jartzen saiatzen ari garen neurrian.

4.3.3. D-E itzultzaileak eta ordain erlatiboak

D-E itzultzaileen emaitzak –biek batera edo E-k bakarka itzultzean– oso antzekoak direnez, batera aztertuko ditugu. Desberdintasun aipagarriren bat dagoenean soilik aipatuko ditugu bereizita.

39. grafikoan ikusi dugun moduan, D-E itzultzaileek euskaraturiko hiru liburuetan ardatzaren ezkerretarako erlatiboen kopurua beste inorengan baino txikiagoa da. Errusierazko erlatibakuntza maiz mantentzen duten arren, euskaraz erlatibakuntza hori aposatua da kasuen ia erdietan (47. grafikoa).



Grafikoa 47 D-E itzultzaileak eta euskal ordain erlatiboak

D-E itzultzaileen testuetako datuen arabera epaitu behar bagenu, erlatibo arruntak ez lirateke euskararen oinarritzko erlatibakuntza-estrategia izango, maiztasunaren ikuspuntutik behinik behin.


ZTGn ordain erlatibo guztien %61 dira aposatuak, eta PIKen %52. DII liburuan %32ra jaisten da datu hori, nahiz eta altua izaten jarraitzen duen (Gogora dezagun A itzultzaileak erlatibo aposatu gehien osatzen zituenean ere –Turgenieven AISen– %19tik ez zela igotzen aposatuen proportzioa; zer esanik ez B itzultzailearen erlatibo aposatuen proportzio apalari dagokionez).

D-E itzultzaileen emaitzak kontuan izanik, gauza bat behintzat ziurtzat jo dezakegu: hiru liburu horiek euskaratu dituzten itzultzaileek arruntak ez diren erlatibakuntza-estrategiak beste itzultzaileek baino askoz ere sarriago erabiltzen dituzte, eta hori erlatibakuntza-estilo baten ageriko zantzua dela deritzogu. Hala ez izateko, bi gauza gertatu beharko lirateke: hiru liburu horietan errusiar idazleen estiloa corpuseko beste idazleen estiloarengandik guztiz bereiztea, edota hizkuntzaren baitako faktoreak guztiz bestelakoak izatea (ISE ohi baino sarriago egotea zehar-kasu batean edo genitiboan, edota euskaraz erlatibagaitzagoak diren erlatibatzaileak –*kotoryj* eta aditzondoak–masiboki erabiltzea).

Aurrerago ikusiko dugunez, bi baldintza horietako bat ere ez da ematen hemen. Ondorioz, D-E itzultzaileen erlatibakuntza-estilo –eredu, joera, zaletasun, ideologia– propio baten ondorio izan behar dute emaitza horiek ezinbestean.

4.3.3.1. D-E itzultzaileak eta ardatzaren ezkerretarako erlatiboak

Esan bezala, D-E itzultzaileek erlatibo arrunt gutxi erabiltzen dituzte; ZTG eta PIK liburuetan ordain erlatiboan erdia baino dezente gutxiago, hurrenez hurren %37 eta %43. DIIk corpuseko batez bestekotik gertuago –baina halere urrun– dauden emaitzak eskaintzen ditu, ordain erlatiboan %61ekin (48. grafikoa).



Grafikoa 48 D-E itzultzaileak eta ardatzaren ezkerretarako erlatiboak


Erlatibo jokatu gabeen erabilerari buruz esan dezakegu corpusaren batez besteko %5aren inguruan dabilzala, eta ez dugula ezer aipagarri ikusten itzultzaile hauengan erlatibo mota honen maiztasunean: DII n ordain erlatiboan %6 dira, PIK en %5 eta ZTG n %2.

D-E itzultzaileek osatutako erlatibo jokatu gabeak guztira 11 dira: horietatik 7 PIK en, eta gainontzeko bi liburuetan bina perpaus besterik ez. Lagina oso adierazgarria ez denez, ez dugu uste erlatibo jokatu gabeak corpusaren batez bestekoaren inguruan egoteak

itzultzaile hauen erlatibo aposatuenganako zaletasunari buruz esandakoa baliogabetzen duenik.

4.3.3.2. D-E itzultzaileak eta erlatibo aposatuak

Honezkero badakigu D-E itzultzaileen ardatzaren ezkerretarako erlatiboaren proportzio txikiak erlatibo aposatuen erabilera altua dakarrela berarekin. Ikus dezagun zein erlatibo aposatu mota eta zein proportziotan erabiltzen dituzten (49. grafikoa).



Grafikoa 49 D-E itzultzaileak eta erlatibo aposatuak

Aurreko puntuan ikusten bagenuen ardatzaren ezkerretarako erlatiboak DIIIn sarriago agertzen direla, normala da hemen alderantzizkoa gertatzea: DIIIn beste bietan baino erlatibo aposatu gutxiago dago.

Erlatibo aposatuak banan-banan aztertuz gero, oro har, D-E itzultzaileen -(e)n atzizkidun erlatibo arrunt aposatuen proportzioa corpuseko %6ko batez bestekoaren gainetik dago: ZTG %8, DII %13 eta PIKek %14.

DIIIn erusierazko perpaus bakarra euskaratzen dute *NON* erlatibo baten bidez, eta ez da *ZEIN* erlatibo bakar bat ere ageri.


ZTGn eta PIKEn egoera guztiz bestelakoa da: *ZEIN* erlatiboaren maiztasuna corpusaren batez besteko %10 baino askoz ere altuagoa da, %16 eta %18 hurrenez hurren.

Beste hainbeste gertatzen da bi liburu hauetako *NON* erlatiboekin: ordain erlatiboan %13 eta %11 dira, corpus guztiko batez besteko %3tik gora nabarmen.

4.3.3.3. D-E itzultzaileak eta errusiar idazleen erlatibakuntza-estiloa ordain erlatiboetan

Idazleen erlatibakuntza-estiloarekin alderatzen jarrita, kontuan izan behar da D-E itzultzaileen kasua berezia dela, hiru idazle eta bi itzultzaile daudelako tartean. Are bereziagoa da egoera, aurreko bi puntuetan ikusi dugunez, hiru liburu horietan bi egoera desberdin dauzkagula jakinda: biek batera itzulitako DIIIn erlatibakuntza-estilo bat nabari da eta beste bietan –biek batera itzulitako ZTG eta E-k bakarka euskaratutako PIK– beste bat.

Idazleen erlatibakuntza-estiloak –100 orrialdeko osatzen duten erlatibo kopuruan neurtuta– horren azalpen posible bat eskaintzen digula dirudi (50. grafikoa).



Grafikoa 50 D-E itzultzaileen ordain erlatiboak eta errusiar idazleen erlatibakuntza-estiloa

Grafiko honetako emaitzak aintzat hartuz gero, ikusten dugu nolabaiteko korrelazio bat finkatzea posible dela: DIIren egile Mikhail Xolokhovek 100 orrialdeko 19 erlatibo soilik osatzen dituen bitartean, beste biek –Issac Babelek (ZTG) eta Andrei Kurkov-ek (PIK)– 100 orrialde bakoitzeko 50 eta 67 erlatibo dituzte, hurrenez hurren.

Datu horiek DIIren eta beste bi testuen arteko desberdintasunak azalduko lituzkete: idazlearen erlatibakuntza-estiloak –finean, idazle honek konparatiboki erlatibo gutxi osatzeak– eragingo luke D-E itzultzaileek testu hau itzultzeko ardatzaren ezkerretarako

erlatiboak ohikoa dutena baino sarriago erabiltzea. Noski, beste faktore batzuetan ere bila genezake azalpena: adibidez, estilo narratiboago batean perpausak luzeagoak eta erlatiboak ugariagoak izango direla pentsa daiteke. DII liburuan, alderantziz, Errusia Hegoaldeko kosakoen hizkera herrikoia islatzeak eta elkarrizketez betetako testua izateak, erlatiboen proportzioa jaitsaraztea normalizat har daiteke.

4.3.4. Euskal itzultzaileak eta ordain erlatiboak: ondorioak

Gure corpuseko 12 liburuak errusieratik euskaratu dituzten lau itzultzaileengan – erlatibakuntza mantentzearen aldeko hautua egiten duten kasuetan– erlatibakuntza-estilo desberdinen zantzuak atzeman ditugula esan daiteke.

Guztiek erlatibakuntza neurri bertsuan mantentzen duten arren –ordain erlatiboen proportzio orokorra antzekoa baita– ordain erlatibo desberdinen maiztasunean desberdintasun nabarmenak daude: B eta D-E itzultzaileak mutur banatan ageri dira eta A, aldiz, erdibidean.

B-ren testuetan ardatzaren ezkerretarako erlatiboak beste inon baino maizago agertzen dira, erlatibo aposatuen kaltetan.

D-E itzultzaileen testuetan, alderantziz, beste inon baino erlatibo aposatu gehiago atzeman ditugu, ondorioz, ardatzaren ezkerretarako erlatiboen proportzioa beste inon baino baxuagoa delarik.

Azkenik, A-k oreka handiagoa erakusten duela dirudi, parametro gehienetan beste itzultzaileen aldean erdibideko kopuruak eskaintzeaz gain, bere jarduna liburuz liburu aztertuta ere emaitzak aski uniformeak baitira.

Ondoren, atzemandako erlatibakuntza-estilo horiengan errusiar idazleen erlatibakuntza-estiloak daukan eragina neurtzen saiatu gara, emaitza gorabeheratsu baina esanguratsuekin.

B eta D-E itzultzaileen kasuan idazleek STan osatutako erlatibo kopurua eta itzultzaileek erabilitako euskal ordain erlatiboen izaera nahiko koherentea dela ikusi dugu.

A itzultzailea berak euskaraturiko idazleen balizko erlatibakuntza-estiloarekin harremanetan jarri dugunean, ordea, emaitza kontraesankorrak lortu ditugu: kasu askotan betetzen da idazleen erlatibo kopurua eta itzultzaileen ardatzaren ezkerretarako erlatiboen arteko korrelazioa. Betetzen ez den kasuetan ere ezin dugu baztertu beste hainbat faktoreren eragina.

4.4. Euskal itzultzaileak eta ordain ez-erlatiboak

Itzultzaileek erlatibakuntza mantentzen dutenean gertatzen dena aztertu ondoren (euskal ordain erlatiboak), erlatibakuntzaren ezabaketa egiteko daukaten moduari helduko diogu (euskal ordain ez-erlatiboak).

A itzultzailearen nagusigo eztabaida ezina dela medio, corpusari egindako ekarpenaren tamainan asimetriak baldin badaude itzultzaileen artean, ordain ez-erlatiboetan ere handiagoa da asimetria hori: A-k itzultzen dituen perpaus guztien %34tan ezabatzen du erlatibakuntza (650 perpaus), B-k itzulitako perpausen %26n (42 perpaus), eta D-E-k itzulitakoen %20-22n gertatzen da hori (71 perpaus).

Corpusaren zatirik handiena A-k itzulia bada, eta gainera, erlatibakuntzaren ezabaketa ere inork baino maizago burutzen badu, eremu honetan A-ren eta gainontzekoen arteko desoreka corpusaren asimetria orokorra baino ere markatuagoa izango da derrigorrez. Corpuseko perpaus guztien %80 itzultzaile horrena bazen, ordain ez-erlatiboetan %85era igotzen da itzultzaile horren ekarpena. D-E-k ordain ez-erlatiboek %9 osatzen dute, eta B-k gainontzeko %6a besterik ez.

Erlatibakuntzaren ezabaketa hiru taldetan sailkatzen genuen: EP bi zati edo gehiagotan zatitzen zuen etena ager zitekeen (*parataxia*), erlatibakuntza beste menderakuntza mota batek ordezkatu zezakeen (*hipotaxia*) edota perpaus mailako predikazioa IS mailara igaro zitekeen, perpaus elkartua perpaus bakun bihurtuz (*sinplifikatzea*).


Halaber, kapitulu honetako 3.1.2. eta 3.2.2. puntuetan ikusten genuen ordain ez-erlatiboak ere, itxura guztien arabera, erregulartasun jakin batzuen arabera agertzen direla errusierazko testuen euskal itzulpenetan, eta erregulartasun horiek erlatibagarritasun-mailarekin zerikusia zutela ere finkatzen genuen.

3.1.2. kapituluko 21. grafikoan mailakatze interesgarri bat topatzen genuen: errusierazko EPak erlatibatze-eskalan zenbat eta beherago –zehir-kasuak eta genitiboak– orduan eta gehiago erabiltzen da euskaraz *parataxia* eta gutxiago *sinplifikatzea*.

3.2.2. kapituluko 28. grafikoan, datu horiek errusierazko erlatibatzaileen arabera sailkatzean, *parataxia* eta *sinplifikatzearen* arteko korrelazio hori berresten zen, errusieraren baliabide morfosintaktiko erlatibagarrienek (*kto*, *čto₁*, *čto₂* eta neurri batean *kakoj*) euskaraz *sinplifikatzea* eragiteko joera nabarmena baitzuten; *kotoryj*-ekin eta aditzondoekin osatutako erlatiboek, alderantziz, *parataxia* eragiten zuten sarrien.

Korrelazio horretatik abiatuta ondorioztatzen genuen *parataxiak* erlatibakuntza-abantaila bat izan behar zuela *sinplifikatzearekiko*, testuingurua zailtzen zen neurrian igotzen zelako itzultzaileek *parataxiarekiko* erakutsitako atxikimendua.

Ez dakigu itzultzaileen balizko erlatibakuntza-estilo batek STko erlatibakuntza ezabatzeko modua ere bere baitan har dezakeen, baina esan behar da gure corpuseko ordain ez-erlatiboak itzultzaileen arabera sailkatu ditugunean, emaitza deigarriak lortu ditugula: ordain ez-erlatiboak osatzeko erabiltzen diren hiru baliabideen arteko banaketa oso antzekoa da itzultzaile guztiengan (51. grafikoa).



Grafikoa 51 Euskal itzultzaileak eta ordain ez-erlatiboak

Itzultzaileek erlatibakuntza ezabatzeko duten moduan desberdintasun esanguratsurik ez agertzeak esan nahi du erlatibakuntza ezabatzeko modua, nolabait esateko, “emana” datorrela, eta itzultzaileen norbanakotasunak ez daukala zeresan handirik erlatibakuntza ezabatzeko moduan.

Bestalde, D-E eta E itzultzaileen datuei erreparatzen badiegu, beraien artean bat etortzeak, eta besteengandik apur bat –gutxi– bereizteak ordain ez-erlatiboaren erabilpena ere logikaren baten menpe dagoela iradoki lezake beharbada.

D-E eta E-ren arteko antzekotasun bat ordain ez-erlatiboaren %30 *sinplifikatzearen* bitartez osatzean datza. B-k ez-erlatiboaren %17an eta A-k %25ean erabiltzen dute baliabide ez-erlatibo hau.

Parataxia, oro har, itzultzaile guztiengan da baliabide nagusia, oso antzeko proportzioetan gainera, nahiz eta D-E itzultzaileak pixka bat behetik geratzen diren: ordain ez-erlatiboaren %59 itzultzen dute *parataxiaz* batera itzultzean, eta %64 E-k bakarka lan egiten duenean. A-ren testuetan ez-erlatiboaren %64 eta B-renetan %71 dira.

Hipotaxiak – SHko erlatibakuntza XHn beste mendeko perpaus mota batek ordezkatzek – oso maiztasun txikia dauka corpus guztian zehar eta itzultzaile orengan. Itzultzaileen arteko proportzioetan ere ez da aldaketa handirik.

A itzultzailearen ordain ez-erlatiboen %11, B-ren %12 eta D-E itzultzaileen %11 (batera itzultzean) osatzen dira *hipotaxiaz*. E itzultzailea, bakarkako lanean, %6an geratzen da. Edonola ere, *hipotaxiaren* lagina zabalegia ez denez, desberdintasuna ez da hain adierazgarria, eta ez diogu gehiegi erreparatuko.

Hemen aztertutako datuetatik ondoriozta dezakegu itzultzaileen artean ez dagoela desberdintasun esanguratsurik, eta beraz, ez dirudi harreman zuzenik dagoenik erlatibakuntzaren ezabaketaren eta itzultzaileen norbanako estiloaren artean. Hori bera aski adierazgarria da.


Itzultzaileek erlatibakuntza ezabatzen dutenean, hautu hori maizago da segur aski testuinguruak derrigortua, eta ez aukera pertsonal baten ondorio.

Hemendik ideia garrantzitsu bat atera dezakegu: gure corpuseko datuen arabera, euskal ordain erlatiboen aukeraketak zerikusi handiagoa dauka itzultzaileen norbanako estiloarekin, euskal ordain ez-erlatiboen aukeraketak baino.

Halere, 51. grafikoak itzultzaileen batez besteko emaitzak islatzen dituenaz, ordain erlatiboekin egin bezalaxe, itzultzaile bakoitzaren datuak xehetasun handiagoz aztertuko ditugu.

4.4.1. A itzultzailea eta ordain ez-erlatiboak

A itzultzailearen emaitzetatik azpimarragarriena erakutsitako oreka eta datuen erregulartasuna direla esan dugu. 52. grafikoari azaleko begirada bat botaz gero, ikusten dugu hori ordain ez-erlatiboen kasuan ere betetzen dela. Datu horrek itzultzaile honen estilo neurritsuaren irudia indartzen duela esan daiteke.



Grafikoa 52 A itzultzailea eta euskal ordain ez-erlatiboak

Parataxiaren nagusigoa erabatekoa da A itzultzaileak osatutako euskal ordain ez-erlatiboaren artean. Salbuespen bakarra argitaratu zuen lehenengo liburua da, %50etik ez baita igotzen, itzultzaile honen batez bestekoa %64aren bueltan dabilen bitartean.

Perpaua *sinplifikatzeak* AMAn eta TXBn jotzen du goia, ordain ez-erlatiboaren %40 baitira bi kasuetan.

Gainontzeko testuetan ez dago gorabehera handirik.


Hipotaxiaren emaitzak ere aski uniformeak dira, ARH eta ZPU salbu –non, hurrenez hurren, ordain ez-erlatiboaren %15a eta %16a den–; gainontzeko guztietan %10etik behera geratzen da.

4.4.2. A itzultzailea eta errusiar idazleen erlatibakuntza-estiloa ordain ez-erlatiboetan

Kapitulu honetako 3.1.2. eta 3.2.2. puntuetan *parataxiaren* eta *sinplifikatzearen* artean finkatzen genuen korrelazioaren arabera, errusierazko kasu marka zenbat eta erlatibagaitzagoa izan, orduan eta *parataxia* maila altuagoa topatzen genuen euskaraz, eta alderantziz, kasu marka erlatibagarriagoak *sinplifikatzearekin* lotzen zituzten datuak lortzen genituen.

Posible al da *parataxia-sinplifikatze* korrelazioarentzat errusiar idazleen estiloaren bidezko azalpen bat aurkitzea?

Ikus dezagun zer gertatzen den –liburuz liburu– A itzultzailearen testuetan (53. grafikoa).



Grafikoa 53 A itzultzailearen euskal ordain ez-erlatiboak eta errusiar idazleen erlatibakuntza-estiloa

Gorkiren (AMA) eta Bulgakoven (TXB) liburuetan *sinplifikatzearen* erabilpena bereziki ohikoa dela ikusi dugu 52. grafikoa. Bada, 53. grafikoa agerian geratzen da bi egile horiek direla, hain zuzen, A-k euskaraturiko zazpi idazleen artean erlatibo kopururik txikiena osatzen dutenak beren testuetan: Gorkik 100 orrialdeko 61 erlatibo eta Bulgakovek 32. Horrek baieztatuko luke *sinplifikatzeari* egotzi izan diogun erlatibagarritasun-abantaila.

Parataxiari dagokionez ere suma daiteke datuak ez daudela orain arte ondorioztatutakotik guztiz aparte: erlatibo kopuru handiena duten lehenengo lau idazleetatik hiruk dute –Puxkin (KAP), Lermontov (GGH) eta Turgeniev (AIS) XIX mendeko egile klasikoek– beraien testuen euskarazko bertsioetan *parataxia* mailarik altuena: hurrenez hurren, euskal ordain ez-erlatiboan %81, %73 eta %70 euskaratzen dira *parataxiar* STa errusiar egile horiena denean.

Salbuespena Gogol (ARH) litzateke, non *parataxia* euskal ordain ez-erlatiboan %59an ‘soilik’ agertzen den. Salbuespen garrantzitsua da, inondik inora, corpus osoko

perpausen %30 eta A itzultzaileak euskaraturiko errusierazko perpauk guztien %36 Gogolek idatziak baitira. ARH euskaratzean *parataxiaren* jaitsierak *hipotaxiaren* eta *sinplifikatzearen* proportzio handiago bat dakar, baina bi hauek ere altuegiak izan gabe. Gainera, corpusari egiten dion ekarpen handiaz gain, Gogol beste arrazoi batengatik da berezia A itzultzaileak euskaraturiko idazleen artean: ordain ez-erlatiboaren proportziorik handiena berak dauka, bertako errusierazko perpauk erlatibo guztien %46an gertatzen baita erlatibakuntzaren ezabaketa euskaratzean.


Laburtuz, nahiz eta ez den erraza A itzultzaileak erabilitako baliabide ez-erlatiboaren eta berak euskaraturiko idazleen estiloaren arteko harremana finkatzea, XIX mendeko idazleen eta XX mendekoaren estiloan desberdintasun batzuk sumatzen direla baieztatu daiteke, tarteka lauso samarrak badira ere.

4.4.3. B itzultzailea eta ordain ez-erlatiboak

B itzultzaileak errusierazko testuak euskaratzerakoan erlatibakuntza mantentzeko joera handia izateaz gain, erlatibakuntza-estrategia desberdinen artean aukeratu behar duenean, ardatzaren ezkerretarako erlatiboak (arruntak eta jokatugabeak) hobesten ditu garbiki, eta nabari da kostatu egiten zaiola horiei uko egitea, baita testuak erlatibo aposatu bat "eskatzen" dionean ere.

Itzultzaile honek perpauk bati ordain ez-erlatiboa emateko joera handirik ez duen arren, osatu osatzen ditu. Gainera, ikusi dugu euskal ordain ez-erlatiboaren proportzioetan itzultzaile batetik bestera ez dagoela desberdintasun ikaragarriarik. Beraz, galdera da: horretarako joerarik ez badauka, zerk, noiz eta zein neurritan behartzen du errusierazko perpauk bati ordain ez-erlatibo bat ematera, gutxi gorabehera beste itzultzaileen proportzio bertsuan gainera?

54. grafikoko datuei erreparatuta, bistakoa da B-k euskaratutako bi liburuetan egoera aski desberdinak topatzen ditugula.



Grafikoa 54 B itzultzailea eta euskal ordain ez-erlatiboak

Lehenik eta behin, esan behar da bi liburu hauetan ordain ez-erlatiboen laginak elkarren artean nahiko desberdinak –eta ez oso ugariak– direla: KONPen euskarazko bertsioan 8 ordain ez-erlatibo soilik daude, eta LUBen 34. Proporzioetan neurtuz gero: KONPen ordain ez-erlatiboak perpausen %16 dira, eta LUBen %30.

KONPen –non ardatzaren ezkerretarako erlatiboen kopurua oso altua den– *parataxia* ohikoa baino gutxiago agertzen da (ez-erlatiboen %50), eta *sinplifikatzea*, aldiz, A itzultzailearen datu altuenen parekoa da (%38).

LUBen, aldiz, aurrekoarekin alderatuta, *parataxia* nabarmen igotzen da (%76 arte), *sinplifikatzearen* kaltetan (ez-erlatiboen %12 bakarrik).


Hipotaxia ordain ez-erlatiboen %12an geratzen da bietan.

Ondorioz, esan dezakegu aipatu berri ditugun datuak Dovlatov eta Platonov idazleen estiloari buruz dakigunarekin bat datozela.

4.4.4. B itzultzailea eta errusiar idazleen erlatibakuntza-estiloa

B itzultzaileak ez-erlatiboak erabiltzeko duen moduan edo maiztasunean eragiten al dute itzultzaile honek euskaraturiko liburuen egileek?

55. grafikoan ikusten dugunez, LUBen erlatibo kopurua 100 orrialdeko 57koa da, KONPen 28koa den bitartean.



Grafikoa 55 B itzultzailearen euskal ordain ez-erlatiboak eta errusiar idazleen erlatibakuntza-estiloa

Gure corpuseko testuinguru erlatibagaitzetan *parataxia* agertzeko aukera handiagoa bada, eta erlatibakuntza errazten duten testuinguruetan, aldiz, itzultzaileek *sinplifikatzea* sarriago erabiltzen badute, erregulartasun hori hemen betetzen dela esan beharko dugu: inondik ere erlatibakuntza-estilo konplexuagoa –erlatibo kopuru altuagoan neurtua– duen Andrei Platonoven testuetan *parataxia* bidezko erlatibakuntzaren ezabaketa *sinplifikatzea* baino maizago topatu dugu.


Sergei Dovlatoven testuen euskarazko bertsiotan aurkako egoera daukagu: erlatibakuntza-estilo soilagoa –eta ondorioz, erlatibo kopuru txikiagoa– duen egile hau euskaratzerakoan, *sinplifikatzea* asko igotzen da, eta *parataxiaz*, baliabide ez-erlatibo nagusia izaten jarraitzen duen arren, ordain ez-erlatiboaren %50 soilik euskaratzen da.

4.4.5. D-E itzultzaileak eta ordain ez-erlatiboak

D-E itzultzaileen emaitzak aurkezterakoan ikusten genuen erlatibakuntza mantentzeko joera beste itzultzaileena baino nabarmenagoa dela, nahiz eta osatzen dituzten erlatiboaren proportzio handi bat erlatibo aposatuak diren.

Erlatibakuntza askotan mantentzeak erlatibakuntza hori gutxitan ezabatzea eragiten duenez, D-E itzultzaileen ordain ez-erlatiboaren lagina ez da oso zabala izango.

Egia esan, ez da desberdintasun handirik nabari ordain ez-erlatiboaren banaketan itzultzaile hauek euskaraturiko liburu batetik bestera (56. grafikoa).




Grafikoa 56 D-E itzultzaileak eta euskal ordain ez-erlatiboak

DIIko lagina alde batera utziz –guztira 3 ordain ez-erlatibo besterik ez baitira–, beste bien emaitzak ia berdin-berdinak dira.

4.4.6. D-E itzultzaileak eta errusiar idazleen erlatibakuntza-estiloa ordain ez-erlatiboetan

57. grafikoan ikus dezakegunez, hiru idazleetatik bik antzeko erlatibo kopurua dute: Isaac Babelek (ZTG) 100 orrialdeko 67 erlatibo osatzen ditu, eta Andrei Kurkovek (PIK), berriz, 50. Xolokhov hortik behera geratzen da nabarmen.



Grafikoa 57 D-E itzultzaileen euskal ordain ez-erlatiboak eta errusiar idazleen erlatibakuntza-estiloa

Erlatiboen kopuruan erakusten duten antzekotasun hori izan daiteke 56. eta 57. grafikoetako hurbiltasunaren arrazoia. Arazoa da DII-k erlatibo kopuru txikia duela, baina – ordain erlatiboetan ez bezala– ez da *parataxia-simplifikatzea* korrelazioan beste bi liburuekiko desberdintasunik nabari. Guk proposatutakoari jarraiki, DII *simplifikatzeak* ZTG eta PIKen baino altuagoa izan behar luke eta *parataxiak* baxuagoa, baina hori ez da betetzen. Halere, gogora dezagun DII 3 euskal ordain ez-erlatibo bakarrik dauzkagula; lagin eskasa, inondik ere.

4.4.7. Euskal itzultzaileak eta ordain ez-erlatiboak: ondorioak

Ordain ez-erlatiboen lehendabiziko arazoa itzultzaile desberdinen laginen asimetria da: corpusean, oro har, A itzultzailearen ekarpena %80koa bazen, hemen %85ekoa da. D-E itzultzaileen testuetan ordain ez-erlatiboen %9 ageri dira, eta B-ren itzulpenetan ez-erlatiboen %6.

Baliabide ez-erlatiboen banaketa oso antzekoa da itzultzaile guztiengan: guztiengan da *parataxia* baliabiderik erabiliena, gero *simplifikatzea* eta azkenik –oso proportzio txikietan beti– *hipotaxia*. Desberdintasun bakarra, oso handia ez bada ere, D-E itzultzaileek eskaintzen zuten: hauengan –batera edo bakarka itzuli– *simplifikatzea* besteen itzulpenetan baino maizago agertzen da, eta *parataxia*, aldiz, besteen testuetan baino gutxiagotan.

Itzultzaile bakoitzaren datuak bereizita aztertu ondoren, A itzultzailearen testuetako emaitzek erlatibo kopurua eta baliabide ez-erlatiboak lotzeko bidea ematen digutela esango genuke, salbuespenak salbuespen: jatorrizko bertsiotan erlatibo kopuru txikiena zuten bi liburuetan –AMAn eta TXBn– beste inon baino gehiago erabiltzen du *simplifikatzea*. Halaber, garai desberdinetako errusiar idazleen artean XIX eta XX mendeen arteko marra ezartzea ahalbidetu digu, Gogolen salbuespena esanguratsua dela dakigun arren.

B eta D-E itzultzaileek osatutako ez-erlatiboen lagina, esan bezala, ez da oso adierazgarria, eta horrek emaitzekiko zalantzak eragiten ditu.

Halere, B itzultzailearen datuek idazleen estiloaren eta ordain ez-erlatiboen arteko harremanaren alde egiten dutela esan daiteke: erlatibo kopuru txikiena duen idazlea euskaratzerakoan bestearen testuak euskaratzerakoan baino askoz maizago erabiltzen du *simplifikatzea* eta dezente gutxiago *parataxia*.

D-E itzultzaileek antzeko proportzioetan erabiltzen dituzte baliabide ez-erlatiboak itzuliriko liburu guztietan. Haatik, euskaratu dituzten hiru liburuetatik bik antzeko erlatibakuntza-estiloa daukate –beti ere erlatibo kopuruan neurtuta–, eta horiek antzeko emaitzak eskaintzea espero genuen zerbait zen. Hirugarrenak, ordea, guk hemen

darabilgun logikaren arabera, ez lituzke beste bien antzeko emaitzak eman behar, baina eman ematen ditu.

Laburtuz, gure ustez STko erlatibo kopuruak bere egilearen erlatibakuntza-estiloaren gaineko zantzu baliagarriak ematen dizkigu, baina onartu behar dugu ez direla gutxi eskuragai dauzkagun elementuekin azaldu ezin ditugun emaitzak ere.

4.5. Euskal itzultzaileak eta ISEren posizio sintaktikoa

Kapitulu honetako 3. puntuan ikusi dugunez, hizkuntza-sistemak eragin esanguratsua du itzultzaileak itzulpen-prozesuaren baitan hartzen dituen erabakietan. Eragin hori neurtzeko gure corpuseko errusierazko perpausei bi irizpide aplikatzen genizkien –ISEren posizio sintaktikoa eta erlatibatzaileen izaera–, gero errusierazko perpaus horiei nolako euskal ordainak egokitzen zitzaizkien aztertzeko.

Haatik, nola neurtu dezakegu hizkuntza-sistemak itzultzaile baten jokabideari eragiten dion ala ez? Bada, itzultzaile bakoitzak euskaratutako perpausei hizkuntza-sistemaren araberrako irizpideak aplikatuta; hartara, aurreko puntuan itzultzaile bakoitzarentzat finkatu ditugun joerak benetan beraien erlatibakuntza-estiloari dagozkiola baieztatu –edo baztertu– ahal izateko.


Emaitza horiek aztertzean, bi gauza gerta daitezke:

- Testuinguru konparagarrietan itzultzaileen artean jokabide desberdinak atzematea. Hori erlatibakuntza-estilo desberdinen hipotesiaren aldeko argumentua litzateke.

- Testuinguru konparagarrietan itzultzaileek modu bertsuan jokatzea. Horrek iradokiko luke kasu horretan ez dela esanguratsua itzultzaileen berezko estiloa, eta jokabide desberdinak testuinguru desberdinen ondorio direla.

Lehendabizi ISEren posizioaren araberrako datuak aztertuko ditugu, eta ondoren, baliabide morfosintaktikoen –erlatibatzaileen– araberrakoak.

58. grafikoan bildu ditugu itzultzaile bakoitzaren ordain erlatiboaren proportzio orokorrak ISEren posizioaren arabera.



Grafikoa 58 Ordain erlatiboen proportzio orokorra euskal itzultzaileengan ISEren posizioaren arabera

58. grafikoko emaitzek irudi interesgarria eskaintzen digute, nahiz eta beste behin azpimarratu behar den maiztasunean oinarrituriko datuak posizio sintaktikoen hierarkiaren alderdi bat besterik ez direla.

Esan dezakegu A itzultzailearen datuak –subjektu-objektu asimetriak gorabehera– normaltasunaren barnean kokatzen direla: itzuli dituen subjektuzko erlatiboen %68 dira euskaraz erlatibozkoak, objektuzkoen %75, zehar-kasua dutenen %59 eta genitibozkoen %51.

Beste itzultzaile guztiengan subjektuen ordain erlatiboen proportzioa bereziki altua da, objektuena baino apur bat gorago.

Edonola ere, badago azalpena behar duen datu bat: B eta D-E itzultzaileengan topatu dugun zehar-kasuen euskarazko erlatibotasun altua:

B-k objektuak baino sarrigo erlatibatzen ditu zehar-kasuak: errusierazko zehar-kasuen %68 eta objektuen %63 euskaratzen du ordain erlatibo baten bidez.

D-E-k batera itzultzen dutenean, ordain erlatiboa duten zehar-kasuen proportzioa oso handia izateaz gain (perpausen %86), bai subjektuen eta bai objektuen emaitzen gaitetik dabil, nahiz eta azken hauek ere maiz erlatibatzen dituzten (perpausen %78 eta %73, hurrenez hurren).

E itzultzaileak subjektuak eta objektuak oso maiz ematen ditu erlatibo baten bidez (%87 eta %86, hurrenez hurren). Ondoren zehar-kasuak (perpausen %72tan), eta azkenik genitiboak, corpusaren batez bestekotik gertuko proportzioekin (hauen %45 dira erlatiboak).

Ordain erlatiboen proportzio orokorra erreferentziatzat erabili ahal izateko, ordea, ordain erlatiboak eta ez-erlatiboak xehatu beharko ditugu.

4.5.1. Euskal itzultzaileak eta ISEren posizio sintaktikoa: ordain erlatiboak

Ordain erlatiboen izaeran sakontzen badugu, bi egoera posible topa ditzakegu:


a) Ordain erlatiboen proportzio orokor handi bati ardatzaren ezkerretarako erlatiboen (arrunten eta jokaturagabeen) proportzio handi bat baldin badagokio, euskararen oinarritzko erlatibakuntza-estrategiarekiko atxikimendu-egoera bat izango dugu.

b) Ordain erlatiboen proportzio orokor handi bati ardatzaren ezkerretarako erlatiboen proportzio txikia egokitzen bazaio, erlatibo aposatuen proportzioa bereziki altua dela esan nahiko du.

Ardatzaren ezkerretarako erlatiboak dira euskarak erlatibatzekeo dituen estrategietatik testuinguru erlatibagarrienak behar dituztenak, hitz-ordenari, kasu markari eta beste hainbat alorri eragiten dieten murrizketak inposatzen dituztelako. Aipagarrienen artean azpimarra daiteke, adibidez, erlatibo arrunten eraketa asko zailtzen dela NOR-NORI-NORK kasu markez harago (III. kapituluko 3.1.1.) edota erlatibo jokaturagabeek kasu marka absolutiboak soilik erlatiba ditzaketela euskaraz (III. 3.2.4.).

Kapitulu honetako 3.1. puntuan ikusi dugu badagoela nolabaiteko korrelazioa SHn ISEk mendeko EPn daukan funtzioaren eta XHn ardatzaren ezkerretarako erlatiboak agertzearen artean: errusierazko EPak erlatibakuntzarako zenbat eta baldintza hobeak eskaini, orduan eta handiagoa izango da euskal ordaina ardatzaren ezkerretara hedatzeko aukera.

Ikus dezagun zein den ISEren posizioaren eta ardatzaren ezkerretarako erlatiboen maiztasunaren korrelazioa erabiltzen dituen itzultzaile bakoitzarengan (59. grafikoa).



Grafikoa 59 Ardatzaren ezkerretarako erlatiboak euskal itzultzaileengan ISEren posizioaren arabera

59. grafikoko emaitzek itzultzaile bakoitzarentzat finkatu ditugun erlatibakuntza-estiloak berresten dituzte:

- B itzultzailearen ardatzaren ezkerretarako erlatiboekiko atxikimendua agerikoa da.
- D-E itzultzaileen erlatibo aposatuekiko zaletasuna ere garbi geratzen da, binaka nahiz bakarka itzultzen dutenean besteek baino erlatibo arrunt eta jokaturgabe gutxiago osatzen baitituzte ISEren funtzio sintaktikoa edozein dela ere.
- A itzultzaile neurritsu bat ikusten jarraitzen dugu, ia edozein parametrotan B itzultzailearen eta D-E itzultzaileen erdibidean kokatzen dena.

4.5.1.1. Ardatzaren ezkerretarako erlatiboak: A itzultzailea

A itzultzaileak erlatibo arruntak eta jokaturgabeak nolako maiztasunez erabiltzen dituen neurtuta –eta beste itzultzaileen emaitzekin alderatuta–, ondorio batzuk atera daitezke.

Lehendabiziko ondorioa da subjektu-objektu asimetriek agertzen jarraitzen dutela; alegia, objektuak subjektuak baino maizago erlatibatzen dituela ardatzaren ezkerretarako EPEkin. Behin eta berriz esan dugun moduan, hau ez da euskararen prozesamenduari buruzko ikerketa bat, baina deigarria da gure ikerketako une gehienetan objektuak subjektuak baino erlatibagarriago suertatzea.

A-k euskaraturiko testuetan, errusierazko objektu zuzenek dute ardatzaren ezkerretarako euskal ordain batekin itzuliak izateko aukera gehien (219 perpaus edo ordain erlatibo guztien %90).

ISE subjektua denean, aldiz, errusierazko 433 perpaus dira euskaraz erlatibo arrunt edo jokatu gabe, baina corpusean ageri diren subjektuzko perpausak kopuru absolutuetan gehiago direnez, proportzionalki objektuen azpitik geratzen dira (%90 > %75).

Zehar-kasuek ere esperotako emaitzak eskaintzen dituzte: 250 perpaus (errusieraz zehar-kasu bat duten euskal ordain erlatiboaren %66; subjektuen eta objektuen atzetik, beraz).

ISE genitiboa den kasuetan, aldiz, 10 perpaus ageri dira ardatzaren ezkerretara (errusiar genitiboetatik eratorritako euskal ordain erlatiboaren %36).

4.5.1.2. Ardatzaren ezkerretarako erlatiboak: B itzultzailea

B itzultzaileari dagokionez, beharbada laginaren adierazgarritasun eskasak genitiboaren emaitza jar lezake kolokan, ISE genitiboa duen perpaus bakarra baitago itzultzaile honek euskaraturiko bi liburuetan (59. grafikoa).

B itzultzailearen itzulpenetatik ateratako datuek garbi erakusten dute itzultzaile honek ardatzaren ezkerretarako erlatiboekiko duen atxikimendua.

Erlatibo jokatu gabeak gehien erabiltzen dituen ere bera da, erlatibatze-eskalaren posizio guztietan gainera. Objektu zuzenak bereziki sarritan ematen ditu horrela euskaraz – ordain erlatibo guztien %14–, baina baita subjektuak ere (%11). Egia esan, laginaren adierazgarritasunari erreparatzen badiogu, beharbada balio gehiago du subjektuen %11k, objektuen %14ak baino, subjektuen kasuan 65 ordain erlatiboko lagina baita ukagu, objektuzkoak guztira 7 perpaus besterik ez diren bitartean.

Edozein kasutan, garbi dago ez gaudela testuinguruak baldintzaturiko fenomeno baten aurrean, itzultzaile honen joera pertsonal baten aurrean baizik.

B itzultzailearen zehar-kasuei buruzko datuak ere norabide berean doaz. Gainera, kasu honetan lagina bai da adierazgarria: zehar-kasudun ISE bat daukaten 48 perpaus dauzkagu itzultzaile honek itzulitako STetan, eta horietatik 41 hedatzen ditu B-k izen ardatzaren ezkerretara, ordain erlatibo guztien %85.

Zehar-kasuen nahiz genitiboaren emaitzak kasualitatea izatea eragozten duen beste elementu bat subjektu eta objektuen emaitzak dira: lehendabizikoaren %86 hedatzen ditu ezkerretara, eta objektuen %100.

Egia da objektuen laginaren adierazgarritasuna ez dela oso altua, 7 perpaus, baina itzultzaile honen joera orokorraren testuinguruan nahiko koherentea da emaitza hau ere,

eta kontrakoak harritu egingo gintuzke. Edonola ere, datu hau ez da beste inorengan ematen.

Noski, itzultzaileen zenbait erabaki aztertzerako garaian, sarritan zaila da EPetara mugatzea, testuinguruak bestelako elementu ugari izan ditzakeelako, (123)n ikus daitekeen moduan.

(123)

Neizvestnye ljudi okazalis' novymi *rabočimi*, [ČTO₂ prislal Paškin]
 EZEZAGUNAK PERTSONAK JAKIN ZUTEN BERRIAK LANGILEAK, [ERL. AKUS. BIDALI PAŠKINEK]
 dlja obespečenija gosudarstvennogo tempa].
 PREP. BERMATZEKO ESTATU- ERRITMOA].

'Pertsona ezezagun haiek langile berriak zirela jakin zuten; [[Paxkinek *bidaliak*], estatuak ezarriko erritmoa bermatzeko.'

(LUB: 51)

(123)n ISEk objektuaren posizioa hartzen du, eta euskaraz erlatibo jokatu gabea daukagula esan dezakegun neurri berean baieza dezakegu *parataxiaz* osatutako perpausa dela, euskarazko ordainean eten batek perpausa bitan zatitzen baitu, baina mendeko EP erlatibo jokatu gabe bihurtuz: novymi *rabočimi*, [čto prislal Paškin] > langile berriak... [Paxkinek *bidaliak*].

Testuinguruak erlatibakuntzaren inguruko erabakiak baldintza ditzakeen arren, baldintzapen horiek itzultzaile guztientzat berdintsuak dira, eta ondorioz, horrek ez du azaltzen itzultzaileen arteko desberdintasunak hain irmoak izatearen zergatia. Beti emaitza bertsuak lortzeak –aplikatutako irizpidea edozein dela ere–, esan nahi du badagoela itzultzaileen idazkeran joera konstante, iraunkor bat, inoiz guztiz aldatzen ez dena.

4.5.1.3. Ardatzaren ezkerretarako erlatiboak: D-E itzultzaileak

59. grafikoan ikusten denez, D-E itzultzaileen testuetan ardatzaren ezkerretarako erlatiboen proportzioa oso behetik dabil, bai baitakigu erlatibo aposatuena beste inon baino altuagoa dela (biek batera itzuli edo E-k bakarka). Horrek –euskarazko testuen egiletza bakarra iradokitzeaz gain– beste itzultzaileengandik bereizten ditu, horrek erlatibakuntza-estilo edo eredu propio baten presentzia berresten duelarik.

Datu hauek oso baxuak direla ulertzeko, corpusaren batez bestekoarekin alderatu behar dira. Adibidez, batera itzultzen dutenean, emaitzarik altuena objektuak euskaratzerakoan eskaintzen dute (ordain erlatiboen %69), baina, corpus guztia kontuan

hartuta, nahiko datu baxua dela esan daiteke: objektuak, batez beste, kasuen %85ean euskaratzen dira ardatzaren ezkerretarako erlatibo batekin.

E-k subjektuen %63 erlatibatzen du erlatibo arrunt edo jokatu gabe batekin, baina corpusaren batez bestekoa %74 da.

Gainontzeko kasu marka guztientzat, itzultzaile hauen testuek ez dute %60ra iristen den beste daturik eskaintzen. Beste itzultzaileek, ordea, ia kasu marka guztietan dauzkate hortik gorako emaitzak.

Emaitza horietatik lehendabiziko ondorioa atera dezakegu jada: D-E itzultzaileek erlatiboak ardatzaren ezkerretara hedatzeko daukaten joera eskasa ez dago ISEk daraman kasu markaren menpe, kasu marka guztiekin –erlatibagarriekin eta erlatibagaitzekin– mantentzen baitute joera hori.

4.5.1.4. Erlatibo aposatuak


Dakigunez, erlatibo aposatuak ardatzaren ezkerretarako erlatiboen ifrentzua dira.

B itzultzaileak ardatzaren ezkerretarako erlatiboen oparotasun handia baldin bazeukan, erlatibo aposatu gutxi topatuko ditugu berak euskaraturiko testuetan.

D-E itzultzaileak beste muturrean baldin bazeuden –ardatzaren ezkerretarako erlatibo gutxi bazeuzkaten–, erlatibo aposatuen kopuru handia behar dute izan.

A itzultzailearen ardatzaren ezkerretarako erlatiboen gaineko datuak ‘neurritsu’ bezala definitzen bagenituen, erlatibo aposatuenak ere nahitaez halakoxeak izango dira; ez gehiegi eta ez gutxiegi, beti ere beste itzultzaileen datuak “muturrekotzat” definitzea onartuz gero.

60. grafikoak itzultzaile bakoitzaren erlatibakuntza-estiloari buruz esandakoak berresten ditu.



Grafikoa 60 Erlatibo aposatuak euskal itzultzaileengan ISEren posizioaren arabera

Batetik, D-E eta E itzultzaileen elkarren arteko gertutasuna eta besteekiko uruntasuna aipatu behar da. Deigarria –eta esanguratsua– da subjektuak eta objektu zuzenak beste itzultzaileek baino askoz ere maizago euskaratzen dituztela erlatibo aposatuen bitartez. Objektu zuzenetan ere besteen gainetik dabilta (B-k errusierazko objektu zuzen bakar bat ere ez du ematen erlatibo aposatu batekin; A-k bai, baina D-E-k baino dezente gutxiago).


Datu hauek, beste behin D-E itzultzaileen euskarazko testuen egiletza bakarria iradokitzeaz gain, erakusten digute estilo hori ez dagoela ISEk hierarkian hartzen duen posizioaren menpe. Itxura guztien arabera, testuinguru sintaktikoak derrigortu gabe hartzen dituzte erabaki horiek, beraien –edota euskarazko testua idatzi duen bikotekidearen– lehentasun estetiko edota pertsonalengatik baizik.

Genitiboaren kasuan, itzultzaile guztien datuak oso antzekoak dira. Hori ere ez da harrizkoa, jakina baita euskaraz genitiboa oso erlatibagaitza dela.

Jarraian itzultzaileek osatutako erlatibo aposatu mota desberdinak xehatuko ditugu. Jabetzen gara batzuetan ez duela ekarpen esanguratsurik egingo hauek bereizita aztertzeak, baina arrunt aposatuek, *ZEIN/NON* erlatiboek edo *BAIT-* erlatiboek beti jokabide berdina ez dutenez, banan-banan aztertzen jarraitzea erabaki dugu.

4.5.1.4.1. Erlatibo arrunt aposatuak

Erlatibo arrunt aposatuen datuak bereizita, 61. grafikoan daukagun irudia lortzen da.



Grafikoa 61 Erlatibo arrunt aposatuak euskal itzultzaileengan ISEren posizioaren arabera

A itzultzailea beti bezain neurritsu ageri zaigu arrunt aposatuekin: kasu marka guztiekin erabiltzen ditu, eta erlatibo aposatu batengandik espero izatekoa den eskalaren arabera, subjektu-objektu asimetriak gorabehera.

B itzultzaileak, aldiz, subjektuak itzultzeko nahiko sarri erabiltzen ditu erlatibo arrunt aposatuak (ordain erlatibo guztien %12 edo 8 perpaus), zehar-kasuetan beste itzultzaileen proportzio bertsuetan dabilen bitartean. Subjektuak itzultzeko A-k baino sarriago erabiltzeak azalpen erraza izan dezake: A-k bestelako erlatibo aposatuak ere erruz erabiltzen dituela, eta B-rentzat arrunt aposatuak direla erreferentziatzko erlatibo aposatuak (*ZEIN* erlatiboak oso gutxitan osatzen ditu, eta ez dauka *BAIT*-erlatiborik bere testuetan).

Aipagarria da, halaber, B-k euskaraturiko bi liburutako batean (LUBen) daudela itzultzaile honek osaturiko hamar erlatibo arrunt aposatuetatik bederatzi. Kapitulu honetan bertan ikusi dugunez (ik. 4.3.2.3.), erlatibagarritasuna zailtzeko baldintza hobek eskaintzen ditu Platonoven (LUB) estiloak Dovlatovenak (KONP) baino. Gainera, KONPen arrunt aposatu batekin osatzen duen perpaus bakarrari erreparatzen badiogu (124), ulergarria da B-k erlatibo aposatu bat erabiltzeko “beharra” sentitu izana.

(124)

V ljuboj gazetnoj redakcii est' čelovek, [KOTORYJ ne xočet, ne možet i
PREP. EDOZEIN EGUNKARI- ERREDAKZIO DAGO *PERTSONA*, [ERL. NOM. EZ NAHI, EZ AHAL ETA
ne dolžen pisat'].
EZ BEHAR IDATZI].

'Edozein egunkaritako erredakzioan izaten da *pertsona bat*, [ez duena nahi], [ezin duena] eta
[ez lukeena] idatzi behar.'

(KONP: 119)

Batetik, *pertsona* izen ardatzaren ondoren *bat* erakusle mugagabea egoteak arrunt
aposatuta baten aldeko aukera indartzen du euskaraz. Bestalde, izen ardatz bati dagozkion
mendeko hiru EP egoteak ere, noski, ardatzaren ezkerretarako erlatibo bat eratzea zailtzen
du ([*ez duena nahi*], [*ezin duena*] eta [*ez lukeena*] idatzi behar).

Ondoriozta genezake itzultzaile honek ardatzaren ezkerretarako erlatiboak osatzea
zailtzen zaionean, *ZEIN* edo *BAIT*- erlatiboetara jo aurretik nahiago duela erlatibo arrunt
aposatuz baliatu, erlatibo arruntetatik gertuen daudenak, alegia. Hau euskarazko
ahozkotasunetik hurbilago legoke; hain zuzen, itzultzaile honen ezaugarri gehien
antzerakoa.

D-E itzultzaileek orain arte egotzi izan diegun erlatibakuntza-estiloari eusten diote,
beraz, erlatibo arrunt aposatuen erabilpenean ere. Deigarria da errusierazko zehar-kasuak
itzultzerakoan –alegia, berez erlatibagaitzagoak diren kasu markak– beste itzultzaileen
neurri bertsuan baliatzen direla arrunt aposatuz (125a), baina subjektu (125b) nahiz
objektu zuzenak (125c-d) bereziki maiz euskaratzen dituztela erlatibo mota honekin.

(125)

a)

No pri nej byla liš' maljusen'kaja *sumočka*, [v KOTOROJ ne pomestilas' by
BAINA PREP. BERA (F.) ZEGOEN SOILIK ÑIMIÑO *POL TSA*, [PREP. ERL. PREP. EZ KABITU
daže butylka piva].
ERE BOTILA GARAGARDO].

'...baina neskak eskuko *poltsa ñimiño bat* baizik ez zeukan aldean, [garagardo-botila bat
gordetzeko tokirik ere ez zuena].' (PIK: 29)

b)

Tam dolžen byt' èntot *otrjad*, [KAKOJ s muzykoj šël čerez našu stanicu]...
HAN BEHAR EGON HURA *DESTAKAMENDU*, [ERL. NOM. PREP. MUSIKA JOAN PREP. GURE HERRIA]...
'Han omen zagok *destakamendu hura*, [gure herria musikarekin zeharkatu zuena]...' (DII: 99)

c)

...*mužčinu* let soroka, [KOTOROGO neskol'ko raz videl na ser'éžnyx poxoronax].

...GIZONA URTE BERROGEI, [ERL. AKUS. BATZUK ALDI IKUSITA PREP. SERIO EHORZKETAK].

'Berrogei urte inguruko *gizon bat*, [ehorzketa serioetan behin baino gehiagotan *ikusita zeukana*].'

(PIK: 269)

d)

Vot antiresnoe *ditě, tovarišči*, [KOTOROE titek ne prosit, na podol ne močitsja HAU BITXIA UMETXOA, KAMARADOK, [ERL. NOM. TITIRIK EZ ESKATU, PREP. ARROPA EZ BUSTI i lujdej so sna ne bespokoit].

ETAJENDEA PREP. LOA EZ ERAGOTZI].

'Hau *umetxo bitxia*, kamaradok, [titirik eskatzen ez duena], [arropa bustitzen ez duena], [inoren loa eragozten ez duena]...'

(ZTG: 108)

D-E itzultzaileek erlatibo aposatuak erakusten duten atxikimendu orokorra kontuan izanda, eta aztertu berri ditugun erlatibo arrunt aposatuak batez ere subjektuak eta objektuak euskaratzeko erabiltzen dituztela jakinda, aurreikusitako dezakegu *ZEIN/NON* eta *BAIT*-erlatiboak batez ere zehar-kasuak eta genitiboak euskaratzeko erabiliko dituztela.

4.5.1.4.2. *ZEIN/NON* erlatiboak


ZEIN erlatiboak dira erlatibo aposatu edo "erromanikoa" irudikatzen dugunean beste ezer baino lehen bururatzeko zaizkigunak.

Finkatu dugu jada corpus guztiaren %10 hartzen dutela, eta proportziorik altuenak zehar-kasuetan (ordain erlatiboaren %17) eta genitiboetan (erlatiboaren %47) topatzen direla (ik. kapitulu honetako 3.1.1.2.).

Halaber, badakigu D-E eta E itzultzaileen testuetan agertzen direla sarri: batera itzultzean ordain erlatiboaren %12 dira, eta E-k bakarka lan egiten duenean, erlatiboaren %18.

Hauetaz gutxien baliatzen dena B itzultzailea dela badakigu, eta A itzultzailearen datuek erdibideko irudi bat eskaintzen dutela ere bai.

Galdera da: erlatibo aposatuak ISEren posizio sintaktikoaren arabera sailkatuz gero, aldatzen al da itzultzaileei buruz daukagun irudi hori ala ez? Eta aldatzen ez bada, ISEren posizio sintaktikoa jakiteak laguntzen al digu behintzat itzultzaileen jokabide desberdinei azalpen bat aurkitzen? 62. grafikoa eskaintzen dugu, ISEren posizio desberdinen arabera, itzultzaile bakoitzaren testuek erakusten duten *ZEIN* erlatiboaren maiztasuna.



Grafikoa 62 *ZEIN* erlatiboak euskal itzultzaileengan ISEren posizioaren arabera

ZEIN erlatiboen erabilera sintaktiko kanoniko baten bila ibiliko bagina, 62. grafikoa E itzultzailearen datuek asebeteko gintuzkete, behetik gorako progresio perfektu bat erakusten digutelako: gutxien subjektuak eta gehien genitiboak erlatibatzen ditu *ZEIN* erlatiboen bidez, tartean objektuak eta zehar-kasuak geratzen direlarik. Alegia, Comrie/Keenanen hierarkia, baina alderantziz, *ZEIN* erlatiboak euskaraz kasu marka erlatibagaitzetan ‘espezializaturiko’ estrategia bat direlako.

Egia esan, gainerako itzultzaileengan ere egoera bertsua daukagu: zehar-kasuak eta genitiboak itzultzerakoan topatzen ditugu sarrien *ZEIN* erlatiboak, subjektuak nahiz objektuak euskaratzerakoan asko jaisten delarik hauen proportzioa itzultzaile guztiengan.

Subjektu eta objektuei dagokienez, 62. grafikoko bi datu bereizten dira besteen gainetik: A itzultzailearen subjektuena eta E itzultzailearen objektu zuzenena.


A itzultzaileak subjektuzko perpausak itzultzeko erabiltzen dituen ordain erlatiboen %8 *ZEIN* erlatiboak dira, beste itzultzaileek baino gehiago. Corpuseko batez bestekoa %7an dago, baina ez da ahaztu behar A itzultzailearen eta besteen laginen artean asimetria handia dagoela.

E itzultzaileak objektu zuzenak itzultzerakoan beste inork baino gehiago erabiltzen ditu *ZEIN* erlatiboak (ordain erlatiboen %12); corpuseko batez besteko %2arekin alderatuz gero, datu honen desbideratzea esanguratsua da.

NON erlatiboetara dagokienean, jakina da semantikoki lekuzko perpausetara mugatua egoteak, eta euskaraz nahiko markatuak izateak asko baldintzatzen duela beraien agerpena.

Oro har, genitiboak bat izan ezik, corpusean *NON* galdetzailearekin osatutako euskal ordain guzti-guztiak errusierazko zehar-kasuak itzultzeko erabili dira, eta ondorioz, itzultzaile guztientzat kasu marka bakarra izanik, desberdintasun gutxi egon daitezke alde horretatik.

Gehienez ere, orain arteko ildoak berresten lagunduko digun datu bat gehiago lortuko dugu, eta 63. grafikoko datuei erreparatuta, badirudi hala dela.



Grafikoa 63 *NON* erlatiboak euskal itzultzaileengan ISEren posizioaren arabera

Erlatibo aposatuak itzultzaileka banatzen ditugunean agertzen den irudi bera dugu 63. grafikoa ere: D-E itzultzaileak beste guztien gainetik dabilta nabarmen (ordain erlatiboen %22, batera nahiz bakarka lan egin); beste muturrean B itzultzailea daukagu, beste inon baino *NON* erlatibo gutxiagorekin (erlatiboen %4), eta azkenik, A itzultzailea ageri zaigu besteen tarteko emaitzekin (ordain erlatiboen %7), nahiz eta kasu honetan B itzultzailearengandik askoz ere gertuago dagoen.

4.5.1.4.3. *BAIT*-erlatiboak

Kapitulu honetako 4.3. puntuko 39. grafikoa itzultzaile bakoitzak *BAIT*-erlatiboak zein neurritan erabiltzen dituen ikusten genuen. B itzultzaileak bakar bat ere osatzen ez duenez, besteen datuak gogoratuko ditugu.


A eta E itzultzaileak corpuseko batez bestekoaren bueltan zebiltzan (%10). D-E-k batera itzultzen dutenean, ordea, ordain erlatibo guztien %22ra igotzen da proportzio hori.

ZEIN eta *BAIT*-erlatiboen arteko antzekotasunak bistakoak dira. Biak aposatuak izateaz gain, forma aldetik ere paralelismo garbi bat daukate: *ZEIN* erlatiboak osatzen ditugunean, maiz aditzari *BAIT*-aurrizkia gehitzen diogu (*zeinari esan baitiot..*)

perpauzaren modukoetan). Horregatik esaten da sarritan *BAIT*- erlatiboak 'izenordainik gabeko *BAIT*- erlatiboak' direla.

Halaber, *ZEIN* eta *BAIT*- erlatiboek ISEren arabera irizpidea aplikatzen den genienean (ik. kapitulu honetako 3.1.1. puntuko 16. grafikoa), desberdintasun garrantzitsu bat agertzen zen: *ZEIN* erlatiboak askoz ere mugatuago zeuden kasu marka erlatibagaitzetara (zehar-kasu eta genitiboetara), *BAIT*- erlatiboek presentzia kasu marka guztietan zehar nahiko uniformeki barreiatuta zegoen bitartean.

Bada, itzultzaileen eta ISEren posizioaren arabera sailkapena elkarrekin gurutzatuz gero (64. grafikoa) egoera hori bera errepikatzen dela ohartzen gara.



Grafikoa 64 *BAIT*- erlatiboak euskal itzultzaileengan ISEren posizioaren arabera

62. eta 64. grafikoak konparatzen baditugu, segituan nabarituko dugu *ZEIN* eta *BAIT*- erlatiboek arteko desberdintasuna kasu marken banaketan, itzultzailea edozein dela ere.

Deigarria da ISE subjektua denean itzultzaile guztiek sarritan *BAIT*- erlatiboek aldeko hautua egiteko duten joera: A itzultzailearen testuetan subjektuzko erlatibo guztien %12 dira, D-E-ren testuetan %26 eta E-k bakarka itzulitako liburuan %8. Joera hau hain orokorra izateak erlatibo mota honen ezaugarri propioekin lotuta dagoela iradokiko luke, itzultzaileen balizko erlatibakuntza-estilo baten kaltetan.

Objektu zuzenei dagokienez, oro har, ez dira subjektuak bezain maiz itzultzen *BAIT*- erlatiboek bidez, baina bai kontuan hartzeko proportzioetan: A-k objektuzko erlatiboek %6, D-E-k %12 eta E-k %8.

Zehar-kasuen kopurua ere esanguratsua da: A-k %9, D-E-k %20, E-k bakarka %10.

Genitiboen datuak ez dira oso esanguratsuak, corpus guztian genitiboak *BAIT-* erlatibo batekin ematen dituzten bi perpaus besterik ez baitaude (126a-b).

(126)

a)

... k potencialnym *sponsoram*, [*bez deneg KOTORYX* nevozmožno bylo otpravit'
...PREP. BALIZKO *BABESLEAK*, [PREP. DIRU ERL. GEN. EZINEZKOA ZEN BIDALTZEA
ukrainskix učěnyx v Antarktidu].

UKRAINAR ZIENTZIALARIAK PREP. ANTARTIKA].

'...laguntza eskatzen zien balizko *babesleei*, [HAIEN diru ekarririk gabe ez baitzegoen zientzialari ukrainarrak Antartikara *bidaltzerik*].' (PIK: 189)

b)

Našli i arestovali na konspirativnoj *kvartire*, [*xozjajkoj KOTOROJ* ona sostojala].
AURKITU ETA ATXILOTU PREP. EZKUTUKO ETXEBIZITZAN,[JABEA (F.) ERL. GEN. BERA (F.) ZEN].

'Ekintzaileen ezkutuko etxebizitzan aurkitu eta atxilotu zuten, [bera baitzen (Ø) haren jabea].'

(ZPU: 23)

Oro har, esan genezake *BAIT-* erlatiboak gainontzeko erlatibo aposatuengandik bereizten dituela, hain zuzen, kasu marka erlatibagarriak itzultzeko maiz agertzeak, gainontzeko erlatibo aposatuekin gertatzen ez dena. Hori lehendik ere bagenekienez, eta horretan itzultzaileen artean funtsezko desberdintasunik atzeman ez dugunez, ezin dugu itzultzaileen erlatibakuntza-estiloarekin inongo loturarik finkatu, ez bada B itzultzailearen testuetan *BAIT-* erlatibo bakar bat ere ez agertzeak itzultzaile horren estiloari buruz iradoki dezakeena.


4.5.2. Euskal itzultzaileak eta ISEren posizio sintaktikoa: ordain ez-erlatiboak

Ordain ez-erlatiboak aztertzen genituenean, datuen arteko nolabaiteko korrelazio bat –edo gutxienik erregularitasun batzuk– finkatzea lortzen genuen, hala nola *sinplifikatzea* testuinguru erlatibagarriagoetan eta *paratxia* kasu marka erlatibagaitzagoak itzultzeko erabiltzen zirela (ik. kapitulu honetako 3.1.2. eta 3.2.2.). Gero, datu horiek itzultzaileen arabera sailkatzean, ohartzen ginen aipatutako erregularitasunek itzultzaile guztiengan itxura bertsua zutela, eta horregatik ondorioztatzen genuen itzultzailearen norbanako estiloa ez zela faktore esanguratsua ordain ez-erlatiboen erabilpenean, edo bestela esanda, erlatibakuntzaren ezabaketan (kapitulu honetako 4.4.).

Orain erantzun beharreko galdera ondorengoa da: ISEren funtzio sintaktikoa kontuan hartzeak lagunduko ote digu erlatibakuntzaren ezabaketan itzultzaileen estiloa atzematen? Hala ez bada, erlatibakuntza ezabatzean itzultzaileez gaindiko faktoreek itzultzaileen norbanako estiloak baino zeresan handiagoa dutela onartu beharko dugu.

Ikus dezagun banan-banan itzultzaile bakoitzak kasu marka desberdinekin erlatibakuntza nola ezabatzen duen. Gogora dezagun erlatibatzeke zailtasunak areagotzen doazen neurrian parataxiaren gorakada bat espero dugula, eta alderantziz, erlatibatzeke zailtasuna jaisten bada, sinplifikatzearen gorakada bat gertatu behar lukeela.


A itzultzaileak, tinko eusten dio bere ohiko izaera neurritsuari (65. grafikoa).



Grafikoa 65 A itzultzailearen euskal ordain ez-erlatiboak ISEren posizioaren arabera

Baliabide guztiak erabiltzen ditu, errusierazko kasu marka guztiak itzultzeko eta beti maiztasunen korrelazio bertsuekin: *Parataxia* > *Sinplifikatzea* > *Hipotaxia*. Akaso zehar-kasuak eta genitiboak itzultzeko *parataxia* gehiago erabiltzen du, eta *sinplifikatzea* subjektuak eta objektu zuzenak erlatibatzeke, baina hori itzultzaile guztiek egiten dutenez, ondorioztatu beharko dugu hori ez dela itzultzailearen araberakoa.


B itzultzaileak, oro har, A-ren eskema berdinari jarraitzen dio (66. grafikoa).



Grafikoa 66 B itzultzailearen euskal ordain ez-erlatiboak ISEren posizioaren arabera

Objektu zuzenak itzultzerakoan *sinplifikatzerik* ez egotea laginaren tamaina eskasari lepora dakioke, errusierazko objektuzko perpausen ordain ez-erlatiboak lau besterik ez baitira guztira. *Hipotaxiaren* proportzio altuak ere deigarriak dira, baina laginaren adierazkortasun-ek ez du ondorio esanguratsuetara iristea ahalbidetzen.

D-E itzultzaileek ere ez dute irudi guztiz homoginoa eskaintzen, eta lagina ez da oso adierazgarria kasu honetan ere (67. grafikoa). Alde batetik, *sinplifikatzea* bai doa jaisten erlatibagarritasuna zailtzen doan heinean, baina *parataxia*, adibidez, zehar-kasuak itzultzeko subjektuak eta objektu zuzenak euskaratzeko baino gutxiagotan erabiltzen du, eta hori ez dator bat guk geneukan irudi orokorrarekin.



Grafikoa 67 D-E itzultzaileen euskal ordain ez-erlatiboak ISEren posizioaren arabera

D-E-k zehar-kasuetan *hipotaxia* sarritan erabiltzen badute, baliteke corpora sailkatzerakoan aditzondo guztiak zehar-kasutzat hartu izanak efektu hori eragitea, nahiz eta beste itzultzaileen kasuan ere halaxe gertatzen den. Adibidez, denborazko *kogda* ‘noiz’ aditzondoarekin osatutako EP bat euskaraz denborazko perpaus batekin ematen badugu, erlatibakuntzaren ezabaketa gertatu dela esan eta automatikoki *hipotaxiatzat* definituko dugu (127a), mendeko erlatibozko perpausa izatetik mendeko denborazko perpausa izatera igaro delako. (127b)n, aldiz, errusieraz *kto* ‘nor’ erlatibatzailearekin osaturiko korrelaziozko perpaus bat zena baldintzazko perpaus batera isurtzea “erabaki” du itzultzaileak, egitura hori hitzez hitz euskaratzeko zailtasunak izango lituzkeelako.

(127)

a)

I ne rabotal tjažëloj raboty s četyrnadcati let, s toj pory, [KOGDA zabolet
ETA EZ EGIN NEKETSU LAN PREP. HAMALAU URTE, PREP. HURA GARAI, [ERL. NOIZ GAIXOTU
durnoj bolezni]ju].

TXAR GAIXOTASUN].

‘eta hamalau urte bete zituenez geroztik ez zuen lan neketsurik egin, [gaixotasun txar batek *jo zuenez geroztik*], alegia.’

(ZTG: 74)

b)


[Na KOGO pridëtsja] – tomu kryška...

[PREP. ERL. AKUS. ONGI EMAN] – HURA AKABO...

‘[baten bati ongi *ematen badio*] arropak... akabo!...’ (ZTG: 133)

Alabaina, *kotoryj* bat tartean dagoenean –erlatibakuntzan espezializaturiko izenordain bat, alegia– *parataxiaren* nagusigoa garbia da. Horregatik, ez dirudi unean uneko desberdintasunen atzean sakoneko arrazoirik dagoenik.

E itzultzaileak bakarka itzultzen duenean, kontuan hartzeko moduko desberdintasun batzuk sumatzen dira (68. grafikoa).



Grafikoa 68 E itzultzailearen euskal ordain ez-erlatiboak ISEren posizioaren arabera

Ikusten dugu kasu marka zenbat eta erlatibagaitzagoa, orduan eta gehiago agertzen dela *parataxia*, eta hori bat dator baliabide ez-erlatiboen inguruan orain arte ondorioztatu dugunarekin. Gauza bera gertatzen da *sinplifikatzearekin*: zehar-kasuetan erabiltzen da gutxien, eta genitiboetan ez da agertu ere egiten. Aldi berean, perpausa *sinplifikatzeko* joera beste itzultzaileengan baino handiagoa da E-rengan. Itzultzaile honen kasuan ez dirudi ordain ez-erlatiboen laginarekin arazorik dagoenik: guztira 44 ez-erlatibo osatzen ditu eta horietatik 28tan ematen da *parataxia* (%64) eta 13tan *sinplifikatzea* (%30).

(128a-b) *čto* erlatibatzailearekin osatutako eta aurrekaritzat izenordaina duten bi perpaus dira. Itzultzaileak (128a)n “*Horixe espero dut zuengandik*”-en ordeztu “*Horixe zen zuengandik [espero nuen]a*” jarri izan balu, erlatibakuntza mantendu duela esango genukeen. Berdin (128b)n “*Horrexek ernarazten du bizitza*”-ren ordeztu “*Horixe da bizitza ernarazten duena*” idatzi izan balu.

(128)

a)

(Vot, sobstvenno), *to*, [*ČTO* ja xoču ot vas]...

HORIXE, *HORI*, [ERL. AKUS. NIK NAHI DUT PREP. ZU]...

‘[*Horixe*] espero dut, (zehatz hitz eginez), zuengandik...’ (PIK: 254)

b)

Èto *to*, [*ČTO* probuždaet žizn’, vyzyvaet eë na poverxnost’ zemli].

(DA) *HORI*, [ERL. NOM. ERNARAZI BIZITZA, GONBIDATU BERA (F.) PREP. AZALERA LUR].

‘[*Horrexek*] ernarazten du bizitza, bizitza gonbidatzen du lurrazalera dadin.’ (PIK: 252)

4.5.3. Euskal itzultzaileak eta ISEren posizio sintaktikoa: ondorioak

Itzultzaileek euskaraturiko perpausei ISEren funtzio sintaktikoaren irizpidea aplikatuta lortutako emaitzak lagungarri izan dira itzultzaile bakoitzaren estiloaren zantzuak identifikatu ahal izateko, bereziki euskal ordain erlatibo desberdinen maiztasunari dagokionez.

Ordain ez-erlatiboetan ez dugu itzultzaileen balizko estilo baten zantzurik topatu, baina, gorago ikusi dugunez, hori bera esanguratsua izan daiteke, aditzera eman baitezake erlatibakuntzaren ezabaketa ez dela itzultzaileen estiloaren mendekoa, beste faktore batzuekin lotua baizik, ziurrenik itzulpen-prozesuaren parte diren hizkuntza-sistemen arteko konbinazioa.

Ardatzaren ezkerretarako ordain erlatiboak itzultzaileka banatu ditugunean (59. grafikoa), ikusi dugu ISEren funtzio sintaktikoa edozein dela ere, itzultzaile guztiek mantentzen dutela orain arte bakoitzari egotzi izan diogun joera: B eta D-E itzultzaileak mutur banatan (lehenengoak arrunt eta jokatu gabe asko, bigarrenak gutxi) eta A itzultzaile orekatu bat, parametro guztietan besteen arteko erdibidean aurkitzen dena.

Alegia, D-E itzultzaileak, ISE subjektua edo objektu zuzena denean –alegia, euskarazko erlatibakuntzarako testuingururik mesedegarrienetan– ardatzaren ezkerretarako erlatiboek beste inor baino gutxiagotan baliatzen direnez, ondorioztatu dugu ISEren posizioa ez dela erabakigarria itzultzaile hauek erlatibo aposatuekiko erakusten duten atxikimendua azaltzeko.

Erlatibo aposatuak aztertzean irudi berbera kausitu dugu, baina alderantziz (60. grafikoa): hemen ere B eta D-E mutur banatan daude, baina oraingoan D-E dira proportzio handia daukatenak, B-k erlatibo aposatuak nekez erabiltzen dituen bitartean.

Erlatibo aposatuetan aldatzen ez dena A-ren erdibideko tokia da: B-k baino askoz ere maizago, baina D-E-ren maiztasunetara iritsi gabe.

ISEren posizioaren arabera irizpidea aplikatzearen ondorio nagusia da itzultzaile bakoitzaren jokaera ez dela ISEren funtzioaren arabera, testuinguru sintaktikoaren menpe ez dagoen jokabide konstante bat baizik, itzultzaile bakoitzaren estiloak baldintzatzen duena.

Erlatibo aposatu mota desberdinak ere aztertu ditugu, baina itzultzaileen joera orokor horiek berretsi dizkigutela esan dezakegu, unean uneko zalantzak edota laginen adierazkortasun txikiak gorabehera.

Adibidez, ikusi dugu D-E itzultzaileek erlatibo arrunt aposatuak (61. grafikoa) sarritan erabiltzen dituztela subjektuak eta objektuak itzultzeko, gainontzeko itzultzaileek ez bezala.

Halaber, *ZEIN/NON* erlatiboetan –bereziki *NON* galdetzailearekin osatutakoetan– D-E-ren nagusigoa nabarmena da. Beste hainbeste esan daiteke *BAIT*-erlatiboetarako buruz.

Azkenik, itzultzaileek erabilitako euskal ordain ez-erlatiboak aztertu ditugu, eta eskuartearen hainbat datu interesgarri izan ditugun arren, onartu behar da ordain ez-erlatiboek utzitako irudia ordain erlatiboena baino lausoagoa dela.

Harrigarria bada ere –daukan lagin handia kontuan izanik–, A itzultzailearen datuak dira homogeneousak. Bertan uniformeki eta modu iraunkorrean ematen dira corpus osorako finkatutako erregulartasunak. Azken hau bere laginaren neurriaren ondorio izan daiteke, corpuseko emaitza orokorrak baldintzatzeko ahalmena daukalako.

B eta D-E-ren kasuan –kasu honetan azken hauek batera itzultzen dutenean– batzuetan joera orokorrak berresten dira, beste batzuetan ez, eta maiz laginaren adierazgarritasunaren inguruan zalantzak sortzen zaizkigu. Badirudi, oro har, erlatibakuntzaren ezabaketa –ordain ez-erlatiboak– objektibatzea eta bertan erregulartasunak topatzea zailagoa dela, gure ikerketan zehar baino gehiagotan igarri izan dugun moduan. Horren balizko arrazoia izan daiteke STko perpaus erlatibotik euskal ordain ez-erlatibora dagoen jauziak –hots, literaltasunetik aldentzeak– aukerak ugalarazten dituela, eta zailagoa dela eredu “estandar” batzuk atzematea, kasu horietan testuinguruarekiko menpekotasuna areagotuko litzatekeelarik, itzultzailearen beraren gustu, joera edo iritzi estetiko nahiz linguistikoen gaineratik.

4.6. Euskal itzultzaileak eta errusierazko erlatibatzaileak

Badakigu errusierak perpaus erlatiboak osatzeko daukan baliabide morfosintaktikoek –erlatibatzaileek– corpusean duten presentziaren tamaina asko aldatzen dela batetik bestera: *kotoryj*-rekin osaturiko perpausak corpus guztiaren %65 eta aditzondoekin eraturikoak %12 diren bitartean, gainontzeko %23 *čto₁* (%13), *čto₂* (%2), *kto* (%4) eta *kakoj* (%4) erlatibatzaileen artean dago banatua.

Edonola ere, *koy* eta *čej* ezik, beste guztien laginak aski esanguratsuak direla esan dezakegu, baina gerta daiteke datuak aztertzerakoan proportzio hauek kontuan hartu behar izatea, eta horregatik gogorarazten ditugu hemen.

Kapitulu honetako 3.2.1. puntuan erlatibatzaileak erlatibagarritasunaren arabera bi taldeetan sailkatzen genituen, ardatzaren ezkerretarako erlatiboekin itzuliak izateko aukera handia duten erlatibatzaileak (*kto*, *čto₁*, *čto₂* eta *kakoj*), eta maizago erlatibo aposatuak erabiliz euskaratzen direnak (*kotoryj* eta leku-denborazko aditzondo erlatiboak). Bestela esanda, erlatibagarriagoen taldea eta erlatibagaitzagoena.

Hemen erantzun beharreko galdera da: itzultzaileen jokamoldea aldatzen ote da erlatibatzaile batekin edo bestearekin osaturiko perpausak itzuli behar dituztenean?

Galdera horri erantzuteko corpuseko emaitzen ohiko sailkapena egingo dugu, ordain erlatiboak eta ez-erlatiboak bakoitza bere aldetik aztertuta, baina oraingoan itzultzaile bakoitzaren jarduna kontuan izanda.

4.6.1. Euskal itzultzaileak eta errusierazko erlatibatzaileak: euskal ordain erlatiboak


Ordain erlatiboen artean ohiko bi taldeak bereiziko ditugu: izen ardatzaren ezkerretarakoak (erlatibo arrunt eta jokatugabeak) eta ardatzaren eskuinetarakoak edo aposatuak.

4.6.1.1. Euskal itzultzaileak eta errusierazko erlatibatzaileak: ardatzaren ezkerretarako erlatiboak

Erlatibatzaile asko direnez, antzeko jokabidearen arabera bi taldeetan banatuko ditugu: erlatibagaitzenak batetik (*kotoryj* eta *aditzondoak*) eta erlatibagarrienak bestetik (*kto*, *čto₁*, *čto₂* eta *kakoj*).

4.6.1.1.1. *Kotoryj* eta *aditzondoak*

69. grafikoak aurreko sailkapenetan itzultzaile bakoitzari buruz sortu zaigun irudia berresten du, baina oraingoan sailkapen berri baten bidez.



Grafikoa 69 Ardatzaren ezkerretarako erlatiboak euskal itzultzaileengan errusierazko erlatibatzaileen arabera

Mutur batean B itzultzailea daukagu, hain berezko duen ardatzaren ezkerretarako erlatiboekiko atxikimenduarekin: *kotoryj* eta aditzondoekin osaturiko errusierazko perpausen %79 eta %75 ematen du, hurrenez hurren, erlatibo arrunt edo jokatu gabe batekin. Beste inork baino maizago, beraz.

Beste muturrean, ohi bezala, D-E itzultzaileak ditugu: erlatibo aposatuekiko duten atxikimendu nabarmena dela medio, beste inorengan baino bakanagoa da hauengan ardatzaren ezkerretarako erlatiboaren erabilpena *kotoryj* eta aditzondoak euskaratzeko garaian. Gainera, ez dago ia batere desberdintasunik biek batera edo E-k bakarka itzuli: batera itzultzen dutenean, *kotoryj*-ren euskal ordain erlatiboaren %29 eta aditzondoaren ordain erlatiboaren %42 euskaratzen dute ardatzaren ezkerretarako erlatibo batekin. E-k bakarka, hurrenez hurren, %31 eta %40. Datu berdin-berdinak, beraz.

D-E eta E-ren arteko antzekotasun hau –aldi berean besteengandik urruntzen dituen– egiletza bakarraren hipotesiaren aldeko argumentu bat gehiago litzateke.

Bi mutur horien erdian, beti bezala, A itzultzailea daukagu. *Kotoryj*-dun perpaus bat ordain erlatibo batekin ematen duen kasuetatik %62tan kokatzen ditu ardatzaren ezkerretara. Errusierazko perpausak aditzondo bat daukanean, aldiz, ordain erlatiboaren %57.

Datu hauek aztertuta, zera ondoriozta dezakegu: jatorrizko testuan erabilitako erlatibatzaileek –*kotoryj* eta aditzondoek behintzat– ez dutela itzultzaileen erlatibakuntza-estiloan modu nabarmenean eragiten, bakoitzak bere erlatibakuntza-ereduari eusten baitio, baita testuinguru morfosintaktikoak guztiei aukera berdintsuak eskaintzen dizkienean ere.

Itzultzaileek errusierazko erlatibatzaile desberdinak euskaratzeko daukaten moduak beraien estiloari buruz esandakoa berrestea ahalbidetzen digu, eta alde horretatik, datu interesgarriak dira.

Erlatibatzaileek erlatibakuntza-estiloan eraginik ez dutela egiaztatu ondorengo informazio gehigarria behar dugu: *kotoryj*-ren eta aditzondoaren euskaratzetik atera ditugun ondorioak beste erlatibatzaileek berrestea; alegia, *kto*, *čto₁*, *čto₂* eta *kakoj* erlatibatzaileak euskaratzerakoan itzultzaile bakoitzak bere ohiko jarrerari eustea.


4.6.1.1.2. *Kto*, *čto₁*, *čto₂*, *kakoj*

Ikusi dugu lau erlatibatzaile hauek, parametro ugariaren arabera, erlatibagarritasun handia erakutsi izan dutela. Hau erlatibatzaileen beraien ezaugarrien menpe dagoen edota itzultzaileen berezko erlatibakuntza-estilo bati ote dagokion jakiteko, orain arte bezala, corpusak eskaintzen dituen datuei erreparatu beharko diegu.

Itzultzaile guztien emaitzak berdinak edo oso antzekoak baldin badira, testuinguruak –oraingoa testuinguru morfosintaktikoak– baldintzaturiko datuak izango dira.

Haatik, itzultzaile batetik besterako datuak aldatzen badira, eta bereziki desberdintasunek orain arteko eskema berari erantzuten badiote (B eta D-E mutur banatan eta A erdibidean), itzultzaileen erlatibakuntza-estilo propio baten aurrean gaudela ondorioztatu beharko dugu.

70. grafikoan ikusten dugu, itzultzaileen laginen tamaina desberdinak gorabehera, orain arteko joera berberak mantentzen dituztela: *kto*, *čto₁*, *čto₂* eta *kakoj* erlatibatzaileak ordain erlatibo batekin ematen dituztenean, guztiengan da oso handia ardatzaren ezkerretarako erlatiboaren proportzioa.



Grafikoa 70 Ardatzaren ezkerretarako erlatiboak euskal itzultzaileengan errusierazko erlatibatzaileen arabera

A-k euskaraturiko testuek ez dute zalantzarako tarterik uzten, *kto*, *čto₁*, *čto₂* eta *kakoj*-ren datuak oso goitik baitaibiltza beti: hurrenez hurren, ordain erlatiboaren %91, %88, %94, %92.

Hortaz, esan dezakegu A itzultzaileak, erlatibatzaile hauek ia beti itzultzen dituela erlatibo arrunt edo jokatugabe batekin. Horrez gain, denak berdin eta neurri berean, itzultzaile honek ohituta gauzkan moduan.

B eta D-E itzultzaileen testuetan ere, oro har, goitik dabilta erlatibatzaile hauen datuak.

B-ren kasuan ez da harritzekoa, bere idazkeran, oro har, zati handia hartzen baitute ardatzaren ezkerretarako erlatiboek.

D-E itzultzaileentzat ezohikoa da ardatzaren ezkerretarako erlatiboen maiztasun hori; hain zuzen, horixe litzateke erlatibatzaile hauen erlatibagarritasun altuaren frogarik garbiena.

Hala eta guztiz ere, bi datu aipagarri ageri dira 70. grafiko honetan: *kakoj*-ren emaitza baxuak (batez ere B-ren itzulpenetan), eta D-E itzultzaileek $\check{c}to_2$ ardatzaren ezkerretarako erlatibo batekin hain gutxitan eman izana.

Kakoj-ri dagokionez, kapitulu honetako 3.2.1.1. puntuan aipatzen genuen bezala, hainbat elementu partekatzen ditu *kotoryj*-rekin, etimologikoki adjektiboa izatea, kasu. Beraz, izenordainetatik eratorritako erlatibatzaileak (*kto*, $\check{c}to_1$, $\check{c}to_2$) baino erlatibagaitzagoa suertatzea logikoa da, nahiz eta onartu behar dugun ez dela beti horrela.

$\check{C}to_2$ -ren datuen arazoa laginaren adierazgarritasunari lotuta egotea ere ez litzateke harrizkoa: adibidez, E-k perpaus hauen %100 erlatibo arrunt batekin euskaratzen duela ateratzen zaigu, baina %100 horren atzean perpaus bakarra dago. Aldiz, D-Ek –batera itzultzean– ordain erlatiboen %60 hedatzen dituzte ardatzaren ezkerretara, baina kasu honetan proportzio horren atzean dagoena 5 perpausetik 3 dira (%60). Ziurrenik adierazgarriagoa izango da bostetik hiru batetik bat baino. Edonola ere, bi laginak dira nahiko eskasak.

Laburtuz, esan dezakegu *kto*, $\check{c}to_1$, $\check{c}to_2$ eta *kakoj* erlatibatzaileak euskaratzerakoan erlatibatzaileen beraien ezaugarriek itzultzaileen estiloa baino erabakigarriagoak diruditela.

4.6.1.2. Euskal itzultzaileak eta errusierazko erlatibatzaileak: erlatibo aposatuak

Aipatu izan dugun bezala, erlatibo aposatuen azterketa ardatzaren ezkerretarako erlatiboekiko alderantziz proportzionala izan ohi da, EPak ardatzaren ezkerretara hedatzeko joera daukanak erlatibo aposatu –konparatiboki– gutxi osatuko dituelako eta alderantziz.


Badakigu gure corpusean erlatibo aposatuen erabilerak, oro har, ondorengo eskema jarraitzen duela: B itzultzaileak erabiltzen ditu gutxien, D-E itzultzaileek gehien, eta A itzultzaileak tarteko maiztasuna dauka, B-rengandik gertuxeago bada ere.

Azter dezagun errusieraz erlatibatzaile bat edo bestea egoteak eraginik ote duen erlatibo aposatuak itzulpen-prozesuan agertzeko duten moduan.

4.6.1.2.1. Erlatibo arrunt aposatuak

Erlatibo arrunt aposatuen erabilerak itzultzaileen eta erlatibatzaileen arabera sailkatuz gero (71. grafikoa), datu bat gailentzen zaie beste guztiei: B-k *kakoj* itzultzerakoan daukan

erlatibo arrunt aposatuaren proportzio handia. Kopurua, berez, ez da oso handia, baina bai beharbada adierazgarria, bost ordain erlatibotatik bi itzultzen baititu horrela (129a-b).



Grafikoa 71 Erlatibo arrunt aposatuak euskal itzultzaileengan erriesierazko erlatibatzaileen arabera

(129)

a)

nevedomaja sila, kotoraja ostavila v derevne toľko
 EZEZAGUN INDAR, ERL. NOM. UTZI PREP. HERRIXKA BAKARRIK
tex srednix ljudej, [KAKIE emu nrajatsja].

HORIEK ERTAIN PERTSONAK, [ERL. NOM. BERARI GUSTATU].

‘herrixkan muzhik ertainak bakarrik utzi zituen indar ezezagun bat bazelako munduan; hain zuzen, [hartzari gustatzen zitzaizkionak],’ (LUB: 162)

b)

... te, [v KAKIX ljudi život liš' iz-za nepogody].

...HAIEK, [PREP. ERL. PREP. JENDEA BIZI DA SOILIK PREP. EGURALDI TXARRA]

‘[jendeak bizilekutat eguraldi txarrarengandik babesteagatik soilik *hartzten dituen*]ak.’

(LUB: 45)


Edonola ere, datu honen azalpena, gure ustez, jatorrizko egilearen idazkeran bilatu behar da. Horrez gain, garbi dago B-k erlatibo arrunt edo jokaturgabe bat osatu ezin duenean, erlatibo arrunta aposatzen saiatzen dela, *ZEIN/NON* erlatiboetara oso kasu

jakinetan soilik jotzen baitu, *BAIT*- erlatiboak ez dituelarik osatu ere egiten. Guk egiten dugun interpretazioa da ahazkotasunetik oso gertu geratzen dela.

Gainerakoan, ez dirudi itzultzaileen artean gehiegi aldatzen denik erlatibatzaile jakin bat erlatibo arrunt aposatu batekin itzultzeko modua.

4.6.1.2.2. *ZEIN/NON* erlatiboak

Beste hainbeste esan dezakegu *ZEIN/NON* erlatiboari buruz: garbi ikusten da, itzultzailea edozein dela ere, ia beti *kotoryj* eta aditzondoak direla *ZEIN* erlatibo batekin itzultzen direnak (72. grafikoa).



Grafikoa 72 *ZEIN* erlatiboak euskal itzultzaileengan errusierazko erlatibatzaileen arabera

Salbuespen bakarra dago: A itzultzaileak *kto*-rekin osaturiko perpaus bat itzultzen du *ZEIN* erlatibo batekin (130).

(130)

Zagovoril *tot* iz nix, [*u KOGO* na golove vozvyšalas' na četvert' aršina
EKIN ZION *HARK* PREP. HAIETAKO, [PREP. ERL. GEN. PREP. BURUA NABARMENDU PREP. LAURDEN ARŠIN
kopna gusteišix v'juščixsja čěrnix volos].

ADATS UGARI KIZKUR BELTZ ILE].


'ekin zion haietako *batek*, [*zeinari* gutxienez lau arshin garai zen adats guttiz ugari eta kizkur bat *nabarmentzen baitzitzaion* buruan].'

(TXB: 45)

Perpaus honetan ia saihestezina dirudi hau egitea, *kto* preposizio batekin eta genitiboan deklinatuta egoteak eta EP luzea izateak asko zailduko bailuke –perpaua bere horretan utzita behintzat– ardatzaren ezkerretarako erlatibo bat osatzea.

Edozein kasutan, ikusten da datu hauek ezin direla itzultzaileen estiloaren ikuspuntutik ulertu, ZEIN erlatiboan beraien ezaugarrien eta funtzioen arabera baizik.

Lehendik ere jakina zenez, *NON* erlatiboan emaitzak are homogeneousagoak dira, *kotoryj*-rekin eta aditzondo erlatiboekin osaturiko EPak baitira gure corpusean *NON* erlatibo batekin euskaratzen diren erlatibatzaile bakarrak (73. grafikoa).



Grafikoa 73 *NON* erlatiboak euskal itzultzaileengan errusierazko erlatibatzaileen arabera

Hemen aurkeztutako datuetatik ondorioztatu dezakegu, beraz, ez dagoela itzultzailearen estiloarentzako tarte handirik *ZEIN/NON* erlatiboan bidez zein erlatibatzaile itzuli erabakitzerakoan. Bai dago itzultzailearen eskuetan, ordea, zein maiztasunekin egiten den hori. Hor datza, hain zuzen, itzultzailearen erlatibakuntza-estiloa.


Alegia, itzultzaile guztiek erabiltzen dituzte *ZEIN/NON* erlatiboak errusieraz *kotoryj* edo aditzondo bat daukaten perpausak euskaratzeko, baina D-E-k maizago egiten dute. A-k ere maiz, baina ez neurri berean, eta B-k oso gutxitan eta, segur aski, egoerak behartuta.

4.6.1.2.3. *BAIT*-erlatiboak

BAIT-erlatiboan egoera orokorra deskribatu dugu orain baino lehen:

- B-k ez du bakar bat ere osatzen.
- D-E itzultzaileen testuetan sarrien agertzen diren erlatibo aposatuak dira (ordain erlatibo guztien %22).
- A itzultzailea erdibidean geratzen da, *kotoryj*-en %14 eta aditzondo erlatiboan %8 itzultzen baitu *BAIT*-erlatibo batekin. D-E itzultzailearen proportzioetara iritsi gabe, baina kontuan hartzeko moduko kopuruetan; are gehiago kontuan izanda itzultzaile honen laginak beti direla adierazgarriak.

BAIT- aurrizkiarekin osatutako perpausak erlatibatzaileen arabera sailkatuz gero (74. grafikoa), antzeko irudia lortzen dugu, baina zenbait ñabardurarekin.



Grafikoa 74 *BAIT*- erlatiboak euskal itzultzaileengan errusierazko erlatibatzaileen arabera

D-E itzultzaileek batera itzultzen dutenean agertzen dira gehien *BAIT*- erlatiboak, errusierazko ia erlatibatzaile guztiak euskaratzen baitituzte noizbait *BAIT*- erlatibo batekin: *kotoryj*-ren ordain erlatiboaren %24, *čto₂*-ren %20 (perpaus bakarra dela esan behar), *kakoj*-ren %22 eta aditzondoaren %29.

E itzultzailea bakarka ez da emaitza horietara iristen, baina kopuru aipagarriak ditu halere: aditzondoetan A-ren gainetik nabarmen dabilen arren (ordain erlatiboaren %20), *kotoryj* ez du hark bezain sarritan itzultzen modu honetan (ordain erlatiboaren %10).

Egia esan, kopuru absolutuetan corpuseko *BAIT*- erlatibo guztien %76 A itzultzaileak itzuliak badira ere, D-E itzultzaileen lagina ere kontuan hartzekoa da, eta proportzioetan, esan bezala, A-ren gainetik daude.

Azken hauen kasuan, *BAIT*- erlatiboetako buruzko datuak erlatibo aposatuetan oinarrituriko erlatibakuntza-estiloarekin bat datoz, eta beraz, ez dira harritzekoak.

Edonola ere, *BAIT*- erlatiboaren hedapena berez da interesgarria, B ez beste itzultzaile guztiek erabiltzen baitituzte, nahiz eta –kausazko perpausarekin duten harremana tarteko-beraien erlatibo izaera zalantzan jarri izan den (ik. III. kapituluko 3.5.2. puntua).

Datu deigarriren bat aipatzekotan, esan dezakegu A dela *čto₁*-ekin osatutako perpausak *BAIT-* erlatibo batekin itzultzen dituen bakarra (131a-b) eta D-E direla –batera itzultzean– *čto₂*-ekin osatutako perpaus bat horrela itzultzen duten bakarrak (131c)

(131)

a)

Da eščě to *neulovimoe*, [*ČTO* est' sama molodost'] i [*ČTO₁* zvučalo
BAITA HORI ANTZEMANEZIN, [ERL. NOM. DA FUNTSA GAZTETASUN] ETA [ERL. NOM. SOINUA EGIN
tak jasno v eě golose, čistom, garmoničnom].

HAIN ARGI PREP. BERE (F.) AHOTSA, GARBI, HARMONIATSUA].

'baita gaztetasunaren funtsa den eta haren ahotsean hain soinu argia egiten zuen zer
antzemanekin hori ere, [garbia *baitzuen* ahotsa], harmoniatsua.'

(ZPU: 25)

b)

... i dalee, nakonec, bog znaet čto takoe, [*ČEGO* uže on i sam
... ETA GERO, (AZKENIK), JAINKOAK DAKI ZER, [ERL. GEN. JADA BERAK (M.) ERE
nikak ne mog razobrat'].

INOLA EZ AHAL HARIAURKITU].

'...eta Jainkoak daki zer gertatuko zen gero, [Manilovek behintzat erabat *galdu baitzuen* bere
gogoeten haria].'

(ARH: 62)

c)

Podošli k *korčme* Šmerelja, [*ČTO* stoit na Rovnenskom xosse]...

HURBILDU PREP. OSTATURA ŠMEREL'-.EN, [ERL. NOM. DAGO PREP. ROVNO- ERREPIDEA]...

'Shmerelen ostatura hurbildu ziren, [Rovnorako errepidean *baitago*]...'

(ZTG: 32)

4.6.2. Euskal itzultzaileak eta errusierazko erlatibatzaileak: euskal ordain ez-erlatiboak

Azter dezagun itzultzaileek erlatibakuntza nola ezabatzen duten errusierazko baliabide morfosintaktikoen arabera. Euskal ordain ez-erlatiboek kasuan, ordain erlatiboek ifrentzua direnez, pentsatzekoa da *kotoryj*-k eta aditzondoek ordain ez-erlatiboak maizago eragitea, *kto*, *čto₁*, *čto₂* eta *kakoj* erlatibatzaileen maiztasunaren kaltetan.

Horregatik, lehendabizi *kotoryj* eta aditzondoak aztertuko ditugu, nonbaitetik ateratzekotan, bertatik aterako baitira laginik adierazgarrienak. Ondoren, laburki bada ere, gainontzeko erlatibatzaileekin (*kto*, *čto₁*, *čto₂*, *kakoj*) zer gertatzen den aztertuko dugu.


Gogora dezagun bi erlatibatzaile-talde hauek bereizteko erlatibagarritasun-mailan oinarritzen ginela: *kotoryj*-k eta aditzondoek euskaratzeko testuingururik zailenak sortzen zituzten, eta *kto*, *čto₁*, *čto₂* eta *kakoj* erlatibatzaileek, aldiz, testuingururik mesedegarrienak.

Halaber, gure corpusean identifikatu ditugun hiru euskal ordain ez-erlatibo motak (*parataxia*, *sinplifikatzea* eta *hipotaxia*) aipaturiko bi erlatibatzaile-taldeekin kontrajartzen genituenean (3.2.2.-ko 28. grafikoa) oso nabarmena zen bi erlatibatzaile-talde hauen arteko banaketa: erlatibagarritasun-maila handiagoa erakusten zuten erlatibatzaileak –*čto₁*, *kto* eta *čto₂*– euskaratzerakoan nabarmena zen perpausa *sinplifikatzeko* joera. Alderantziz, *kotoryj*-k eta aditzondoek *parataxi* bidez etenak eragiteko joera handiagoa zuten, perpausa *sinplifikatzearen* kaltetan. *Kakoj* batzuen eta besteen tartean legoke, aurretik sarritan gertatu zaigun moduan.


Orain egiaztatu nahi duguna zera da: emaitza horiek itzultzaileen jokabidearekin zerikusirik ba ote dute? Hain zuen, irizpide linguistikoek hain emaitza garbiak eman badituzte, pentsatzekoa da itzultzaileen estilo propioa ez dela hain esanguratsua izango.

4.6.2.1. *Kotoryj* eta aditzondo erlatiboak

Kotoryj-ren datuak (75. grafikoa) aditzondoekin (76. grafikoa) konparatuz gero, ikusten dugu bi grafikoetako emaitzak aski homogeenak direla; hots, ez da nabari itzultzaileen arteko alde handirik bat zein besteak euskaratzeko moduan. Beraz, bi hizkuntzen –errusieraren eta euskararen– erlatibakuntza-sistemek inposaturiko murriztapenak itzultzaileen estiloari gailentzen zaizkiela ondorioztatu beharko dugu.



Grafikoa 75 Ordain ez-erlatiboak eta kotoryj euskal itzultzaileengan



Grafikoa 76 Ordain ez-erlatiboak eta aditzondoak euskal itzultzaileengan

Kotoryj-ren kasuan (75. grafikoa), *parataxiaren* nagusigoa itzultzaile guztiengan da nabarmena: A itzultzaileak erabiltzen du *parataxia* beste inork baino gutxiago, eta halere, ordain ez-erlatibo guztien %72ra iristen da. Halaber, itzultzaile guztien testuetan dago

bigarren tokian perpausa *sinplifikatzearen* baliabidea, eta azkenik *hipotaxia* guztien lanetan da hiruetatik gutxien agertzen dena. Eraitza hauek orain arte baliabide ez-erlatiboan inguruan genekiena baieztatzen dute, eta horrez gain, zeharka bada ere, iradokitzen digute itzultzaileen “eskua” ez dela esanguratsua erlatibakuntzaren ezabaketan.

Aditzondoek ere datu aski homogeenak eskaintzen dizkigute (76. grafikoa), hiru baliabideen arteko proportzioak asko berdintzen direlako itzultzaile guztiengan, nahiz eta badauden zenbait desberdintasun batetik bestera.

A eta B itzultzaileen emaitzak elkarren oso antzekoak dira. Aditzondoekin osatutako EPak itzultzerakoan biek erabiltzen dute *parataxia* beste edozein baliabide baino maizago, nahiz eta ez *kotoryj* itzultzerakoan bezainbeste. *Hipotaxiaren* eta *sinplifikatzearen* maiztasunak gertuago daude aditzondoan kasuan, A-ren itzulpenetan lehendabizikoaren alde eta B itzultzailearen testuetan, aldiz, bigarrenaren mesedetan.

Esan beharrik ez dago A-ren lagina oso zabala dela, eta ondorioz oso adierazgarria ere bai: aditzondoak 93 aldiz euskaratzen ditu erlatibozkoa ez den baliabideren batekin, hauetatik 54 *parataxiaz* (ez-erlatiboan %58), 25 *hipotaxiaz* (%27) eta 14 *sinplifikatzearen* bitartez (%15).

B-ren lagina ez da hain zabala, baina bai ziurrenik kontuan hartzekoa: ordain ez-erlatibo batekin emandako 42 aditzondoetatik 30 (%71) osatzen dira *parataxiaz*.


Bestelakoa da B itzultzailearen testuetako *hipotaxia* eta *sinplifikatzearen* arteko korrelazioa: lehendabizikoa 5 aldiz agertzen da (%12), eta bigarrenaren 7 adibide bakarrik daude (%17). Nahiz eta ehunekoetan aldea handiagoa iruditu, adibide gehiagoren faltan, antzeko maiztasunez erabiltzen dituela ondorioztatu beharko dugu.

D-E itzultzaileek buruturiko itzulpenetan deigarria da, beste bi baliabideen aldean, *parataxiara* hain gutxitan jo izana. Hemen esan dezakegu laginak ziurrenik ez duela behar hainbat adierazgarritasunik, biek batera 3 aldiz soilik euskaratzen baitituzte aditzondoak baliabide ez-erlatibo batekin, eta E-k bere kasa 5 bider. Ez dirudi eraitza orokorrak zalantzan jartzeko moduko lagina denik D-E itzultzaileena.

4.6.2.2. $\check{c}to_1$, $\check{c}to_2$, *kto*, *kakoj*

Ikusi dugu lau erlatibatzaile hauek erlatibagarriagoak izateak euskaratzean erlatibakuntza-ezabaketa gutxiago eragitea dakarrela. Beraz, guztien artean corpusaren %23 soilik hartzen badute, eta gainera, %23 horretatik erlatibakuntza gutxitan ezabatzen badute, euskal ordain ez-erlatiboan laginaren tamaina tentu handiz maneiatu beharko dugu *kto*, $\check{c}to_1$, $\check{c}to_2$ eta *kakoj*-ren ordain ez-erlatiboak aztertzerakoan.

77. grafikoan ikusten da, beti bezala, A itzultzailearenak direla daturik esanguratsuenak, nahiz eta kopuru absolutuetan hauek ere oso handiak ez izan: lau erlatibatzaileak batera hartuta, 71 aldiz bakarrik ematen ditu ordain ez-erlatibo batekin; bere laginaren tamaina kontuan hartuta, proportzio txikia da. Huetatik 44 (%62) perpausa *sinplifikatuz* ematen ditu, 16tan (%23) *parataxia* daukagu eta gainerako 11etan (%15) *hipotaxia*.




Grafikoa 77 A itzultzailearen euskal ordain ez-erlatiboak errusierazko erlatibatzaileen arabera

Kotoryj-ren eta aditzondoan datuekin alderatuta, bistakoa da desberdintasuna: A itzultzaileak horiek euskaratzeko baliabide nagusizat *parataxia* zeukan bitartean, *kto*, *čto₁*, eta *čto₂* itzultzerakoan *sinplifikatzeak* presentzia handiagoa dauka itzultzaile honen testuetan. *Kakoj*, honetan ere, *kotoryj* eta aditzondoengandik gertuago dago, baina *parataxia* maila txikiago batekin (ez-erlatiboan %50).

Horrez gain, *parataxiaren* eta *hipotaxiaren* emaitzen artean ez dago horrenbesteko alderik, *kotoryj*-ren eta aditzondoari zegozkien grafikoetan elkarrengandik oso urrun zeuden bitartean.

Lau erlatibatzaileak itzultzen dira neurriren batean hiru baliabide ez-erlatiboekin, eta gainera proportzioak, oro har, ez dira asko aldatzen (gogora dezagun beste behin itzultzaile honen izaera neurritsua): *čto₁*, *čto₂* eta *kto* erlatibatzaileak itzultzerakoan garbi nagusitzen da *sinplifikatzea* beste bien gaineratik. *Kakoj*, aldiz, *kotoryj* eta aditzondoan antzerago euskaratzen du, ordain ez-erlatiboan %50 *parataxi*az emanez.

B itzultzaileari dagokionez, erabiltzen dituen baliabide ez-erlatiboan inguruko datuak aztertzea ez da gauza erraza, batez ere laginaren txikitasuna dela medio (78. grafikoa).



Grafikoa 78 B itzultzailearen euskal ordain ez-erlatiboak errusierazko erlatibatzaileen arabera

Laginaren urritasun hori eragozpen bat izan daitekeen arren, erlatibatzaile hauek itzultzeko B itzultzaileak ordain ez-erlatiboak 4 bider soilik erabiltzea bera adierazgarritzat har dezakegu: *čto₁*-ekin osatutako bi perpaus (132a-b) eta *kto* nahiz *kakoj* bana itzultzeko (132c-d).

(132)

a)

Nakanune otplytija kapitan mog proiznesti vsě, [ČTO ugodno].
 BEZPERAN IRTETEA KAPITAINAK AHAL ESAN GUZTIA [ERL. NOM. GURA]
 'Irteteko bezperan, kapitainak EDOZER (∅) esan zezakeen.' (KONP: 196)


b)

... počemu ... netu čtyřech vřeměň goda, [pro KAKIE ej rasskazyval
 ...ZERGATIK ... EZ DAUDE LAU SASOI URTE-, [PREP. ERL. AKUS. BERARI (F.) AZALDU
 Pruševskij na kotlovane]...
 PRUXEVSKIK PREP. LUBAKIA]...
 'eta zergatik ez lau urte-sasoi, Pruxeuskik lubakian ... azaldu zion bezala.' (LUB: 151)

c)

Derža svet na vsjakij nesčastnyj slučaj ili
 MANTENDUZ ARGIA PREP. EDOZEIN ZORIGAIZTOKO KASU EDOTA
 dlja togo, [KTO vnezapno zaxočet pit´].
 PREP. HORI, [ERL. NOM. BAT-BATEAN SARTU EGARRIA].
 'Zorigaiztoren bat gertatzen bazen ere, edota [norbaiti bat-batean egarrria SARTUTA ERE],
 argia manten zedin.' (LUB: 43)

Amaitzeko, ikus dezagun zer gertatzen den D-E itzultzaileen testuetan errusierazko erlatibatzaile hauekin (79. grafikoa).



Grafikoa 79 D-E itzultzaileen euskal ordain ez-erlatiboak errusierazko erlatibatzaileen arabera

Itzultzaile hauek oso gutxitan itzultzen dituzte *kto*, *čto₁*, *čto₂* eta *kakoj* erlatibatzaileak ordain ez-erlatiboren batekin, guztira 14 kasutan: *čto₁*-ekin osaturiko zortzi (133a-b), eta *čto₂* (133c), *kto* (133d) eta *kakoj*-ekin (133e) osatutako bina perpausetan.

(133)

a)

Edinstvennoe, [*ČEM* emu udavalos' poradovat' devočku] – èto morožennym i (*GAUZA*) *BAKARRA*, [*ERL. INSTR. BERA (M.)* LORTU *ALAITZEA NESKATXA*] – (*DA*) *IZOZKIA* ETA pročimi sladostjami.

BESTELAKO LITXARRERIEKIN.

'[*Gauza bakarrarekin*] lortzen zuen *neskatxa alaitzea*, izozki eta bestelako litxarreriekin.'

(PIK: 133)

b)

Vsě, [*ČTO* ostalos' ot *Serëgi*]...
GUZTIA, [*ERL. NOM. GELDITU PREP. SERĚGAREN*]...

'Hauxe duk *Sergeiren geldikin bakarra*...'

(PIK: 260)

c)

Stali prodirat'sja skvoz' kustarnik, [ČTO po pravuju storonu šosse].
 HASI AURRERA NEKEZ PREP. ZUHAIXKAK, [ERL. NOM. (DAGO) PREP. ESKUIN ALDE ERREPIDE].
 'eta nekez egin genuen aurrera *errepidearen eskuinaldeko* zuhaixken artean.'

(ZTG: 118)

d)

[KTO za Proxora Lysenkova], prošu podnjat'!
 [ERL. NOM. PREP. PROXOR LYSENKOV], ARREN ALTXTATU (ESKUA)!
 'Prokhor Lisenkoven *aldekoak*, altxa ezazue eskua!'

(DII: 87)


e)

... a teper' rabočie, [KAKIE prišli iz armii]...
 ...BAINA ORAIN LANGILEAK, [ERL. NOM. IRITSIK PREP. ARMADATIK] ...
 '...baina orain langileak, armadatik iritsiak...'

(DII: 151)

Beraz, adibideen urritasun horrek beste behin iradokitzen digu erlatibatzaileen beraien ezaugarrietan –kasu honetan erlatibagarritasun-maila altuan– bilatu behar direla erlatibatzaile hauek ordain ez-erlatibo bidez gutxitan euskaratzeko arrazoiak, eta ez erlatibakuntza ezabatzeko itzultzaileek daukaten balizko estilo propio batean.

80. grafikoan ikus dezakegunez, E itzultzaileak –bere kasa itzultzean– are gutxiagotan itzultzen ditu erlatibatzaile hauek ordain ez-erlatibo batekin: 7 aldiz bakarrik, eta denetan errusierazko perpausean *čto*, erlatibatzailea dagoenean (beste erlatibatzaileak ez dira ageri), horietatik 5 (%71) perpausa *sinplifikatuz* eta gainontzeko biak *parataxiaz* (%29).



Grafikoa 80 E itzultzailearen euskal ordain ez-erlatiboak errusierazko erlatibatzaileen arabera

4.6.3. Euskal itzultzaileak eta errusierazko erlatibatzaileak: ondorioak

Erlatibatzaileak ohiko bi taldeetan banatu ditugu –*kotoryj* eta aditzondoak batetik eta *kto*, *čto₁*, *čto₂* eta *kakoj* bestetik–, itzultzaileek osatutako perpausak horien arabera sailkatuz.

Ordain erlatiboetara dagokienez, *kotoryj*-k eta aditzondoek esperotako emaitzak eskaini dizkigute: B-k beste inork baino gehiagotan ematen ditu erlatibatzaile horiek ardatzaren ezkerretarako erlatibo batekin, D-E-k oso gutxitan, eta A erdibidean geratzen da.

Itzultzaileek *kto*, *čto₁*, *čto₂* eta *kakoj* ardatzaren ezkerretarako erlatibo bidez zenbatetan ematen dituzten aztertzean, ordea, itzultzaileen artean oso desberdintasun gutxi atzeman dugu. Horrek pentsarazi digu erlatibatzaile horien berezko ezaugarriek zerikusi handiagoa dutela beraiek itzultzeko moduan, itzultzaileen balizko estilo propio batek baino.

Itzultzaileek osatutako erlatibo aposatuak erlatibatzaileen arabera sailkatu ditugu, eta emaitzak guk espero genituenak izan dira: *kotoryj* eta aditzondoak dira erlatibo aposatuen bidez gehien euskaratzen diren erlatibatzaileak. *Kto*, *čto₁*, *čto₂* eta *kakoj* euskaratzeko, aldiz, oso gutxitan erabiltzen dira.

Emaitza hauek zer ematen dute aditzera? Bada, itzultzaile guztiek esperotako erlatibatzaileak euskaratzen dituztela erlatibo aposatuen bidez, baina ñabardura batekin: itzultzaile batzuek besteek baino maizago egiten dute. Horretan datza, hain zuzen, B-k eta D-E-k erlatibo aposatuekiko jarreran daukaten desberdintasuna. Estilo-desberdintasun hori batez ere *ZEIN/NON* eta *BAIT*-erlatiboetan ikusten da.

Amaitzeko, ordain ez-erlatiboak erlatibatzaileen arabera sailkatu ondoren, denetariko emaitzak lortu ditugu: alde batetik, *kotoryj* eta aditzondoak ordain ez-erlatibo batekin itzultzeko moduan itzultzaileen artean ia desberdintasunik ez dagoela ikusi dugu: denek jotzen dute gehienetan *parataxiara*, gero *sinplifikatzera* eta, azkenik, *hipotaxiara*, antzeko proportzioetan gainera.

Kto, *čto₁*, *čto₂* eta *kakoj* erlatibatzaileak itzultzeko erabilitako baliabide ez-erlatiboaren inguruko datu koherenteenak A itzultzaileak ematen ditu: bertan *sinplifikatzearen* gailentasuna garbi geratzen da, *parataxiaren* kaltetan.

Gainontzeko itzultzaileen emaitzetan logikaren bat topatzea ez da erraza, ziurrenik laginaren adierazgarritasun eskasarengatik.

4.7. Euskal itzultzaileei eginiko inkesta

Errusierazko literatura-testuen euskal itzultzaileei inkesta baten bidez erlatibakuntzarekiko duten jarrerari buruz galdetzea tesiaren lehen unean bertan bururatu zitzaigun, baina erabaki bat hartu behar izan genuen: itzultzaileei beraien autopertzepzioari buruz galdetu eta gero emaitza horiek corpusetik lortutakoekin alderatzea edota alderantziz, corpora arakatu, sailkatu eta aztertu ondoren, itzultzaileei beren iritzia galdetu. Une hartan bigarren bidearen aldeko hautua egin genuen, hainbat arrazoi zirela medio.

Ordurako bagenekien estiloa hein handi batean inkontzientea dela; litekeena da egile batek iritzi batzuk izatea, baina bagenekien, halaber, norberaren (aurre)iritziak eta praktika linguistikoa askotan bide desberdinetatik doazela. Adibidez, Hidalgo Larramendiren kasua aztertzean ikusi zuen gramatikari moduan erlatibo aposatuen aurkako jarrera zeukan arren, bere praktika linguistikoan erabiltzen zituela (Hidalgo 1995). Estiloaren alderdi inkontziente hori da, hain zuzen, guretzat garrantzitsuena.

Edonola ere, behin corpora arakatu, sailkatu, aztertu eta erregulartasun jakin batzuk topatu ditugunean, ezinbestekoa iruditzen zitzaigun itzultzaileen iritzia jakitea. Nola ikusten dute beraien beren burua? Corpusetik itzultzaileen estiloari buruz atera ditugun ondorioak bat ote datoz itzultzaileek beraien beren idazkerari buruz daukaten pertzepzioarekin?

Tesian zehar ikusitakoa aintzat harturik, beraien profilarren hiru alderdiri zegokien zazpi galderako inkesta labur bat luzatu genien:

1) Lehenengo bi galderetan bakoitzaren errusiera-maila finkatzen saiatu gara: errusierazko literatura jatorrizko bertsiotan ulertzeko daukaten ahalmena definitzeko eskatzen zaie lehenengo galderan. Bigarrenean egindako itzulpenak zuzenean errusieratik itzuli dituzten erantzun behar zuten.

2) Euskal hiztun bezala daukaten ezaugarriak: hirugarren galderan euskal hiztun bezala beraien burua definitzeko eskatzen zitzaien.

3) Gainontzeko lau galderak errusierazko erlatibakuntzaren euskaratzeari nahiz euskarazko erlatibakuntzari buruzko iritzia argitzea zuten helburu:

a) *“Itzulpenak egin aurretik errusierazko erlatibozko perpausak euskaratzeko moduari buruzko hausnarketarik egin zenuen?”*

b) *“Gure ikerketan zehar errusierazko erlatibozko perpausak euskaratzeko modu desberdinak topatu ditugu. Euskarazko erlatiboari buruzko ondorengo baieztapenetatik zeinekin identifikatzen zara gehien?”*

c) *“Errusieratik euskaratu dituzun liburu guztietan erlatibozko perpausak berdina itzuli dituzula uste duzu edo alor horretan desberdintasunak egon daitezkeela pentsatzeko arrazoiak dituzu?”*

d) "Zein da BAIT- aurrizkiarekin osatutako erlatiboetako buruzko zure iritzia?"

Ondoren inkestaren bertsio bat aurkeztuko dugu, itzultzaileek aukeratutako erantzunekin bakarrik. Itzultzaile bakoitzaren inkesta osoa tesi honen amaieran ikus daiteke, l. eranskinean.

1. NOLA DEFINITUKO ZENUKE ERRUSIERAZ IDATZITAKO LITERATURA JATORRIZKO BERTSIOAN ULERTZEKO DAUKAZUN AHALMENA?

- A itzultzailea: **ONA**

Oharrak: Nolanahi ere, hiztegia etengabe erabiltzen nuen hitz askoren esanahi zehatzaren bila (hala errusiera-errusiera, nola errusiera-gaztelania hiztegiak).

- B itzultzailea: **OSO ONA**

- D Itzultzailea: **ONA**

- E itzultzailea: **ONA**

2. ZUK EGINDAKO ITZULPENAK ZUZENEAN ERRUSIERATIK EUSKARATU DITUZU?

- A itzultzailea:

Bai.

OHARRAK: Jatorrizkoak zalantzak sortzen zizkidanean, gaztelaniazko, frantsesezko edota ingelesezko itzulpenak kontsultatzen nituen.

- B itzultzailea:

Bai, errusiera baita hobekien menperatzen dudan atzerriko hizkuntza.

- D Itzultzailea:

Bai.

OHARRAK: Jakina, hainbat lekutan beste itzultzaileen aukera ere izaten dugu kontuan, bai gaztelaniaz, bai ingelesez, bai frantsesez. Sarritan leku berean haiek ere traba direla egiaztatzen soilik bada ere...

- E itzultzailea:

Errusierazko testua oinarri hartuta, baina beste hizkuntza batzuetako testuak kontsultatuz.

OHARRAK: C) aukera markatu badut ere, nahiago dut informatzaile fidagarriengana jo, erdal testuak kontsultatu baino.

3. “EUSKALDUN ZAHAR” ETA “EUSKALDUN BERRI” BEZALAKO TERMINO TRADIZIONALETATIK HARAGO, AZAL EZAZU HITZ GUTXITAN NOLA IKUSTEN DUZUN ZURE BURUA EUSKAL HIZTUN BEZALA.

- A itzultzailea:

Euskaldun “osoa” naizela esango nuke.

- B itzultzailea:

“Euskaldun zaharra” naizela esan daiteke: euskara dut ama-hizkuntza, unibertsitate arteko ikasketak euskara hutsean egin nituen, eta eguneroko bizitzaren zatirik handiena euskaraz egin izan dut beti eta hala egiten jarraitzen dut.

- D Itzultzailea:

Euskaldun berria naiz, baina euskara laneko hizkuntza izan da 30 urtetan (nola igarotzen den denbora, txo!), beraz sarritan amets egiten dut hizkuntza honetan.

- E itzultzailea:

Ongi jantzia ikusten dut neure burua euskal hiztun bezala.

4. ITZULPENAK EGIN AURRETIK ERRUSIERAZKO ERLATIBOZKO PERPAUSAK EUSKARATZEKO MODUARI BURUZKO HAUSNARKETARIK EGIN ZENUEN?

- A itzultzailea:

Bai. Erlatiboak errusieratik edo inguruko beste indoeuropar hizkuntza batzuetatik itzultzeko zailtasunen eta itzulpen-aukera desberdinen jakitun nintzen.

- B itzultzailea:

Banekien, baina ez nuen horren inguruko hausnarketa sakonik egin, eta ez neukan horren inguruan dauden eztabaiden berri.

- D Itzultzailea:

Banekien, baina ez nuen horren inguruko hausnarketa sakonik egin, eta ez neukan horren inguruan dauden eztabaiden berri.

- E itzultzailea:

Bai. Erlatiboak errusieratik edo inguruko beste indoeuropar hizkuntza batzuetatik itzultzeko zailtasunen eta itzulpen-aukera desberdinen jakitun nintzen.

5. GURE IKERKETAN ZEHAR ERRUSIERAZKO ERLATIBOZKO PERPAUSAK EUSKARATZEKO MODU DESBERDINAK TOPATU DITUGU. EUSKARAZKO ERLATIBOEI BURUZKO ONDORENGO BAIEZTAPENETATIK ZEINEKIN IDENTIFIKATZEN ZARA GEHIEN?

- A itzultzailea:

Erlatibo arruntak osatzeko zailtasunak baldin badaude, erlatibo aposatuak osatzea ere hobesten dut (*Badago herri honetan gizon bat, [zeinarekin askotan joaten bainaiz/naizen frontoira] bezalakoak*).

- B itzultzailea:

Erlatibo arruntak osatzeko zailtasunak baldin badaude, erlatibo aposatuak osatzea ere hobesten dut (*Badago herri honetan gizon bat, [zeinarekin askotan joaten bainaiz/naizen frontoira] bezalakoak*).

Erlatibo arruntak ezin baditut osatu, nahiago dut aukeran erlatibozkoa ez den beste baliabideren bat erabili: perpausak banatuko dituen eten bat (*Badago gizon bat herri honetan. Gizon horrekin askotan joaten naiz frontoira*) edo bestelako aldaketaren bat.

- D Itzultzailea:

Erlatibo arruntak osatzeko zailtasunak baldin badaude, erlatibo aposatuak osatzea ere hobesten dut (*Badago herri honetan gizon bat, [zeinarekin askotan joaten bainaiz/naizen frontoira] bezalakoak*).

- E itzultzailea:

Erlatibo arruntak ezin baditut osatu, nahiago dut aukeran erlatibozkoa ez den beste baliabideren bat erabili: perpausak banatuko dituen eten bat (*Badago gizon bat herri honetan. Gizon horrekin askotan joaten naiz frontoira*) edo bestelako aldaketaren bat.

Erlatibo arruntak osatzeko zailtasunak baldin badaude, erlatibo aposatuak osatzea ere hobesten dut (*Badago herri honetan gizon bat, [zeinarekin askotan joaten bainaiz/naizen frontoira] bezalakoak*).

6. ERRUSIERATIK EUSKARATU DITUZUN LIBURU GUZTIETAN ERLATIBOZKO PERPAUSAK BERDIN ITZULI DITUZULA USTE DUZU EDO ALOR HORRETAN DESBERDINTASUNAK EGON DAITEZKEELA PENTSATZEKO ARRAZOIAK DITUZU? ADIBIDEZ, BALITEKE ZURE LEHENENGO ITZULPENAREN ETA AZKENEKOAREN ARTEAN

ERLATIBOAK ITZULTZEKO DAUKAZUN MODUA ALDATU IZANA?
BEHARBADA ERRUSIAR IDAZLEAREN ARABERA PERPAUS ERLATIBOAK
EUSKARATZEKO ERA ALDATU DUZU?

- A itzultzailea:

Esango nuke erlatibozko perpausak itzultzeko daukadan modua ez dela aldatu liburu batetik bestera.

OHARRAK: Erlatibozkoak itzultzeko “estrategia” orokorra aldatu ez badut ere, idazlearen estiloak nolabaiteko eragina izan du. Adibidez, Gogolen *Arima hilak* itzultzean beste obra batzuk itzultzean baino gehiago erabili ditut erlatibo aposatuak.

- B itzultzailea:

Esango nuke nik euskaratutako errusiar idazleen estilo desberdinak direla medio, perpaus erlatiboak itzultzeko modua aldatu behar izan dudala.

- D Itzultzailea:

Esango nuke nik euskaratutako errusiar idazleen estilo desberdinak direla medio, perpaus erlatiboak itzultzeko modua aldatu behar izan dudala.

- E itzultzailea:

Esango nuke nik euskaratutako errusiar idazleen estilo desberdinak direla medio, perpaus erlatiboak itzultzeko modua aldatu behar izan dudala.

OHARRAK: Idazleen estiloa ez ezik, garaia ere kontuan hartzekoa da. Dena den, nik uste dut erlatibozko perpausak itzultzeko daukadan modua ez dela gehiegi aldatu liburu batetik bestera.

7. ZEIN DA *BAIT-* AURRIZKIAREKIN OSATUTAKO ERLATIBOEI BURUZKO ZURE IRITZIA (*Maialenen ostatura hurbildu ziren, Tolosarako errepidean BAITAGO bezalakoei buruzkoa*)?

- A itzultzailea:

Gutziz onargarri deritzot, eta ez daukat arazorik nik neuk erabiltzeko, idatzizko erregistro batean behintzat.

- B itzultzailea:

Gutziz onargarri deritzot, eta ez daukat arazorik nik neuk erabiltzeko, idatzizko erregistro batean behintzat.

- D Itzultzailea:

Ekialdeko (Iparraldeko) euskalkietako fenomenotzat daukat, eta ez dauka nire idazkerarekin batere zerikusirik.

- E itzultzailea:

Gutziz onargarri deritzot, eta ez daukat arazorik nik neuk erabiltzeko, idatzizko erregistro batean behintzat.

4.7.1. Euskal itzultzaileei eginiko inkestatik atera daitezkeen ondorioak

Gure corpuseko itzultzaileei beraien jardunari buruzko inkesta luzatu genienerako haietako bakoitzaren erlatibakuntza-estiloaren inguruko irudi bat bageneukan jada. Azken finean, helburua ez zen itzultzaileen “autopertzepzioa” azaltzea, baizik eta corpus bidezko metodologiaren bidez lortutako emaitzak itzultzaileen beraien ikuspuntuarekin alderatzea.

Inkestaren emaitzak azterturik, bi eratako ondorioak atera ditugu:

1) Batetik, itzultzaile bakoitzaren soslai orokorra zehaztu dugu, edo hobekiago esanda, gure inkestak ezarritako mugen barruan itzultzaile bakoitzak aditzera eman digun soslaia: errusiera-maila, euskal hiztun bezala dituzten ezaugarriak eta erlatibakuntzaren aurrean duten jarrerari dagokiona.

2) Bestalde, itzultzaileek eskainitako informazioan baziren datu batzuk deigarriak egiten zitzaizkigunak: corpora aztertzeetik ondorioztatu dugunarekin guztiz ados ez zetozelako, edota ñabardurak gehitzen zituztelako.

1)

- Inkestako lehenengo bi galderak itzultzaileen errusiera-maila neurtzeko helburua zuten, oso azaletik bada ere: *“Nola definituko zenuke errusieraz idatzitako literatura jatorrizko bertsioan ulertzeko daukazu ahalmena?”* galderari B itzultzaileak “oso ona” erantzuten dio, beste guztiak “ona” dela esatera mugatzen direlarik.

Itzulpenak errusieratik zuzenean egin ote dituzten galdetzen zaienean, B-k ez du zalantzarik egiten, eta hobekien menperatzen duen atzerriko hizkuntza dela esaten du. A-k eta D-k ere baietz diote, baina ñabardurak sartzen dituzte, beste hizkuntza batzuetako testuak ere kontsultatu dituztela onartuz, baina errusieratik zuzenean itzuli dutela berretsiz. E-k tarteko formulazio bat aukeratzen du: ez du baiezko garbi batekin erantzuten *“errusierazko testua oinarri hartuta, baina beste hizkuntza batzuetako testuak kontsultatuz”* baizik, baina gero oharren atalean zera dio: *“C aukera markatu badut ere, nahiago dut informatzaile fidagarriengana jo, erdal testuak kontsultatu baino”*.

Beraz, itzultzaile guztiak literatura-testuak errusieratik zuzenean euskaratzeko moduko errusiera-maila dute, nahiz eta gehienek beste hizkuntza batzuetako bertsioak kontsultatzen dituzten.

- Euskal hiztun bezala daukaten profilari dagokionez, hortik ondorio esanguratsuak ateratzea zaila den arren, esan dezakegu lau itzultzailetik bik hiztun bezala dituzten ezaugarriak modu argiago –edo behintzat klasikoago– batean azaltzen dituztela: B-k esaten du “euskaldun zaharra” dela, ama-hizkuntzat euskara duela, eta euskal giroan hazi eta bizi izan dela esaten du. D-k, berriz, dio euskaldun berria dela, baina aspaldian dagoela euskararen munduan murgildua. Beste bien formulazioak orokorrakoak dira, A-k euskaldun “osoa” dela esaten baitu, eta E-k, berriz, bere burua ongi jantzia ikusten duela.

- Itzultzen hasi aurretik errusierazko erlatibakuntza euskaratzeari buruzko hausnarketa-mailarik handienaren berri A-k eta E-k ematen dute. B-k eta D-k, aldiz, arazoa ezagutzen zutela baieztatu bai, baina aitortzen dute itzuli aurretik ez zutela horri buruzko hausnarketa sakonik burutu.

Erlatibo arruntak osatzeko zailtasunen aurrean erlatibo aposatuak edo erlatibakuntza ez den bestelako baliabideren bat erabiliko ote luketen galdetuta, A-k eta D-k erlatibo aposatuei ematen diete lehentasuna, eta B-k nahiz E-k bi hautuak maila berean jartzen dituzte.

Azkenik, itzulitako liburu guztietan erlatibakuntza berdin itzuli ote duten galdetzen diegunean, guztiek erantzuten dute gutxi gorabehera gauza bera, alegia: beraien estiloa ez dela aldatu, baina errusiar egileen idazkerak itzultzeko moduan eragin duelako irudipena dute guztiek.

BAIT- erlatiboek buruz galdetuta, aldiz, D itzultzaileak dio *“Ekialdeko (Iparraldeko) euskalkietako fenomenotzat daukala, eta ez daukala bere idazkerarekin batere zerikusirik”*. Beste itzultzaile guztiek, ordea, *“guztiz onargarritzat daukate, eta ez daukate erabiltzeko arazorik, idatzizko erregistroan behintzat”*.

2) Esan bezala, aurreko atalean aurkeztutako itzultzaileen soslai orokorraz gain, badira kontraesan deigarri batzuk corpusak itzultzaileen jardunari buruz esaten digutenaren eta itzultzaileek beraiek baieztatutakoren artean, zehazki bi puntutan:

- A itzultzaileak dioenean, bere ustez, erlatibakuntza itzultzeko modua ez duela aldatu liburu batetik bestera, ohar batean zera gaineratzen du: “idazlearen estiloak nolabaiteko eragina izan du. Adibidez, Gogolen *Arima hilak* itzultzean beste obra batzuk itzultzean baino gehiago erabili ditut erlatibo aposatuak”. Alabaina, gure corpuseko datuei begira jarritz gero, ikusten dugu itzultzailearen irudipen hau ez datorrela emaitza horiekin bat, 12. taulan ikus dezakegunez.

	ARRUNT APOSATUAK		ZEIN ERLATIBOAK		BAIT- ERLATIBOAK		NON ERLATIBOAK	
	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%
AMA	13	6	14	6	5	2	0	0
GGH	12	5	20	11	18	10	1	1
KAP	3	3	4	4	17	15	0	0
ARH	15	4	33	9	27	7	11	3
AIS	6	3	44	20	41	19	15	7
TXB	0	0	6	15	5	12	0	0
ZPU	2	2	1	1	9	8	2	2

Taula 12 A itzultzailearen erlatibo aposatuak

Bertan garbi ikusten da ARH-en itzulpenean baino maizago agertzen direla erlatibo aposatuak A-k euskaraturiko beste liburu batzuetan (kopuru proportzionaletan beti ere):

- Erlatibo arrunt aposatuen maiztasuna antzekoa da itzultzaile honek argitaraturiko zazpi itzulpenetan.

- *ZEIN* erlatiboaren proportzioa hiru liburutan da ARH-ko %9a baino altuagoa (AIS-n TXB-n eta GGH-n, %20, %15 eta %11 hurrenez hurren).

- *BAIT-* erlatiboaren kasuan, ARH da, hain zuzen, erlatibo aposatu mota honen kopuru txikienetakoa duena: soilik AMA-n ageri dira gutxiago, ordain erlatiboaren %2rekin. ARH-n %7 dira eta ZPU-n %8. Kopuru horien gainetik daude GGH (euskal ordain erlatiboaren %10), TXB (%12), KAP (%15) eta AIS (%19).

Beraz, kasu honetan nabarmena da egileak esaten duenaren eta datu objektiboek eskaintzen diguten irudiaren arteko kontraesana. Zer esan nahi du honek? Gure iritziz, A itzultzaileak Gogol-en estiloari buruz daukan irudipena zuzena da, perpaus luzeak, kiribilduak eta kasu marka konplexudun EP asko dituela egia da. Alabaina, itzultzaileak berak estilo horri erlatibo aposatu askorekin erantzuten diola uste izan arren, guk esango genuke erlatibakuntza ohi baino maizago ezabatzea dela liburu konkretu horretan A itzultzaileak Gogolen estiloa euskaratzeko erabiltzen duen baliabidea. 13. taulan ikus dezakegu ARH-ko errusierazko perpaus erlatibo guztien %46tan ezabatzen duela erlatibakuntza A itzultzaileak; beste inon baino maizago.

	ORDAIN EZ-ERLATIBOAK	
	KOP.	%
AMA	40	15
GGH	84	31
KAP	75	41
ARH	317	46
AIS	77	26
TXB	20	33
ZPU	37	25

Taula 13 A itzultzailearen erlatibo aposatuak

Esan bezala, itzultzaileak esandakoa eta corpusak dioena bat ez datozenean ere, pertzepzio kontu bat izan daiteke.

Inkestako erantzunetatik atera dezakegun beste ondorio azpimarragarri bat D itzultzaileari dagokio.

Batetik, esan daiteke itzultzaile-bikote bateko partaide izateak egoera berezian jartzen duela. Izan ere, bere bikotekideak beste liburu bat itzuli duenez, hark bakarka erakutsitako ezaugarriak D-renak ere ba ote diren galdetzeraz eraman gaitzakete.

Inkestako azkeneko galderan *BAIT*- erlatiboari buruz galdetzen zitzaien, eta kasu horretan, D-ren erantzuna beste itzultzaile guztien erantzunengandik bereizten zen nabarmen. A-k, B-k eta E-k baliabide aposatu honi buruz zera zioten *“guztiz onargarri deritzot, eta ez daukat arazorik nik neuk erabiltzeko, idatzizko erregistro batean behintzat”*. D-k, aldiz, inkestak esakinitako beste aukera baten alde egiten zuen: *“Ekialdeko (Iparraldeko) euskalkietako fenomenotzat daukala, eta ez daukala bere idazkerarekin batere zerikusirik”*.

Zergatik egin zaigu deigarria baieztapen hori? Bada, *BAIT*- erlatiboak sarrien erabiltzen dituztenak, hain zuzen, D-E itzultzaileak direlako.

Komunikazio ez-formal batean –posta elektronikoz– bien artean egindako lanaren banaketari buruzko galdera bat luzatu genien D-E itzultzaileei, eta ondorengo erantzun ziguten:

- D itzultzailea:

“Gogoratzen dudanez, testua bitan banatzen genuen, hainbat ipuin batentzat eta besteak bestearentzat. Gero bestearen lanaren lehen zuzenketa egiten genion elkarri. Azken pausuan estiloa lantzen zen, Olgaren³ esku, azken hau jada editorearen laguntzaz...”

- E itzultzailea:

“Lan egiteko moduari dagokionez, elkarlanean egindako itzulpenak dira lehen biak. Azken ukituak nireak badira ere, ezin esan testuetan agertzen diren erlatiboak nik aukeratu ditudanik.

Piknika izotzetan, bai, itzulpen hori neure-neurea dut.”

Badirudi gure corpuseko datuak aztertzerakoan geneukan irudipenak –alegia, erlatibakuntza-estiloak egiletza bakarra iradokitzen zigula– ez zela guztiz okerra. Piknika izotzetan E itzultzaileak bakarka egindako lana izanik, eta biek batera lan egitean erlatibakuntza-estiloa ez aldatzeak euskarazko edo estilozko “azken ukitu” horiek pertsona berberak eman izana bat dator corpuseko emaitzekin. Hemen ere “autopertzepzioa”-ren bidez azal dezakegu beharbada E-k berak uste baino gehiago eragin izana erlatiboan aukeraketan, berak “ezin esan testuetan agertzen diren erlatiboak nik aukeratu ditudanik” aipatu arren.

Azken finean, guretzat ondoriorik garrantzitsuena da itzultzaileen “autopertzepzio”-aren inguruko inkesta bat garrantzitsua izan daitekeela errusierazko erlatibakuntzaren euskaratzean eragiten duten faktore esanguratsuak zeintzuk diren argitzeko, baina itzultzaileek beraien estilo propioari buruz daukaten iritzia baino esanguratsuagoak eta fidagarriagoak izango dira corpus paralelo bateko datu objektiboetatik ateratako ondorioak.

³ E itzultzailearen

TESIAREN ONDORIOAK

Tesiak alderdi asko aztertu eta datu ugari jaso ditu. Errusierazko erlatibakuntza euskaratzeko prozesuan faktore esanguratsuak zeintzuk diren finkatzea helburu hartuta, urrats ugari eta askotarikoak eman behar izan ditugu. Bi hizkuntzen erlatibakuntza-sistemak aurkeztu, elkarrekin harremanetan jarri, itzulpen-prozesua ikuspuntu deskriptibo batetik ikertzeko oinarriak ipini, corpus bidezko metodologia azaldu, literatura-testuen corpus paralelo bat atondu, hortik ateratako informazioa sailkatu, analizatu eta azkenik, dagozkion ondorioetara iritsi gara.

Tesiaren sarreran aipatu bezala, lan hori guztia aurrera eraman ahal izateko, gai desberdinak 4 kapitulutan banatu ditugu: I. kapituluak hizkuntzalaritzak eta itzulpengintzak erlatibakuntzari buruz eskaintzen dizkiguten marko teorikoak definitu ditugu; II. kapituluak corpus bidezko metodologia aurkeztu dugu; III. kapituluak, guk osatutako corpusa erabiliz, bi hizkuntzen erlatibakuntza-sistemak sakonki analizatu ditugu; IV. kapituluak corpuseko datuak irizpide desberdinen arabera sailkatu eta sailkapen horietatik lortutako emaitzak aztertu ditugu.

I. kapituluak, erlatibakuntza hizkuntzalaritzaren eta itzulpengintza-ikerketen ikuspuntutik aztertzean, errusieraren eta euskararen erlatibakuntza-sistemen arteko korrelazioak finkatu ditugu. Oinarriko erlatibakuntza-estrategia desberdinak dituzten arren, euskara errusierarentzat oinarrikoa den izenordainaren estrategiaz ere balia daitekeela ikusi dugu, *ZEIN/NON* motako erlatibo aposatuen bitartez.

Estrategien desberdintasunaz gain, ikusi dugu erlatibagarritasunaren kontzeptua – erlatibatze-eskala edo hierarkiaren bidez– oso garrantzitsua izan daitekeela.

Ikusi dugu errusieraren izenordain bidezko estrategiak *Accessibility Hierarchy* (AH)-ko edozein posizio erlatiba dezakeela, baina euskarazko erlatibo arruntentzat posizio batzuk erlatibagaitzak eta beste hainbat erlatibaezinak direla.

Horri beste desberdintasun tipologiko batzuk gehitu behar zaizkiola ere baieztatu dugu: adibidez, subjektu eta objektu gramatikalak markatzerakoan hizkuntza akusatiboan eta ergatiboan artean dauden desberdintasunak, edota hitz-ordenak (euskararen SOV eta errusieraren SVO) prozesamenduan eragin ditzakeen interferentziak.

Tesi honetarako marko teorikorik egokiena itzulpengintza ikerketa deskriptiboak direla ere garbi geratu da, *Polisistemen teoriak* eta Touryren *itzulpen-arauek* fokua xedetestuan, xede-hizkuntzan eta xede-kulturan jarri izanak, gure corpuseko itzultzaileen estiloa aurreiritzien eragin kaltegarririk gabe aztertzea ahalbidetu digu.

II. kapituluak tesian erabiltzea erabaki dugun corpus bidezko metodologia aurkeztu dugu. Itzultzaileen praktika linguistikoa ikuspuntu deskriptibo batetik aztertu nahi izanez

gero, corpusetan oinarrituriko metodologia ezinbesteko tresna da gaur egungo itzulpengintza-ikerketetan.


Euskarazko perpauk erlatiboen corpus bidezko azterketen bi aurrekari ere aztertu ditugu metodologiaren atalean: horietako bat itzultzaileen erlatibakuntza-praktika aztertzearekin zuzenki lotua (Biguri 1994) eta bestea hizkuntzalaritzaren ikuspuntutik gertuago (Hidalgo 2002a, 2002b, 2003, 2004), nahiz eta zeharka itzulpen-prozesu batekin harremana izan, *Medikantzaren* testua gaztelaniazko aurreko bertsio baten itzulpena baita.

III. kapituluak geuk osatutako errusiera-euskara literatura-corpus paraleloa aurkeztu dugu, bi norabidetan: batetik, corpusa bera nola eta zein irizpideren arabera osatu dugun azalduz, eta bestetik, bi hizkuntzetako erlatibakuntza-sistemen deskribapen sakon bat eginez, horretarako gure corpuseko adibideak erabiliz. Modu horretan, adibidez, errusierazko perpauk erlatibo mota desberdinak azaltzen genituenean, perpauk horien euskal ordainekin harremanetan jar genitzakeen, eta alderantziz, euskarazko erlatiboak azaltzerakoan, beraien errusierazko baliokideekin batera agertzen ziren.

Lehenengo hiru kapituluetan gaiaren, marko teorikoaren eta metodologiaren oinarriak finkatu ondoren, IV. kapituluak corpusa arakatzeari eta lortutako datuak analizatu eta sailkatzeari ekin diogu.

Corpusarekiko lehendabiziko hurbilketa batean, erlatibakuntza itzulpen-prozesuan zenbatetan mantentzen den eta zenbatetan ezabatzen den jakin dugu: errusierazko perpauk erlatibo guztien %68 (1639 perpauk) erlatibo batekin euskaratzen dela ikusi dugu (euskal ordain erlatiboak), gainontzeko %32a (763 perpauk) erlatiboak ez den beste baliabideren batekin itzultzen delarik (euskal ordain ez-erlatiboak).

Segituan nabaritu dugu, ordea, datu hauek gordinegiak direla, erlatibakuntza mantentzeko nahiz ezabatzeko moduetan aniztasun handia atzematen genuelako. Horregatik, hurrengo urratsa euskal ordain erlatiboak eta ez-erlatiboak sailkatzea izan da. Hurrengo bi tauletan ikus dezakegu zein den ordain erlatibo eta ez-erlatibo desberdinen banaketa corpusean zehar (%-tan).



Grafikoa 81 Euskal ordain erlatiboak banaketa corpusean

81. grafikoa (IV. kapitulu 1.1. puntuan 12. grafikoa zena) gure corpuseko euskal ordain erlatiboak bi eratakoak izan daitezkeela ikus daiteke: ardatzaren ezkerretarakoak (erlatibo arruntak eta jokatu gabekoak, euskaraz erlatibagarritasun-maila altu batekin lotuta daudenak, eta oinarritzotzat hartzen ditugunak) eta erlatibo aposatuak, hots, ardatzaren eskuinetara hedatzen direnak.

Lehendabizikoek corpusaren %71 hartzen dute –itzultzerakoan ere euskarazko oinarritzko erlatibakuntza-estrategiak direla berretsiz–, eta bigarrenek corpusaren gainontzeko %29.

Erlatibo aposatuen %29 horren atzean, halaber, lau eratako erlatibakuntza-estrategiak daude: *-(e)n* arrunt aposatuak, *ZEIN* galdetzailearekin osatutakoak, *NON* galdetzailearen bidez eratuak eta *BAIT-* aurrizkia baliatuz sortzen direnak.

ZEIN eta *NON* maiz batera aztertzen diren arren, gure helburuetarako interesgarriagoa zen bereizita tratatzea; *NON* erlatiboak oso testuinguru espezifikoetan agertzen diren bitartean, *ZEIN* erlatiboak testuinguru guztietan zehar barreiatuak daude, eta horrek datuen sailkapen desberdinak aztertzerakoan inplikazioak izan zitezkeen.

Sarri topatzen ditugun erlatibo aposatuak *ZEIN* erlatiboak (167 perpaus) eta *BAIT-* erlatiboak (160 perpaus) dira, bakoitzak euskal ordain erlatibo guztien %10 inguru hartzen duelarik. Alegia, euskal itzultzaileek errusierazko erlatiboak itzultzeko euskaraz ere erlatiboak erabiltzen dituztenean, bost kasutatik batean *ZEIN* galdetzailearekin edota *BAIT-* aurrizkiarekin osatutako erlatiboak agertzen dira.

Erlatibo arrunt aposatuen kopuruak ere ez dira baztertzeko modukoak, erlatibo aposatu guztien %6 horrela osatzen baita (guztira 93 perpaus).

Azkenik, *NON* erlatiboak erlatibo aposatuen %3ra iristen dira (58 perpaus).


Corpus guztiaren %32an (763 perpausetan) errusierazko erlatibakuntza ezabatzen da euskaraz. Erlatibakuntzaren ezabaketa sistematizatzea zeregin konplexuagoa izan bada ere, hiru modutan eman daitekeela finkatzea lortu dugu:

- Errusieraz mendeko perpaus erlatiboa dena euskaraz eten eta bi esaldi edo gehiagotan banatzea (*Parataxia*).

- Errusierazko erlatibozko perpausari euskaraz erlatibozkoa ez den beste mendeko perpaus bat egokitzea (*Hipotaxia*).

- Errusieraz perpaus elkartu bat dena –juntadura nahiz menderakuntza izan– euskaraz perpaus bakun bihurtzen da, predikazioa perpaus mailatik sintagma mailara igarotzen delarik (*Simplifikatzea*).

82. grafikoan (IV. 1.2.-n 13. grafikoa zena) ikus dezakegu hiru baliabide hauen banaketa: *parataxiaren* nagusigoa nabarmena da, euskaratze-prozesuan erlatibakuntza ezabatzen den kasuen %64an gertatzen baita fenomeno hau (492 perpaus). *Simplifikatzearen* kopuruak ere aipagarriak dira (euskal ordain ez-erlatiboen %25 edo 188 perpaus). Azkenik, presentziarik txikiena duen baliabide ez-erlatiboa *hipotaxia* da: euskal ordain ez-erlatiboen %11n edo 83 perpausetan soilik gertatzen da erlatibozko perpaus bat denborazko, baldintzazko edota kontzesibo bihurtzea, besteak beste.



Grafikoa 82 Euskal ordain ez-erlatiboen banaketa corpusean

Datu hauek gure ikerketan aurrera egiteko hainbat helduleku eskaintzen zizkiguten.

Adibidez, errusierazko perpaus erlatiboen herena (%32) euskaraz erlatibozkoa ez izateak erakusten du badagoela asimetria bat errusierazko perpausen eta beraien euskarazko baliokideen artean. Gainera, horien %64an *parataxia* gertatzeak –alegia, perpaus erlatiboa bi zati edo gehiagotan banatzeak– iradoki zezakeen sintaxi edo prozesamendu zailtasunek eragindakoa izan zitekeela, baina gerta zitekeen eten hori itzultzaileen ezaugarri indibidualen ondorio izatea.

Itzulpen-prozesuan zehar erlatibakuntza mantentzen den kasuei dagokienez, hauetatik %71 ardatzaren ezkerretarakoak dira, baina erlatibo aposatuen %29ko proportzioa ere aipagarria da, gehienbat *ZEIN* eta *BAIT*- erlatiboena (ordain erlatibo guztien %10na).

Lortutako datuen gordintasunak horiek sailkatzeko beharra agerian uzten zuenez, tesiaren sarreran aipatzen genituen bi faktore edo irizpideak erabili ditugu corpuseko emaitzak sailkatzeko: faktore linguistikoak eta estralinguistikoak.

Lehendabizi itzultzailearen kontrolpean ez dauden faktoreen eragina baztertu nahi izan dugu, “faktore linguistiko” bezala definitu ditugunak.

Hizkuntzaren eragina neurtzeko eraginkorrenak iruditzen zitzaizkigun bi irizpideak aukeratu ditugu: ISEren posizioaren araberakoa, eta errusierazko erlatiboak osatzeko erabilitako baliabide morfosintaktikoen araberakoa (errusierazko erlatibatzaileak).

Irizpide linguistikoen araberako sailkapenak garbi utzi du hizkuntza-sistemaren ezaugarriek modu zuzen-zuzenean eragiten dutela itzulpen-prozesuan, baina aldi berean, erakutsi du hizkuntzak itzultzaile guztiengan modu bertsuan eragiten duela. Beraz, eragin hori identifikatzeak ahalbidetu digu itzultzaileen jokabideen artean aurkitutako desberdintasunak, itzultzaileen beraien estiloari egoztea, azalpena hizkuntzetan bilatu beharrean.

ISEren posizioari dagokion irizpidea aplikatuta, euskal ordainak erlatiboen eta ez-erlatiboen funtsezko eskemaren arabera sailkatu ditugu.

Euskaratzean erlatibakuntza mantendu den kasuetan, ikusi dugu ardatzaren ezkerretarako eta eskuinetarako erlatiboen proportzioak –zenbait asimetria eta salbuespen gorabehera– ondorengoak zirela: errusierazko perpausetan ISEren posizioa Comrie/Keenanen hierarkian zenbat eta gorago, euskaraz orduan eta handiagoa zen ardatzaren ezkerretarako erlatiboen proportzioa. ISEren hierarkiako posizioa jaisten den neurrian, ordea, ardatzaren ezkerretarako erlatiboen proportzioa ere jaitsi egiten dela ikusi dugu, ardatzaren eskuinetarako erlatiboen –aposatuen– mesedetan.

Ordain ez-erlatiboetan ere korrelazio interesgarri bat finkatu dugu, ordain hauen ondorengo sailkapen guztietan errepikatuko dena: erlatibakuntza errazten duten testuinguruetan *sinplifikatzea* maizago gertatzen da, eta erlatibakuntza zailteak, aldiz, *parataxiaren* areagotze bat dakar. Alegia, testuinguruak ahalbidetzen duen kasuetan, erlatibozko perpausa perpaus bakun bihurtzea da sarrien gertatzen dena. Testuinguru zailtzen doan heinean, aldiz, erlatibozko mendeko perpaus elkartua zena bi perpaus edo gehiagotan banatu eta hauen artean nolabaiteko etena agertzeko aukera areagotzen da.

Baliabide morfosintaktikoen –erlatibatzailearen– arabera buruturiko sailkapenaren emaitzak antzekoak izan dira.

Erlatibagarritasun-mailaren araberako bi multzo finkatu ditugu errusierazko erlatibatzaileen artean: erlatibatze zailtasun handiagoko *kotoryj* eta *aditzondoak* (eta, hein batean, *kakoj*) eta oro har erlatibagarriagoak diren *kto*, *čto₁* eta *čto₂*.

Kotoryj eta aditzondoak erlatibagaitzagoak direla diogunean, esan nahi dugu erlatibakuntzaren ezabaketa sarriago eragiten dutela, eta erlatibakuntza mantentzen dutenean ere, erlatibo aposatuekin euskaratuak izateko aukera handiago dutela.

Juxtu kontrako fenomenoak ikusten dugu *kto*, *čto₁* eta *čto₂* erlatibatzaileen kasuan: erlatibagarriagoak direla esaten dugu, beraien euskal ordainak ia beti erlatibozkoak eta ia beti ardatzaren ezkerretarakoak direlako.

Errusierazko erlatibatzaileen arabera neurtuta ere, ordain erlatiboek eta ez-erlatiboek, gutxi gehiago, emaitza berdinak eskaini dizkigute. Euskal ordain erlatiboetan erlatibagarritasun-mailak eta ardatzaren ezkerretarako erlatiboan agerpenak zuzenki proportzionalak izaten jarraitzen dute, eta ordain ez-erlatiboetan *sinplifikatzearen* eta *parataxiaren* artean aurretik finkaturiko korrelazioa berresten da: erlatibatze zailtasun handiagoak (*kotoryj*, *aditzondoak* eta, hein batean, *kakoj*) *paraxia* igoarazten duen bezala, zailtasun horiek txikitzeak *sinplifikatzearen* agerpena eragiten dute (*kto*, *čto₁*, *čto₂* eta, hein batean, *kakoj*).

Irizpide linguistikoak aplikatuz lortutako emaitzen ekarpenik garrantzitsuena da itzultzaileak nolabait “berdintzea” ahalbidetu digutela. Hizkuntza-sistemak guztiei berdin eragiten diela ikusita, hortik aurrera ager daitezkeen desberdintasunak bakoitzaren estiloari egozteak errazagoa izan behar luke.

Faktore estralinguistikoak lantzean topatu dugun lehendabiziko arazoa horiek objektibatze zailtasuna izan da, baina norabide horretan zenbait aurrerapauso ematea lortu dugu.

Batetik, hizkuntza-sistemaren eragina isolatzea lortu dugunez, ondorioztatu dugu itzultzaileen artean desberdintasunak topatuz gero, eta hizkuntza-sistema horiek azaltzeko


gai ez bada, errusierazko erlatibakuntza euskaratzeko modu desberdinen azalpena faktore estralinguistikoetan bilatu beharko dugula, eta faktore estralinguistikorik funtsezkoena itzultzaileen estilo propioa da.

Alabaina, itzultzaile bakoitzaren erlatibakuntza-estiloa finkatzeko bidean, isolatu beharreko beste elementu bat zegoela iruditzen zitzaigun: sorburu-testuen egileen – errusiar idazleen– balizko erlatibakuntza-estilo batek itzultzaileengan izan zezakeen eragina.

Errusiar idazleen estiloa objektibatzea eta kuantifikatzea oso zeregin labainkorra izango zela bagenekien arren, ondorengo egin dugu: idazle bakoitzak osatutako erlatibo kopurua (kopuru absolutua eta orri bakoitzeko batez besteko proportzionala) kalkulatu dugu, erlatibo kopuru altu batek menderakuntzarako eta perpau luze eta erlatibagaitzagoetarako joera irudika zezakeelakoan.

Logika honi jarraiki, sorburu-testuko erlatibo kopuru altu batek xede-testuan erlatibakuntza mantentzeko eta ardatzaren ezkerretarako erlatiboak osatzeko zailtasunak eragin behar lituzke, eta beraz erlatibakuntzaren ezabaketa edota erlatibo aposatuen agerpena erraztu. Juxtu alderantzizkoa gertatu behar luke erlatibo kopuru baxu bat daukan errusierazko testu batekin (logika hau zuzena izatera, noski): euskaratzean erlatibakuntza maizago mantentzea, eta ardatzaren ezkerretarako erlatibo gehiago eragitea.

Errusiar idazleen erlatibakuntza-estiloa objektibatzeke saiakera hau burutzean, erregulartasun batzuk atzeman ditugula esan dezakegu, nagusiki XIX eta XX mendeko idazleen arteko bereizketa, 83. grafikoak erakusten duen bezala (IV. 4.1. puntuan 30.-a zena).



Grafikoa 83 Errusiar idazleen erlatibo-kopuru proportzionala (100 orriko)

Idazleen estiloa kuantifikatzeko erlatibo kopurua erreferentziatzen hartzeak zalantza bat sortarazten zigun, ordea: idazle batek erlatibo kopuru handia baldin badauka, baina erlatibo horien zati handi bat erlatibagarria bada, kopuru handi hori ez da erlatibagaiztasunaren zantzua izango.


Zalantza hori argitu ahal izateko, errusiar idazleen datuei ohiko irizpide linguistikoak aplikatu dizkiegu, emaitzak nahiko egonkorak direla ikusiz; alegia, ez dagoela aldaketa handirik erabilitako erlatiboetan ez erlatibatutako ISEren posizioen aldetik ez eta erabilitako erlatibatzaileen ikuspuntutik. Honek iradokiko luke erlatiboaren konplexutasunean egile batzuen eta besteen artean egon zitezkeen desberdintasunak ez direla esanguratsuak, eta beraz, erlatibo kopurua bihurtuko luke menderakuntzarekiko atxikimenduaren erakusle.

Azkenik, itzultzailearen kontrolpean ez dauden faktoreak ikertu ondoren –hots, faktore linguistikoak eta faktore estralinguistikoak lehenengo zatia den errusiar idazleen erlatibakuntza-estiloa–, itzultzaileen erlatibakuntza-estilora iritsi gara.

Gure corpusean sartu diren errusierazko hamabi literatura-lanen euskaratzaileak lau dira: guk A, B, D, E bezala izendatu ditugunak. Itzultzaile hauek dira orain arte errusiar literatura zuzenean euskarara itzuli duten bakarrak.


Ikusi dugu laginetan badagoela nolabaiteko asimetria, itzultzaile batek beste guztiek baino askoz ere gehiago itzuli duelako, baina besteen lagingak ere esanguratsuak direnez, asimetria horrek emaitzetan eragin zezakeela pentsatu izan dugunean, egoera hori aipatzera mugatu gara.

84. grafikoan (VI. kapituluko 4.2. puntuan 34. grafikoa zena) ikusten da A itzultzaileak euskaratu dituela corpusean sartu diren errusierazko perpaus erlatibo guztien %79 (1905 perpaus). B-k corpusari egindako ekarpena erlatiboan %7koa izan da (164 perpaus). D-E itzultzaileen egoera berezia da: biek batera itzuli dituzte bi liburu (corpusaren %6 edo 137 perpaus), baina gero E-k berak bakarrik euskaratu duen liburutik 196 perpaus erlatibo atera ditugu (corpuseko perpaus guztien %8).



Grafikoa 84 Euskal itzultzaileek corpusari egindako ekarpena

Itzultzaile bakoitzak euskaratutako erlatiboazko perpausak ohiko eskemari jarraiki sailkatu ditugu: lehendabizi ordain erlatiboak eta ez-erlatiboak zenbat diren ikusi dugu (85. grafikoa), eta gero ordain erlatibo eta ez-erlatiboan barneko aniztasunaren proportzioak atera ditugu (86. eta 87. grafikoak, hurrenez hurren).




Grafikoa 85 Ordain erlatiboen proportzio orokorra euskal itzultzaileengan

Erlatibakuntza zenbatetan mantendu duten neurtzea ez da lan erraza izan, 85. grafikoko datuak itzultzaile bakoitzak euskaratutako liburu guztien batez bestekoak baitira, baina esan dezakegu erlatibakuntzaren mantentzearen datuak nahiko uniformeak direla oro har.

Erlatibakuntza sarrien mantentzen dutenak D-E itzultzaileak eta E itzultzailea dira, batera itzultzean kasuen %80an eta E-k bakarka %78an mantentzen dute euskal ordainetan erlatibakuntza. B itzultzailearen emaitzak ez dabilta horiengandik oso urrun (%74). Azkenik, erlatibakuntza mantentzeko joera gutxien erakusten duena A itzultzailea da: itzuli dituen errusierazko perpausen %66an soilik mantendu du erlatibakuntza. Ondorioz, beste inork baino maizago ordezkatzen du errusierazko erlatibakuntza bestelako baliabide ez-erlatiboekin.

Edonola ere, itzultzaileen jokabidearen benetako neurria ordain erlatibo eta ez-erlatibo desberdinen proportzioek ematen ziguten.

Ordain erlatiboak aztertzean, segituan atzeman ditugu itzultzaileen artean hiru erlatibakuntza-estilo desberdinen zantzuak. 86. grafikoa ikus dezakegunez (IV. kapituluko 4.3. puntuan 39.-a zena), B eta D-E-ren muturreko jokabidea eta A-ren erdibideko jarrera nabarmentzen dira.



Grafikoa 86 Euskal itzultzaileak eta ordain erlatiboak

a) B itzultzailearengan ardatzaren ezkerretarako erlatiboekiko atxikimendu irmoa atzeman dugu. Ordain erlatibo guztien %87 dira ardatzaren ezkerretarakoak B-k atondutako itzulpenetan (%78 arruntak + %9 jokatu gabeak). Erlatibo aposatuak gutxi erabiltzen ditu, eta erabiltzen dituenean, nagusiki arrunt aposatuak (ordain erlatiboen %8) dira. ZEIN/NON erlatiboen erabilpena sinbolikoa da, eta ez du BAIT- erlatibo bakar bat ere osatzen.

Itzultzaile honek inkestan esandakotik ez dirudi kontzienteki erlatibo aposatuen aurkako aurreiritzirik daukanik, baina horiek erabiltzeko ohitura eskasa ziurrenik bai.

b) D-E itzultzaileek errusierazko erlatibakuntza mantentzeko hautua egiten duten kasuetan, juxtu kontrako muturreko jarrera hartzen dute: erlatibo aposatuen proportzioa oso altua da ordain erlatiboen artean, bai batera itzultzean ere: batera itzultzean osatzen dituzten erlatibo guztien %47 soilik dira ardatzaren ezkerretarakoak, eta E-k bakarka lan egiten duenean, berriz, %48.

Egoera honek hausnarketa bat baino gehiago eragiten du.

Batetik, euskaraz oinarritzotzat daukagun erlatibakuntza-estrategia (erlatibo arrunt eta jokatugabeena) D-E itzultzaileen testuetan ez dela hain oinarritzkoa, oinarritzko estrategia izatea eta agerpen-maiztasuna lotuta daudela onartzen badugu behintzat.

Beste datu deigarri bat da biek batera itzultzearen eta E-k bakarka itzultzearen arteko antzekotasunak hain handiak izatea, batez ere emaitza hauek beste itzultzaile guztiengandik oso urrun daudela kontuan hartzen badugu.

Ardatzaren ezkerretarako eta eskuinetarako erlatiboak elkarren ifrentzuak direnez – baten proportzio altua beti izango da bestearen kaltetan–, erlatibo aposatuen proportzio erraldoiak topatu ditugu D-E itzultzaileen testuetan. Gainera, erlatibo ardatzaren eskuinetarako erlatibo hauen nagusigoa ez da erlatibo aposatu bakarrera mugatzen; aposatu mota guztien erabilpenean erakusten dute ezohiko maiztasun altua. Hurrenez hurren, biek batera itzultzean eta E-k bakarka: arrunt aposatuak ordain erlatiboen %9 eta %14 dira; *ZEIN* erlatiboak ordain erlatiboen %12 eta %18; *NON* erlatiboak %10 eta %11 eta azkenik, *BAIT*-erlatiboak ordain erlatiboen %22 eta %9rekin.

Datu hauek guztiak dira oso altuak, D-E itzultzaileen testuetan soilik ematen dira, hizkuntzaren eragina ez da esanguratsua –erlatiboak antzekoak baitira errusiar idazleengan–, eta gainera, erlatibo aposatuen maiztasun altu hau ez dago batera edo bakarka itzultzearen menpe.

Ondorioz, esan dezakegu D-E itzultzaileen erlatibo aposatuekiko joera beraien erlatibakuntza-estiloaren ezaugarri nagusia dela, biek partekatzen dutena, eta beste itzultzaileengandik bereizten dituen.

D eta E itzultzaileek inkestan eskaini diguten informazioaren arabera, esan dezakegu euskarazko bertsioak, bai batera itzultzean eta bai E-k bakarka lan egitean, azken honen egiletza-zigilua daukala, itxura guztien arabera.


c) A itzultzaileak hartutako erabakiek iradokitzen duten erlatibakuntza-estiloa B eta D-E itzultzaileen “muturreko” estiloen erdibidean aurkitzen da.

Ardatzaren ezkerretara hedatzen ditu euskal ordain erlatiboen %74 –beraz, B-ren %87aren azpitik baina D-E-ren %47-48tik gora nabarmen–, eta erlatibo aposatuetan ere orekarako joera horri eusten dio: arrunt aposatuak euskal ordain erlatiboen %4, *ZEIN* eta *BAIT*-erlatiboak erlatiboen %10na eta *NON* erlatiboak %2. Horrez gain, corpuseko korrelaziozko bi erlatiboak berak osatzen ditu.

Orekaren interpretaziorako bidea ematen duen beste elementu bat da liburuz liburu datu aski uniformeak eskaintzen dituela. Hori azpimarragarria da, zazpi lan itzuli dituelako, eta lagina oso zabala delako.

Inkestaren datuek ere ez dute oreka-itxura hori hautsiko duen elementurik erakusten. Oro har, itzultzaile guztiek dute erlatibo mota guztiekiko jarrera irekia.

Euskal ordain ez-erlatiboak aztertzea erronka handiagoa zen. Erlatibakuntza egiteko modu desberdinak espero genituen, eta hori aztertzeko tresnak eta erreferentziak bageneuzkan, baina ez genekien zehazki itzultzaile batek erlatibakuntza ezabatzeko daukan modua nola neurtu behar genuen. Lana erraztu digun erregulartasun bitxi bat topatu dugu, ordea: ordain ez-erlatiboak osatzeko hiru moduen banaketa oso antzekoa da itzultzaile guztiengan: guztiek erabiltzen dute gehienetan *parataxia*, ondoren *sinplifikatzea* eta azkenik, oso proportzio txikietan beti, *hipotaxia*. Gainera proportzioak ere ia berdinak dira. Ondorioz, erlatibakuntza ezabatzeko moduan ez dago berau azaltzeko ahalegina eskatuko ligukeen desberdintasunik itzultzaile batzuen eta besteen artean (87. grafikoa, IV. 4.4.-ko 51. grafikoa zena).



Grafikoa 87 Euskal itzultzaileak eta ordain ez-erlatiboak

Itzultzaile guztien euskal ordain ez-erlatiboak hain antzekoak izatetik ondorioztatu dugu errusierazko sorburu-testuetako erlatibakuntza euskarazko xede-testuetan ezabatzeko modua ez dela itzultzaile indibidualen estilo baten araberakoa, baizik eta

itzultzailearen kontrolpean ez dauden faktoreek eragindako fenomeno bat, ziurrenik hizkuntza-sistemarekin zerikusia dutenak.

Datu horiekin tesi honen helburu nagusia bete dugula esan daiteke, gure corpuseko datuetan oinarrituta, itzulpen-prozesuan hartutako erabakietan eragiten duten faktore esanguratsuak zeintzuk diren zehaztea lortu baitugu:

- Ordain erlatiboen ekoizpenerako faktore esanguratsuen itzultzaileen beraien estiloa da, antzeko testuinguruetan erabaki desberdinak hartzen dituztelako.

- Ordain ez-erlatiboen agerpenean esanguratsua da testuinguruaren garrantzia, itzultzaileen artean ez baitago funtsezko desberdintasunik.

Tesi honetan agerian geratu da itzulpengintza-ikerketek hizkuntzen arteko harremanen alderdi aski desberdinak aztertzeke eta uztartzeko ahalmena dutela. *Polisistemen* teoriari jarraiki, xede-testuak –euskarazko itzulpenak– xede-kulturan –euskal kulturan– bereganatzen dituen ezaugarri jakin batzuk azaleratu ditugu, erlatibakuntza bezalako gai konkretu batetik abiatuta. Hala, itzultzaile bakoitzarengan praktika desberdin bat atzeman dugu, sorburu-kulturarekin –errusiar kulturarekin– batere loturarik gabekoa, eta zentzua xede-kulturan soilik daukana: ardatzaren ezkerretarako edo eskuinetarako erlatiboak osatzea, eta erlatibakuntza ezabatuz, bestelako baliabideren batekin ordezkatzeta.

Ziur gaude ikerketa-ildo horrek –corpus bidezko metodologia bidelagun duela– itzultzaileen praktika linguistikoaren inguruko informazio ugari eta oso baliagarria emango digula etorkizun hurbilean.

BIBLIOGRAFIA

- Alberdi, X., García, J., 1998, "ZEIN izenordain erlatiboaren deklinabidea", *Fontes Linguae vasconum* V 78: 235-266.
- Altube, S., 1929, *Erderismos*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Azkue, R., 1905-1906, *Diccionario vasco-español-francés*, I-II, A. Mame, Bilbo.
- Baker, M., 2000, "Towards a Methodology for Investigating the Style of a Literary Translator", *Target* 12(2): 223-243.
- , 1999, "The role of corpora in investigating the linguistic behaviour of professional translators", *International Journal of Corpus Linguistics* 4(2): 281-298.
- , 1996, "Corpus-based Translation Studies: The Challenges that Lie Ahead" *LSP and Translation: Studies in Language Engineering in Honour of Juan C. Sager*, John Benjamins, Amsterdam.
- , 1995, "Corpora in Translation Studies: An overview and Some Suggestions for Future Research", *Target* 7(2): 223-243.
- , 1993, "Corpus linguistics and translation studies: implications and applications", Baker, Francis, Tognini-Bonelli (ed.), *Text and Technology: In Honour of John Sinclair*, John Benjamins.
- , 1992, *In other words*, Routledge, London.
- Vengerov, S. (ed.), 1900-1917, *Istočniki slovarja rusckix pisatelej*, San Petersburgo.
- Biguri, K., 1994, "Erdarazko erlatiboen itzulpenaz" *SENEZ* 15: 37-71.
- Bitov, A. G., 2011, "50 let bez Platonova", *Zvezda* 1: 180-209.
- Boland, J.E., 1997, "The relationship between syntactic and semantic processes in sentence comprehension", *Language and Cognitive Processes* 12: 423-484.
- Brodski, I., 1973, "Poslesovie-hitizatzea", *Kotlovan (Lubakia)*: 162-164, Ardis, Ann Arbor.
- Carreiras, M., Duñabeitia, J. A., Vergara, M., de la Cruz-Pavía, I., Laka, I., 2010, "Subject relative clauses are not universally easier to process: evidence from Basque", *Cognition* 115, 79–92.
- Catford, J.C., 1965, *A Linguistic Theory of Translation*, Oxford Univ Press.
- Chesterman, 1993, "From "is" to "ought" Laws, norms and strategies in translation studies", *Target*, 5: 1-27.
- , 1997, *Memes of translation: The spread of ideas in translation theory*, John Benjamins.
- Chien-Jer, C.L., Bever, T., 2006, "Subject Preference in the Processing of Relative Clauses in Chinese", *25th West Coast Conference on Formal Linguistics*, Somerville.
- Clifton, C., Frazier, L., 1989, "Successive cyclicity in the grammar and the parser", *Language and Cognitive Processes* 4: 93-126.

- Comrie, B., Kuteva, T., 2005, "Relativization on subjects", *World Atlas of Language Structures*: 494–497, Oxford University Press.
- Coseriu, E., 1981, *Lecciones de lingüística general*, Gredos, Madrid.
- Dahl, Ö., 2009, "Two pathways of grammatical evolution", In: Givón, T. and Masayoshi Shibatani (eds.), *Syntactic Complexity: Diachrony, acquisition, neuro-cognition, evolution*: 239-248.
- DuBois, J.W., 1987, "The discourse basis of ergativity", *Language* 64: 805-855.
- Etxaide, J., 1912, *Tratado de sintaxis en el idioma euskaro*, J. Baroja, Donostia.
- Euskaltzaindia, 1999, *Euskal gramatika: lehen urratsak V*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- , 2011, *Euskal gramatika: lehen urratsak VII*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Even-Zohar, I., 1978, "The Position of Translated Literature within the Literary Polysystem", in Holmes, Lambert, and van den Broeck (ed.) *Literature and Translation: New Perspectives in Literary Studies with a Basic Bibliography of Books on Translation Studies*: 117-127, Leuven, Acco.
- , 1990, "Polysystem Studies", *Poetics Today* 11(1).
- Fëdorov, A.F., 1958, *Vvedenie v teoriju perevoda*, Mosku.
- Figueroa, P., 1993, *Education for cultural diversity* Routledge, Londres.
- Firth, J.R., 1956, Linguistic and Translation *Selected papers of J.R. Firth (1952-59)*: 84-95, Longman/Indiana University Press.
- Fox, B., 1987, "The Noun Phrase Accessibility Hierarchy Reinterpreted: Subject Primacy or the Absolute Hypothesis", *Language* 63: 856-870.
- Frank, A. P, Schultze, B., 1988, "Normen in historisch-deskriptiven Übersetzungsstudien", Kittel, H (Ed.), *Die literarische Übersetzung: Stand und Perspektiven ihrer Erforschung*: 96–121, Erich Schmidt, Berlin.
- Giacalone Ramat, A., 2008, "Areal convergence in grammaticalization processes", López-Couso, M. J., Seoane, E. (eds.), *Rethinking Grammaticalization: New perspectives*: 129–167, John Benjamins, Amsterdam & Philadelphia.
- Givon, T. 2012, "Toward A Diachronic Typology Of Relative Clauses", Comrie, B., Estrada-Fernández, Z. (eds.), *Relative Clauses in Languages of the Americas: A typological overview*: 1-26.
- , 1990, *Syntax: A functional-typological introduction*, John Benjamins, Amsterdam.
- Gordon, P. C., Hendrick, R., 2005, "Relativization, ergativity, and corpus frequency", *Linguistic Inquiry* 18: 456-463.
- Gorki, M. A., 1953, "O jazyke", *Sobranie sočinenij v tridcati tomach* 27, GIXL, Mosku.
- Greenberg, J., 1966, *Universals of language*, MIT Press, Cambridge.

- Haspelmath, M. et al., 2005, *The World Atlas of Language Structures (WALS)*, Oxford University Press, Oxford.
- , 2001, "The European linguistic area: Standard Average European" Haspelmath, M. et al. (eds.) *Language typology and language universals (Handbücher zur Sprach- und Kommunikationswissenschaft)*, de Gruyter, Berlin: 1492-1510.
- Heine, B., Kuteva, T., 2006, *The changing languages of Europe*, Oxford University Press.
- Hermans, T., 2013, "Norms of Translation", *The Encyclopedia of Applied Linguistics*, Blackwell.
- , 1999, *Translation in systems: Descriptive and systemic approaches explained*, St. Jerome, Manchester.
- , 1996, "Norms and the determination of translation: A theoretical framework", *Translation, power, subversion*: 24–51, Clevedon.
- , 1996a, "The Translator's Voice in Translated Narrative", *Target* 8 (1): 23-48.
- , 1991, "Translational norms and correct translations", *Translation studies: The state of the art*: 155–70, Rodopi, Amsterdam.
- Hidalgo, B., 2004, "Izen ardatz determinatugabeen ondoko erlatiboak euskaraz", *Gogoia* 4: 121-174.
- , 2003, "ZEIN (eta BAIT-) erlatiboak: Izen ardatzaren eskuin hedatzen diren erlatiboak euskaraz (III)", *Fontes Linguae vasconum* 92: 19-56.
- , 2002a, "Erlatibo hautsiak: Izen eskuin hedatzen diren erlatiboak euskaraz (I)", *Fontes Linguae vasconum* 89: 27-80.
- , 2002b, "-(e)n... erlatibo aposatuak. Izen ardatzaren eskuin hedatzen diren erlatiboak euskaraz (II)", *Uztaro* 42: 17-83.
- , 1995, *Hitzen ordena euskaraz*, Doktore tesia, EHU, Leioa.
- Holmes, D., 1998, "The Evolution of Stylometry in Humanities Scholarship", *Literary & Linguistic Computing* 13 (3): 111-117.
- Hsiao, F., Gibson, E., 2003, "Processing relative clauses in Chinese", *Cognition* 90: 3–27.
- Hutchings, S., 1990, *A semiotic analysis of the short stories of Leonid Andreiev, 1900-1909*, Modern Humanities Research Association, London.
- Ilin, E. N., 1985, *Roman M.A. Xolokhova "Podnjataja tselina"*, Prosveščenie, Mosku.
- Ishizuka, 2005, "Processing relative clauses in Japanese", *UCLA Working Papers in Psycholinguistics*, 2: 135-157.
- Ivir, V., 2004, (ed. Kittel) "Descriptive and prescriptive approaches in the linguistic study of translation", *Übersetzung/Translation/Traduction*.
- , 1981, "Formal Correspondence vs. Translation Equivalence Revisited", *Poetics Today* 2(4): 51–59.

- Johansson, 2007, *Seeing through multilingual corpora: On the use of corpora in contrastive studies*, John Benjamins, Amsterdam.
- Keenan, E., 1975, "Logical expressive power and syntactic variation in natural language", *Formal semantics of natural language*: 406-21, Cambridge.
- , 1976, "Towards a universal definition of subject", Li, C., (ed.), *Subject and topic*: 305-334, Academic Press, New York.
- , Comrie, B., 1977, "Noun phrase accessibility and universal grammar", *Linguistic Inquiry* 8.1: 63-99.
- Komissarov, V. N., 1996, "Assumed translation: Continuing the discussion", *Target* 8(2): 365–374.
- , 1995, "Intuition in translation", *Target* 7(2): 347–354.
- , 1990, *Teorija perevoda (Lingvističeskie aspekty)*, V.Š. Mosku.
- , 1973, *Slovo o perevode*, M.O., Mosku.
- Kornienko, N.V., 2000, "Nasledie Platonova – ispytanie dlja filologičeskoj nauki", *Strana Filosofov Andreja Platonova: problemy tvorčestva 4*: 117-137, Mosku.
- Kretschmar, W., 2001, "Using Computers in Linguistics: A Practical Guide", *Journal of English Linguistics* 29: 190-192.
- Lakarra, J., 1999, "Ná-De-Ná", *Uztaro* 31: 15-84.
- Laviosa, S., 1998, "The English Comparable Corpus: A resource and a methodology", *Unity in Diversity? Current Trends in Translation Studies*, St. Jerome Publishing.
- , 1997, "How comparable Can Comparable Corpora Be?", *Target* 9 (2): 289-319.
- Leech, G., Short, M., 2007 (1^o arg. 1981), *Style in Fiction*, Longman, London.
- Lehmann, C., 1984, *Der Relativsatz: Typologie seiner Strukturen Theorie seiner Funktionen; Kompendium seiner Grammatik*, Language Universals Series, Vol. 3. Gunter Narr, Tübingen.
- Levý, J., 1967, "Translation as a Decision Process", *To Honor Roman Jakobson*, 2: 1171-82, Mouton, Haga.
- Lin, C., Bever, T., 2006, "Chinese is no exception: Universal subject preference of relative clause processing", *19th annual CUNY conference on human sentence processing*, New York.
- Lotman, J. M., 1995, *Puxkin*: 212-227, Iskusstvo, San Petersburgo.
- , 1980-1983, "I.S. Turgeniev", *Istorija ruskoj literatury (I-IV)*, Nauka, Leningrad.
- MacDonald, M. C., Pearlmutter, N. J., Seidenberg, M. S., 1994, "The lexical nature of syntactic ambiguity resolution", *Psychological Review*, 101: 676-703.
- , Christiansen, M.A., 2002, "Reassessing working memory: A comment on Just & Carpenter and Waters & Caplan", *Psychological Review*, 109, 35–54.

- Macwhinney, B., Pleh, C., 1988, "The processing of restrictive relative clauses in Hungarian", *Cognition*, 29: 95–141.
- , 1982, "Basic syntactic processes", in Stan Kuczaj (Ed.), *Language development: Syntax and semantics*, Vol. 1: 73–136, Erlbaum, New Jersey.
- , 1977, "Starting points", *Language*, 53: 152–168.
- May, R., 1994, *The Translator in the Text: On Reading Russian Literature in English*, Northwestern University Press, Chicago.
- Mounin, G., 1963, *Les problèmes théoriques de la traduction*, Gallimard, Paris.
- Neustupný, J.V., 1984, "Literacy and minorities: Divergent perceptions", Coulmas (Ed.) *Linguistic minorities and literacy*: 115-128, Mouton, Berlin.
- , 1978, *Post-structural Approaches to Language*, University of Tokyo.
- Nida, E., 1975, *Language Structure and Translation: Essays*, Stanford University Press.
- , 1964, *Toward a Science of Translating*, Brill, Boston.
- Nord, C., 1991, *Text analysis in translation: theory, methodology, and didactic application of a model for translation-oriented text analysis*, Rodopi, Amsterdam/New York.
- Oihartzabal, B., 1987, *Étude descriptive de constructions complexes en basque: propositions relatives, temporelles, conditionnelles et concessives*, Thèse de doctorat, CNRS.
- Olohan, M., 2004, *Introducing Corpora in translation studies*, Routledge, London.
- Polinsky, M. et al., 2012, "Subject preference and ergativity", *Lingua* 122: 267-277.
- , Kluender, R., Kwon, N., 2006, "Subject preference in Korean", *Proceedings of the 25th West Coast Conference on Formal Linguistics (WCCFL 25)*: 1-14, Cascadilla Press, Somerville.
- Proffer, E., 1984, *Bulgákov: life and work*, Ardis, Ann Arbor.
- Pugh, S., 2006, "Relative Constructions in Contemporary Popular Russian Prose. Reflections on a Changing Language", *Russian Linguistics* 30(2): 213-226.
- Rijk, de R., 2008, *Standard Basque: A Progressive Grammar*, MIT Press.
- , 1972, *Studies in Basque syntax: Relative clauses*, MIT Press.
- Ronkin, V., 1999, "Analitičnost' idiosilja Sergeja Dvlatova", Ar'ev, A. (ed.) *Sergei Dvlatov: tvorčestvo, ličnost', sud'ba*, Zvezda, S. Petersburgo.
- Skalička, V., 1979, "Das Erscheinungsbild der Sprachtypen", *Typologische Studien* 11: 21-58.
- Schäffner (Ed.), C., 1997, "Translation and norms", Special issue of Current Issues, *Language and Society*, 5.
- Sicher, E., 1986, *Style and Structure in the Prose of Isaak Babel*, Slavia, Columbus.

- Stowe, L. A., 1989, "Thematic structures and sentence comprehension", *Linguistic structures in language processing*: 319-357, Kluwer, Dordrecht.
- Suñer, M., 1998, "Resumptive restrictive relative clauses: A crosslinguistic perspective", *Language* 74: 335-364.
- Šeljakin, M.A., 1986, *Russkie mestoimenija (značenie, grammatičeskie formy, upotreblenie)*: 48-68 University of Tartu, Tartu.
- Švedova, N. J., 2005, *Russkaja Grammatika: naučnye trudy*: 512-538, Institut russkogo jazyka imeni V.V. Vinogradova, Mosku.
- Švejcer, A. D., 2004, "Possibilities and limitations of linguistic approaches to translations", Kittel, H. (Ed.), *Übersetzung/Translation/Traduction*: 236-242, de Gruyter, Berlin/New York.
- , 1973, *Perevod i lingvistika*, Nauka, Mosku.
- Toury, G., 1995, *Descriptive Translation Studies – and beyond*, John Benjamins, Amsterdam.
- , 1985, "A Rationale for Descriptive Translation Studies", Hermans, T. (Ed.), *The Manipulation of Literature: Studies in Literary Translation*: 16-41, Croom/Helm, London-Sydney.
- , 1980, *In Search of a Theory of Translation*, The Porter: Institute for Poetics and Semiotics, Tel Aviv.
- Trueswell, J., Tanenhaus, M., Garnsey, S., 1994, "Semantic influences on parsing: use of thematic role information in syntactic disambiguation", *Journal of Memory and Language* 33: 285–318.
- Ueno, M., Garnsey, S., 2008, "An ERP study of the processing of subject and object relative clauses in Japanese", *Language & Cognitive Processes* 23: 646-688.
- Venuti, L., 1995, *The Translator's Invisibility*, Routledge, New York and London.
- Vinogradov, V.V., 1936, "Jazyk Gogolja", *N.V. Gogol. Materialy i issledovanija*: 286—376, Mosku/Leningrad.
- Vries, M. de, 2004, "Parataxis as a Different Type of Asymmetric Merge", *Proceedings of IPSI-2004*, Pescara.
- , 2002, *The syntax of relativization*, PhD Dissertation, University of Amsterdam, LOT, Utrecht.
- Wilss W., 1988, *Kognition und Übersetzen: Zu Theorie und Praxis der menschlichen und der maschinellen Übersetzung*, Niemeyer, Tübingen.
- , 1982, *The Science of Translation*, Gunter Narr, Stuttgart.
- , 1977, *Übersetzungswissenschaft, Probleme und Methoden*, Klett, Stuttgart.

- Zaliznjak, A.A., Padučeva, J.V., 1975, "K tipologii odnositel'nogo predloženiija", *Semiotika i informatika* 6: 51-101, VINITI, Mosku.
- Zaliznjak, A.A., Padučeva, J.V., 1979, "Sintaksičeskie svojstva mestoimenija kotoryj", Nikolaeva (ed.), *Kategorija opredelënnosti-neopredelënnosti v slavjanskix i balkanskix jazykax*: 289-329, Nauka, Mosku.
- Whorf, B., 1941, "The Relation of Habitual Thought and Behavior to Language", *Language, Culture, and Personality: Essays in Memory of Edward Sapir*: 75-93, Sapir Memorial Publication Fund.

I. ERANSKINA. EUSKAL ITZULTZAILEEI EGINIKO INKESTAREN BERTSIO OSOA

A ITZULTZAILEA

1. NOLA DEFINITUKO ZENUKE ERRUSIERAZ IDATZITAKO LITERATURA JATORRIZKO BERTSIOAN ULERTZEKO DAUKAZUN AHALMENA?

A) Oso ona.

B) Ona.

C) Erdipurdikoa.

D) Eskasa.

Oharrak: Nolanahi ere, hiztegia etengabe erabiltzen nuen hitz askoren esanahi zehatzaren bila (hala errusiera-errusiera nola errusiera-gaztelania hiztegiak).

2. ZUK EGINDAKO ITZULPENAK ZUZENEAN ERRUSIERATIK EUSKARATU DITUZU?

A) Bai.

B) Ez.

C) Errusierazko testua oinarri hartuta, baina beste hizkuntza batzuetako testuak kontsultatuz.

D) Beste hizkuntza batzuetako testuak oinarri hartuta, baina errusierazko jatorrizko testua kontsultatuz.

OHARRAK: Jatorrizkoak zalantzak sortzen zizkidanean, gaztelaniazko, frantsesezko edota ingelesezko itzulpenak kontsultatzen nituen.

3. "EUSKALDUN ZAHAR" ETA "EUSKALDUN BERRI" BEZALAKO TERMINO TRADIZIONALETATIK HARAGO, AZAL EZAZU HITZ GUTXITAN NOLA IKUSTEN DUZUN ZURE BURUA EUSKAL HIZTUN BEZALA.

Euskaldun "osoa" naizela esango nuke.

4. ITZULPENAK EGIN AURRETIK ERRUSIERAZKO ERLATIBOZKO PERPAUSAK EUSKARATZEKO MODUARI BURUZKO HAUSNARKETARIK EGIN ZENUEN?

A) Bai. Erlatiboak errusieratik edo inguruko beste indoeuropar hizkuntza batzuetatik itzultzeko zailtasunen eta itzulpen-aukera desberdinen jakitun nintzen.

B) Banekien, baina ez nuen horren inguruko hausnarketa sakonik egin, eta ez neukan horren inguruan dauden eztabaiden berri.

C) Egia esan, intuitiboki itzuli ditudala esan daiteke, ez bainuen gehiegi pentsatu erlatibozko perpausak euskaratzeko moduari buruz.

5. GURE IKERKETAN ZEHAR ERRUSIERAZKO ERLATIBOZKO PERPAUSAK EUSKARATZEKO MODU DESBERDINAK TOPATU DITUGU. EUSKARAZKO ERLATIBOEI BURUZKO ONDORENGO BAIEZTAPENETATIK ZEINEKIN IDENTIFIKATZEN ZARA GEHIEN?

A) Erelatibo arruntak hobesten ditut guztien gainetik (*[liburu hau irakurri duen] gizon bat etorri da bezalakoak*), eta beste guztiak saihesten ditut ahal dudan guztietan.

B) Erelatibo arruntak osatzeko zailtasunak baldin badaude, erlatibo aposatuak osatzea ere hobesten dut (*Badago herri honetan gizon bat, [zeinarekin askotan joaten bainaiz/naizen frontoira]* bezalakoak).

C) Erelatibo arruntak ez ditut bestelako erlatiboen gainetik jartzen, eta inguruko hizkuntzetako erlatibo guztiak *ZEIN* erlatibo aposatuekin itzul daitezkeela deritzot.

D) Erelatibo arruntak ezin badituz osatu, nahiago dut aukeran erlatibozkoa ez den beste baliabideren bat erabili: perpausak banatuko dituen eten bat (*Badago gizon bat herri honetan. Gizon horrekin askotan joaten naiz frontoira*) edo bestelako aldaketaren bat.

6. ERRUSIERATIK EUSKARATU DITUZUN LIBURU GUZTIETAN ERLATIBOZKO PERPAUSAK BERDIN ITZULI DITUZULA USTE DUZU EDO ALOR HORRETAN DESBERDINTASUNAK EGON DAITEZKEELA PENTSATZEKO ARRAZOIAK DITUZU? ADIBIDEZ, BALITEKE ZURE LEHENENGO ITZULPENAREN ETA AZKENEKOAREN ARTEAN ERLATIBOAK ITZULTZEKO DAUKAZUN MODUA ALDATU IZANA? BEHARBADA ERRUSIAR IDAZLEAREN ARABERA PERPAUS ERLATIBOAK EUSKARATZEKO ERA ALDATU DUZU?

A) Esango nuke erlatibozko perpausak itzultzeko daukadan modua ez dela aldatu liburu batetik bestera.

B) Esango nuke aldaketa kronologiko bat eman dela: hasieran erlatibo arruntak (*etorri den gizona bezalakoak*) gehiago erabiltzen nituela eta gerora erlatibo aposatuak (*gizon bat, zeinarekin asko hitz egin dudan bezalakoak*) erabiltzeko ohitura handiagoa hartu dudala.

C) Esango nuke aldaketa kronologiko bat eman dela, baina alderantziz: erlatibo aposatuak (*gizon bat, zeinarekin asko hitz egin dudan bezalakoak*) hasieran gehiago erabiltzen nituela, eta gerora erlatibo arruntak (*etorri den gizona bezalakoak*) erabiltzeko ohitura handiagoa hartu dudala.

D) Esango nuke nik euskaratutako errusiar idazleen estilo desberdinak direla medio, perpaus erlatiboak itzultzeko modua aldatu behar izan dudala.

OHARRAK: Erelatibozkoak itzultzeko "estrategia" orokorra aldatu ez badut ere, idazlearen estiloak nolabaiteko eragina izan du. Adibidez, Gogolen *Arima hilak* itzultzean beste obra batzuk itzultzean baino gehiago erabili ditut erlatibo aposatuak.

7. ZEIN DA *BAIT*- AURRIZKIAREKIN OSATUTAKO ERLATIBOEI BURUZKO ZURE IRITZIA (*Maialenen ostatura hurbildu ziren, Tolosarako errepidean BAITAGO bezalakoei buruzkoa*)?

A) Guztiz onargarri deritzot, baina nik neuk ez nuke erabiliko.

B) Guztiz onargarri deritzot, eta ez daukat arazorik nik neuk erabiltzeko, idatzizko erregistro batean behintzat.

C) Ekialdeko (Iparraldeko) euskalkietako fenomenotzat daukat, eta ez dauka nire idazkerarekin batere zerikusirik.

D) Kausazko perpausak osatzeko erabiltzen dut, baina niretzat *BAIT*- aurrizkia ez dago erlatibakuntzarekin lotuta.

B ITZULTZAILEA

1. NOLA DEFINITUKO ZENUKE ERRUSIERAZ IDATZITAKO LITERATURA JATORRIZKO BERTSIOAN ULERTZEKO DAUKAZUN AHALMENA?

A) Oso ona.

B) Ona.

C) Erdipurdikoa.

D) Eskasa.

2. ZUK EGINDAKO ITZULPENAK ZUZENEAN ERRUSIERATIK EUSKARATU DITUZU?

A) Bai.

B) Ez.

C) Errusierazko testua oinarri hartuta, baina beste hizkuntza batzuetako testuak kontsultatuz.

D) Beste hizkuntza batzuetako testuak oinarri hartuta, baina errusierazko jatorrizko testua kontsultatuz.

3. "EUSKALDUN ZAHAR" ETA "EUSKALDUN BERRI" BEZALAKO TERMINO TRADIZIONALETATIK HARAGO, AZAL EZAZU HITZ GUTXITAN NOLA IKUSTEN DUZUN ZURE BURUA EUSKAL HIZTUN BEZALA.

Etxean, herrian eta unibertsitate arteko ikasketak euskaraz egin dituen euskaldun zaharra naizela esango nuke.

4. ITZULPENAK EGIN AURRETIK ERRUSIERAZKO ERLATIBOZKO PERPAUSAK EUSKARATZEKO MODUARI BURUZKO HAUSNARKETARIK EGIN ZENUEN?

A) Bai. Erelatiboak errusieratik edo inguruko beste indoeuropar hizkuntza batzuetatik itzultzeko zailtasunen eta itzulpen-aukera desberdinen jakitun nintzen.

B) Banekien, baina ez nuen horren inguruko hausnarketa sakonik egin, eta ez neukan horren inguruan dauden eztabaiden berri.

C) Egia esan, intuitiboki itzuli ditudala esan daiteke, ez bainuen gehiegi pentsatu erlatiboazko perpausak euskaratzeko moduari buruz.

5. GURE IKERKETAN ZEHAR ERRUSIERAZKO ERLATIBOZKO PERPAUSAK EUSKARATZEKO MODU DESBERDINAK TOPATU DITUGU. EUSKARAZKO ERLATIBOEN BURUZKO ONDORENGO BAIEZTAPENETATIK ZEINEKIN IDENTIFIKATZEN ZARA GEHIEN?

A) Erelatibo arruntak hobesten ditut guztien gainetik (*[liburu hau irakurri duen] gizon bat etorri da bezalakoak*), eta beste guztiak saihesten ditut ahal dudan guztietan.

B) Erelatibo arruntak osatzeko zailtasunak baldin badaude, erlatibo aposatuak osatzea ere hobesten dut (*Badago herri honetan gizon bat, [zeinarekin askotan joaten bainaiz/naizen frontoira] bezalakoak*).

C) Erelatibo arruntak ez ditut bestelako erlatiboen gainetik jartzen, eta inguruko hizkuntzetako erlatibo guztiak *ZEIN* erlatibo aposatuekin itzul daitezkeela deritzot.

D) Erelatibo arruntak ezin baditut osatu, nahiago dut aukeran erlatiboazkoa ez den beste baliabideren bat erabili: perpausak banatuko dituen eten bat (*Badago gizon bat herri honetan. Gizon horrekin askotan joaten naiz frontoira*) edo bestelako aldaketaren bat.

6. ERRUSIERATIK EUSKARATU DITUZUN LIBURU GUZTIETAN ERLATIBOZKO PERPAUSAK BERDIN ITZULI DITUZULA USTE DUZU EDO ALOR HORRETAN DESBERDINTASUNAK EGON DAITEZKEELA PENTSATZEKO ARRAZOIAK DITUZU? ADIBIDEZ, BALITEKE ZURE LEHENENGO ITZULPENAREN ETA AZKENEKOAREN ARTEAN ERLATIBOAK ITZULTZEKO DAUKAZUN MODUA ALDATU IZANA? BEHARBADA ERRUSIAR IDAZLEAREN ARABERA PERPAUS ERLATIBOAK EUSKARATZEKO ERA ALDATU DUZU?

A) Esango nuke erlatiboazko perpausak itzultzeko daukadan modua ez dela aldatu liburu batetik bestera.

B) Esango nuke aldaketa kronologiko bat eman dela: hasieran erlatibo arruntak (*etorri den gizona* bezalakoak) gehiago erabiltzen nituela eta gerora erlatibo aposatuak (*gizon bat, zeinarekin asko hitz egin dudan* bezalakoak) erabiltzeko ohitura handiagoa hartu dudala.

C) Esango nuke aldaketa kronologiko bat eman dela, baina alderantziz: erlatibo aposatuak (*gizon bat, zeinarekin asko hitz egin dudan* bezalakoak) hasieran gehiago erabiltzen nituela, eta gerora erlatibo arruntak (*etorri den gizona* bezalakoak) erabiltzeko ohitura handiagoa hartu dudala.

D) Esango nuke nik euskaratutako errusiar idazleen estilo desberdinak direla medio, perpaus erlatiboak itzultzeko modua aldatu behar izan dudala.

7. ZEIN DA *BAIT-* AURRIZKIAREKIN OSATUTAKO ERLATIBOEI BURUZKO ZURE IRITZIA (*Maialenen ostatura hurbildu ziren, Tolosarako errepidean BAITAGO* bezalakoak buruzkoa)?

A) Guztiz onargarri deritzot, baina nik neuk ez nuke erabiliko.

B) Guztiz onargarri deritzot, eta ez daukat arazorik nik neuk erabiltzeko, idatzizko erregistro batean behintzat.

C) Ekialdeko (Iparraldeko) euskalkietako fenomenotzat daukat, eta ez dauka nire idazkerarekin batere zerikusirik.

D) Kausazko perpausak osatzeko erabiltzen dut, baina niretzat *BAIT-* aurrizkia ez dago erlatibakuntzarekin lotuta.

D ITZULTZAILEA

1. NOLA DEFINITUKO ZENUKE ERRUSIERAZ IDATZITAKO LITERATURA JATORRIZKO BERTSIOAN ULERTZEKO DAUKAZUN AHALMENA?

A) Oso ona.

B) Ona.

C) Erdipurdikoa.

D) Eskasa.

Oharrak: Dena irakurtzen dut, askotan, bai literatura berria, bai klasikoa.

2. ZUK EGINDAKO ITZULPENAK ZUZENEAN ERRUSIERATIK EUSKARATU DITUZU?

A) Bai.

B) Ez.

C) Errusierazko testua oinarri hartuta, baina beste hizkuntza batzuetako testuak kontsultatuz.

D) Beste hizkuntza batzuetako testuak oinarri hartuta, baina errusierazko jatorrizko testua kontsultatuz.

OHARRAK: Jakina, hainbat lekutan beste itzultzaileen aukera ere izaten dugu kontuan, bai gaztelaniaz, bai ingelesez, bai frantsesez. Sarritan leku berean haiek ere tratatu direla egiaztatzeko soilik bada ere...

3. "EUSKALDUN ZAHAR" ETA "EUSKALDUN BERRI" BEZALAKO TERMINO TRADIZIONALETATIK HARAGO, AZAL EZAZU HITZ GUTXITAN NOLA IKUSTEN DUZUN ZURE BURUA EUSKAL HIZTUN BEZALA.

Euskaldun berria naiz, baina euskara laneko hizkuntza izan da 30 urtetan (nola igarotzen den denbora, txo!), beraz sarritan amets egiten dut hizkuntza honetan.

4. ITZULPENAK EGIN AURRETIK ERRUSIERAZKO ERLATIBOZKO PERPAUSAK EUSKARATZEKO MODUARI BURUZKO HAUSNARKETARIK EGIN ZENUEN?

A) Bai. Erlatiboak errusieratik edo inguruko beste indoeuropar hizkuntza batzuetatik itzultzeko zailtasunen eta itzulpen-aukera desberdinen jakitun nintzen.

B) Banekien, baina ez nuen horren inguruko hausnarketa sakonik egin, eta ez neukan horren inguruan dauden eztabaiden berri.

C) Egia esan, intuitiboki itzuli ditudala esan daiteke, ez bainuen gehiegi pentsatu erlatiboazko perpausak euskaratzeko moduari buruz.

5. GURE IKERKETAN ZEHAR ERRUSIERAZKO ERLATIBOZKO PERPAUSAK EUSKARATZEKO MODU DESBERDINAK TOPATU DITUGU. EUSKARAZKO ERLATIBOEI BURUZKO ONDORENGO BAIEZTAPENETATIK ZEINEKIN IDENTIFIKATZEN ZARA GEHIEN?

A) Erlatibo arruntak hobesten ditut guztien gaineratik (*[liburu hau irakurri duen] gizon bat etorri da bezalakoak*), eta beste guztiak saihesten ditut ahal dudan guztietan.

B) Erlatibo arruntak osatzeko zailtasunak baldin badaude, erlatibo aposatuak osatzea ere hobesten dut (*Badago herri honetan gizon bat, [zeinarekin askotan joaten bainaiz/naizen frontoira] bezalakoak*).

C) Erlatibo arruntak ez ditut bestelako erlatiboen gaineratik jartzen, eta inguruko hizkuntzetako erlatibo guztiak *ZEIN* erlatibo aposatuekin itzul daitezkeela deritzot.

D) Erlatibo arruntak ezin badituz osatu, nahiago dut aukeran erlatiboazkoa ez den beste baliabideren bat erabili: perpausak banatuko dituen eten bat (*Badago gizon bat herri honetan. Gizon horrekin askotan joaten naiz frontoira*) edo bestelako aldaketaren bat.

6. ERRUSIERATIK EUSKARATU DITUZUN LIBURU GUZTIETAN ERLATIBOZKO PERPAUSAK BERDIN ITZULI DITUZULA USTE DUZU EDO ALOR HORRETAN DESBERDINTASUNAK EGON DAITEZKEELA PENTSATZEKO ARRAZOIAK DITUZU? ADIBIDEZ, BALITEKE ZURE LEHENENGO ITZULPENAREN ETA AZKENEKOAREN ARTEAN ERLATIBOAK ITZULTZEKO DAUKAZUN MODUA ALDATU IZANA? BEHARBADA ERRUSIAR IDAZLEAREN ARABERA PERPAUS ERLATIBOAK EUSKARATZEKO ERA ALDATU DUZU?

A) Esango nuke erlatibozko perpausak itzultzeko daukadan modua ez dela aldatu liburu batetik bestera.

B) Esango nuke aldaketa kronologiko bat eman dela: hasieran erlatibo arruntak (*etorri den gizona* bezalakoak) gehiago erabiltzen nituela eta gerora erlatibo aposatuak (*gizon bat, zeinarekin asko hitz egin dudan* bezalakoak) erabiltzeko ohitura handiagoa hartu dudala.

C) Esango nuke aldaketa kronologiko bat eman dela, baina alderantziz: erlatibo aposatuak (*gizon bat, zeinarekin asko hitz egin dudan* bezalakoak) hasieran gehiago erabiltzen nituela, eta gerora erlatibo arruntak (*etorri den gizona* bezalakoak) erabiltzeko ohitura handiagoa hartu dudala.

D) Esango nuke nik euskaratutako errusiar idazleen estilo desberdinak direla medio, perpaus erlatiboak itzultzeko modua aldatu behar izan dudala.

7. ZEIN DA *BAIT*- AURRIZKIAREKIN OSATUTAKO ERLATIBOEI BURUZKO ZURE IRITZIA (*Maialenen ostatura hurbildu ziren, Tolosarako errepidean BAITAGO* bezalakoei buruzkoa)?

A) Guztiz onargarri deritzot, baina nik neuk ez nuke erabiliko.

B) Guztiz onargarri deritzot, eta ez daukat arazorik nik neuk erabiltzeko, idatzizko erregistro batean behintzat.

C) Ekialdeko (Iparraldeko) euskalkietako fenomenotzat daukat, eta ez dauka nire idazkerarekin batere zerikusirik.

D) Kausazko perpausak osatzeko erabiltzen dut, baina niretzat *BAIT*- aurritzia ez dago erlatibakuntzarekin lotuta.

E ITZULTZAILEA

1. NOLA DEFINITUKO ZENUKE ERRUSIERAZ IDATZITAKO LITERATURA JATORRIZKO BERTSIOAN ULERTZEKO DAUKAZUN AHALMENA?

A) Oso ona.

B) Ona.

C) Erdipurdikoa.

D) Eskasa.

2. ZUK EGINDAKO ITZULPENAK ZUZENEAN ERRUSIERATIK EUSKARATU DITUZU?

A) **Bai.**

B) Ez.

C) **Errusierazko testua oinarri hartuta, baina beste hizkuntza batzuetako testuak kontsultatuz.**

D) Beste hizkuntza batzuetako testuak oinarri hartuta, baina errusierazko jatorrizko testua kontsultatuz.

OHARRAK: C) aukera markatu badut ere, nahiago dut informatzaile fidagarriengana jo, erdal testuak kontsultatu baino.

3. "EUSKALDUN ZAHAR" ETA "EUSKALDUN BERRI" BEZALAKO TERMINO TRADIZIONALETATIK HARAGO, AZAL EZAZU HITZ GUTXITAN NOLA IKUSTEN DUZUN ZURE BURUA EUSKAL HIZTUN BEZALA.

Ongi jantzia ikusten dut neure burua euskal hiztun bezala.

4. ITZULPENAK EGIN AURRETIK ERRUSIERAZKO ERLATIBOZKO PERPAUSAK EUSKARATZEKO MODUARI BURUZKO HAUSNARKETARIK EGIN ZENUEN?

A) Bai. Erlatiboak errusieratik edo inguruko beste indoeuropar hizkuntza batzuetatik itzultzeko zailtasunen eta itzulpen-aukera desberdinen jakitun nintzen.

B) Banekien, baina ez nuen horren inguruko hausnarketa sakonik egin, eta ez neukan horren inguruan dauden eztabaiden berri.

C) Egia esan, intuitiboki itzuli ditudala esan daiteke, ez bainuen gehiegi pentsatu erlatibozko perpausak euskaratzeko moduari buruz.

5. GURE IKERKETAN ZEHAR ERRUSIERAZKO ERLATIBOZKO PERPAUSAK EUSKARATZEKO MODU DESBERDINAK TOPATU DITUGU. EUSKARAZKO ERLATIBOEI BURUZKO ONDORENGO BAI EZTAPENETATIK ZEINEKIN IDENTIFIKATZEN ZARA GEHIEN?

A) Erlatibo arruntak hobesten ditut guztien gainetik ([*liburu hau irakurri duen*] *gizon bat etorri da bezalakoak*), eta beste guztiak saihesten ditut ahal dudan guztietan.

B) Erlatibo arruntak osatzeko zailtasunak baldin badaude, erlatibo aposatuak osatzea ere hobesten dut (*Badago herri honetan gizon bat, [zeinarekin askotan joaten bainaiz/naizen frontoira]* bezalakoak).

C) Erlatibo arruntak ez ditut bestelako erlatiboen gainetik jartzen, eta inguruko hizkuntzetako erlatibo guztiak *ZEIN* erlatibo aposatuekin itzul daitezkeela deritzot.

D) Erlatibo arruntak ezin baditut osatu, nahiago dut aukeran erlatibozkoa ez den beste baliabideren bat erabili: perpausak banatuko dituen eten bat (*Badago gizon bat herri honetan. Gizon horrekin askotan joaten naiz frontoira*) edo bestelako aldaketaren bat.

6. ERRUSIERATIK EUSKARATU DITUZUN LIBURU GUZTIETAN ERLATIBOZKO PERPAUSAK BERDIN ITZULI DITUZULA USTE DUZU EDO ALOR HORRETAN DESBERDINTASUNAK EGON DAITEZKEELA PENTSATZEKO ARRAZOIAK DITUZU? ADIBIDEZ, BALITEKE ZURE LEHENENGO ITZULPENAREN ETA AZKENEKOAREN ARTEAN ERLATIBOAK ITZULTZEKO DAUKAZUN MODUA ALDATU IZANA? BEHARBADA ERRUSIAR IDAZLEAREN ARABERA PERPAUS ERLATIBOAK EUSKARATZEKO ERA ALDATU DUZU?

A) Esango nuke erlatibozko perpausak itzultzeko daukadan modua ez dela aldatu liburu batetik bestera.

B) Esango nuke aldaketa kronologiko bat eman dela: hasieran erlatibo arruntak (*etorri den gizona bezalakoak*) gehiago erabiltzen nituela eta gerora erlatibo aposatuak (*gizon bat, zainarekin asko hitz egin dudan bezalakoak*) erabiltzeko ohitura handiagoa hartu dudala.

C) Esango nuke aldaketa kronologiko bat eman dela, baina alderantziz: erlatibo aposatuak (*gizon bat, zainarekin asko hitz egin dudan bezalakoak*) hasieran gehiago erabiltzen nituela, eta gerora erlatibo arruntak (*etorri den gizona bezalakoak*) erabiltzeko ohitura handiagoa hartu dudala.

D) Esango nuke nik euskaratutako errusiar idazleen estilo desberdinak direla medio, perpaus erlatiboak itzultzeko modua aldatu behar izan dudala.

OHARRAK: Idazleen estiloa ez ezik, garaia ere kontuan hartzekoa da. Dena den, nik uste dut erlatibozko perpausak itzultzeko daukadan modua ez dela gehiegi aldatu liburu batetik bestera.

7. ZEIN DA *BAIT*- AURRIZKIAREKIN OSATUTAKO ERLATIBOEI BURUZKO ZURE IRITZIA (*Maialenen ostatura hurbildu ziren, Tolosarako errepidean BAITAGO bezalakoei buruzkoa*)?

A) Guztiz onargarri deritzot, baina nik neuk ez nuke erabiliko.

B) Guztiz onargarri deritzot, eta ez daukat arazorik nik neuk erabiltzeko, idatzizko erregistro batean behintzat.

C) Ekialdeko (Iparraldeko) euskalkietako fenomenotzat daukat, eta ez dauka nire idazkerarekin batere zerikusirik.

D) Kausazko perpausak osatzeko erabiltzen dut, baina niretzat *BAIT*- aurrizkia ez dago erlatibakuntzarekin lotuta.